

## Bermiotarra

Proiektu hau **Begoña Bilbao Albonigak** idatzi zauen **Bermeoko berba eta esamolde kresaltsuak** (2002) liburuen oinarritute dau, eta berak ondo diñolez:

Horrez gain, besteren bat edo beste batzuk lan honi jarraipena ematen edo zuzenketak egiten animatzen badira (bizirik banago), aurkituko naute.

Hauri dala ta, berba barridzek sartzien jun gara, eta **Joseba Mikel Ugaldek** idatzi zauen **Ai gure Bermio: esakerak eta izakerak** liburoko berbak eta esamoldiek sartzieko dakuz. **Jose Anton Renteria Anduizan** apunte batzuk be itzi doskuzen Amaia Artetxe Atelak, ia aukerie badakun beragaz egoteko...

Begoñak idatzi zauen liburuek copyright-e dako, eta ni proiektu honegaz copyright-en intsumiso ein nai; ze zentzun dako holako kultur proiektuek liburutegiko baldan ustelduten ikustiek? Neuretzako bapez. Kontran Joseba Mikel Ugalden liburuek **Creative Commons CC-BY-NC-SA** lizentzidxe dako.

Haulan da ze, eindxun bihar dana publiko dau interneten, edonok parte hartzieko, berba barridzek sartuteko, edo sortu dun arkitekturiegaz beste proiektu batzun oinarridxe ezateko eta abar.

Haurreitxik, hametik bertotik eskatuten tsatie erakunde publikueri herridxeri dagokitsozen proiektu kulturalak lizentzi librietan sortuteko.

Neuk eindxotenak, lizentzidxe **GPL 3.0** dako.

Proiektuen web orridxe: <https://bermiotarra.zital.eus>

Esker berezidzek:

- Joseba Martos
- Iñigo Aldai
- Dorleta Kortazar
- Ainhoa Astui
- Iñaki Monasterio Allika
- Miren Aizpurua Bilbao
- Tessa Andonegi Santamaria
- Lander Telletxea
- @montantxo / twitter
- Biotz Fradua Agirre
- Txus Ordorika Prieto
- @xo\_lomo / instagram

- Miren Karmele Beitia Esteban
- Jon Zarate Fradua
- Igor Etxaburu Bulukua
- Iraia Larrozea Zuazo
- Aner Uriondo
- Amaia Kapanaga Loyola
- Gotzon Unanue Mentxaka
- Iñaki Vara Altonaga
- Gorka Sanchez
- Adolfo Arejita
- Mikel Larruzea
- Aitor Atutxa Larrinaga
- Agurne Gaueka
- Aaron Llorens Allika
- Iziar / @urriko18 / instagram
- Madalen Lopez Gangoiti
- Eneritz German Zabala
- Oier Gorosabel Larrañaga @txikillana / mastodon
- Aritzatxuko andrak
- Osoitz Elkoro Barrutia (Diseñuegaitxik)

iban

## Begoña Bilbao Alboniga

Liburu honetako berba bakoitzean,  
bermeotar askoren boza dago,  
batez ere, nire familiako jendearena,  
gaur ez daudenak nire ondoan,  
ama, aita eta Miren, nire ahizparen  
ahotsak, eta bereziki nire senarrarena,  
zurea, Manu. . . , zu barik ez zen  
posible izango lan hau burutzea.

Maite zaituztet

### SARRERA

Aurretik dagoen eskaintzan azaltzen den bezala, bermeotar askoren ahotsa dago jasota liburu honetan, baina, aitortu beharra daukat, bi liburuak burutzeko orduan, era askotako laguntza izan dudala, eta, batez ere, ulerkortasun handia. Pazientzia eskerga izan dute askok nire etengabeko galderei erantzuten. Urteetan zehar galdetuak izan diren pertsonak kontaezinak dira, adin guztietakoak eta sexu bietakoak. Euren artean, ia laurogeita hamar urtetik gora dauzkatenak, eta burua oso argi oraindik. Beraz, eskerrak emateko orduan, denok hartzen zaituztet besarkada baten, eta bihotz bihotzez eskerrak ematen dizkizuet.

### NOLA SORTU ZEN LANA

Lan hau, karrera amaitu eta lasterrera, doktoretza tesia egitea pentsatu nuenean hasi zen sortzen. Aurretik bizpahiru lan, txikiak, eginda neuzkan Deustuko Unibertsitatean ikasten jardun nuenean. Fontso Irigoien (goian bego), nire irakaslea izandakoak animatu ninduen, eta bere burua eskaini ere bai nire tutorea izateko. Hau ere kontutan izatekoa da. Baina, astirik ezaz, hor geratu zen proiektua.

Bi urte beranduago, Bizkaiko Foru Aldundiak ematen zituen beketara aurkeztu nuen lan hau, eta beka lortu ere bai.

Hiru urte geroago, Bermeoko Udalak emandako bekari esker, Bermeoko Euskara: Aditza eta Fonetika lana burutu nuen. Orduan bi lanak batera argitaratzea pentsatu nuen, eta horrela proposatu nion Udalari. Ontzat hartu zuen nire proposamena, baina gaur arte ez dut izan argitaratuta ikusteko zoria. Eskerrak, sekula ez baita berandu, azkenean burutzen badira.

### LANAREN ZERGATIA

Askotan galdetu didate, lan hauen berri izan duten askok, zerk eraman edo bultzatu ninduen lan hauek egitera. Erantzuna ez da bat ere sinplea, faktore asko izan direlako lanean jarri nindutenak. Baina, euretariko bat, garrantzitsuenak beharbada, hain berezia eta aberatsa den mintzairatik berbak galtzen doazela

ikustea konturatzea izan zen. Eta anekdota bat kontatu barik ezin pasatu: Bermeoko berbak batzen, Frankoren demanduan hasi ginen lagun talde bat. Bakoitzak batzen zituenak taldeko bati ematen genizkion gordetzeko. Asko ziren bildutakoak, taldekide horren amak, momentu batetik bestera **sekretak** bisita egitera joango zitzaizkienaren susmoa hartu zuenean, beldurraz sutara bota zituenean. Gero, neu bakarrik hasi nintzen lan horretan, baina guztien laguntzaz.

Hemen agertzen diren berba asko galdua edo galtzeko zorian daude. Hizkuntza batek beherantz egiten duenean, laster galtzen dira berbak, esamoldeak, eta abar; baina badago beste faktore bat galtze honen arrazoia dena: berba landuak erabiltzearen alde egiten dugula, geure geureak direnak baztertuta.

Baina, esan beharra dago, orainsu egindako hiztegieta badatozela guk erabiltzen ditugun berba batzuk, lehen agertu ere ez zirenak egiten. Eta, egia esan, hori poztekoa da. Horregatik, bide horretatik jo behar dugu, geuk ere, galdua edo galtzear dauden berba horiek berreskuratu egin behar ditugu. Eta hori da nire lanaren helburua. Beharbada idatzita ikustean garrantzi gehiago emango diogu geure altxorra den hizketa berezi horri. Gainera, idatzita utzi ezker, betirako geratuko da hor. Beste askok egin dute, beste hizkera batzuen azterketa eta bilduma. Beraz, lan hauek beste batzuk egiteko atea irekitzen badute, nire helburua beteta geratuko da.

Lan honetan agertzen diren berba eta esamoldeak, portzentaia handi baten, Bermeon bakarrik erabiltzen direnak dira. Askotan Mundakan erabiltzen direla esaten da, baina, seguru, hori ere geurea dena.

Esamolde bakoitzak bere filosofia dauka. Esaldietan, Bermeoko giro, egoera, bizimodua, ekonomia egoera, arrantzako gora-beherak, baserrikoak, ohiturak, janzkera, eta abar, islatzen dira. Eta hori, neuk nahi izan barik, lanak berak eraman nau berak nahi izan duen esparrura, eta nik amen esan diot. Bermeo ulertzeko modu berezi bat, bere berbak eta esamoldeak ezagutzea da zalantzarik gabe.

## LANARI BURUZKO AZALPENAK

Hasiera baten, itsas giroko berbak izan ziren: arrain eta txorien izenak, arrantzako tresneria, itsasontzietako eta arrantzako egoera eta lanak, eta abar oso luze bat definitzeko berbak. Baina, esan bezala, urte asko pasatu denez, tartean Anton Perezen **Bermeoko Herri Hizkera** eta Eneko Barrutiaren **Bermeoko eta Mundakako Arrantzaleen Hiztegia** argitaratu direnez, beste bide bat hartu nuen. Beraz, arrantzale giroak daukan eragina Bermeoko eguneroko hizkeran kontutan harturik, eta itsaso, arrain, arrainontzi eta arrantzari buruzko elementuak, deskribapenak, metaforak eta konparaketak egiteko erabiltzen direla ikusita, guzti hori adieraziko diguten berbak eta esamoldeak bakarrik uztea erabaki dut. Hala ere, bateren batzuk geratu dira barruan.

Bermeoko euskara oso bizia da, baina gogorra ere bai, askotan erasorako eginda

dagoela pentsatzen dut. Kostaldeko euskara horrelakoa dela esan ohi da, baina badago diferentziarik. Bizkaian, Ondarru eta Bermeokoa dira gogorrenak, tonu biziagoan mintzatzen gara, Elantxobekoa ere bai apur bat, baina Lekeitiokoa oso mantsoa da.

Adibide ugari jarri da. Ez dakit zenbat. Milaka dira esaldiak. Bestalde, berba asko kendu beharra egon da, gehiegi luzatzen joan baita lana. Beste batzuetan, hitzaren forma guztiak hartu dira, hau da, izena, aditza eta adberbio forman sartu dira.

Erdaratik hartuta dauden hitzak geureganatzeko gaitasuna izan dugu beti. Gaurko gaztelanian erabili ere egiten ez diren berba asko, eta konkretuki, Amerikako leku askotan gordetzen direnak dauzkagu geureganatuta eta geure erara erabilia. Baina, egia esateko, inork ezin igarri erdaratik hartuta daudenik.

## BERBA ETA ESAMOLDEAK ETA EUREN ZENTZUA

Askotan, hitzaren zentzu zehatzean barik, beste zentzu bat emanda agertzen dira. Horregatik, testuinguru baten sartuta hobeto ulertuko dugu zer nahi duen esan. Esamoldeetan ere berdin gertatzen da. Eta hauen esanahiaz jabetzeko, esaldia irakurtzea baino ez dago, hortik aterako baita zentzua. Hori bai, pazientzia eskatzen du ariketa honek. Baita bermeotarrentzat ere.

Gainera, liburu honek beste zerbaitetarako ere balioko duenaren itzaropena daukat, hau da, eztabaidarako: etxekoen artekoa, kalean sortu daitekeena, kritikarako (ni prest nago kritika guztiak onartzeko), eta abarrerako. Horrez gain, besteren bat edo beste batzuk lan honi jarraipena ematen edo zuzenketak egiten animatzen badira (bizirik banago), aurkituko naute.

## OHARRAK

- Ortografia errespetatu den arren, **h**-rik ez da sartu.
- Maileguzko berbetan, **j** beloko frikari gorra, bere horretan utziko dugu.
- Bustidurarako joera horregatik, askotan, **z**  $\rightarrow$  **x** egingo dugu.
- Batzuetan adizkien forma ezberdinak agertzen dira: **emon** / **omon** edo **etor** / **otor**. Horrek esan nahi du biak erabiltzen direla, testuinguruaren arabera.
- Berba batzuk, hiztegietan zer nolako definizioz agertzen diren azaltzen dira. Ez badago azalpenik hiztegietan agertzen ez delako, edo gaur egun zentzu konkretu bakarria ematen zaiolako izan da.
- Ahalik eta argien jartzen saiatu arren, ezinezkoa gertatzen da gehiengotan, laburpenak asko direlako, hizkuntza askotan gertatzen den bezalaxe. Aditza eta Fonetika liburuan, Bermeoko euskaran sarrien ematen diren aldakuntzak azaltzen dira. Baina horiek idatzita ikustean, oso zail egiten

zaigu ulertzea. Esaterako — eta batzuk bakarrik aipatzearren — honela egiten ditugu honako hauek:

- izan → ezan
- behar → bi
- begiratu → beitu
- dogu → du
- egingo → ingo/ingu
- ezer ere ez → ezebez
- Askotan agertzen da **ts** → **tz** eginda, hori baita gure joera. Biak agertzearen arrazoi berezirik ez dago.

**j** eta **dx** grafiak:

- Aparteko azalpena behar du **dx** grafia honek. Lan osoan ikus daitekeenez, grafia horrek ordezkatzeko **j** [dʒ] sabai-aurreko afrikatu ozena, eta **j** [ʒ] sabai-aurreko frikari ozena. Ez genuke idatzi behar horrela, ez delako Bermeoko hizkeran erabilitako soinua. Oraindino ez dakigu nola konpondu soinu hori irudikatzen duen grafiaren arazoa. Baina ez daukagu beste biderik. Nik aspalditik erabiltzen dut **dx** hori, nahiz eta gustukoa ez izan, zeren, badakit, ez dela egokiena, **x** sabai-aurreko frikaria izan arren ahoskabea da, eta guk egiten duguna ozena da. Baina zerbait behar eta hori hartu dut. Grafia hori, edo besteren barerabiliko ez bagenu, bustidurak nagusi diren Bermeoko euskara idatzian **j** baino ez genuke ikusiko, eta orduan bai gertatuko litzaigukeela zailagoa ulertzea. Bermeoko euskara idatzian honelakoak ikusi ditugu: **jj**, **ds**. **j** eta besteren bat ere bai, goian aipatutako soinuak ordezkatzeko, baina horiek askoz ere desegokiagoak direla uste dut.

Dena den, **dx** grafia horren alde, duela urte asko agertu zen Azkue. Ortuzarrek ere, 1925ean argitaratu zuen bere **Oroigarriak** liburuan ere grafia hori erabiltzen du.

## A

### A KOMO LA BARA BEZ

Kasurik ere ez.

- *kalien topa dotez bera ta aitzie, da berak a komo la bara bez*
- *zeu pe ez eiñ a komo la bara bez, berak eintzun moduen*
- *danak on gariez arraiñe saltzien, da iñok a komo la bara bez*

Gaztelerazko **a como la vara** esalditik literalki hartuta dago.

### A ZELAKO...!

Harridurazko lokuzioa da.

- *a zelako berdelagaz etor dan etzera! Mandaz mandazka*
- *a zelako etzie erosi dauen!*
- *a zelako eraztune erosi tzon amaiñarrabak!*

### ABANTE

Hasieran itsasoan erabilitako hitza izan arren, gero herrira pasatu da eta zerbait martxan jartzea da, pertsona, animalia odo gauza.

- *kotxie abante dako*
- *erlojue abante dabil*
- *imiñi telebisiñue abante*

Hitz hau **abante** hitzetik dator. Arraunketan erabiltzen den hitza da.

Baina **abante etzera** ere esaten da. Beraz, Azkuek, **remar** zentzuarekin jaso duen hitza, beste kasu batzuetara zabaldu da.

### ABERIDXE

1. Matxura.

- *makinie aberidxe da! Non dau makinistie?*

2. Zoratuta egon.

- *zelako aberidxe dakon honek morroiek! Ez tau ondo burotik*

### ABERKETIE LEZ

Aberketa baten moduan: siku edo gogor adierazteko.

- *au okelie aberketie lez dau*
- *dzan duzen txuletak aberketie baiño gogorrau on zien*
- *geuri emon doskune be aberketie lez on da*
- *aberketarik pez sikuau au arraiñe baiño*

## ABILLARIÑE

Zentzu gabeko pertsona.

Adjektibo moduan. Gehienetan gizonezkoei aplikatzen zaie.

- *orren gizona abillariñe da*
- *abillariñe aiz i*
- *ez ezan (izan) abillariñe*

Bi adjetibok osatzen duten hitza dela dirudi:

**abilla** + **ariña** → **abillariña** → **abillariñe**

Baina beste hipotesi hau ere kontutan har daiteke:

**abill** + **ariñ** aginte erako forma, hain zuzen.

## ABILLE

Gaitasun edo abilezia handiko pertsona, baina batzuetan makina edo gauza ere bai.

Baina, adjektibo moduan, edozein pertsona edo gauzari aplikatzen zaio: It-sasontzi bat, kotxe edo makina bat, pertsona, eta abar.

- *gure mutille abille da dibujuek eitzen*
- *ori kotxie abille da errebueltadatan*
- *esnedunen astue abille da ostikadak emoten*
- *onek artazidzek abillek tiez ebaitxen*

Gaztelerazko **hábil** hitza erabiltzen da.

## ABOGADESIE

Hitz egiteko erraztasuna daukan emakumea.

Hitz hau oso zaharra da, emakumezko abokaturik ez zegoeneko, hain zuzen. Baina arraroena da gazteen artean ez dela entzuten, nahiz eta, gaur egun, emakume abokatu asko egon.

- *ori abogadesie dozu berbetan*
- *eztan abogadesarik pe orrelakorik*
- *niri ez eñ abogadesie lez berba*

**abogada** + **sa** → **abogadesa -sa** atzikia gaur egun erabiltzen ez dan arren, Bermeon oraindik erabiltzen da.

Adjektibo moduan eta askotan substantibo legez.



## ABORROTZA

Zarata handia.

- *su ta gar-en konziertuen aborrotza zer on da ba!*
- *Sorgerth-en konziertuen bai on zala aborrotza, kantantieri osti erdi be entenidu bez!*

## ABORROZITE

Aspertuta.

- *aborrozite nau berton deberak eitzen*
- *gaur aborrozite, baie atzo parrandan elegante!*
- *Ateletin partidue total txarra, aborrozite on garizen arrausike denpora guztidxen*

## ABREBIDXUE

Energia handia lanerako. Azkar ibili.

- *artun abrebidxue, gaurko da ta*
- *abrebidxugaz eitxen txuz biarrak*
- *abrebidxo bako gaztiek takuz frabiken*

Gaztelerazko **abrebiar** aditza dugu. Baina substantibatu egiten da, nahiz eta aditz bezala ere erabili:

- *abrebidxe berandu ein orduko*
- *abrebidxe gaitezen gaue ganera etor baiño lelau*

## ABROSIDU

Aspertu. Gogaitu.

Aditza, baina adberbioan ere ager daiteke

- *abrosidu-abrosidu ein gara berari begire*
- *abrosidute nako onek imiek*
- *abrosidute urten du ziñetik; pelikulie zantarra ezan da eta*

Askotan adberbioa danean, **du** partizipio barik erabiltzen da:

- *abrosite on gariez da dxun ein gara*

Edo, gerundioa danean, beste era honetara:

- *orduetan egon gara bertan abrositen*

Ziur aski, hitz hau erdaratik sartu da, baina hitzaren etimologia nekez ikus daiteke. Bi hipotesi erabil daitezke hitz honen jatorria adierazteko:

Bat gaztelerazko **aburrir** hitzetik datorrena, eta bestea, gaztelaniako **aborreecer** hitzetik datorrena.

1. **aburrir + du** → **aburridu** → **abrurridu**, **r** bat desarroilatu du asimilazioz. Gero, disimilatzeko **s** sartu da eta honela: **abrurridu** → **abrusidu**.

Baina disimilatzeko **u** → **o** bihurtuz **abrosidu** eman du.

2. **aborreecer + idu** → **aborrezidu** → **abrozidu** → **abrosidu**.

Azken honek egin du biderik laburrena, eta zentzua ere egokia dela dirudi, jasanezinezko goera gorrotatzen duela esateko balio baitu.

Gazteen artean, hau da hamazortzi urtetik beheranzkoetan galtzen ari bada ere, oso erabilia da oraindik. Gainera, askotan errepikatu egiten da hitza, goiko esaldi batetan ikus daitekeen bezala, agian enfasi gehiago emateko.

## ABUXE

Arrain oso txikia eta zuria, odol gabekoa. Bokarta antzekoa da. Konparazioan erabiltzen da, eta bi esangura dauzka:

1. Pertsona hotza.
  - *zu beti zara otz, abuxe zara ela?*
  - *abuxek paño odol gitxiu dako arek, beti dardakadan*
2. Energia edo odol gabeko pentsa.
  - *abuxe aix i, mobidu be ez aix eitxen da*
  - *odol bako personie da a, abuxe lakue*

**abixoi** hitzaren aldaki bat dela dio Azkuek. Hala ere Bermeoko hitz bat bezala azaltzen du.

## ADARRAZTO

Hitz hau oso arrunta da Bermeoko hizkeran. Ez da irain bat, ezta mesprezuzkoa ere. Gehienetan ez da zentzu peioratiboan erabiltzen. Gehiago barik esaten da.

- *txo, adarrazto, dxungo zara partidora la?*
- *adarrazto aix i, ez dok ikusten aurrekue la?*
- *ori adarrazto bat da, andriek adarrak imin tsoz*

Azken kasuan zentzu zehatza hartzen du.

## ADIBIÑADORIE

Aztia, baina emakumea.

Izena eta adjektibo zentzua har dezake. Baina konparazioan ere ager daiteke.

Izen hau, ez da entzuten gazteen artean, baina bai hogeita hamaer urtetik gorakoetan.

1. Esanahi konkretuan.

- *Mundekako adibiñadoriene guez*

2. Konparazioan.

- *zelako adibiñadorien antza dako ba*
- *adibiñadorie lez due dxantzitze* (soineko nabarmenez jantzita doanean)

## ADUE BAKUE

Ganora gabekoa.

- *aren gizona adue bakue da*
- *onek sagarrak adue bakuek tiez*
- *guk ikusi dun pelikulie adue bakue ezan da*

## AFA-AFA

Oso hanpatua. Figuratiboan gehienbat.

Hanpatuta dagoen edozein gauza.

- *komoniñoko erropie erun dau afa-afa*
- *baitxe uliek pe afa-afa erun txuz*
- *niri edxastez gustaten uliek afa-afa erutie*
- *ogidxe be afa-afa dau*

## AFAFANIE

Alua. Emakumearen genitala deitzeko erabiltzen den hitzetariko bat.

- *ikarie dakotzu arek afafanie ikusi barik*
- *afafanako miñe dakot da eztaitx zerena dan*
- *neuk pe imie okiñ dxotetik eta ona dakot afafanako miñe*

## AFROIE

Bi zentzutan ager daiteke:

1. *tarzan* itxurako edo *matoi* antza ematea nahi duen gizona.

- *afroie zara la txo? Nor ilko zu ba?*
- *bestelako afroie dau or, pentsaten dau King Kong dala*

2. gizon itxurosoa eta galanta.

- *zelako afroie da ba, pelikuletako gizonak lakue da*

Hitz berria dugu. berrogehi une inguru izango du, arrantzaleak Afrikara joaten hasi zirenekoa dela eta **afro** hitzetik hanutakoa dela dirudi.

## AFRONTOSUE

Mendebaleko haize indartsuari aurre egiteko modukoa. Itsasoko terminoa da.

**Afrontue** hitza kontutan izanik, afrontuari aurpegia emateko ahalmena daukan itsasontziari dagokio.

- *ori bapora afrontosue da*
- *ez da kapaz arpeidæ emoteko afronturi, ez da afrontosue*

Arrantzale giroan erabiltzen da.

## AFRONTUE

Bi zentzutan erabiltzen da:

1. Haizeak indartsu jotzen duenean.
  - *afronturi arpeidæ emon bi dxako*
  - *afrontue datorren lekutik ez tiez ein biar bentanak*
2. Fanfarroia
  - *afrontue lako morroie dozu ori*
  - *iñok auentako ete dau afronto orregaz?*

Azkuek **intemperie** hitzaz definitzen du, D.A.R.k ostera zera dio: **en Elorrio se dice del sitio azotado por el viento y la lluvia que viene del norte.** Bermeen ere honen antzeko definizioa dauka, baina ipar-mendebaldeko haizeak gogorrago jotzen duenez, gehienetan horri dagokio.

## AGARRAKERAK

Enbarazu sintomak. Haurdun jausten den emakumeak sentitzen dituen egoneziak eta goralarriak.

- *zer? agarrakerak takozuzen antza dako zu*
- *ezta etorri agarrakerakaz dau te*
- *gonbitxoka on nai; agarrakerak dakotez antza*

## AGIXON

Aizu, gizon!

- *agixon ze ordu de?*
- *agixon, arek andriek esan dau dxuteko*
- *agixon sagar bat ekau*

**aizu gizon** → **agixon**.

## AGIÑE GOGOR

1. Ekonomikoki fuerte.
  - *loteridzek urten tzonik eta ona, agiñe gogor dako arek*
  - *ene alabie! bakigu agiñe gogor dakozune, baie trankillau!*
  - *agiñe gogortu ezkerro datozela datozenak*
2. Finko mantendu.
  - *agiñe gogor dako arek, eztau iritzidxe kanbidzeko*

## AGIÑE-AGIÑE DXOTEN

Dardarka hotzaz.

- *ekar dauen aixe otzagaz, agiñe-agiñe dxoten on nai*
- *euri zaparradiak atrapata agiñe-agiñe dxoten on biar*
- *ainbeste denporan uretan egon da agiñe-agiñe dxoten dau*

## AGONIKO KANPAIEK DXO

Mehatxua. Haserrekuntza baten botatzen dena.

- *ixillik ezpazauz agoniko kanpaiek dxoko dauie*
- *agoniko kanpaiek dxoko dauien amenazue bota tzo*

## AGUAZERA

Euri-zaparrada.

- *zelako aguazera atrapa gaitxuz ba*
- *au aguazera baiño ezta, laster pasako da*
- *au aguazera pasaten danien dxungo gara*

Baina beste zentzu batez ere erabiltzen da, hau da, gaztelaniazko **nos ha tocado la negra** esateko adibidez.

- *an, dxo gaitxuz aguazera*

## AIBA

1. Harridura, sentimendua, samina, alegrantzia edo haserrea adierazten du hitz honek, segun eta nolako tonuaz esan.
  - *aiba! eztot dxakiñ ori pasa danik* Sorpresa
  - *aiba, asko sentiten dot* Samina
  - *aiba...! Dxakin dxot nik ori eingo zuna* Haserrea
2. Hartu! Beste zentzu bat *hartu* izango litzateke.

*aiba hau dirue da erosi zeuk guzune*

Azkuek Zuberoan erabiltzen dela dio, Garazin hain zuzen, zaldiak ibilarazteko.

## AIDERA

Airera. Esanak edo gauzak airera jaurti eta harrapatzen direnean.

- *aidera bota ezker, aztu eitxen da*
- *aidera bota itxuz arek baten batek atrapako itxuzelakuen*
- *ez bota aidera, emon eskure*

## AIDIEN

Bi eratara erabiltzen da:

1. Begi-bistan. Gauza guztiekin erabiltzen da, adibidez:
  - *beran ingiru guztidrek aidien dakoz*
  - *dxakin biar eztizen gauzek aidien dabilz*
2. Kaka saltzera bota. Kasu honetan ere pertsona edo gauzeekin erabiltzen da:
  - *dxo ta aidien bota dau gizona*
  - *diro guztidrek aidien bota txuz*
  - *adien bota kotez zapata zar guztidrek*

## AIDXENA

Ontzia amarratzeko leku propioa. Kasu honetan Artzan. Portualdean edo arrantzale eta hauen inguruan erabiltzen da.

Berba hau modu berezian erabiltzen da ekonomia arloan.

- *aidxenak sikatute daus* Pluralean, dirurik ez dagoenean.
- *aidxena bero dako orrek* Diru asko dagoenean.
- *aidxenak bajaten dizenien dana dau txarto*
- *len kukurruku eindxe on dxatzuz, baie orain aidxenak bajata dauz*

Azkuek **aien** jartzen du eta Bermeoko hitza bezala jaso du.

Hitzaren jatorria **aihen** (tallo) izan daiteke, amarratzeko zutoiak ere sustraiak lurrean sartzen diren moduan jartzen direlako.

## AIDXENEKUE

Ontziko gizonen artean gazteena. **aidxenekuek** zeregin ezberdinak betetzen ditu. Errekaduak egin, itsasontzia garbitu, gizona orduak eman, eta abar luze bat.

- *bapora garbitxu? hori aidxenekuek ein bidau*

- *aidxeneko mutilleri esan, bidzar zortziretan etor bidauela*
- *aidxenekue falta da, non sartun de ba?*

Arrantzale giroan bakarrik erabiltzen da.

## AIDXUBETA / ADXUBETA / ADXUETA

Oinetakoen lokarriak edo zintzak.

Nahiko galdurik egon arren, gazteen artean ere entzuten da. Askotan, eta Bermeon, palatalizatzean aurreko **i** ez da galtzen. Hala ere, **adxubetak** ere esaten da. Askotan **b** galdu egiten da.

- *plaiertako aidxubetak loi dakozuz*
- *adxubeta bako zapatak komoduauk tiez*
- *zapatatako aidxuetak galdute etor da*

## AIDXUDIE

Aiuta. (labatiba)

- *ez pazu gure au, tire aidxudien artzien*
- *jun zaitzez aidxudie artzien enau zeuri begire ta*
- *emon aidxudie, arek eztau irebaziko partidue ta*

## AIENA

Iraina.

- *andereño Karmele gora-goraka imindxasku aienak esaten*
- *esan dauzen aienakaz jesukristo be gurutzetik eskapa da!*

## AIKAMEN

Oihu edo harridurazkoa.

Hurren datorren hitzaren partikula + toki erakusle bat hartzen du: **aiko hemen!**

Zentzua harridurazkoa izango da ia beti.

- *aikamen gure mutille!*
- *aikamen aspaldiko lagune!*
- *aikamen neskatillik ederrena!*

## AIKO

Mesprezua edo gutxiespena adierazteko erabiltzen da.

- *aiko or, grakue*
- *aiko! ministrun semie zarala?*

Azkuek, zentzu honetaz, Ondarrun jartzen du bere hiztegian.

## AIKO MAIKO

Aitzakia.

- *ez ibilli aiko-maikotan, da egin eitxeko dakozune*
- *beti dakozu zuk aiko-maikoren bat*
- *aiko-maiko asko dako arek*

Azkuek hartu du bere hiztegia, eta beste herri batzuen artean Bermeo aipatzen du.

## AIMARI PRUSIMIE

Abe Maria Purisima.

Oraindino adineko jendeak, hau da, hirurogei urtetik gorakoek, etxean sartzekoan esaten dute.

- *aimari prusimie, egunon danori*

## AISTIE

Erdi edo oso gezurtia. Zentzu ezberdinaz erabilia.

- *aistie zara txo! Ori esan guri?*
- *aistie da a, ez siñistu ezebe*
- *aiestaue da, badaezpadakue da txo*

Azkuek interjekzio moduan sartzen du bere hiztegia. Baina D.A.R.k, Ortuzar aipatzen du, eta honek Bermeoko hizkeran idatzi zuen.

## AITXEÑARRABAKIDXE

Aitaginarrebagai.

Oso normala da, **-ki** atzizkia erabiliz honelako formak egitea.

- *zeure aitxeñarrabakidxegaz ikusi dot*
- *beran aitxeriarrabakidxe ezango dana etorri da*
- *aitxeriarrabakidxe ill dxast*

## AITXIK

Horregatik. Kausaletan erabiltzen da. **hagatik** hitza laburtuta.

- *ori olan bada, aitxik ezta etorriko*
- *aitxik esan dau arek Bilbon ikusi dauela*
- *eztauelez ikusten, aitxik eztau ezetu*



## AITXIKO

Horrela delako.

Biak erabiltzen dira. Oso erabilia. Kausal kutsua badu ere, askotan ez da bere zentzu konkretuan erabiltzen, agindua ere barnean baitarama.

- *zelan ez zara etorri ba? Aitxiko!\**
- *baie, zeitrik tiñozu ori ba? Aitxiko, diñotelakon*
- *Zeitrik einzu ori? Ba, aitxiko, ein dxotelez ba, aitxiko*

Ikusten denez, errepikaturik ere agertzen da. Beraz, moduzko esaldiak ere egin daitezke eta galderaren erantzuna berdina izango da Fonetikazko arazoak direla eta, **ti** horri **o** gehitu izan zaio. Baita palatalizatu ere, Bermeoko ohiturari jarraituz.

## AIXARRA

Arrain txikiak harrapatzeko erabiltzen da karnata moduan; harra edo zizarea hobeto esanda. Baina, gehienetan, arrantzarako ez dira erabiltzen haitzetako **aixarrak**, portuko lokatz edo **kakabelena** deitzen den harea lohietakoak baizik.

- *aixarretan nuen porture*
- *arrañtzen dxun gure bazu aixarrak atrapa bizuz*
- *aixarrik ezta lez on enai dxun arrañtzen*

Hitz honen konposizioa **aitz-harra** da; beraz, **aitzarra** → **aizarra** → **aixarra**. Ikusten denez **i** ez du galtzen, nahiz eta **z** palatalizatu.

## AIXE BENERUE

Haize oso hotza.

- *bera aixe benerue azurretan be sartun eitxen ezan da*
- *zer da aixe berenue dauena! Onek aixiek eitxen txuz larrosa guztidzek erre*
- *itxosotik datorren aixe berenue edonondik sartzien da*

## AIXE BERTIE

Itsasoko ipar-haizea. Hotza. Arrantzaleen artean asko erabilia, baita herrian bertan ere.

- *aixe bertie dakar*
- *otz asko pasa du, aixe bertie on da ta*

## AIXEBIE

Haizetik babestutako leku bat. Itsasoan erabilia, herrian ere normalki erabiltzen da.

- *plaidxen aixebetxue topa ezkeru ondo oten da*

- *aixeberik ez tauen lekuen eta aixe handidxe badau, ezindxe morenatu*
- *aixebetxuen para, da bertan lo*
- *aixebie eitxen dan lekuen eiñdxauie etzie*

## AIXERRIKUE

Fanfarroia.

Hego-haizeak gauza guztiak hanpatzen dituzenez, konparazioan erabiltzen da:

- *aixerrikue da ta enfada-enfada eitxen dau jentie*
- *amen dator aixerrikue, laster hasiko da arrokeidzek kontaten*
- *bestelako aixerrikue da bera*

## AIXETIK

Figuratiboan zerbaitek ihes egin, adibidez diruak eskapatu.

- *aixetik eintso irabazitxe okin dxauen diruek*
- *atrapata okindru te aixetik eiñ dxosku*

**egin** aditzarekin erabiltzen da.

## AIXETSUE

Uzker asko botatzen duen pertsona, batez ere umeei aplikaturik.

- *au imie aixetsue da, beti dabil uzkerak botaten*
- *amari emon dau, zeu be aixetsue zara ta*

## AIXETU

Hotza harrapatu.

- *onek imiek kalenturie dako; kalien aixetu eiñ dxe ta*
- *gau txarra pasa dot, Lameran aixetu ein naielalo*
- *tripek dakotez aixetute, beti nai kakalarri*

## AIXETZA / IE

Haize handia, gogorra.

- *aixetza mando batek atrapa gaitruz da, ez gaitruzuenien eruen*
- *aixetza handije dau, eztauietxosora urtengo*

Neurtzeko bi posibilitate erabiltzen dira: **tza** eta **mando** eta **handi** hitzak.

## AIXIE

### 1. Fanfarroia.

- *zelako aixie da ba, auentako ete du!*
- *ori bakixu zer dan, aixie ederra, aixe-errotie da*

Esaldiaren bigarren zatia, adjektibo edo sustantibo batez indartuta agertzen da.

### 2. Egonkortasun gutxiko pertsona.

- *aixie lez dabill, arin ara, arin ona*
- *aixetxue be bada ta, bidau astuntasun apur bet*

Beraz, hitz honen zentzua bikoitza izan daiteke. Alde batetik, pertsona fanfarroia definitzeko eta bestetik, arintasuna edo arinkeria.

## AIXIE ARTZIEN

Antzarrak ferratzera bota.

- *tire aixie artzien, etzut erosko ta*
- *aixie artzien bota dau beran jenidxo guztidxegaz*
- *tire aixie artzien, aixie artzien dxuen, enai mobiten ametik eta*
- *aixie artun, artun aixie; etzut esango*

## AIXIE EMON

### 1. Haserretu. Antzarrak ferratzera bidali.

- *an, asarratu diez, emon tzo aixie*
- *asarratu dost Zarautzeko andobie, emon dost aixie*

### 2. Gastatu.

- *Bilbora dxun dxatzuz arek, diruei aixie emoten*
- *zer, emon tzazu diruei aixie? Oiñ amarik eztau etzien, ezta?*

## AIXIEN BARRURE

Itsasoko terminoa da, baina herrian ere aplikatzen dena. Itsasontzia haizearen barrura doanean esaten da, baina pertsona, animalia edo beste edozer izan daiteke.

- *denpora guztidxen dxun garizen aixien barrure*
- *asto koitxadue beran karga matxugaz aixien barrure arpeidxe emon eziñik*
- *aixien barrure eziñdxe ibilli*

## AKARRETIK (BERA)

Atea markotik atera.

- *emontson golpigaz atie be akarretik bera bota dau*
- *atie pintxeteko akarretik kendu bide atie*

## AKEL

Likorea. Edaria.

- *beran egune ezan dalez, akel ekar dosku*
- *akel barik eztau alegrentzirik*
- *esan ba! Akel edan da gero danak mozkorrik*

## AKELEGAZ

Mozkortuta.

- *andra mari egune be badalez, akelegaz zeledra bide*
- *akelxugaz jun nai oire*

## AKOMOTIDU

Alamena eman. Agindu kutsu bat ere badauka.

- *orrek imiek akomotidu dost zapatak erosi bitzatezela*
- *da zuk akomotiten dostazu dxun ein binaiela*
- *akomotitso etzie erosteko*

Hitz honen aldaera bat **akometidu** da, eta D.A.R.-n agertzen da Bermeokoa dela aipatuz.

Gaztelaniazko **acometer** dirudi; beharbada hori izan daiteke hitzaren etimologia, gero beste zentzu bat hartu badu ere.

**acometer + du** → **akometidu / akomotidu**.

## AKORDA

1. Itzartu.

- *akorda naienien berandu ezan da*
- *zortziretan akordako zaitxut*
- *goizetik akorda nai baie gero luek artun nau ostabe*

2. Gogoratu. Gaztelerazko **acordar**-etik dator.

- *azterketie dakotela akorda nai, eta eztoz ikasi!*

## AKULEKEIDXEK

Aitzakiak.

Aitzakiak dira. Gehienetan pluralean. Baina singularrean ere erabiltzen da, gutxi baino ez bada.

- *beti zabilz zu akulekeidxetan*
- *akulekeidzek takoz orrek, dauen lekotik ez altzateko*
- *beti ataraten dau arek akulekeidxen bat biarra ez eitxeko*

Azkuek ez du jaso bere hiztegian, baina bai D.A.R.k. Honek Etxeita aipatzen du; Mundakan ere esango zen garai batetan, baina Bermeon, oraindik, bizi-bizirik dago. Agian hitz honen egiazko jatorria -akiakula- hitza izan daiteke, baina Bermeon joera handia dago edozein hitzetatik, batez ere, arrainen izenetatik, beste bat ateratzeko, eta baliteke, -akula- arrainaren izenetik etortzea.

**akula + keria → akulakeria → akulekeidxe.**

## ALA

1. Itsasoko terminoa da. Jaso edo tiratu zentzua dauka. Analogiaz, herrira pasatu da **jaso** hitzaren ordeez.

- *aurtik ala txikota*
- *ala tuntuxek egualdi txarra dator da*
- *diru ederrak ala itxuz arek*
- *nik ez dot ala txiki be pez*

Gaztelerazko **halar** aditza erabili da horretarako. Azkuek bere hiztegian **recoger** dakar beste azalpenik egin gabe.

2. Kritikatu.

- *aurrek danak on diez beran ala*
- *ontxe be neure ala zauz*
- *baten bat neure ala dau, belarridxe gorritxute dakot eta*
- *zeure ala-ala dabill a*

Azkuek ez dakar eta D.A.R.k Mundakako Otxolua aipatzen du. Baina Bermeon oso erabilia da. Askotan errepikatuta ere erabiltzen da, azken adibidean ikus daitekeenez.

## ALA BA!

Benga! Goazen!

- *ala ba! Kordu ba!*
- *ala ba, etor zaitxex ba!*
- *ala ba, berandu eingo dxasku te*

## ALA TA BE

Ekiten jardun.

- *zelako diskusiñue, alata be etzie erosi bi dule*
- *arek imiek, ala ta be, dauen egualdidxegaz plaidxera dxun bidule*
- *zuek esaten zuien, ala ta be dxun ein bi garizela, da nik ezetz*

## ALABATXI

Neska gaztea. Oso erabilia da adineko zein gazteen artean.

- *erdu ona alabatxi da ez ezan esantzarrekue*
- *eztakit alabatxi non sartu zaran*
- *alabatxi, nire gixonak eztost gure etorri Benidorrera*

Azken hau izango litzateke adinekoen arteko esaldia. **Alabatxu** hitzaren eta honen arteko ezberdintasuna ez da bokalezkoa bakarrik; adin ezberdineko pertsonen dagokie hizki bakoitza. Hitz hau neska gazteei dagokie, eta artean horrela erabiltzen dute. Hala ere, konfiantzazkoa denean, adinekoekin ere erabiltzen da.

## ALABATXU

Berba hau adinekoen artean edo hauek emakume gazteei zuzendutakoan bakarrik erabiltzen da.

Kasu honetan tonua ere aldatu egiten da. Gehienetan adinekoek erabiliko dute emakume gazteei deitzeko, eta ez alderantziz.

- *alabatxu ez ei dakarrie antzobarik*
- *bidxar plaidxera dxun bidu alabatxu, geu be eguzkidxe artzien zuri gauz da*
- *ez esan ori alabatxu, guzurre dala diñoie ta*
- *alabatxu, zer da itxurie dakozuna?*
- *belarriondokue artuko zu alabatxu isillik ez pazauz*

## ALAKAKARDARA BOTA

Zokoratu. Berba berria da, baina asko erabiltzen da.

- *barridxe ezan danien ondo, baie gero alakakardara bota*
- *beste batzuk erosteko da gero alakakardara botata okindxe!*

## ALAKOTU

Zerbait egin. Zerbait burutu.

- *gauzek alakotu barik itxi txuz*
- *alakotu ein au, eztot ikusten ezer da*
- *goixin goixien alakotuten dau arek beran gauzek*

**egin** zentzua dauka. Hitz egiterakoan berba erdiak erabiltzen direnean, beti esaten da hitz hori.

## ALAKUE

Horrelakoa.

- *berak ekar dau, zera, alakue...*
- *alakue erosi dau, jersie*

Baina adjetibo moduan ere ager daiteke.

- *alakue da bera, iñor ez lakue*
- *zelako alakue zara ba*
- *alakue banai, neureztat*

## ALAMENA

Aspertu edo gogaitu arte hitz egin.

Behintzat zentzu hori dauka Bermeon. Baina, sarritan, alamena, gogorra ere izaten da.

- *zelako alamena emon dost ba, neure kulpie ezan balekide lez*
- *ez eistazu alamenik emon enau ondo ta*
- *zeozer gure dauenien konsegidu, itsosopeteko alamena dakozu*

## ALAN DALA TA

Dena sinistu edo dena, den moduan hartzea.

- *aulan bixi dxatzu ori, alan dala ta, ernega barik*
- *esaten tzoiena siñestuten dau, alan dala ta*
- *da geu bertan, alan dala ta, tentelan antzagaz*

## ALANDAZE

Hori dela eta. Ondorioz.

- *eztot, eingo errekadue, alandaze, ez on nik eingo dotenari begire*
- *gaur ezin dxu Bilbora juen, alandaze, bidxarko itzi biku*
- *au labadorie apurtute dau, alandaze, barridxe erosi bi de*

## ALATXE

Berba hau adinekoen artean edo hauek emakume gazteei zuzendutakoan bakarrik erabiltzen da.

**Alatxi** hitzaren forma despektiboa, gehienetan gizonezkoak emakumeei zuzentzen zaienean agertzen da. Askotan errepikatuz erabiltzen da eta gehienetan haserrezko tonua izaten du.

- *alatxe ezinoixu kabrie*
- *Alatxe-alatxe, ortik ezpazuez osti bet omongo tzut*

- *alatxe etorri ba*
- *alatxe, ezta kot zeure kontorik*

**alabaxu** hitzaren aldaera da, adinekoek emakume gazteei zuzentzeko hitza, hain zuzen ere.

## ALATXI

Neska gaztea. Oso erabilia da adineko zein gazteen artean. Aldaera hau *alabatxi* berbarena da.

Biak erabiltzen dira normalki, baina hamabost urtetik beherakoetan gutxi entzuten da, arruntagoa baita *alabatxi*.

## ALATXU

Eta beste hau ere **alabaxu** berbaren aldaera da.

Adinekoetan entzuten da, berrogei urtetik gorakoetan eta gizonezkoetan gehiago.

- *orduek dxun dxaskuz alaxu da ondiño ezer ein barik*
- *alaxu mobiko zara berandu de ta*

Forma bi hauen eboluzioa honela izan da:

**alabatxo** → **alabaxu** → **alaxu**. **alabatxo** → **alabaxu** → **alabatxi** → **alaxu** → **alaxi**. **alaxi** → **alaxe**.

Arraroa badirudi ere, enfasiak bokal itxia irekiagoan bihurtu du.

**ü** horrek ez dauka zerikusirik zuberotarrarekin, Bermeon, batez ere portuan, eta han lan egiten duten emakumeek enfasi apur batez hitz egiterakoan, **u** normal bat **ü** bihurtzen dute.

Adibide batzuk: - **entzun egizu** → **entzuizu** → **entzuizü** → **entzüizü** → **entzizi** egin da. - **txetxotxu** → **txetxotxi** egin den bezalaxe.

## ALAUURIDXE

Alauria.

- *goix guztidxen dau alaurike, iñok ezer ein barik*
- *alaurike etor dxast imie mutil batek dxo dauela ta...*
- *aren alauridxek, alauridxek ezan diez, zapatak etzatezelako erosi*

Azkuek Arratian eta Orozkon jartzen du, baina Bermeon ere zabal erabiltzen da, beharbada, hemen dena exajeratzeko joera dagoelako, aldarri simple bat alaurian bihurtzen baita.



## ALBATAKUE

Alban jotzen duten kanpaiak. Arimak erretiratzen diren ordua omen da.

- *albatakugaz batera, arimek euren mundure juten diez*
- *neuk eztok kure albatakue juten dauenien kalien egon*

## ALBORAPUNTADA

Normalki erabiltzen den hitza da. Aloza hartzen denean egiten dena.

- *orrek erropiek, alborapuntada andidzek takoz*
- *trajie akabata dau baie alborapuntadak falta itxuz*
- *berorren koloreko aridzegaz ein bizuz alborapuntadak*
- *alborapuntada txikidxe ein gero*

## ALBORBOL / ARBOLBOL

Hitz hau, **Borbolera** hitza erdaraturik egin da. Jantziak, arropak eta gauzak edozelan botata edo zokoraturik uzten direnean esaten da. Biak erabiltzen dira, baina hiztun ezberdinen ahoan.

- *erropa guztidzek alborbol itxitxe dxun da kalera*
- *an! bota dau alborbol jersie, orrek gudau esan barridxe erosteko*

Metatesiaren bidez, **arbolbol** irteten da. Seguru aski *borboil* hitzetik hartuta dago.

Azkuek Lapurdiko kostaldean kokatzen du, eta baten baino gehiagotan entzun izan direnez iparraldetik sartutako hitzak, badirudi hau ere handik etorritakoa dela. Hitz honek **arrain saskia** esan nahi duenez, arrantzaleengandik sartua izango da.

## ALBOSA

Arropa edo tela baten tolesdura.

- *gonien albosa josi mesedez, daidxola dakot eta*
- *maidxen ulen puntiri albosie atara, labur dau te*

Mañu auzoan erabiltzen da.

## ALDABATERA

Aldi berean.

- *aldabatera ezkondu gara bidrok*
- *aldabatera dxun diez zerbezidxora*
- *inxarrak aldabatera emoten baduz, ariñau eingu*

**aldi berean** esan beharrean, **aldi batera** egin da, eta gero, hortik, bokal itxia bi gradu ireki eta **aldabatera** sortu da.

## ALDARAKA / ALDARAN

Aldatzen. Itsasoko terminoa da, baina herriko hizkeran sartuta dago, nahiz asko galduta egon.

- *aldaraka juten gariz egunez txikiteuen*
- *batek beste bide bat artzien badau, geu be an dxuten gariez aldaraka*

## ALDEGOI

Soineko baten alozak, jertse edo besteren batek, baita sareak ere, gorabeherak dauzkanean ere esaten da.

- *orrek erropiek aldegoiek takoz beko mandan*
- *elegante dxun dxatzu aldegoidun erropiegaz*
- *zorature nau berorregaz jersigaz, ezin tzatez kendu aldegoiek*
- *txarto ebai zu ori papela, aldegoiek takoz da eztau ondo*
- *onek artiek aldegoiek takoz, ezindxe arteztu*

Azkuek ez du jartzen, baina bai D.A.R.k, **circunstancia** hitza erabiltzen du. Beraz, zentzua erabat ezberdina.

## ALEGRENTZIDXE

Alegrantzia. Oso erabilia gure herrian, baina, gaur egun, *alaitasuna* berba sartu da.

- *au de alegrentzidxe dakotena, primitibie azerta dot!*
- *alegrentzi handi bet artun du, Miren dator Kubatik*

## ALGA(R)ATEKUE

Kalitate txarrekoa. Nahiz eta itsasoko terminoa izan, normalki tresna edo gauzei aplikatzen zaie, hauek txarrak edo erdipurdikoak direnean, hain zuzen.

- *au kotxie algaratekue da*
- *onek zapatak algaatekuek tiez*
- *dxatekue algaatekue ezan da*
- *algarateko pelikulie ikusi du*

**Alga(r)atien** hitzetik sartuta dago, eta oso zabala horren erabilera. Gainera, ikus daitekeenez, **r** gal dezake, inolako arazorik gabe.

## ALGA(R)ATIEN

Txarto. Gauzak eta pertsonak izan daitezke txarto dabiltzanak, batez ere osasun kontuetan.

Hitz hau ere, oso zabaldurik dago herrian, baita inguruko auzoetan ere.

- *aspaldidxon algaratien dabil gure ama*
- *aren kotxie algaratien dabil, barridxe bidau*
- *aurtengo kosteran algaatin ibilli gariez*

Ikusten denez, hemen ere, askotan gertatzen den bezala, **r** erori eta **algaatien** esaten da.

## ALGORTAKO PORRUEK LEZ

Prosperatuta.

- *aur dakozu ori, Algortako porrue lez prosperata, edaderik onenagaz . . .*
- *zer diño berorrek pa, Algortako porruen moduen prospera dxatzu ori*
- *alabatxi, geuk pe prospera ein bi du Algortako porruen moduen*

## ALIADUE

Abilezia gabekoa, edo trebetasun gutxikoa izan daitekeen pertsona edo gauzak. Arrantzale giroan erabiltzen den hitza da, erdipurdikoa esan nahi du. Arrainuntzi batek arrainik harrapatzen ez badu, *aliadue* da.

- *enebada! bapor aliaduen enbarka zara*
- *aliaduekaz eztot kure dxakin ezer*
- *zelan ekarko dau arraÑe ba, aliadue da ta*

Gazteen artean galtzen doa.

Gaztelerazko **aliado** hitzak guztiz esanahi ezberdina du.

## ALIJANDRO

Zerbait edipurdikoa. **Aliadue** hitza da honen sorburua, baina honen zentzua zabalagoa da. Gauzei aplikatzen zaie eta askotan, adjektibo funtzioan ez-ezik izen funtzioa ere hartzen du.

- *artazidzek ixena alijandro*
- *au batela alijandro utse da*
- *erlojue alijandro; eztau dxoten tinbrerik pe*

## ALMONADIE

Arropa montoia.

- *zelako almonadie dakot garbitxuteko ba*
- *gaur ezin dxot urten, erropa almonadie dakot plantxeteko ta*

Nahiko galdua, oraindik adinekoen artean entzuten da.

Hitz honen jatorria gaztelera **almoneda** izan daiteke. Gaztelera **venta de objetos a bajo precio** esan nahi duenez, gauza horiek pilatuta egongo dira. Beraz, baliteke hitz horretatik etortzea.

## ALORTIK!

Mesprezuzko lokuzioa da. Arbuiatzeko ere erabiltzen da.

- *alortik guztidxorri, guzurre baiño ezu esaten da*
- *alortik! Ez nozu konbenziduko ta*

Argi ikusten da **hala hortik** dala, baina zentzu ezberdinetan erabilia.

## ALSIKATU

Erdi siku.

- *alsikatute okiñ dxotezen erropak busti dxastez*
- *onek kaltzetiñek alsikatute dauz*
- *ulie alsikatute dakot*

Azkuek **altxikatu** jartzen du, eta ez du hartzen arrunta bezata, nahiz eta Bizkaiko puntu ezberdinak aipatu: Arratia, Ispazter, Orozko eta Txorierrri. Bermeon nahiko zabal erabiltzen da.

## ALTERRIDXE

Bila gabiltzan gauzen tokia. Ugari ematen den lekua, eta batzuk bakarrik jakiten dutena non dagoen. Arrantza kontuan bada, arrain asko dagoen leku bat. Sagarketan bada, sagar ugari dagoen tokia.

- *arek euren alterridxe dakoie arraintzeko*
- *alterridxe topa du sagarrak atrapateko*
- *urrien alterridxe dakoie, ta aberastute etor diez*
- *etsoie iñori esan alterridxe dakoienik arraiñtxeko*

## ALTRANPON

Gauzak edozelan botata, ordena barik.

- *etzeko gauze guztidzek altranpon botata itxitzen txuz beti*
- *zeitrik ez zuz ordenaten gauzek altranpon itxi barik*

## ALTRANPONIEN

Gauzak edozelan botata, ordena barik. **Altranpon** hitzaren aldaera da, eta zentzu berdinekoa.

- *plaidxera dxuteko priesagaz altranponien itxi txuz beran erropak*
- *zer eztot topa bienganien ba, zapatak, librukek, boltsak, dana altranponien*

## ALTZA GONAK!

Alokutiboan, premiau.

- *altza gonak alabatxu, eguerdidxe dakot imitzeko ta*
- *autobuse galdu bi du ba. Imiek! Altza gonak!*
- *lo dau denderiori le? Espabille! Altza gonak berandu de ta*

## ALUE

Ez da erabiltzen zentzu zehatzean. Bi zentzutuan erabiltzen dala esan beharra dago. Pertsona trakets eta energia gabekoa, eta gauza txikiak eta balio gabekoak direnean adierazteko, hain zuzen.

- *txarto ein zuz gauzek, alu ori, olan eztiz ein bihar aulan baiño*
- *onek sagar aluek erosten on zara, itsurik on zara la?*
- *aluen antzeko zapatak erosi dotez eztaitx zer ikusten egon naien*

## AMA NEGARREZ

Hilekoekin egon.

- *zelain dxungo nai plaidxera ba, ama dakot negarrez da*
- *ama negarrez dakozunien oien sartun, da bertan on pasa arte*
- *ama negarrez dakotenien eztot okitxen ezetarako ganarik pe*

## AMA PUTIEN ETZIEN

Oso urrun.

- *Markiñe non dauen? Ama putien etzien!*
- *oporatan ama putien etzerarte hotelan barruen oteko*

## AMA TXITXIEN IMIE / SEMIE

Iraina, baina tonua leunagoa da.

- *ama txitxiñ imie zara zu, nik etsut esan ogidxe ekarteko?*
- *aurrek amatxitxiñ semiek ekar txuz trastiek, baie erun biko txuz*

## AMAK EIÑEKO MODUEN

Biluzik.

- *Antxoran ikusi duz, danak amak eiñeko moduen!*
- *orrek famosuek ibiltxen dxatzuz amak eiñeko moduen*
- *eztau ba, ama eiñeko moduen ibilltzeko moduen*

## AMAK EIÑEKUE

Jasanezina.

- *nongo amak eiñekue da berori! Auentako ete du!*
- *amak eiñekue zara txo, beti ezan bizara zeu*

## AMAK ITXIKUE

Aspergarria, jasanezina. **Amak eiñekue** eta hau esanahi berdinekoak dira, baina hau zabalagoa.

- *amak itxikue zara alabaxi, enfadata nako zu*
- *politxe ezango da, baie amak itxikue*

## AMAKO

Gehienetan umeen artean erabilia, taldean gehien agintzen duen neskatila izaten da.

- *ez ibilli orrekaz, amakuek tiez da*
- *bera zu amakuena*
- *amakuen antzeko neskato bategaz dabil*
- *ama, arek dxo ein nau*
- *berak amako zarrak dxo zaitxuz*

Azken honetan adjektibo eta guzti agertzen da.

Ikusten denez, ez du Azkuek jartzen dio **madraza** edo **muchachona** esanahia.

## AMALAU GARREN MUTILAGUNE

Taldean falta dena. Peioratiboa da.

- *atuen dator amalaugarren mutilagune*
- *ezu esan, au falta dala? Ba allega da amalaugarren mutilagune*
- *zeu zara amalaugarren mutilagune, ez tu biar iñor be geidxau*

## AMANDRONGILLEK

Almandrongilak. Baina ironiaz erabilita. Beste aldaera bat **amondongillek** da.

- *ama zer dau dxateko? Zera! Amandrongillek!*

Hau, **langosta!** esatea legez da. Edo beste hau:

- *amandrongillek eta aitxerongillek*

Hitzaren jatorria gaztelerazko **albondiguilla** izango da; orduan, erabiltzen den **amondongillek** aldaeratik sortutakoa izango dugu **amandrongillek**.

**albondiguilla** → **almondongilla** → **amondongille** → **amandrongilla**.

Aurreko **n** galdu eta **r** bat garatu du; lehenengo **o** bokala **a** bihurtu da asimilazioz. Kintanak jartzen du bere hiztegian, azalpenik egin gabe; eta P.M.k **amandongila** hartu du. **Hiru mila hiztegian** l eta guzti dator: **almandrongila**, baina baita **albondiga** ere.

## AMAPERRIE

Gaztelerazko **hijo de perra** lokuzioa oinarri badu ere, zentzua ez da bera. **amatxarridxe** edo **amatxitxie** zentzu bera dauka, eta esaldiak ere zentzu horretan joango dira.

- *amaperrie! Berandu etortiarren dendie zarratute!*
- *amaperrie! Ebai dot eskue!*
- *amaperrie! Etzeko atie igiritxe itxi dot*

## AMAPERRIEN ETZIEN

Oso urrun. Jakin ez non dagoen.

- *amaperrien etzien itxi dotez gauzek da oraiñ eurek bille dxun biar*
- *nongo amaperrien etzera dxun da ba*

## AMAR MILLE ZATI

Zati-zati egin.

- *okin dxoten florero ederra eiñ dxast amar mille zati*
- *on dan aixiegaz kristelak pe amar mille zati eiñ dxastez*
- *amar mille zatitxen apurtu de basue*

## AMAR MILLEGAZ

Arrapaladan, ziztu bizian.

- *notezidxe emon tsoienien, amar millegaz urten dau etzetik, amari esaten*
- *ikusi dotenien gauzie eztauela ondo, amar millegaz urten dot andik*
- *amar millegaz eskapa ametik, zartadie emon orduko*

## AMASA / IE

Masa. Zentzu ezberdinetan erabilia da.

- *frutekaz amasie eiñ dxe gozo-gozo oten da*
- *au lapikue eziñ dxe dxan amasie eiñdxe dau te*
- *kokletan amasie ondo ein barik tau*

**masa** → **amasa**. Kasu honetan **a** proteikoa sartu da.

## AMATXARRIDXE

Erabiliena den interjekzioa dugu. Egoera guztietan ager daiteke. Lokuzio luzeagoetan maiz erabiltzen da, gainera zentzu ezberdinaz ere agertzen da.

- *amatxarridxe! galdu dot portomanadie*
- *erdu etzera...amatxarridxe! ezin dxot dxuen*
- *amatxarridxe! zapatien takoie apurtu dxast*

## AMATXARRIDXEN ETZIEN

Esanahi ezberdinak:

1. Oso urrun.
  - *non dau berori elixie ba, amatxarridxen etzien dau te*
  - *amatxarridxen etzien erosi dau etzie*
2. Batek daki!
  - *ama, non dau nire jersie? Amatxarridxen etzien! Topa!*
  - *libruek amatxarridxen etzien itxi dostie*

## AMATXARRIDXEN IMIE / SEMIE

Puta semea.

- *amatxarridxen imiok, etorko zatite ona neuk tiñot eta?*
- *nongo gizonak?, aunek ama amatxarridxen imiek eñ dxost eta*
- *bera amatxarridxen semie ezan da dirue ostu dostena*
- *zeure amatxarridxen semie da ori esan dauena, gero nega badau be*

## AMATXITXIE

**Amatxarridxen imie**-lakoa baino bigunagoa da.

**kaka** Hitza oihuzkoa da.

- *amatxitxie! Berandu etortiarren dendak zarratute!*
- *amatxitxie! Ebai dot atzamarra!*
- *amatxitxie! Etzeko argi guztidæk itxi dotez bistute*

## AMATXITXIEN ETZIEN

Oso urrun. Aurrean badago beste honen antzeko bat, baina hau leunagoa da.

- *ama txitxiien etzera dxun da bizitxen*
- *bakixu, ama txitxiien etzerarte dxun bidaiiena arraiñtxen?*
- *non dauen boltzie? Ama txitxiien etzien*



## AMAÑARRABAKIDXE

Amaginarrebagai. Aitaginarreba egin den bezala egiten da; **-kidxe** atzizkia hartuz.

- *amañarrabakidzek erosi tso etzie*
- *aren amañarrabakidxe neure lagune da*
- *amañarrabakidxentzat ekar txuz arraiñek*

Hala ere, ikusten da, **gina** multzoa galdu eta **e** → **a** egin dela.

## AMAÑE / AMAIÑE

Amore eman. Borroka batetan **rendirse** izan daiteke, baina edozertan amore ematea ere bai.

- *Bilbora dxuteko on gara baie amañe eiñ dxu*
- *dirorik ez takola ta amañe eiñ dxau, ez tator afaire*
- *koitxaduek ez tako indxarrik eta amañe ein bilikidau*
- *ez ezan temosie ta amañe*

Azkuek Bermeoko hitza bezala azaltzen du, baina **rendirse** delakoan.

Hitzaren jatorria gaztelerazko **amainar** izan daiteke. Zentzua, ostera, **recoger velas** izan daiteke.

**amainar** → **amaina** → **amaiñe** / **amañe**.

## AMEN GU!

Harridura, oihu edo haserrea adierazten duen lokuzioa dugu.

- *amen gu! Tentelan antzien euren begire*
- *amen gu! Mobidu be ezin, da denporie aurrera*
- *ez dauela autobusik? Amen gu! Da orain zer?*

## AMESA

Idea. Burutazioa. Baina **asmoa** bezala ere erabiltzen da.

- *Bilbora dxuteko amesa okiñ jot, baie azkanien enai dxuen*
- *ez eiñ amesik, ori ezta etorko ta*
- *amesa okiñ bai, baie non dau dirue ba*

## AMODERA

Moderatu.

- *lelau gora-goraka asi de, baie gero amodera ein dxu*
- *bozak pe amoderata entzuten ezan diez*

Beste mailegu askotan legez, ez du hartu **tu** partizipioa eta **a** proteikoa hartu du.

## AMORE (EMON)

Edozein gauzak, baina ez pertsonak amore ematea, kasu hauetan **amañe** berba erabiltzen delako. Hala ere, noizbehinka erabiltzen da hauekin ere.

- *onek zapatak amore emonda elauz*
- *jersie dakot hamalau lagun sartzieko modue, amore emonda*

## AMORROI

Aizu morroi! Gehienetan mesprezuzko tonuaz esaten da. Batzuetan deitzeko erabiltzen da, eta askotan **txo** hitzarekin lagundurik.

- *txo, amorroi! geldiro! Okasiñorik ez ekarri ona*
- *amorroi kopla gitxi niri*
- *zer dakak ona amorroi!*

Emakumeen artean erabilia, leunagoa gertatzen da.

- *amorroi esangostasu ze ordu dan?*

## AMORROTZA

Olagarroa.

- *amorrotza atrapa du atxetan*
- *ori morroie amorrotza lez enpiketen dxast*
- *amorrotzan erruek baiño luziauek takoz eskuek*
- *amorrotza gozo egoten da binagriaz*

Hitzaren konposizioa: **amar ortz**, edo **amar atz** izan daiteke. Atxikitzeke baliatzen diren botoiak hortzak izan daitezke, baina erroak edo garroak, atzamarrak izango lirateke. Beraz hitzaren etimologia ez dago argi.

P.M.k, **amarratz** jartzen du bere hiztegian eta Hiru Mila Hiztegiak **hamarratz**. Besteek ez dakarte hitz hau.

## AMUSKIDXE

Bi esanahi:

1. Arrain barik datozen amuetan geratzen den karnata zatia.
  - *ez arraiñik ez amuskirik eztator amuen, dana dxanda baiño*
  - *bota ostabere eurokaz amuskidxekaz*
2. Bateren bat engainatzeko karnata figuratiboan.
  - *an, prepara dau amuskidxe, laster emongo tso dxaten*

Azkuek Mundakan jartzen du eta **carnada en salmuera** dela dio.

Etimologia zein? Posibilitate bi agertzen zaizkigu: **amu + ki** → **amuki**, biguntzeko **z** sartuz.

Edo beste hau: **amu + utsik** → **amutsik** → **amusik** → **amuski** metatesi bidez.

Dena dela, ez daukat hain argi.

## AN ZARALAKUEN AMEN

Gauzak azkar egitea.

- *Korrike jun zara ogidxe bile la? an zaralakuen amen!*

## ANAIDXE TXIKIDXE

Zakila.

- *frakak istu da anaidxe txikidxe be istu*
- *estimadu dako arek anaidxe txikidxe, ondo dxaboten dau*
- *ba klaro! Anaidxe txikidxe geixotu ezkerro, eztau arraiñik*

## ANALISUEK

Analisiak.

- *analisi barridzek ein bidotez, zeuzer bakot eta*
- *analisiuek eitxen dxuen da ein barik etorri, on dan jentiegaz*
- *ontxerarte eztau dxakin zer dakon, analisiuek eñ arte*

## ANBEZIDXE

Gutiziatu.

- *dana anbezidxe, dana gorde, dana biar dau*
- *anbezidxetie ezta txarra, baie orrenbesterako bez*
- *bai, dana dakoie eta eztakoiena anbezidxeten dauie*

## ANBEZIDXETA

Gutiziatsu.

- *gaurko gaztiek anbezidxeta bizi diez, dana dakoie ta*
- *danak ezteiz bizi anbezidxeta, batzuk gitxigaz konformaten diez*

## ANBOTOKO SEÑORIE

Era askotara erabiltzen da esaldi hau.

- *aur dako zu, anbotoko seño rie, sofan d xesarritxe*
- *bestelako anbotoko seño rie dau or, biarrik ein barik*
- *anbotoko seño rie lez bixitzeko gizon dirutsugaz ezkondu bizara*

## ANBRIKIS

Goseaz erdi hilik dagoen gizona. Ez da erabiltzen gizonentzat baino, baina salbuespenik egon daiteke.

Argi dago gaztelera zko *hambre* dela, **-ki** atzikia erantsita.

- *anbrikid xen arpeid xe dako*
- *anbrikis guztid xek takoie suertie*
- *anbrikis aiz txo! egun guztid xen dxaten!*

**hambre + ki → anbrequi → anbriki.**

ero s gehitu zaio, eufoniagatik edo.

Bermeon, batez ere gizon argalei aplikatzen zaie. Bazegoen gizon bat, argala eta eskasa izatearren **Anbrikis** ezizena zeukana; eta horrela ezagutzen zen izena ahaztuta.

## ANDAKA

Duela berrogeitaz urteak -orain ere noizbehinka ikus daiteke- joko baten jarduten zuen gazteek eta umeek. Joko hau, animalia baten antzera jarrita -lautxakurrean deritzoguna- besteak gure gorputzaren gainetik saltatzean zetzan. Honela, bat behean, besteak saltatu eta makurtu, denak errenkada bat eginez.

- *andaka dabiltzuz arek tonpoid xen*
- *ez ibilli andaka izterra apurtuko zu te*
- *andaka ibilli gariez goixe guztid xen*

## ANDAKIDXOLA

Izorra dadila.

- Ondokuen txakurre ausike dauela? Ba nik black metala martxan! Andakidxola!
- Horrek papauk dirue galdu dauela? Andakidxola! Okintsue da te!

## ANDAN GORRIDXE

Konparazioan erabiltzen da. Arraina itsasoaren azaletik doanean, dizdira gorria gertatzen da, arrain masak sortzen duena.

- *andan gorrid xe ikusi du, baie ara aillega garizenien arraiñe ondora dxun da*
- *zelako andan gorrid xe dator goiko kaletik ba*

## ANDANA

Abiadura.

**andanada** hitzaren parekoa dugu. Biak erabiltzen dira; eta gutxienez parekatuta dago erabilera.

- *andana andidxe darue aren kotxiek*
- *andana gitxiko bapora da*

## ANDANADA

Abiadura.

- *zelako andanadie erun dau ba, iñok ez atrapateko moduen*
- *andanada andidxe darwie lainñuek, laster euridxe in bidau*
- *andanada matrue dako aren kotxiek*

Azkuek hitz honen zentzua beste era batera jartzen du, **hilera de plantas** dela dio.

## ANDANADAN

Abiaduran.

- *andanadan dxun diez ziñera ime guztidzek, lekue atrapateko*
- *andanadan ibilli, da gero arnasa barik*

## ANDANAKORRIDXEN

Abiadura bizian.

- *andanakorridxen etor nai da dxeusi ein nai*
- *andanakorridxen ibilltxiek bidxotza kantzaten dau*

Andanadan Bermeoko hitza hartu da, eta korrika gehitu zaio enfasi handiagoa emateko.

**andanadan + korrika → andanakorridxen**

## ANDANAKORRIDXE

Abiadura bizian.

- *andanakorridxeri! Nora zuez ain arin ba*
- *andanakorridxe izterratan, ez miñen*
- *beitu zelako andanakorridxe daruen*
- *artun dauen andanakorridxegaz, iñok ikusi be eztau eiñ*

## ANDANAN

Abiadura bizian. Adberbioan erabiliko dugu hitz hau.

- *andanan etor nai zeu atrapateko*
- *ez ibilli andanan dxeusi barik*
- *andanan ibiltzen bazara berotu eingo zara*

Azkuek ez du jartzen baina bai D.A.E.k. Hala ere ez du zentzu bera, **en fila** jartzen baitu.

## ANDANTZAN

Abenturetan sartuta ibiltzea gaurik gauerdia edo parrandetan.

- *majo dabill a andantzan, mundue errekorriten*
- *gauez andantzan dabillenari igarri eitzen dxatzo*

## ANDIDXEK ETA ASKO EZAN

Berba gogorak eta asko esan. Baina gauza harrigarriak ikustean ere erabiltzen da.

- *asarratu dizenien andidxeek eta asko esan tzoie alkarreri*
- *on ixillik, ixillik on, ostantzien andidxeek eta asko entzungo zuz*
- *zelako berbak alabatxu, andidxeek eta asko*

## ANDIDXENAK ESAN DA TAPATA ITXI

Iskanbila baten, azken hitza izatea. Aurrekoa mutu utzi.

- *arek eitzen dau, beran burue libreteko, andidxena esan da tapata itxi*
- *zuk eitzen zu, andidxena esan da tapata itxi personie*
- *personiri eziñ itxi berbetan? Ba ez, andidxena esan da tapata itxi*

## ANDIK BERA

1. Beherantz, mendebalderantz joan arrantzan.

- *andik bera dxun diez enbarkaziftuek arraiñtzen*
- *andik betik dauz baporak, laster etorko diez*

2. Jausi zentzuaz ere erabiltzen da.

- *an due andik bera! Burue apurtu bidau ba!*
- *andik bera dxun da kotxie da amar mille zati eiñ dxe*

## ANDILLO

Oso garaia. Kasu batzuetan irain legeaz erabiltzen da.

- *ori imie andillue ezango da*
- *ez takixu goiko kalien bizi dan andillo bat?*
- *zuri nok esan tzu ni ezan naiela, andillo ori?*

Askotan **andillo-mandillo** esaten da.

- *andillo mandillo, zeueneko amari!*
- *berak andillo mandilluek dxo dau nire alabie*

Hemen **-llo** atzizkia gehitu zaio **handi** hitzari.

## ANDIOMO

Normala baino handiagoa den pertsona. Kuriosoa da hitz honen konposaketa: **handi** hitzari **homo** latinezko hitza gehitu zaio, beraz **gizon handi** ematen du. Baina, Bermeon, gehienetan gazteei aplikatzen zaie, neska zein mutila izan.

- *zelako andiomue da ba!*

## ANDITXASUNE

Handitua.

Mota guztietako konkorrak eta handituak. Beraz, ez da zentzu konkretuan erabiltzen. **anditxue** ere esaten da baina hau, **bulto** adierazteko erabiltzen da gehienetan.

- *anditxasun bat takot izterrien*
- *anditxasune gero ta anditxau duest*
- *ez dxrast bajaten anditxasune*

## ANDITXUE

Handitua.

- *anditxu batek urten tso papuen*
- *zelako anditxue dako bekoitzen ba*

## ANDOBIE

Emakume ederra, galanta. Baina askotan, ederra edo galanta ez bada ere, berba hori erabiliko da.

- *zelako andobie ikusi du ba*
- *Benidorren ikusi ei dauie andoba bategaz*

Gaztelerazko **andoba** hitza maiz erabiltzen da.

## ANDOBUE

**andoba** berba bera dugu, baina **i** / **e** bokalen aldakuntza jasan ondoren, gizonetzkoen aplikatzen zaie.

- *ba bera be dxun deidxela beste andobo bategaz*
- *Nekanen mutilagune andobue dozu*
- *Bermioko dxaidxetan kanpoko andobak eta andobuek askatan oten diez*

## ANDRAKIDXE

Emaztegaia.

- *Josen andrakidxe da ori*
- *andrakidxe Bilbon ezetu dau*
- *beran andrakidxegaz dxun da Benidorrera*

## ANDRATAN

Larrua jo.

Esanahi hau adierazteko beste hitz batzuk badaude ere, hau da arruntena.

- *Vigo-ra sartun daneko batera ein dotsu arek andratan*
- *atzo gauien andratan ein dxot baie ez neure andrigaz*
- *txo! Andratan zabiltzezela?*

Azkuek beste zentzu batez erabili du; andratan: **tras las mujeres, buscando a las mujeres**, baina, Bermeon, ez da erabiltzen zentzu horretan.

## ANDRATU

Hilekoak agertuz gero, hori esaten zaio gaztetxoari.

- *orain andratu zara lez formalau ezan bizara*
- *andratu ezkeru, gauien be beranduaurarte itxiko dost amak kalien egoten*

## ANKA / IE

Mokor. Ez dugu beste berbarik ezagutzen *mokorra* adierazteko.

- *ankie apurtute etor da Benidorretik*
- *ankatik operata dau*
- *ankako miñe dakot*
- *balxitxute itxi dost ankie emon dosten golpigaz*

## ANKATREBERA

Apur bat herrenka dabilen emakumea.



Galtzen ari den hitz bat da. Adinekoen artean bakarrik erabiltzen da. Askotan mesprezuzko tonua erabiltzen da.

- *bestelako ankatreberie dau or*
- *etorri dan andrie ez takixu nor dan, anka trebera bat?*
- *ankatreberi lez ibilli nai, neure izterragaz*

## ANKIE

Hitz honen zentzua bestelakoa da **makurdura** esan nahi du.

- *orrek erropiek ankie dako*
- *ankie ez okitxeko ametik ebai bizu*
- *maidxiek pe ankie dako*

Substantibo legez erabiltzen da.

## ANKILLIE BOTATA

Aingura botata. Leku baten geldi. Itsasoko terminoa da, baina herrian erabilia esaldietan.

- *bestela gauz bertan ankillie botata; ezta ordue la?*
- *nire gixonak esaten dost, ankillie botata oten naiela dendan*
- *bertan tabeman ankillie botata, goizeko orduetararte on gariez*

## ANKINDO

Oker edo zeharretara dagoen zerbait. **Ankillie botata**-ren aldaki bat dela dirudien arren, zabalagoa da, pertsonekin ere erabiltzen baita.

- *ori imie ankindo dabil*
- *ori kuadrue ankindo dau*
- *Pisa-ko torrie ankindo egon da beti*

**do** hori, baliteke gazteleratik hartuta egotea, askotan analogiaz egiten baitira esaldiak. Seguru aski gaztelerazko **inclinado** izango da etimologia.

**inclinado** → **anklinado** → **ankinado** → **ankinido**

Moduzko adberbio funtzioan erabiltzen da.

## ANPULU / EK

Negar-arpuluak.

- *anpuluek daidxola etor da etzera*
- *aprosoko anpuluek takoz orrek*
- *ez imiñi negar anpulatorik begidxetan*
- *begidxen anpulue dakola etorri dxast*
- *guzurrezko anpuluek eitxeko, kinpulie dxan*

Bermeon, **negar** barik erabiltzen da gehienetan. Azkuek ere ez du **negar** jartzen eta **ampolla**, **burbuja** jartzen du, baina D.A.R.k Mogelen zita batetan jasotzen du. Baita Kintanak ere, baina honek ez du azalpenik ematen. Hiru Mila Hiztegian, lehenengo esangura bietan burbuila moduan agertzen da, baina hirugarrenean negar anpulua bezala agertzen da.

## ANPURREK / APURREK

Legatzaren tripoilak. Oso preziatuak direnak; urdaila, arbiak eta triparen barruteria. Hain zuzen.

- *zer ekartzu gixonak ba? Ezebez alabatxu, etzerako anpur batzuk baiño*
- *niri, apurretatik arbidzek bakarrik gustaten dxastez*
- *gaur egunien anpurrek odola balidxo dauie*
- *erregiek pe eztako dxateko gozuaurik apurrek baiño*

## ANTIGUALA

Antigualekoa. Modaren berri ez daben pertsona bat.

- *nire gixonak eztau gure dxantzi niki zuririk. Bai ba, antiguala da ta*
- *antiguala zara alabatxi, ori ezta eruten orain*
- *mueblik, antigualak tizela ta, bota eiñ truz*

Gazteleratik hartua izan arren, oso zaharra da, eta gazteen artean ere asko entzuten da. Hala ere, **modatik pasaikue** lokuzioaren lekua hartzen ari da.

## ANTIGUALEKUE

Modatik pasatuta dagoen pertsona edo gauza. Bermeotar batentzat, gazteleraz hitz egiten duenean, **eres de antigual** esatea normala da.

- *antigualeko erropak dxantzitxe dxun dxatzu a*
- *antigualeko zapatak politxauek tiez*
- *antigualekue dozu, eztau gure frakarik dantzi*
- *badakixu zer erregala dosten ela ? Antigualeko kollar bat*

## ANTZIDXERAKO

Aintzakotzat.

- *ez gaitxuzie antzidxerako artun eguno be, tentelan moduen artzien gaitxuzie*
- *dendan sartun da antzidxerako bez, da gu bertan taketa lez*
- *antzidxerako anzieko zeuzer ein bihar, laistela dxo esate baterako*

## APAIDXUE

Arrainak harrapatzeko erabiltzen den tresneria. Oinarrizkoena pita eta amuaz osatzen da.

- *Loidxerue daku apaidxo barridzek eitxen.*
- *Fitziek falta dost. Han jun de arraine apaidxo ta guzti*

## APAI DXUE E(G)IÑ

Larrua jotzea adierazteko era bat.

- *apaidxue etxen dxun diez arek Tonpoire*
- *ezta ondiño apaidxue etzeko ordue*
- *apaidxue eitxen dauzenien eztakoie iñon pentsamenturik*
- *guk eitxen du apaidxue, goixien, atsaldien da gauien*

## APATZ

Eseri aditza, baina umeei soilik zuzendua.

- *txetxito erdu hauna eta egin apatz eguerdidxe jan bidu te*
- *egin apatz neure altxuen telebisiñuen ateletin partidue dau te*

## APATZA

Mahai betearen aurrean egin edo egingo dugun betekadaren berri azaltzeko.

- *a zelako apatza dakun, atiek pe enau artungo*
- *ixillik egon, apatza daku te. Zegaz? Pastelakaz*
- *orain apatza ta gero enpatxuegaz, auri bai ondo!*

## APATZAK

Animalien oinak

- *txakur ostidxen apatzen markie fraka zuridzetan*
- *txakur txikitxue ezateko apatzak handidzek dakoz*

## APREMIÑUE

Presa. Premiamendua.

- *apremiñue artun alabatxi, berandu da ta*
- *apremiñetzen ezpagara, pelikulie asitxe topaku*
- *apremiñe, eguerdiko amabidzek tiez da*

## APROBADIE

Probatu. Frogatzeko saioa.

- *aprobadie ein bide lelau edozer gauze erosi orduko*
- *auto barridxen aprobadie eitxen dxun diez Sollubera*
- *bapor barridxe aprobadan dxun da, ta geu be bertan dxun gariez*

## APROPOS

Esanahi bi.

1- Bromatan.

- *ez sastu apropos esan dau te*
- *tire! apropos ein tzu te*
- *ez eiñ inñuzentekeririk, enabill apropos da*

2- Intentzioz.

- *apropos dxun da beraiñe, diru eskatuten*
- *pentsako lekide apropos dabillega*
- *apropos erosi dotez aunek zapatak, ariñau ibiltzeko bidien*

Ez da deklinatzen, Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k, forma horren bigarren definizioan. Hala ere, ez dirudi erabilera zabala duenik. Bermeon, ostera, oso erabilia da.

## APROPOSKUE

Gezurrezkoa, faltsua.

**apropos** hitza bera, baina kasu honetan deklinatu egiten da.

- *etziek dxekusi ei diez. Klaro! Aproposkuek ezanda, dxekusi biar*
- *zelako imie dako ba, aproposkue lakue*
- *aproposko diruekaz paga dau jersie, da gero, txurupiñek*

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k eta Bermeoko beste hitz asko bezala azaltzen du. T. Etxebarriak ere jaso du Eibar aldean.

## ARA

Egin berri.

Beti erabiltzen da **nondik** zentzuaz.

- *labatik ara ekarri dosku ogidxe*
- *dendatik ara ekarriko zapatak zarrak tizela diñozu?*
- *sutetik ara dxan bidiez antxobak prijite*

## ARAGI BIZIDXEN

Gorputzean azala kenduta, haragia bistan.

- *ikusi tzatenien a eridie aragi bizidxen, ni idxe desmaidxe*
- *ori eridie eztakozu ondo, aragi bizidxen dau te*
- *kreselak imitxen txuz eridek aragi bizidxen*

## ARAGI GOZOKUE

Inbidiagarria den pertsona. Aurkakoak izatea.

- *alabatxi ez esan ezebe, aragi gozokuek gariez gu te, zeresana imiñi barik*
- *ara, laster dxoko zaitxuz zeuzek, aragi gozokue zara ta*
- *aragi gozokue nai ni, edozer datost*

## ARAGI ONEKO / UE

Zauriak laster sendatzen zaizkion pertsona.

- *total da aragi onekue, berez osatuten dxatsoz eridek*
- *aragi onekue naielez, ariti osatu dxast eridie*
- *gu ez gariez bape aragi onekuek, kutxilluen puntigaz eiñdxe be, nekez osatuten dxasku*

## ARAKO / KUE

Egin berri.

Beti erabiltzen da **nongoa** zentzuaz.

- *orrotzetik arakue ezan da galdu dauen dxaketie*
- *sutetik arako marmitxe dxan du*
- *sololik arako tomatiek emon dostez nire aiztiek*

## ARANDATIK MIRANDARA

Punta batetik bestera ibiltzea.

- *bestela ibil gara, arandatik mirandara zeuek topa eziñik*
- *bilbora dxun gariez gauzek erosten, baie arandatik mirandara ibil gariez da ezer erosi ez*

## ARBALDADIE

Zama. Baina ez da fisikoa, erantzukizuna izatea baizik.

- *etzie erosi dauela diñozu? Bestelako arbaldadie artun dau orduen*
- *honegaz legiegaz arbaldada andidxek datortzoz armadoriri*
- *eskerrak antxobien kosterie ona ezan dana arbaldadie kentziko lepotik*

Hitz honen etimologia gazteleraazko **albarda** da. Zaldi zamalariak erabiltzen dutena hain zuzen, **r** / **l** ren metatesia jasan ondoren, horrela geratu da.

## ARBIDXEK

Gorago aipatu dugun *anpurrek* barruteriako osagarri bat. Bermeon, legatza eta bisiguarenak izan ezik ez dira jaten. Karnatatarako erabiltzen da.

- *arbidzek bakarrik erosi dotez, urdillek eztotez gure*
- *beseuen arbidzek dxan dotez gozo, baie gero kolikue okin dxot*
- *makalluen arbidzek pe gozo oten ei diez*

Azkuek Zumaian jartzen du zentzu honekin, D.A.R.k **restos de pescado para carnada** dino. Beraz ez da zuzena.

## ARDAU / ARDAUTXU

Ardozalea.

- *ardau utze da bera, eztau itxiko errez botillie*
- *nor da? Ezu ezetuten ardautxu, tabernatik urten be eztauena eitxen*

## ARDAUZTO

Ardozalea. Baina zentzu gogorrean erabilia.

- *arek ardauztok emon dost ostikadie*
- *ardauztuekaz koplá gitxi*

## ARDI GALDUE

Pertsona bakartia. Noraezean dabilena.

- *ori beti dabil bakarrik, ardi galdue da koitzadue*
- *bera ezan da aulakue, ardi galdutxue*
- *amen gabiltzez ardi galdue lez, ara ta ona*

## ARDORA / IEN

Bokarta harrapatzeko sistema. Gauez egiten da, eta antxoa edo karnatarako arrain txikia harrapatzen da: sardina, txitxarro txikia, eta abar. Gero, hortik, beste zentzu bat hartu du, esaterako parrandan ibiltzea, dantzalekuetako giroari buruz eta abar.

- *gaur ezkiez dxuen ardorien egualdi zantarra ein dxau te*
- *ezin zarala oitxik altza, zer ba, ardorien ibill zarala?*
- *ardorien ibill dxatzu a gau guztidxen, tabernarik taberna*

Norbait lizunkerietan ikusten denean ere, erdaraz, **que ardor** esaten da. Ardoreko sistema hau nahiko berria da, baina lehen ere horren antzeko sistemaren bat egon zela, zeren, D.A.R.k jasotzen du **arderia** izenez, Labayruren zita bat aipatuz.

## AREK EMONGO TZU

Inork ezer emango duen esperantzarik ez edukitzea.

- *arek emongo tzu, urrezko treberie*

- *santa infanzia zara alabatxi, ondiño olan zauz? Arek emongo tzu oilloankie*
- *arek emongo tzu! zuk emon berari dana*

## ARENA

Etxeko zorua eta eskailerak garbitu. Lehen harea erabiltzen zen horiek garbitzeko. Hala ere, eta gaur egun harearik erabili ez arren, adinekoen artean berdin esaten da, batez ere eskailerari dagokionean.

- *interiñiek esan dost ezin dxauela eskillarie arena*
- *berandu etorko nai eskatza dakot arenateko ta*
- *txarto arenaten zu orregaz trapugaz*

## ARENADURIE

**arena** bera da, baina oraingoan gaztelerazko forma hartuta.

- *gaur neure sandxie da arenadurie eitxeko*
- *arenadurie ein barik itxi dau Bilbora dxutitxik*
- *arenadurien arenaduriegaz eskuek pe gastata dakotez*

Hemendik sortu da goiko hitza, gaztelerazko **arenadura**-tik, hain zuzen.

## ARETIÑIK

Aratinik, ahoz gora.

- *labandu eta aretiñik jeusi de, popaz*

## ARGALERIE

Mehetasun. Argaltasun.

- *dakon argaleriegaz anorexia dakola pentzaten da*
- *argalerien argaleriaz erropak pe soiñetik bera dakotez*
- *ikusten da argalerie, ezkaux itsurik eta*

## ARGIRE

Liluratuta jarri.

Argia erakargarria bada zomorro batzuentzat, bokarta harrapatzeki ere oso egokia zen garai batetan. *argire* antxoaren arrantzarako sistema bat zen. Gaur egun ez dute praktikatzen, antxoa gehiegi harrapatzen baita. Orain dela urte batzuk debekatu egin zuten, kaltegarria zelako arrainarentzat. Sistema hau honetan datza: Arraina dagoen lekura helduz gero, eta arrainaren gainean zeudenean itsasontziak, potentzia handiko argigailuak, denak aldi berean, biztu. Arraina, erdi lelotuta, geldi-geldi geratzen da. Orduan da aukerarik onena sarea

bota eta antxoa harrapatzeko. Gaur egun hitz honek, goian aipatutako zentzua hartu du.

- *an, imindxau argire, laster emongo tso mosue*
- *orrek imiek beran mifiegaz ensegidako imitxen nau argire*
- *beitu dxona orreri, argire dauela ezango lekide*
- *ez ein kasurik pe, ostantien argire imingo zaitxuz*

## ARIDXEN SIKU BARIK

Arropak blai eginda. - *ota dauenagaz soiñeko erropak aridxen siku barik geratu dxaskuz - euridxe dala urten du kalera da aridxen siku barik etor gara etzera*

## ARILLE

Angustia. Ikara. Tristezia.

- *arille sartunde dakot, zer entzungo*
- *arille kentzioko koñak trago bat ona ei da*
- *neuk edan koñaka arille kentziko, eztakot pentzamentorik*

## ARIME FIELA LEZ

Erabat argal.

- *ze argal dau a enbrie, arime fielan antza dako*
- *alabatxi, dxango zu arime fiela lez zauz de*

## ARIN DXE ONDO, TXORIDXEK EGAZ

Gauzak ondo egiteko poliki egin behar direla.

- *ia trankil ogo, arin dxo ondo, txoridzek egaz eitzen dauie te*
- *arrapaladan zabilz, gauzek arin dxo ondo ein bi diez, ostantzien txoridzek egaz*

## ARIRE IMIÑI

Erara ipini. Artez jarri.

- *ara, zu isillik on, neuk imingo zaitxut arire, aulan diez gauzek*
- *ez zauz arire, txarto zauz esaten*

## ARISKITU

Adiskidetu.

- *asarratute badauz, laster ariskituko diez*
- *ariskitu diez baie atzera asarratu diez*



- *asarratutiek gatz bi dakozela esaten dauie, bat asarratutie eta bestie ariskitutie*

## ARMA

Iskanbila sortarazi.

- *zelakue arma dau ba, ertzainek eta danak etor diez*
- *an, arma dau armatekue, okasinte utse da ta. . .*
- *bestelako enpatxue arma zu, au eztau libreten iriok*
- *zelako dxaidxek arma kuz ba, munduen bez obiaurik*
- *etzie arma dau baie ondirio ez tosku emon berinkaziñuen meridxandie*

## ARMA DAU ARMATEKUE

Iskanbila, kalapita sortaraztea.

- *an auntzek pe arma dau armatekue, zelako naskillie da ba*
- *arma armatekue da gero berak eskapa*

## ARMIÑ

Urduri. Modu ezberdinetan erabiltzen da. Pertsona sukarrak jota badago, armin egongo da. Edo zerbait itxaroten badago, armin egongo da.

- *onek imiek kalenturie dako armiñ dau te*
- *gau guztidxen on nai armiñ, eztaix zer okiñ dxoten*
- *armiri dakozu a, gizona datortzo ta*

Azkuek **apurado**, **extenuado** jartzen du. Kintanak, ordea, **arbin estrecho**, **persona de genio vivo** dela esango du.

## ARMOSUE

Gosaria. Gaztelerazko **almuerzo** tik sortua. Beraz, euskaraz ez du zentzu berdina.

- *armosue berandu dxan ezkeru, eguerdidxe dxateko gogorik ez*
- *armosuten kafie baiño eztau artzien*
- *eguerdidxe lako armosue dxaten dau*

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k, T. Exebarria aipatuz, Eibar aldean kokatzen du. Bermeon ez da besterik erabiltzen horren ordez.

## ARNASIE ARTUN

Estuasun baten pixka bateko lasaitasuna hartu.

- *tire, onegaz dirotxuegaz arnasie artzioko be bagauz te*
- *arnasie artun du berak esan dauenien ondiño eztauela biar kortxerik*

- *eskerrak eztoena biar etzie datorren urterarte, olan arnasia artziako be bazauz*

## ARPI BAKUE

Lotsorra.

- *ezta balidxo ezetarako be, zelako arpi bakue da ba*
- *neu be arpi bakue nai, ez lekinai dxungo inñori ezer eskatuten*

## ARPI LODIDXE

Aurpegi gogorra.

- *arek tako arpi lodidxe, dirue eztost eskatu ba? Berari emongo tzat!*
- *arek danak takoie arpi lodidxe, lotsatu be ez tiez eitxen*
- *arpi lodidxe dalakon dxun da, inñok deitxu barik, lagunen ezkontzara*
- *zuk bakixu arpi lodidxe dakozone? Nok esan tzu zuri ona etorteko?*

## ARPIDXE DOMA

Larritu edo urduri ez jartzea Hitz bau, **dollidu** hitzarekin batera erabiltzen da, baina azken hau baino askozaz ere erabiliagoa da.

- *arpeidxe doma bez, ezer ezalakuen*
- *doma be ezta eitxen, eitxen txuzen gauzekaz bez*

## ARPIDXE EMON

Dolu baten familiari doluminak ematera joan.

- *enai dxuen arpidxe emoten be, esango dauie lagune ill, da akorda bez*
- *ba neu be arpidxe emoten dxuteko nau*
- *zure amari esan, arpidxe emoten dxun naiela tie Juanitan etzera, ia zer pasaten dan dxakitxen*

## ARPIDXE IKUSTIE

Aurrez aurreko zita bat.

- *pelukeidxera dxun bi dot gaur arpidxe ikustie dakot eta*
- *nogaz dakozu arpidxe ikustie ba?*

## ARPIDXE IMIÑI

Aurpegia jarri behar denean.

- *berak imin dxau arpidxe, beran gizona papaue dalako*
- *neuk pe sarritzen arpidxe imin bi dot beraitrik esne epelaitrik*

- *arpidxe imiñi, da gero ezebe ezalakuen, danakaz lagun*
- *bankora dxun bi zan dot dirue eskatuten; lotsatu ein nai, baie arpidxe imiñi bi zan dot*

## ARPIDXE ZATITXU

Aurpegia zatitu edo apurtu. Biak erabiltzen dira. Figuratiboan intentzioa hori da, jotzea. Baina pisuzko arrazoirik ez dagoenean ere erabili egiten da. Lotsak eman.

- *ara banuen arpidxe zatitxuko tzatela esan, ezotela entzungo geidrau ezer*
- *zuk esastazu niri, arpidxe be zatitxu eingostazule, da gure dot dxakiñ zeitrik*
- *ba, arpidxe zatitxuko tzutelakon, besterik ezebez*
- *da olan sin mas arpidxe apurtu? Zer dala ta*

## ARPIE DXOTEN

Ezer egin barik, eskua eskuaren gainean egoten.

- *zetan zauz or ba, arpie dxoten?*
- *bai arpie dxoten zeuk tiñozun moduen, baie biarrak nok eitxen txuz ba?*

## ARPIGUE

Aingura.

- *arpigue batun, baguez beste leko batera arrantzen*

## ARPIKAKA

Irain antzeko bat da. Ezizen bat ere badago.

- *arek arpikaka zantarrak eiñ dxost au arraskadie*
- *zu, arpikaka, obeto eingo zu arpidxe garbitxuten bazu*
- *zuk eztakostazu zetan ezan arpxikaka, arpeidxe garbi dakot eta*

## ARPIKUE

Aurpegikoa. Zartada.

- *arpikue emoten batzut ikusiko zu zuk nor nai*
- *zuk emoten bastazu arpiko bat nik bi emongo tzutez*
- *zer dabill orrek arpikuek emoten*

## ARRA BATEKO BIDIEN

Hurbil.

- *non dakozun boligrafue? Arra bateko bidien, zeure musturren aurrien dako zu*

- *Izaro urrun? Arra bateko bidien badauen!*
- *Kafranka eztau urrun, arra bateko bidien baño!*

## ARRA BATEKO GIXONA

Oso txikia.

- *arra bete be eztako ta, nora due bera baño andidxaueiñe?*
- *arra beteko gixona da, garriraiño be ez dxast aillegaten*

## ARRABIDXUE

Arrabia. Baina zentzu zehatzean. Gehiago adierazten du haserrea, umore txarra eta askotan gorroto antzekoa ere bai.

1. arrabia, haserrea.

- *zelako arrabidxue emon dost apurtu dxastendien*
- *arrabidxugaz papelak guztidzek apurtu txuz*

2. gorrotoa.

- *aurreitrik dakotsat arrabidxue, beti dalako aulakue*
- *ezin dxau ikusi dakotzon arrabidxugaz*

3. umore txarrean.

- *ez esan niri ezer, arrabidxotan nau te*
- *arrabidxotan zauzela pentzaten dot, etzut esango ezer*

Azkuek ez du jaso baina bai D.A.R.k, Lexikoa aipatuz. Hala ere, horrek *rabia* esanahiarekin baino ez du jaso. Beste batzuek **arrabia** hitza sartu dute.

## ARRAIN ZANTARRA

Pertsona fidagaitza, zentzu guztietan.

- *ez dxun aregaz arraiñ zantarra da ta*
- *ezin zara fidxe, arraiñ zantarran antza dako ta*
- *arrañ zantarrakaz dabillena, bera be arrain zantartu eitxein da*
- *ez ezan arraiñ zantarra, ta bota txistera or dakozuzen abillallanak*

Arrain zantarrak, balio gabeko arrainak izaten ziren antzina. Sarea bota eta denetarik harrapatzen zen: lirioak, txitxarroak, oilarrak, eta abar. Gero, zentzu hori pertsonak definitzeko erabiltzen zen eta orain, pertsona txarrak, badaezpadakoak definitzen dira hitz honekin.

## ARRAINTZUE

Arrain asko.

- *arraintzu ederrak eiñ dxauie*

- *arraintzu ederra dakar orrek baporak, onduen dator da*
- *etzien geratute arraintzurik ez*

## ARRAIÑE

Nahastea. Iskanbila. Gordinkeriak esaten duena.

- *arraiñe imitxie gustaten dxatzo orreri, beti nastie armatie*
- *arraiñe imiñdxe gero berak eskapa ein iau*

Kasu honetan substantibo moduan erabili da. Hurrengo kasuetan, ostera, adjektibo legez.

- *zelako arraiñe zara ba, aulan gustaten dxatzu zuri*
- *eztot kure aregaz ezer, arraiñe da ta*

## ARRAKERUE

Zekena. Dena nabi duena, dena beretzat gordetzen duena.

- *arrakerue da lez dana etzerako eitxen dau*
- *diruek eiñ txuz. Zelan eztau ingo ba, arrakerue badan*
- *bera arrakerue, aitzie arrakerue, da imiek pe arrakeruek*

Azkuek beste zentzu batez jaso du **jugador**, **tramposo**, **mañoso**. Baina Bermeon gaztelerazko **raquero** ren definizioa nolabait betetzen du hitz horrek: **ladrón**, **pirata de puertos y costas** Beraz, gaztelerazko esanahi horri jarraitzen dio.

**raquero** → **rakero** → **arrakerol**.

## ARRANKA

Zerbait martxan jarri.

- *arranka telebisiñue, ikusi gudot eta*
- *arranka afeitxeteko makiñie ondo badabill ikusteko*
- *txikiteue akaba ta gero etzerantz arranka du*

## ARRANKADIE

Abiatu, abiadura hartu, eta beste zentzu batetan, adorea.

- *arrankadie ezpadu artzien amen gelditxuko gara*
- *arrankadigaz beragaz kaleraño dxun gariez*
- *arrankadatik eztako orrek kotxiek*
- *atrakadie artun alabatxu, ostantzien bertan ongo diez biar guztidxek*

Argi dago gaztelerazko **arrancar** aditza erabili dela oinarri bezala.

**arranque** → **arranke** + **ada** → **arrancada**.

## ARRAPALDIDXE

Txakurrekin xaxatzea, norbaitek atzetik jarraitzea, harrapatzeko asmoz, edo uxatu eta ikara sartzeko.

- *sagarrak atrapatzen dxun garizenien zelako arrapaldidxe emon dosku al-dianuek ba*
- *arrapaldidxen bienganera dxeusitxe apurtu dau eskue*
- *eta arrapaldidxe emoten badosku zer engu ba? Eskapa*

## ARRAPATIE

Arrakasta. Merkatuan erosle asko egonez gero, jeneroa arin saltzen denean.

- *gaur plazan arrapata andidxe egon da*
- *egon dan arrapatiegaz eztot erosi ezebe*
- *portuen itsosupeteko arrapatie egon da eta arraiñek eztau eiñ bost minutu be, eskuetatik pe kendu*
- *beraniantiek etor diez da eurekaitzik on da arrapatie*

Hitz hau, moduzko forman agertzen da D.A.R.n, **arrapataka**. Gainera, ez du zentzu bera **precipitadamente** jartzen baitu. Hitzaren konposizioa **arrapa** hitza + **-ta** atzizkiak osatzen dute. Beraz, definizioa, harrapatzeko eskeintza izango da.

## ARRASA

Arrasto. Aztarna.

- *arrañen arrasarik pe eztau ekarri*
- *dirun arrasarik eztot ikusten*
- *zuk ikusi zu pastelan arrasarik? Guk dana dxanda topa du*
- *arigaz garbitxu ezketiño, loidxen arrasarik pe ezta ikusten*

**arrastoa** hitzaren laburpena dela dirudi, **to** galduz: **arrasto** → **arrasa**.

## ARRASKADIE

Karrasketa.

- *maidxie itxi dost arraskadaz beteta*
- *arraskada matxue dako arpidxen sasidzek eiñdxe*
- *markata itxi dau arraskadakaz, pellikadie eiñ dxau te*
- *bis-bisten dauz ein tsozen arraskadak armaidxuri*

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k Darrikagerre-ren zita bat aipatuz. Honek **rasguño** hitzez definitzen du.

## ARRASTAKA IBILLI / BIXI

Bizimodu arrastatua.

- *beran denpora guztidxen artastaka bixi, da oiñ au pague emon*
- *eztakot astirik be, arrastaka nabill frabikera ta*
- *arrastaka bixi de, baie noixipeiñ gustaten dxatzo ziñera dxutie*

Ez du Azkuek *arrastaka* hitzari jartzen dion zentzua, **humillarse** jartzen du, eta Bermeoko hitza bezala jaso du definizio honetaz.

## ARRASTIE

Arrakasta.

Behintzat zentzu hori dauka erabileran.

- *ez dxatzo geratu txillorik pe, okiñ dxauen arrastigaz*
- *eztaix topako bazu ezer, arrastie on da ta*
- *bestelako arrastie dako mutill orrek, danak beran atzien*
- *arrastie okin badau be, aur dau ezkondu barik*

**arrakasta** hitzaren laburpena, **-ka** atzizkia galduz gero egin da. Hala ere, azken hau, zaharren artean ere ez da ezagutzen, bestea bai, ordea.

## ARRAÑTXE

Gauzak batu. Ordenatu.

Itsasontzietan erabilitako hitza, gero hizkera arruntera pasatu da.

- *bodegak arrantxe bitruzena gizona da*
- *loidxie arrantxeten dxun bigara arratsaldien*
- *eziñ dxot urten kalera etzie arrantxe barik*
- *arrantxeta itxi dotez gauze danak*

Frantseseko **ranger** aditzetik datorrela dirudi. Hitz honek, itsasoan **ala** ematen du; beraz, gazteleraz **arranchar** = **recoger**, **ordenar**.

Hipotesi hau argi badago ere, ezin daiteke baztertu beste teoria hau: Hitz hau **arraiñ** eta **te** batez osotutako hitza izatea. Orain **te** hori, beste hitzen baten bukaera bada ala ez, ez da ziurra. Beste kasu askotan bezala, **ñ** ondoko sudurkariak **te** palatalizatu egin du.

## ARREKOKOZILLO

Sorbalda gainean norbait eramatea. Gehienetan umea.

- *erdu laztana, arrekokozillo erungo zaitxut*
- *arrekokozillo artzien banozu eztot eingo negarrik*
- *aitxe danak on diez imiek arrekokozillo artun de*

**kokozillo** hitza, buruaren amaieraren erdialdea da, atzeko alderdian.

**kokota** + **zillo** hitzez konposatua.

**zulo** → **zulu**; **zulu** → **zülu**; **zülu** → **zilu**; **zilu** → **zillu**.

**ü** horrek ez du zerikusirik zuberotarrarekin.

## ARRELEPO

**arrekokozillo**-ren parekoa, baina oraingoan lepoa (bizkarra) erabilia, Hala ere, ez da lepoan hartzen, ipurdiaren goialdean baizik. Gainera, kasu honetan ez dira izaten umeak bakarrik, nagusiak ere eraman daitezke.

- *marie gorantz etor danielen arrelepo pasa biar ezan dotez on dizen danak urek atrapa barik*
- *arrelepo eruteko andidxeidxe zara*
- *eziñ dxau korridu, da arrelepo erun bikozu*

Hitz hau ere **arrekokozillo** bezala konposatua da, baina oraingoan **lepo** hitza erabiliz. Azkuek Lekeitio eta Ondarrun kokatzen du hitz hau. Hala ere, esan beharra dago, Bermeon ere asko esaten dela.

## ARRIA / ERRIE

Beheratu. Gazteleratik hartua, zentzu berdinez erabiltzen da, eta ez bakarrik gazteleraz erabiltzen den moduan, beste gauza batzuekin ere erabiltzen da, horren aldaera dan **errie** aztertzea.

Zentzu berdinez erabiltzen dira biak baina erabiliagoa da azken hau. Hala ere beste zentzu askotan ere erabiltzen da.

- *arria/erria batela, geuk agarrako tsagu te*
- *arria/erria bera otzarie, pixo andidxe dako ta*
- *arria/erria beistek*

Hitz honetan ez da **ia** horretan ohiko **j** epentetikoa sartu, **a** → **e** bakarrik egin da.

## ARRIDXE TA ORMIE BAIÑO GOGORRAU

Gogorra. Konparazioan jarrera gogorra.

- *emon doskun okelie arridxe ta ormie baiño gogorraue ezan da*
- *arridxe ta ormie baiño gogorrau para dxast tripie; ia peritonitis bakot?*
- *arridxe ta ormie baiño gogorraue da, negarrik pe eztau eiñ entierruen*
- *neuk esan kotxie itxitreko, neurie apurtute dauela ta, da arridxe ta ormie baiño gogorrau, ezetz kontesta*



## ARRIKO TRAPUE LEZ IBILLI

Aintzakotzat hartu ez.

- *arriko trapue lez ibiltzen dau arek andra koitzadie*
- *berak tako kulpie, ez itxi arriko trapue lez ibiltzen*

## ARRIKOSKORRA

Harri txikia. Harkosko.

- *an dabill a arrikoskorrak botaten nobidxi*
- *arrikoskorrez beteta dau bidie ta takoiekaz ezin ibilli*
- *arrikoskorrak pitxién pitxién topaten zuz*

## ARRIKUE

Harrikoa.

- *arriko mandue ein bizan dot oire dxun orduko*
- *arrikue ein barik ez zu urtengo kalera*
- *hotel Erzillan be ez olako arrikorik*
- *zer dau arrikue ba, batek baiño geidxauek ein biko dau*

Azkuek Mundaka, Lekeitio eta Ondarrun kokatzen duen hitza da, baina hitz horren zentzua **fregar la vajilla**-ra mugatu du. Bermeon **fregado** izango litzateke; beraz, substantibo zentzuaz ere erabiltzen da.

## ARRIKUE (EIN)

Harrikoa egin. Azkuek bere hiztegian ez du jaso, baina bai Euskera III. an, D.A.R.k azaltzen duenez. Hitz hau Mundakan eta Lekeitio kokatzen du. Kintanak zentzu berdinez azaltzen du, hau da, **fregar** baina ez du inon kokatzen.

## ARRITXINGARRA

Harri txikiak. Harrikirria.

- *arritxingarrak takotez zapatan barruen*
- *arritxingarrakaz beteta dakoz partikarak*
- *arritxingarra bota dauie bidien da eziñdxe ibilli kotxerik*

## ARRO ZORRIZTO

Harroputza, dirurik ez izan arren.

- *zer diño berorrek arro zorriztuek ba, eztako dxateko be ta*
- *dxuadi arro zorriztori tokatzen dxatzun lekora. Kortara*
- *arro zorriztuek badauz amen erridzen, ezer okiñ ez da mundue dakoiela pentza*

- *zeure lagune be arro zorrizto bat da, beran nobidxue beste orrenbeste*

## ARROKAKA

Harroa eta handigurakoa. Harroa baino are harroagoa. Harro hitza era askotara erabiltzen da, graduaren arabera hain zuzen. Harrotasuna edo harrokeria. Azken hau izango litzateke hitz honen definizioa.

- *arrokaka bat da, goitrik bera beitzen tsu desprezidugaz*
- *orrek arrokakiek eztako zeri, eztako zer dxanik be ta*
- *genera ministrun alabie dala pentsaten dau*
- *arrokaka utse da, iñok eziñ dxau auenta beragaz*

Hitz honen konposizioan izen bat eta adjektibo bat batzen dira. **arro** + **kaka** → **arrokaka**.

## ARROTZAK

Barrabilak.

Legatzaren arbiak ere askotan **arrotzak** deitzen dira. Agian analogiaz.

- *enai kapaz arrotzatako miñegaz. Ori andrien faltie zu*
- *lebatzan arrotzak gozuenak tiez, baie niriez pe eztiz txarrak*
- *arrotzatan emon tzon golpigaz sentido barik itxi dau*

## ARROTZAK GORRINGO BIKUEK

Zerbait gainbaloratuta dagoela adierazteko esaten da.

- \*18 eurotan lebatzan kilue! Horren arrotzak gorringo bikuek diez.
- Ze karu dauen okelie! Arrotzak gorringo bikuek okingo dauz.

## ARRUEK

Harrokeria, baina pluralean erabilita.

- *Benidorrera duzela esan dosku, arruekaz*
- *arrueku dabiltzez etze barridxe erosi dauela ta*
- *arruekaz esan barik obeto ixillien gorde*

## ARRUEN ANDIKO MANDIE

Harroputza.

- *zu zara arruen andiko mandie*
- *arruen andiko mandie banai be neuretzat*

## ARTAZIDXERI EMOTEN

Berriketan.

- *an itxi dotez bidæk artazidæri emoten, da gero esango dauie biarrak takoiela etzeko*
- *artazidæri emoten zauzie, laster asarratuko zarie*
- *egun santo guztidæn dau artazidæri emoten*

## ARTAZI ZORROTZA

Mihi luzea.

- *alabatxi, nongo artazi zorrotza dako zu zuk*
- *bestiek pe eztakoie artazi zorrotza makala*
- *arek bakiru zer dakon, artazidæ zorrotza*

## ARTAZIDXE

Zentzu figuratiboan erabilia.

Kasu honetan mihia da. Horregatik erabiltzen da singularrean. Ia beti bigarren eta hirugarren pertsonan.

- *artazidæ arin dabill arek, baie berak atako dau kontue*
- *artaizi zorrotzeidæ dako zu, egunen baten disgustue okingo zu*
- *artazidæ luzie okiñ dæauelako emon tsat zartazue*

## ARTAZIDXE ZORROZTUTEN

Berriketan.

- *badaitx nik artazidæ zorroz tuten oten zariena Mariñelan*
- *artazidærek zorrotzu ondo, auntek, iñok eztauen artien entzuten*
- *gixonak pe artazidæ zorroz tuten oten diez*

## ARTEKADU

Artega. Urduri.

- *au imie artekadu dau, zeuzer dako*
- *artekadu on nai egun guztidæn, neure gizona etorri arte*
- *anekadu bazauz teie artun*

## ARTEKUE

Gorrotoa. Tirria.

- *ez gauz asarratute ez ariskitute, baie neure artekue dakotzat*
- *illdæ gero be, beran artekue dakotzo, eztau aztuten eintzona*

- *elekidau okin biar artekorik, oiñ ildxe dau te*

## ARTEZIDADIE

Egia. Egia arteza esan gura du.

- *eztau artezidadie esatie lakorik, gauzek argi itxi*
- *au de artezidadie eta ez zuk esaten zuna*
- *zer diñoten? Artezidadie, egi berdaderue, da zuk guzurre maridxe*

## ARTIEK ARTUN EZIÑIK

Sareak hartu ezinik. Figuratiboan bi zentzu:

1. Betekada jaten.

- *dxan dun bestegaz artiek artun eiziñik lotu garizen*
- *artiek artun eiziñik zauz da geidxau gure zu dxan*

2. Harrotuta.

- *eztaitz beragaz nok auentako dauen, arterik artun eziñik dau te*
- *diro apur bet irebazten dauinien artiek artun eziñik paraten diez*

## ARTZAKO ARIE BAÑO ZANTARRAUE

Zikina.

- *ori morroie artzako arie baño zantarraue da, beti due erropa zantarrakaz*
- *zer diñozu!! Dorleta ezta artzako arie baño zantarrau, a neska elegantie da txo!*
- *zeu bai zarala artzako basatzie baño zantarraue, egunero itsosupeteko zundiegaz zatoz eta!*

## ARTZAKO BELENIELAKUE

Zikina.

- *artzako belenie lakue da koitxadie*
- *baie ze loidxe da ba! artzako belenie baiño loidxaue da*

## ARTZAN ARIE LEZ

Asko. Ugari.

- *arek irebazten dau dirue, artzan arie lez*
- *artzan arie lez atrapa dauie arraiñe*
- *arek arboliek artzan arie lez emon txuz sagarrak*

## ASATRONGUE

Azaburua izan daiteke, baina ez dago argi. Konparazioan pertsonekin erabiltzen da gehienetan. Hala ere, gauzekin ere erabiltzen da, gauza bat dorpea denean, hain zuzen.

1. Barre gutxi egiten duen pertsona.
  - *azatrongue da orren gizona, ez tau barrerik pe eitxen*
  - *azatrongu lakue bada be diro asko dako*
2. Dorpea.
  - *azatrongu lako zapatak erosi txuz*

Hitzaren konposizioa **asa** eta **trongo** hitzez dago osotuta. **trongo** → **tronko**. Leherkari hoskabea, hostun egin da.

## ASAU

Urrun.

- *asautxuau tire ez zaitxut ikusten ondo ta*
- *asau dxun barik etzien dako zu olakue*
- *ez dxun asau berandu de ta*

Ez dakigu gaur egun beste inon esaten den, baina Bermeon ez da besterik erabiltzen **lejos** esateko.

## ASESIÑE

Nekatu.

- *asesiñe eiñ dxela etzeko biarrak eitxen ezan dau*
- *asesiñe-asesiñe ein etze guztiko kristelak garbiten*

## ASESIÑETA

Erabat ahulduta.

- *asesiñeta nau biarrak ein barik*
- *asesiñeta aillega gariez Mañure, on dan beruegaz...*
- *asesiñe-asesiñeta eiñdxuz San Juaneko eskillarak*

## ASIAU

Urrunago.

**Asau** hitzari **ago** gehituta izango dugu oraingo hau.

- *len baño asiau bixi de*
- *ez zu gure asiau dxuen?*

Azkuek, Bermeon, Mundaka eta Txorierrin kokatzen du bere hiztegia, baina **asago** forman agertzen da, eta forma horrek **más lejos** esan nahi du. Bermeotarrok biak erabiltzen ditugu normalean.

## ASKATAN

Ugari. Oparo.

- *dirue askatan irebazten dau arek*
- *arrañe auri, askatan atrapatzen ei dauie*
- *kaka be askatan eitxen dau gure imiek*
- *atzoko pelikulen askatan eiñ dxauie krimenak*

## ASKO GAZAK

Lelo antzekoa da. **zer egingo diogu ba!** esan nahi du. Dena barkatu behar dela.

- *arek esan dauela ni marikoie naiela? Ze ingo tzazu ba, asko gazak eta*
- *txo, ori morroie bobue da. Itxi dxok. Asko gazak eta*
- *partidue ikusten dxun biar, da okiñ ez non dxuen. Au de kalamidadie! Asko gazak eta*
- *andramaidzek abrosidute pasako tez auntxe be, arantz da onantz, urrubu-ruen antzien, asko gazak eta*

## ASMA

1. Nabaritu.

- *ze asma zu ba? Lepoko miñe lelau, da gero burukue*
- *zaratak asma dotez kamaran*

2. Entzun.

- *asma dot esaten ez tatorrela Bilbora, bidzar dxungo dala*

Ez dauka Azkuek, edo D.A.R.k ematen dioten zentzua. Gaztelerazko **idear** ematen diote.

## ASTAKADA

Ezpata sartzea bezala. Gaztelerazko **estocada** hitzetik hartua da.

- *zelako astakadie emon dost ba*
- *astakadie lez sartu tzat begitrik atzamarra*
- *astakadie emon tzonien salta saltaka asi de*

## ASTAKADAN

Askotan, moduzko adberbio forman erabiltzen da:

- *astakadan sartu dost kutzillue*
- *ixillik ez pazautz eskuetan dakotena sartuko tzut astakadan*

## ASTILIDXE / ASTILLEIDXE

Untzigintza.

- *astilleidxen dabil biarrien aitxegaz*
- *astilidxen daku enbarkaziñue, beiek konponduten*
- *astillei barridxen dau aren bapora*
- *astilidxeke gixonak tiez or dauzenak*

**astilleroa** → **astillerue** → **astilleue** → **astilleidxe** → **astilleidxe** → **astilidxe**.

Azken aldaera biak erabiltzen dira maizen. Hala ere ez da argia eboluzioa, zeren lanbide hori duen gizonari **astillerue** deitzen zaio.

## ASTILLERUE

Untzigintzan lan egiten duen gizona.

- *Sansón astilleruen semie da Fernando*
- *astillero onak tauz Bermion*
- *bai, Julio astillerue ona da*

## ASTO DXAIDXO TA MANDO HAZI

Pertsona dorpea edo trauskila dirudienari esaten zaio.

- *txo, asto dxaidxo da mando hazi aiz*
- *eztau orrelakorik, asto dxaidxo da mando hazi da, progresaten due*

## ASTO DXUN DA MANDO ETORRI

Ahankorrari esaten zaio.

- *asto dxun da mando etorri, auri ein zu zuk*
- *dxun ostabere dendara, baie ez ein asto dxun da mando etorri gero!*

## ASTO ZATI

Astakilo. Ezjakina.

- *asto zatidxe dalez, gauzek pe eitxen txuz edozelan*
- *zer da berori asto zatidxori, kisket barridxe be apurtu eñ dxost*
- *asto zatitxue da, eztaki non zer ein bi dauen*

## ASTUE KORTAN DA MANDUE ETZIEN

Pertsona ahanzkorra denean.

- *ekar zu ogidxe? aztu eñ dxast. Astue kortan da mandue etzien*
- *itxistazu dirue, etzien aztute nator da. Astue kortan da mandue etzien*

## ASTUEN BABAK

Edozer jan.

- *zer dau dxateko? Eztaitx. Astuen babak pe igual*
- *dxango astun babak pe dxan eingo lekitxuz*
- *awntxek, dakoten gosiegaz, astun babak dxango lekidotez*
- *zer eskatu ku dxateko? Edozer, astun babak tomatiegaz*

## ASTUEN PALOKADIE

Ondo etorri. Momentu egokian. Suertea.

- *zuk ekar dostazun telie astuen palokadie lez etor dxast, eztot okiñ dxe*
- *majo etor dxatzu aitxek emon tzun dirue, ezta? Astuen palokadie lez*
- *loteridxe astuen palokadie lez etor dxast etzie pagateko*

## ASTUENAK PE DXAN

Edozer jan. Astoaren barrabilak ere bai. Apetitu handia.

- *dxan, edozer dxango lekidot, astuenak pe bai*
- *txetxotxu, zer emon bi tzut dxaten ba, astuenak pe dxan eingo lekizuz de*

## ASTUERI ARRANTZIE ENTZUN

Dena entzun behar dela adierazteko.

- *astueri be arrantzie entzun bi dxatzo, asike asi berbetan*
- *dxesarri eingo gara, astuen arrantzie be entzun ein bi de ta*

## ASTUN UZKIDXE

Konparazioan, pertsona itsusia edo ezatsegina.

- *astuen uzkidxe lakue da koitxadie, feiaue da*
- *ez dxast gustaten bape, astuen uzkidxen antza dako ta*
- *ori txe astun uzkidxe, bardiñek*

## ATA KONTU

Atera kontua. Lelo baten antzekoa da. Esaldi egin bat hitz baten bihurtu da.



- *ata kontu postie naiela, berton, mobidu barik*
- *ata kontu inuzentie naiela, eztost kasurik eitxen da*
- *zer dau berton ba! Ata kontu andramaidzek tizela*

## ATALO / UE

**Pez luna** arraina da. Konparazioan erabiltzen da. Lodi eta dorpea den pertsonari, hain zuzen.

- *txo atalo, etorrik ona, zer dxaten zun esateko*
- *ataluen antzeko morroi bet ezan da etor dana*
- *gero be ezango aiz atalue, eztok ernegaten da*

## ATAPOSTA / ATEPOSTA

Etxeko sarrerako atea.

- *atepostako atie igiritze dau*
- *atapostako ate barridxe imin bidu*
- *atepostako atie dxo dau baten batek*

Ikusten denez, aurreko hiru esaldiotan **atea** hitza errepikatu egiten da, ez, ostera, hurrengo esaldietan:

- *atepostako giltze galdu dot*
- *atepostan topa dot neuri begire*

Hitz horren konposizioa **ate-oste** izan daiteke baina ez da ziurra, ezpainetako **p** leherkaria desarroilatzen baitu.

**ate + oste → ateoste → ateosta → ateposta.**

## ATARA KONTUE

Zer egin pentsatu. Esaldiasen arabera hartu behar da zentzua.

- *zer ein gun gaurtik aurrera, kontuek atara bi duz*
- *ezpazatoz orduen etzera, zeuk atara kontue*
- *ni ez itxi amen bakarrik, dxun biar bazue dxuen, baie zeuek atara kontuek*
- *dirorik ezpadakoie bakaziñuetan dxuteko, eurek atako dauie kontuek*

## ATARAKO EIÑDXE

Egokituta. Bertakotuta.

- *amanetik asau bixi de, baie atarako eiñdxe idau*
- *da onek imiek eztau asmaten aman faltarik? Keba. Atarako eiñdxe ensegida*
- *lelangotan itxosuen faltatzue okitxen ezan dot, oiñ atarako eiñdxe nauelez, ba ondo*
- *leko guztidxetan eitxen da atarako, gixonagaz bazauz ganera, gitxiu asma*

## ATEZA

Atezatu.

Itsasoan erabilitako hitza den arren, gaur egun normalki erabiltzen da, gaztelerazko **tesar** aditzetik sartutako hitz hau.

- *atezuen dakoz frakak, laster apurtuko txuz*
- *buruko uliek pe ateza eingo tzutez txarridxorri*
- *atezuen bakozez, plantxe, da aulan ondo okingo zu erropie*

Azkuek, Lekeition eta Ondarrun jartzen du, baina Bermeon, esan bezala, asko erabiltzen da.

## ATRAKALDIDXE

Atrakua. Betekada.

- *zelako atrakaldidxe eĩn dxot pastelakaz ba; baie gero zer?*
- *atrakaldidxek eitxen abillek gara gu, dxan da dxan ezeri beitu barik*
- *atrakaldidxe eĩn dxauie bankuen, da diro pillue erun dauie*
- *geuk pe atrakaldidxe ein biku dirorik eztauenien*

Bi hitz dira berba honen osaketa: **atraku** eta **aldia**. Palatalizazioa normala da Bermeoko hizkeran.

## ATRAPATA EGON

Burutik eginda edo erdi eginda. Pertsona baten jarrera normala ez denean. Baina, askotan, iraintzeko erabiltzen da.

- *txo! ori morroie atrapata dau, ez da normala*
- *ori eingostak ba, atrapaten asitxe au ela?*
- *karretemen astue atrapata dau*

Gazteleratik hartua, guztiz sustraiturik dago. Hala ere, ikusten da zentzua ez dela gaztelerazkoa.

## ATRAPAU / DA / IE

Zorua. Erdi zorua. Zentzu peioratiboan ere erabiltzen da.

Eroa edo erdi zorua. Batzuetan konparazioan erabiltzen da.

- *txo! atrapauen antzekue, etorrik ona*
- *zure lagune atrapau bet da*
- *orren alabie atrapada utse da*
- *alabatxu, atrapadie zara zu orrek gauzek esateko*

**atrapado** → **atrapaue** (gizonezkoa), **atrapada** → **atrapadea** → **atrapadie** (andrazkoa).

## ATRASIEN

Atzekka. Itsasoko terminoa herrira pasatu da.

- *atrasien dxun notak, eta edxotak ikusi atzien dauena*
- *aurrera ein biarrien atrasien dxun nai da uretara dxekusi nai*
- *atrasien-atrasien dxun zak, gero ta geidxau, da ormie dxo*

## ATREBIKUNTZIE / DXE

Atrebentzia.

- *aren atrebikuntzie ikusten zu, eztako arpidxen lotsarik*
- *zelako atrebikuntzidxe aitxe santuri olan berba eitxen*
- *uger duentien eztako ikarararik, atrebikuntze andikue da*

Askotan egiten den bezala, erdarazko hitz batez eta euskal atzizki baiez baliatuz, hitz berria sortu da.

Konposizioan, **atrevi(miento) + -kuntza** atzizkia. **atrever + kuntza** → **atrebekuntza** → **atrebikuntze**.

## ATROZA

Txistagarri (pertsona). Baina, batzuetan, beste zentzu batez ere erabiltzen da, nahiz eta asko urriagoa izan erabilera.

- *benetan da atroza, edozegaz eitxen dau txistie*
- *kalien total atroza, baie etzien zumurutu utze*

## ATUN BIRIBILLE

Pertsona potoloa. Gehienetan emakumea eta askotan gaztea.

- *mardo dau e? Bai, atun biribille dozu*
- *imie da, eder edertzue, atun biribille lakue*
- *ez dxan asko, atun biribille lez parako zara ostantzien*

Arrantza arloan, atun biribila, pisu erdiko atuna izaten da, ez txikia, ez handia. Bospasei kilokoa izaten da. Arrantzale giroan erabiltzen da. Noizbehinka entzun izan da auzoetan, baina oso gutxi.

## ATUNBURUE

Dorpea. Pertsona eta gauzak.

- *atunburu utze da, eztau bururik kantzaten*
- *atunburue ezan bide orrek gauzek esateko*
- *onek zapatak atunburuek tiez*

## ATUNZARRA

Trikimailu asko dakien pertsona. Badago ezizen bat ere.

- *orrek badzakik nondik ibilli, atunzarra da ori*
- *atunzarran gauzek tiez orrek, eztau engaiñeko inok*
- *baie atunzarra be dxeusten da tranpan*

## ATXAGANEKO BIRJIÑIE

Nahikeria asko daukan emakumea.

- *zer da! Nok auentako dau berorregaz atxaganeko birjiñiegaz!*
- *eztot kure berori atxaganeko birjiñie*
- *berorrek atxaganeko birjiñiek eztako lagunik pe*

## ATXURRE

Aitzurra.

- *atxurregaz soluen biharrien gau ta egun, mangata nau!*

## ATZAMARRA EMON DA BESUE ARTUN

Abusatzea.

- *bost sagar artzioko esan da amar artun, ori da atzamarra emon da besue artzie*
- *auri eitxen dau arek beti, atzamarra emon da besue artun*
- *niri ez eiñ atzamarra emon da besue artun gero, orduen etorko zarala da etorri bez*

## ATZE TXARRA

Ondorio latzak.

- *orrek politikiek atze txarra ekarko dau*
- *onek aiziak atze txarra dakar*
- *atze txarrak gauzek ondo eitxen ez tizienien etorten diez*

## ATZEKO OTZIK

Ausarta izan.

- *onek eztako atzeko otzik, berrogei milloiko etzie erosi dau*
- *nik eztakot atzeko otzik oneri lau berba esateko*
- *osti batzuk emoteko eztakot atzeko otzik gero*
- *ametik eta Gernikera oiñez dxuteko be eztako atzeko otzik, eztako ikararik*

## ATZEKO TIRIE

Beheranzkotan.

- *atzeko tirie okiñ dot, eta enai uretan sartungo*
- *artun manzanillie, ona da atzeko tirientzat eta*

## ATZEZ!

Bai zera! Baina tonua despektiboa eta izaten da.

- *zer esan dau, eingo dauela? Bai, atzez*
- *egidxe diñozu le? Atzez! Ori ezu siñistuten zeuk pe*
- *nik emon zuri dirue? Atzez!*

## ATZITXU

1. Zikinduta. Zentzu honetaz jaso da kasu honetan.

- *nondik zatoz olan atzitrute?*
- *erropa guztidæk atzitru zuz*
- *atzitxu-atzitru eiñdæ zatoz*

Azken honetan errepikapena erabili da.

Baina moduzko formetan beste zentzu bat ere adierazten du:

2. Ustelduta (diruz, zorrez)

- *zorrez atzitrute dauz, da, ondiño, a erosi da ori erosi dabiltzez*

D.A.R.k azken zentzu hau jaso du Mundakako **Otxolua** idazlearen zita bat aipatuz.

## ATZO GOIXEKO / UE

Gaztea ez dena.

- *orrek andriek zer pentzaten dau ba, atzo goizekue dala?*
- *a bera be ezta atzo goizeko lorie gero*

## ATZOKOPASATA

Herenegun.

Atzokoa pasatuta, baina alderantziz, hau da, atzerantz, aurrerantz egin beharrean.

- *atzokopasatan dxun gariez Dolostire*
- *atzokopasatan esan dau etorko dala baie ezta etorri*
- *atzokopasatatik ona dau oien*

## AU BETEKO AZURREGAZ ITXI

Ahoan hitza dela utzi.

- *eztost entzun be eiñ da au beteko azurregaz itxi nau*
- *etorko dala ta ezta etorri, au beteko azurregaz itxi gaitxuz*

## AU DOK E!

Hau da hau!

- *Bilbora dxun gurez da bertara dxun bidotela, au dok e!*
- *au dok e! Dxaidxek pasa ta oiñ diro barik*
- *au dok e! Ordu bidxek eta ondiño dxan barik*

## AU DXANDA DAU

Hau irabazita dago. Eginda dago.

- *erdu etzera, au dxanda dau te. Dxakin dxot nok irebaziko dauen*
- *ez esan iñori baie au dxanda dau, laster etorko da erosi bi dauena*

## AU EIÑDXE DAU

Eginda dago, ez dago besterik.

- *au eiñdxe dau, amen eztau zeregiñik*
- *orduen au eiñdxe dauela ta ez tu mobiduko atzamar bat?*
- *ze kristo eingu guk, au eiñdxe badauen?*

## AU GOZOKUE

Sibarita. Moko fina.

- *eztau dxan marmitxe, gerokue dxan dau. Au gozokue dozu*
- *nori ez dxatzoz gustaten gauze onak ba, danok gara au gozokuek*

## AU ZANTARRA

Aho zikina.

- *orrek andriek zelako au zantarra dako*
- *imiek pe au zantarra dakoie, lotsarik pe eztakoie*
- *ori au zantarra lejiagaz garbitxuko tzut*

Izenaren funtzioa betetzen du.

## AU ZANTARREKUE

Ahobero.

- *ongo zarie isillik au zantarrekuok*
- *au zantarreko gizona dako, da bera mixi-mixi utse da*

Kasu honetan adjektibo funtzioan agertzen da.

## AUEN DA MIÑIEN

Ahoan eta mihian.

- *bestela nabillie auen da miñien*
- *auen da miñien ibilli arren ezta kot euren kontorik*
- *sarri dabill ori aumiñien, berak dxakingo dau zeitrik*

Hitz konposatu honek bi izen hartzen ditu:

**aoan + minean.**

## AUENBOLUE

1. Berba egiteko arazoak dituen pertsona.

- *ez dxatzo enteniten auenbolue dako ta*
- *auenbolue lez eitxen dau berba*

2. Boz-goran berba egiten duena.

- *auenbolo utse da, danak dxakin bidawie non dauen*
- *auenbolo, isillik on zaitrez, isillik on*

## AUMENTA

Aipatu.

- *ni ez aumenta ezetako be, ez onerako ez txarrerako*
- *danak esan txuz baie bera eztau aumenta be egiñ*
- *aumenta be ez ein gauziori gero, ezta kigu egidxe bada ta*

Azkuek Erronkarin, Binkozen jaso du zentzu berberaz.

## AUNTXEK

Orain.

- *auntzek nuen Jontruñe*
- *auntzek bertan jun de*
- *auntzek nuen amagaz Aritzatxure*

## AUNTXEKUTAN

Oraingoan.

Forma indartura pasatzen dugunean gertatzen da.

- *auntzekutan bai! Auntzekutan etorko da*
- *auntzekutan ezpazu eitxen, ezu inoiz be ingo*
- *esan zu auntzekutan dxungo zarala*

## AUPE

Ugaritasuna.

- *dirue aupe dakotzue arek, erribera*
- *sagarrak aupe emon txuz arboliek*
- *arrañne aupe ikusten da portuen*

## AUR ESANDA

Esanda geratzen da. Lelo baten moduan erabiltzen da.

- *nik etzut ingo kasurik, neuk takot errozoie ta, aur esanda*
- *esan tzut ainbeste bidar enaiela etorko, aur esan da*
- *ez zara dxungo Bilbora gastuek eitxen, eztaku dirorik eta, aur esanda*

## AURI DOK!

Hori bai hori!

- *auri dok popatik emotie frakak baja barik*
- *auri dok guzurre esatie!*

## AURI DONA!

Hori bai hori! Baina emakumeen hizkeran.

- *auri dona! Etzut esan neuk pe gure dotela ori telie? Da oiñ zer!*
- *auri dona personiri biarra eitxie*

## AURRERA ETORRIDXE

Oso zuhurra.

- *ori imie aurrera etorridxe da, asko daki dakon edaderako*
- *aurrera etorridxek ezaten diez txarrenak, dana da gitxi eurentzat*

## AURRERA PROSESIÑUE

Aurrera egin beharra.

- *gauzek txarto etor dxaskuz, baie ze ein gu ba, aurrera prosesinñue*
- *txarraurik eztauen artien, aurrera prosesinñue*
- *euririk eitxen eztauen artien. aurrera prosesinñue, plaidxera egunien egunien*



## AURREZPIDE / AURRERAZPIDE

Aurrerabide.

- *guzan dot ein baie eztost emon aurrezpiderik*
- *aurrezpidie emoten batzazu, laster etorko dxatzu*
- *aurrerazpide gitxi emoten dauie gauzek eitxeko*
- *aurrerazpiderik ez patzu emoten, ez esan zeuk pe ezer*

## AURTENGO ABERATSAK

Aberats berriak.

- *aurtengo aberatsak tozuz orrek, etzazu igarten ela?*
- *bai, bisten dakoie aurtengo aberatsak tizena, eun mille kate daruie ta*
- *Torrebiejako etze danak erosi tzue aurtengo aberatsak*

## AUSI

1. Zaunka egin. Aditz legez erabiltzen da.

- *beziñuen txakurre egun santo guztidxen dabil ausike*
- *baserri batera nuen bakotzien txakurrek ausi eitsen dostie*
- *Mikelen andrien txakurre beti dau ausike*

2. Hautsi, apurtu.

- *mozkorran pasiñuegaz, basue berenganera jeusi dast, eta ausi eindxe*
- *Jontxuk patiñetan dabilela, jeusi, eta eskumuturre ausi dau!*
- *Ibanek futbitoka txilenie eiñ, eta lepue ausi dau!*

## AUSIDXE

Zaunka.

- *txakurrek eiñ dosten ausidxegaz ikaratu ein nai*
- *osaban txakurren ausidxegaz kaka frakatan!*
- *txakurren ausidxe ezta ezer, otsuenagaz bai ikaratu!*

## AUSPEZ

Aurrez erori, aurpegia aurretik.

- *izterrak laban, eta auspez berenganera!*

## AUSPO

Haitz artean gertatzen den putzu erraldoiak.

Nik neuk ez dakit nondik etor litekeen. Gehienetan hondartzan edo haitzetan eratzen diren putzu handiei dagokie.

- *auspo txikidxen eiñdxu uger*
- *enai atrebiten auspo andidxen sartzien*
- *auspo txikidxen edo auspo andidxen majo eitxen dau uger*

## AUTOMOTORRA

Ziklomotorea.

- *automorra erosi dau uden Aritzatxure juteko*
- *kontuz ibil bide automorragaz euritxen*

## AUZOKO FRAILLIE

Ezezaguna den edonor.

- *nogaz dxungo nai plaidxera ba? Zera! Auzoko frailliegaz!*
- *ama, nor etor da etzera? Nor ezan dan? Auzoko fraillie*
- *zuk zer pentsaten zu ba, auzoko frailliek eitxen dostezela niri biarrak?*
- *ba zuk ezpazu gure eiñ, esan auzoko fraillieri berak eitxeko*

## AUZPEZ

1. Ahozpez.

- *auzpez dxekusi da kalien, da mosuek takoz anditxute*

2. Korrika edo arineketan zerbait egitera joaten denean.

- *auzpez dxun da ori, gauzek erosten*
- *auntzek nuen auzpez, pelikulie akaba orduko*
- *auzpez dabiltsu a biarrak akabaten plaidxera dxuteko*

Lehenengoak bakarrik dauka esanahi konkretua. Azkuek, **aozpez** jaso du, baina lehenengo zentzuaz.

## AUZUEK BATUN

Arropa edo galtzetinetan zuloak edozelan jostea.

- *aren izarien zuluek, auzuek batunda dxosi dotez*
- *kaltzetinen zuluek errapasa ein bi diez, ez auzuek batun*

## AXIXAN / AUDIAN

Etzetik kalera joatea suposatzen du. Umeei esaten zaie.

- *laster amumagaz aixixan dxungo zara laztana*
- *zeitrik eitxen zu negar ba, ez zaitxuzelako axixan eruen amumak?*
- *ona bazara, amatxugaz dxungo zara aixixan*

## AZALA KENDU

Kritikatu.

- *badaitx nik, neu ez nauenien azala kentzien dostazuiena*
- *arratzalde guztidxen on diez arek mundu guztidxeri azala kentzien*
- *beran lagune da, baie azala kendu tzo goitzrik bera*

## AZE GAUZIE

Mesprezuzko esaldia da. Guztia arbuiatzeko leloa.

- *aze gauzie esan zune, ori danok takigune da*
- *erropa barridxe erosi dauela diño, aze gauzie*

## AZE!

Mesprezuzkoa dugu. Zentzu despektiboa dauka.

- *ori erosi zu? Aze!*
- *aze bertara dxutie. Eztako leko obarik?*
- *aze, beragaz mutillegaz ibilli biarra*

## AZELERA

Haserretu. Zenetik irten.

Aditz funtzioan.

- *ori esan tzonien azelera dxatzu da emontzo belarriondokue*
- *ez azelera iñor, bakie biar du te*
- *ez azelera! Trankil, denporie dako zu danatarako ta*

## AZELERATA

Haserretu. Zenetik irten.

- *azelerata etor da lotsak emoten*
- *azelerata bazauz tila artun*

Erdarazko **acelerar** aditzetik sartua, esanahi ezberdinetan erabiltzen da.

**acelerar** → **azelera** → **azelera**.

## AZKANENGOBIGARREN

Azken aurrekoa. Logikaz egindako hitza.

- *noix zara ba? Azkaningobigarren*
- *azkaningobigarren dxun nai da sandxie galdu dot*
- *azkainingobigarrenari emon tsat sandxie*

## AZKORDIÑEK

Ospelak.

- Hotzagaz azkordiñek urten dostie izterran.
- Hotzan pasinugaz azkordinek dakoz atzamarratan.

## AZORRAZIDXEK

Berriketa. Mota guztietako esamesak direla adierazten du.

- *azorrazidzek guztidzek batzien ibiltzen dxatzu a*
- *nireñe ez etorri azorrazidzekaz*

*eragin* aditza erabiliz:

- *beti zauz azorrazidxei eraitxen*
- *erain beti, betiko gauzei, erain azorrazidxei*

Galtzen ari den hitza da. Jadanik, berrogei urtetik gorakoetan baino ez da entzuten.

**aza + orri + azi → azorrazi.**

Baina, Koldo Izagirreraren **Lokuzioak** liburuan, **hasi orraziak gertakizunak** definizioaz dator. Hitzaren jatorria hori izan daiteke, baina zentzua bestelakoa da.

## AZOTA

Erabat nekatu. Aditz funtzioan.

- *azota-azota ein nai eurek erropak garbiten*
- *azota bazara zeuk tako zu kulpie, ez ein biar*

## AZOTATA

*azota* bera, baina adberbio funtzioan.

- *azotata nau eurek egurrek txikitxuten*
- *Mañure dxun gariez da azotata aillega gariez*
- *plaidriek azotata itxitxen zaitxuz*

Beraz, ez du gazteleraz duen esanahia.

## AZPILDXUREKO ZORRIDXE BAIÑO EPELAUE

Erabat epela, ahula.

- *ori andrie azpildxureko zorridxe baiño epelaue da*
- *txetxo mobiko zara, azpildxureko zorridxe baiño epelaue zara ta*
- *geure katue be aulakue da, azpildxureko zorridxe baiño epelaue*

## AZPITXIK GORAKUE

Ostia eman.

- *emon tzozen azpitxik gorakuek ikustekuek ezan diez*
- *emoten tzuten azpitxik gorakuegaz, beiegaz be bat eingo zu*
- *emon azpitxik gorako bi, ia eskarmentaten badan*

## AZTUZKUEN

Ahaztutakoan. Inor gogoratzen ez denean.

- *orain itxi aulan da aztuzkuen agarrako tsagu ostabe*
- *aztute itxi dun bertan, da aztuzkuen non diñoskun berana dala*
- *ez ein kasurik aztuzkuen erun gu te, ostantzien aldarrike asiko da*

**aztutakoan → aztuzkoan → aztuzkoan → aztuzkuen.**

## AZUKALLO

Azukrea edo azukre-ura da, baina esanahia pertsona sentibera definitzeko erabiltzen da. Baita konparazioan ere.

- *zer zara ba, bestelako azukallue zauz or*
- *ez esan ezebez orreri azukalluri*
- *azukallue lez gauz, ezer ez esateko moduen*

## AZURREK TXIKITXU

Jipoitu.

- *esan zure lagun lotzabakueri, ara banuen azurrek txikitxuko tzatezela*
- *bazara kapaz azurrek txikitxuteko la?*
- *zuri azurrek txitxitxuteko ezta biar askorik*

## AZURREN URUNDU

Jipoitu, era gogorrean.

- *nireiñe ez errime, ostantzien azurrek urundute itxiko tzutez*
- *pellikada matxue on da aur tabernan da bata bestiri esaten ezan tzoie, azurrek urunduko tzozela*
- *emon tzon zartazuekaz urundu tzoaz azurrek*

## AZUZKIDXE

Ezer ez.

- *arrañik ekar badauie? Azuzkirik pez alabatxu, itxosuek sikatute dauz*
- *ez kantsa etzut emongo azuzkirik pez da*

- *azuzkidæen azuzkirik eztot ikusi bertan, osasunik pez*

## B

### BABALORIE

Bi zentzutan erabiltzen da esaldi hau:

1. Malezia gabeko pertsona.
  - *eztau artzien ezer txarrerako, babalore utse da*
  - *enebada! Aregaz babalorigaz zabiltzez, sekule be ezu dxakingo ezer*
2. Puta.
  - *orrek esan dauen enbrie babalorie da, edozeiñegaz dabill*

Azken hau, gazteen artean erabiltzen da gehien bat.

### BABAZTO

Ahobero. Ez da adurtia hitzaren zentzu konkretuan.

- *txo babazto, ezetz esan ostabere orrek berbak*
- *bestelako babaztue zauz or, obeto lotsa apur bet okitxen bazun*
- *aren mutilagune babazto utse da*

### BABILLE

1. Zakila.
  - *babille opera tsoie da oraiñ an dau ezer ein barik*
  - *babille txikidxe dakoienak ez dakoie arrastarik*
  - *ime moko batek baño babil txikidxaue dako*
2. Tripa haundia.
  - *Olentzeron babille dakola ata kontu!*
  - *txo holako babillegaz makurtu be ezin zara ein!*

### BADAEZPADAKUE

1. Pertsona fidagaitza.
  - *ez fidxe orregaz, badaezpadakue da ta*
  - *aregaz badaezpadakuegaz dabil? koitxadie! Eztaki nogaz dabillen*
  - *kotxie badaezpadakue da*
2. Zalantzazko erreputazioa daukan pertsona.
  - *auntxe dakozu badaezpadakuen antza*
  - *Mundekako badaezpadako enbra bategaz ibilli de*

## BAFADA / IE

1. Berotasuna.

- *zelako bafadie dator kaletik ba, eziñ dxe auenta beruegaz*
- *beruen bafadie arpire datost, ixerditxen nau*

2. Usain txarra.

- *ekar dauen bafadiegaz idxe danok desmaidxe*
- *puf! zer da bafadie! erdu ametik!*

## BAIDEKUE

Batela. Badian, arrain txikitan erabiltzen den batela.

- *baidekuek buelta eiñ dxau, ta idxe itxo eiñ dxiez*
- *baideko barridxe erosi bi de*
- *baidekuen dxun diez Izarorarte*

## BAIE KAKUEN DA URUNE AUZUEN

Bai, baina...

- *ezta etorri baie. Baie kakuen da urune auzuen*
- *esan dau eingo dauela baie... baie kakuen da urune auzuen*

## BAJERIE

Beherazkoa.

- *bajeriek urten tso pantalonatara*
- *emon tson notezidregaz bajeratan para da*
- *bajerintzako limoien ure da ona*

**bajada** → **bajara** → **bajera**.

## BAKARTADAN

Bakardadean.

- *bakartadan zabiltzez, non itxi zu gizona ba*
- *beti nabil ni bakatardan, nogaz ibilko nai ba*
- *bakartadan ibilltxie ezta ona ba*

## BALA-BALA

1. Eten gabe.

- *bala-bala dator arrairte*
- *bala-bala dator jentie paillazuek ikusten*



2. Jende edo gauza bereziak.

- *bala-balako pertsonak eitxen dauie parrandie*
- *bala-balako arraiñek bertanbera itxitxe dxun dxatzuz, beste batzun bille*

## BALANDRIE LEZ

Gorputza balantzaka.

- *dakon pisuegaz balandrie lez korriten dau*
- *balandrien korrikunie dakule etzeko guztidroxok, esaten dauie*
- *ainbeste denpora itxosuen on da gero, errire zatozenien be, balandrie lez korriten zu*

## BALANTZADA / IE

Balantzada.

- *zelako balantzadie eñ dxau ba, dakon mozkorragaz ez da estrañue*
- *balantzadiegaz bienganera dxeusi de*

Gazteleratik hartua, **ada** atzizida jarrita sortu da hitz hori.

**balanceo** → **balanzea** → **balantzada** → **balantzadea**.

**ea** → **ie**.

Azkuek ez du jaso eta D.A.E.k **balantza** hitza jaso du Aranzazu egutegian dakarren zita bat aipatuz. Hiru Mila Hiztegian **balanizada** agertzen da.

## BALANTZADAKA

Balantzaka.

- *bapora balantzadaka dxun da lez, marie eñ nai Madalen egunien*
- *balantzadaka dabillenien bapora, birinbolaka ibilltxen da jentie*

## BALBA / IE

Balbe. Baina ez da kasu honetan *herio*, zorte txarra baizik. Pertsona edo gauza izan daiteke.

- *gugaz datorren personie balbie bada, ez du atrapako arraiñik*
- *aren gizona balba txarridxe da*
- *ori bapora balbie da, eztau atrapatzen arraiñik*
- *bera balbie bada nok pitzo*

Ez du, Azkuek bere hiztegian jartzen duen zentzua. Honek zoritxarra dakarren pertsona dela dio balbea. Bermeoko hitza bezala azaltzen du.

## BALDIE

Difamazioa. Fama txarra.

- *zuk zabaldu dostazun baldie ia nok batungo dauen oraiñ*
- *baldie zabaldu tsola ta juzgadora erun dau*
- *berak esan dau baldie zabaldu tsola*

## BALE BALEKA

Ezkutatzen. Ezkutaketan.

- *ez pentza zeugaz bale-baleka ibillko naiarik, ime txikidxe lez*
- *bale-baleka ibilli biar berak ez ikusteko*
- *bale-baleka ibilltxie lez ibilli gariez tabematatik, lagunei eskapando*

## BALORA

Ausardia.

- *balora bide ori eitzeko gero*
- *balora dakozu zuk otorko zarala ta gero etorri bez?*
- *zuk eztakozu balorerik niri orrek berbak esateko*

## BALTZAMO

Oso beltzarana. Baina horrenbesteko beltzarana ez denari, gaztelerazko **moreno** esaten zaio: **morenue**.

- *ezu ezetuten orren gizona alako baltzamo bat?*
- *bera enbrie baltzamo-baltzamo bat da*
- *ez artun geidxau eguzkirik baltzamu lez parako zara ta*

Hitz hau ez dator *beltzaran* hitzetik, baizik eta *baltz* + *ama* bi hitz hauen konposaketatik; zeren, sarritan, emakumezkoari dagokionean, *BALTZAMA* ere entzuten da, gaur egun gutxiago bada ere. Eta horrela, gizona, maskulinoaren ezaugarria jarri zaio. Dena den, hau ere, gero eta gutxiago entzuten da.

## BALTZO / UE

1. Baltzu.

- *baltzuen dauen dirue zapatuen errepartiko du*
- *irabazten dun guztidxe baltzure botako du, da gero bakotzak berana artungo dau*

2 . Taldea.

- *zure lagune be baltzokue da*

Azkuek *sociedad de comercio* jartzen du bere hiztegian. Baina Bermeon ez da horrenbestera. Lagun artekoa ere izan baitaiteke.

## BALTZUNE

1. Ubeldura. Kolpe baten marka. Zentzu honetaz erabiltzen da gehien bat.

- *eskillaratik dxeusi de ta baltzune andi bet eiñ dxatzo*
- *baltzunez beteta nau, bata baño bestie andidraue*

2. Hodei beltzak.

- *euridxe eingo dau, baltzune bat dator da*
- *dxakin dxot nik euridxe eingo dauena baltzunek ikusi dotezenien*

Azkuek ez du jaso esanahi honekin; bai, ostera, D.A.R.k, Astarloaren zita bat eta Kirikiñoren beste bat aipatuz.

Baita P.M.k ere. Bermeon oso erabilia da.

## BANDULERA / IE

Beti da femeninoa. *bandolero* hitza andrazkoei aplikatuta agertzen da. Zentzua ere ez da gozoa. Gehienetan etxean gutxi egoten den pertsona izango da.

- *olan pentsaten zu ibiltzie, bandulerielez, etzera sartun barik*
- *bandulera zantarra, non ibil zara gau santu guztidxen?*
- *bandulerie banai, neuk gu dotelako nai*

## BAPIRU

1. Kukumikuka jokoa.

- *erdu bapiruke obeto ibilko gariez da*
- *ibilli geugaz bapiruke*

Gero hizkera kolokialera pasatu da.

2. Edozein egoeratan, ezkutatze ekintza izango da.

- *zuk pentza barik kero imiek garizela zeuekaz bapiruke ibilltxeko*

Elkar ikustea nahi ez dutenean egindako destaina.

- *bapiruke ibil gariez imien moduen eurek ez ikusteko*
- *imiek bapiruke dabiltzez plaza barridxen*

## BAPORA / BAFORA

Itsasontzia. Lehen lurrunezko itsasontziak zeudenez, *bapora* deitzen zioten, eta horrela jarraitu du gaur arte. Gazteek, hau da, hogeita bost urtetik beherakoek,

*motorra* deitzen diote, makinak motorrezkoak direlako. Hala ere, *bapora* ere normalki erabiltzen da.

- *orrek baporak mustur luzie dako*
- *areneko baporak eztau atrapatzen begirik be*
- *bapor barridxe arraiñ askogaz estreñe da*

Kintanak bakarrik jaso du bere hiztegian, baina beti bezala, ez du azaltzen non esaten den.

## BARBANTZADA

Irakitan dagoen likidoaren zarata izango da. Eta analogiaz, itsaso zakarra dagoenean ere, horri aplikatzen zaio.

- *uren barbantzadie entzuten da atxetan*
- *entzuten zu inñxaban barbantzadie?*
- *okeliek gozo urteteko barbantzadie galdu barik okin bidau*

Kasu honetan izenaren funtzioa betetzen du.

## BARBANTZADAKA

Irakitan dagoen likidoaren zarata izango da. Eta analogiaz, itsaso zakarra dagoenean ere, horri aplikatzen zaio. Adberbioaren funtzioa betetzen du.

1. Likidoa irakitan.

- *itxosue barbantzadaka dau, bidxar ez tuez itxosora*
- *ori lapikue asi de barbantzadaka*

2. Barrua irakitan. Haserrea.

- *barrue be barbantzadaka dakot emon dosten arrabidrugaz*
- *ez imiñi inñor barbantzadaka*

Hitz hau onomatopeiazko **bar-bar** izan daiteke, **-ada** atzizkia itsatsiz.

## BARBARAN ZAZPI BARRIEK

Etengabeko barreak.

- *zer da orrrenbeste barre emoten tsuena ba? Barbaran zazpi barriek tiez orrek*
- *zemat barre eiñ dxu ba, lotu be ez eitxekuek, barbaran zazpi barriek ezan dizela ata kontu*
- *isillik ongo zarie, aitxe dau lota, edo barbaran zazpi barriek takozuie*

## BARDINGO / UE

Ertaina. Pertsona eta gauza guztiei aplikaturik.

- *mutil bardingo pillo bat ondiez arraiñtzen moillen*
- *andidzek tiez etziek ela? Ez, bardinguek*
- *zelako basuek eta platerak erosi zuz ba? Ez andidzek ez txikidzek, bardinguek*

## BARRABASKEIDXE

1. Barrabaskeria.

- *auntzek pe orrek imiek eñ dxau barrabaskidzen bat*

2. Kaltea.

- *etsu itxi trinkadoriek abioire idæten barrabaskidxe ein barik*

3. Balentria.

- *arek Afrikan barrabaskidxe eñ dxau, inok paiño arraiñ geidxau atrapa*

Gaztelaniako **barrabasada** → **barrabas** + **keria** → **barrabaskeria** → **barrabaskidxe**

Azkuek ez du jaso. D.A.R.k gaztelaniako zentzuaz jaso du.

## BARRE MASIE

Barre asko.

- *beran esakerakaz barre masie eñ dxu*
- *atroza dozu, eskursiñuen dxun garizenien be, barre masie eñ dxu*

## BARRE FALTSO

Barre faltsua. Pertsona hipokrita.

- *zelako barre faltso da ba, edonor engaiñeten dau*
- *beran barre faltsue arpeidzen imitxe dxuen dxatzu kaletik*

## BARREKETA GITXI

Broma gutxi.

- *niri barreketa gitxi, eztakot bromatarako gogorik eta*
- *orrek eguno be eztako ganarik, orreri barreketa gitxi*

## BARROKUE

Tripulantea.

- *Canariasera aillega garizenien barruko guztidzek dxun garizen Athletic ikusten*
- *barruko bat ill dxe ta entierroa nuen*
- *eztaitz nik ori ixena dakon gizonik badan barrukue*

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k, Txomin Agirrerren **Kresala**-ko zita bat aipatuz.

Hitz hau kostan erabiltzen den hitz bat da, oso erabilia, eta hiztegi askotan agertzen ez dena.

## BARRU TXARREKUE

Gorrotoa izatea.

- *ori, benetako barru txarrekue da, eztau parkatuten ezebe*
- *ezta ezan biar banu txarrekue, naiku daku beste gauze batzukaz be ta*

## BARRUE

Itsasontzi bat, hobeto esanda, honen barrua.

- *barruen eñ dxu dxan da lo; gure gixonak biarrien dauzen artien gu Tenerife ikusten dxun gariez*
- *barruen eztabil zarrrik, danak kariez gaztiak*
- *barruen eztosku itxitxen telebisiñorik ikusten*

## BASATAN BE LO

Edonon lo.

- *ni loti utse nai, basatan be lo ingo lekidot*
- *Txo! Altzako zara ortik, azurretako miñik pe ezotzu eitxen? Basatan be lo*
- *ze ingo dot ba, lotidxe nai txe, ba, basatan be lo*

## BASOMUTUE

Basamortua. Kasu honetan **oihana** izan liteke, ez delako zentzu zehatzean erabiltzen.

- *basomuturarte dxun bizan du bera bille*
- *basomutuen bizi da ta*
- *basomutuen bizitxen dan jentie ez dxast gustaten*

## BASTIMENTUE

Elikagai hornikuntza.

- *bastimentuek eskasak tauz gure etzien*
- *gosie neikue ta bastimentorik ez*
- *itxosora duez ela, ta bastimentuek sartzieko esan dau patroiek*

Gaztelera-zko **abastecimiento**-tik dator, eta garai batetan asko erabilia izan arren, gaur egun galtzen ari den hitza da. Bermeon, adinekoen artean bakarrik erabiltzen da.

## BATEKO BASTUE

Zartazoa. Ukabilkada. Kolpea.

- *emoten tzuten bateko bastuegaz, ormiegaz bat eingo zu*
- *zelako bateko bastue emon dotso ba, aienaka bota dau*

## BATIITUE

Bataiatu. Baina Bermeon **bautize** berba erabiltzen da zentzu literalean. Hala ere, pertsona bat ez dela behar den modukoa, edo **kristiñue** adierazteko, hitz hori erabiltzen da zentzurik peioratiboenean.

- *zu ez zara batiitue, zeitxik ein zu ori?*
- *nor ez da amen batiitue, danak padiez antzekuek*

## BATUN-BATUNE

1. Batu eta batu dabilena. Gezurrak eta egiak, denak batzen dituen pertsona.

- *ez siñestu asreri batun-batune da ta*
- *zure lagunen aistien gizona batun-batun utse da*
- *zu barriz! andrak paiño txarraue zara, batun-batune*

2. Edonorekin dabilen pertsona.

- *ori lagun barik urteten dau parrandan, batun-batune da ta, gero edonogaz amaitxuten dau parrandan.*

## BATZO AREK BERAN BURURI

Norbere burua inorena baino gehiagotzat eduki.

- *batzo arek beran bururi, iñori kasurik pe ez dotso eitxen*
- *neuk pe, neuri komeniten dxasteniien badotsat neure bururi*
- *ene alabie! Badotsazu zuk zeure bururi, iñok pe ezin zaitxuz auenta ta*

## BAZIN

Potentzialaren baiezeko partikula.

Ahalerako aditza erabiltzeko forma berezia. Ez dago **ahal** erabili beharrik potentziala egiteko.

- *bazin zu kalera etorri bueltatxu bet emoten?*
- *ezin dxot etorri orañ, baie gerotxuau bazin dxot etorri*
- *Bilbora bazuez, da bazin bazu, ekarri neuri be medikuen bolantiek*

Forma hau, **ezin** en analogiaz egin da. Oso erabilia da, baina gaur egun, eta euskara idatzia gero eta gehiago sartzen ari denez, mesprezuz hartzen da forma hori. Ezjakinena bezala.

## BEDARLEKUE

Zelaia.

- *erdu haurra berdalekora fubolan jokatuten*
- *aritzatxun goiko berdalekuen beruegaz itxota on garan*

## BEGIDXE AFORRA

Begia beiztu kolpe baten ondorioz.

- *emon tson golpigaz begidzek aforra tsoz*
- *emoten tzuten ostidzegaz, begidxe be aforrata itxiko tsut*
- *begidxe aforra baiño arināu ekarri diruek ona*

Badirudi, antzinako txalupetako belak aforratzetik datorrela hitza, hau da, belak aforra edo batu. Baina zentzua ez da berdina. Horregatik beste hipotesi bat gaztelarazko **forrar** aditza izan daitekeela esan behar da. Beltzez estali.

## BEGIDXE BE OSTU

Edozer eta edonola lapurtu.

- *orrek denderiek begidxe be ostu eingo lekida*
- *begi bat bakarrik? Begi bidzek pe laster ostuko txuz orrek*

## BEGIDXE EZTA MANDUEN UZKIDXE

Begi zolia izan edozertarako.

- *esan dotsut nik auri erosteko, nire begidxe eztala manduen uzkidxe, baie zuk dardart*
- *aren begidxe ezta manduen uzkidxe alabatru, ondo azerta dau*

## BEGIDXEK ATARA

Beste askotan legez, bronka bat botatzea izango da. Hortik gora ez da egongo besterik.

- *ori dona ein dotsazun biarra, laster datortzu begidzek ataten*
- *enebada! Begidzek atako tzoz enteraten daniēn, neuk pe eingo lekitzat eta*
- *on apurtru baten ia, begidzek atako tzutez esan dostiena egidxe badan da*

## BEGIDXEK KALTERIK EZ EIÑ

Beti izaten da ezezkako esaldia. Ikusten ez denean esaten da.

- *aspaldidxon nire begidzek etzoie ein kalterik*
- *beran amak pe berori esan dau, beran begidzek etzoiela ein kalterik*



- *nondik zabiltzez ba? Bermion, non ibilliko nai ba. Ba nire begidzek etzue ein kalterik*

## BEGIDXEK LANKRIETA

Begiak lausotuta edo erabat nekatuta.

- *arek, berak gure txuzen gauzek ez ikusteko begidzek lankrieta okitzen txuz*
- *dakoten loguriegaz begidzek pe lankrieta dakotez*
- *ezu ikusten an duen andrie? Eztot ikusten. Lankrieta dakozuz begidzek ela?*

## BEGIDXEK LAU EIÑDXE

Begiak lausotuta edo erabat nekatuta.

- *eztot ikusten ezebe, begidzek lau eiñdxe dakotez*
- *letrak pe ezin leidu, begidzek lau eiñdxe*
- *ardauen ardauegaz begidzek pe lau eiñdxe dakoz*

## BEGIDXEK NORTERA BEGIRE

Begi okerrak.

- *orrek imiek zelan dakoz begidzek, nortera begire dakoz koitzaduek*
- *orrek begi bidzek takoz, baie arek begi bet bakarrik tako nortera begire*
- *nortera begire okiñ txuzen begidzek, opera ta gero ondo geratu dxatsoz nire lobiri*

## BEGIDXEK URTENDA

Jenio bizitan dagoen pertsonak begiak irtenda izaten dituenean.

- *ori esan tzatenien begidzek urtenda para dxast*
- *ezer esan barik pe alan paraten da a, begidzek urtenda*

## BEGIDXEN ZILLUN BARRUEN

Begiak zulo barruan sartuta.

- *gauzez ibilli egunez agiri; oraiñ begidzek zillun barruen sartunde, ezta?*
- *geixorik dau antza, ze, ikusten zu begidzek zillun barruen sartunde*
- *idxelien dauen antza dako, begidzek zillun barruen sartunde*

## BEGIKO TAPAK DXEUSI

Logura.

- *an dxekusi dxatsoz begi tapak, bota oire*
- *loguriegaz begiko tapak dxeasten asitxe dakotez*

## BEGILLOIE

Begi-handi. Begi handiak dituena. Badaude txipiroiak *begilloi* deritzenak, begi handiak dituztelako.

- *zelako imie dako ba, begilloie da ganera*
- *eztakizu, ango pelikuleko morroie, begilloie bera*
- *begilloiek ez dxastez gustaten*
- *onek tiez, edo begilloiek?*

## BEGIPUTZE

Begiak puztuta. Betazpiak puztuta.

- *negarran negarragaz begiputzek eñ dxastez*
- *ez da bape politxe ori imie, begiputze da ta*
- *a mutille gusta niri? Bera begiputze?*
- *begiputzek ez okitxeko manzanillien ure da ona*

**begi + putz → begiputz.**

## BEGIRE

Itxaroten.

- *hamen nau hamar mille ordu zeuri begire*
- *berari begire berton jesarritxe*
- *ia non gauzen? zeuri begire berton!*

Azentua lehenengo silaban dago. *bégire*

## BEGIRIK PEZ

Ezer ez. Gehienetan arrainari dagokio.

- *zer, ekartzue ezer ela? Begirik pe ez alabatxu*
- *zetan duez itxosora ba, begirik pe ez atrapateko*

## BEGITELA

Betazal jausiak.

- *begitela da lez, beti dau triste*
- *begi politrek takoz baie begitela da*
- *aitxe be begitela da, arrebie be bai, da imerik okitxen badau, begitela ezango da*

**begi + epel → begipel → begitel**

## BEGIZ DXAN

Irabaziei, ondasunei edo beste edozeri begizkoa egitea.

- *irulau arraiñ dakarrienien begiz dxaten doskuie*
- *begiz dxan biar doskuie bera diro gitxidxe*
- *begiz dxan biar dostie au imie ba*

## BEGIZURI

Begi argiak dituzten pertsonei esaten zaie.

- *neure lobie begizuridxe da, begidæk urdiñ-urdiñek dakoz*
- *baie ze begi politxe dakoz neure begizuritxuek!*
- *ze gatxa dan begizuridækaz ez maitemindxutie!*

## BEINTIZINKO BAIÑO ARRUAU

Erabat harro.

- *gure imie beintizinko baiño arruau dxun da eskolara beran zapata barridxekaz*
- *ai! Beintizinko baiño arruau nau neure belarriko ederrakaz. Eskerrak, laztana*

## BEIZKUNE

Begizkoa.

- *au imie bertanbera dau, beizkune dako*
- *baten batek beizkune ein tso*
- *beizkune ez eitxeko kutune imin bide*

**begizko** hitzetik sartutakoa dela argi dago, baina **begikune** hitzetik ere etor daitekeenaren susmoa ere hor dago.

**begizkoa** → **beizkoa** → **beizkue**. **begikune** → **beikune** → **beizkune**.

## BEIZKUNE EIÑ

Begizkoaren konjurua.

- *oneri imiri beizkune ein bi dxatzo*
- *beizkune ein barik ez dxatzo kenduko ori geixue*

Azkuek ez du jaso bere hiztegian, bai, ordea, D.A.R.k Ortuzarren **Oroigarriale** obrako zita bat aipatuz. Beraz, Bermeoko hitza bezala.

## BEIÑ

Oraindik.

Zentzu horretan erabiltzen da Bermeon eta **ondiño** hitzarekin batera oso erabilia da.

**noizbait** edo **behin** esateko **egun baten** erabiltzen da.

- *beiñ egon, ondiño ezta sasoie ta*

Ikusten denez, esaldi honetan bi formak erabili izan dira.

- *beiñ ezta etorko esan dau*
- *ez eiñ beiñ gauzek ondo imiñi arte*
- *beiñ ez imiñi abante, ikusi in bide zelan dauen*

Ez da agertzen hiztegieta zentzu horretaz, eta Azkuek, bere biztegia, S.Mtth III. 15.ean, arrunta bezala aipatzen du.

## BEKEREKA / IE

Ardia orokorrean. Txikia edo handia, berdin da. Ez da ezagutzen beste hitzik ardia, bildotsa edo arkumea definitzeko.

- *bekerekiek urten dost errifen*
- *bekerekak dxaboten dxun da Amerikara*
- *kotxie ezin pasa on da, bekerekaz beteta on da kamiñue ta*

Auzoetan, gehienetan **ardia**, **arkumie** eta **billotsa** esaten da. Harategian, ostera, auzoetakoek **artxue** eskatuko dute eta herrikoek **korderue**.

Azkuek Bermeon eta Mundakan jartzen du, baina **corderillo** zentzuaz. Kintanak **voz infantil de cordero** dela dio.

**bee** ahotsa eta **-ka** atzizkiaz osatutako hitza da seguru aski.

## BEKOKIDXE GARBI

Ez daukala trapu zikinik gordeta. Konparazioan.

- *zer dakozu niretxik esateko, garbi dxakotena nik bekokidxe*
- *bekokidxe garbi bakozu, zeitxik zauz sulfureta ba?*

## BELA EIÑ

lhes egin.

- *bai, kristela apurtu ta gero bela eiñ, iñok ez dxakitxeko nok apurtu txuzen*
- *ez ein bela txo, amen danok taku zer esan da*
- *txo, nik eiñ dxot bela, nik dxun ein bi dot etzera errekadue emoten andriri*

## BELAIXE

Pertsona buruarina edo arin dabilena.

Belak puzteko moduko haizea. Bermeon, haizea hitza, kasu honetan erabili den bezala, pertsoneri aplikatzen zaie. Pertsona arinei, edota harro arina denari, hain zuzen.

- *belaixe lez dabilizu ara ta ona*
- *alabatxi belaxe zara, ez eixu gasta orrenbeste*
- *an due belaxe, iñok auentako ete dau beragaz*

Azken honek **harro** zentzua dauka. Kasu batzuetan **i** galdu egiten du ohituraren kontra.

## BELARRESKIÑEKUE

Belarri-ondokoa. Zartada.

- *ixillik egon, belarreskiñekue ezpazu gure emon*
- *zelako belarreskiñekue emon tso ba, belarridxe be gorritxute imin tso*
- *omon belarreskiñekue, ezta lotzien da*

**belarri** + **izkina** → **belarreskina** → **belarreskiñie**.

Hitz honek beste sinonimo bat eduki arren, **belarriondoko** berau erabiltzen da gehiago.

Azkuek ez du jaso bere hiztegian, baina bai D.A.R.k Bermeoko hitza dela azalduz.

## BELARRIDXE ERUEN

Gortu.

- *ene alabie, belarridxe be erun tzazu ein tzazun aldarridxegaz*
- *ez ein niri aldarririk, belarridxe erun dostazu te*

## BEIEK DXOTA

Guztiz nekatuta edo hilekoekin egotea.

- *niri ez esan ezer eitxeko, beiek dxota nau te*
- *beiek dxota bazauz oire sartun*
- *an ibilltxen dxatzu a biar da biar beiek dxota okindxe be*

## BERAKITXIEN

Norbere kontura. Bere kabuz.

- *gauze guztidxek einñtruz berakitxi*
- *berakitxi berakitxi etze guztidxe pintxe dau*
- *zelan etor da ba? Berakitxi*

- *neure kitxien eskribidu dot kartie*
- *ara, zeurekitxien eingo zu, eztakozu iñon biarrizantik*

**bere** + **ekitean** hitzen konposaketa dela dirudi. Hirugarren pertsonan erabiltzen da.

**ekitean** → **(e)kitxean** → **kitxien**; **t** palatalizatu eta **ea** → **ie** egin da.

## BERANDUEK

Berandu hitza pluralizatu egin da hemen ere.

- *korridu arin alabaxu, beranduek tiez da*
- *beranduek ezan arte ez gariez konturatuten*

## BERAZKOTAN

Kakapirria definitzeko beste berba bat. Oso arrunta hitz hau erabiltzea.

- *berazkotan dauela ta ez da etorri plaidxera*
- *zeozek eiñ dxost kalte berazkotan nau te*

## BERBA BATETIK BESTERA

Zerbait esan berba batetik bestera.

- *da ez tiñost berba batetik bestera putie naiela?*
- *berba batetik bestera esan dost ezkondu eitxen dala*
- *ez kanbidxe konbertsasiñue, kapaz zara zu berba batetik bestera edozer esateko ta*

## BERBALDUN / E

Berba asko egiten duena.

- *berbaldun-berbaldune dozu bera, eztakitx zelan ez dan kantsaten*
- *berbaldune badan zoratu eingo nau*

## BERBALEKUE

Hizpidea.

- *eztot kure gero, berbalekorik imiñi*
- *bestelako berbalekue imiñ dxau beran erropa barridxekaz*
- *berbaleko asko dau amen, ezebezatako*
- *berbalekue berbalekue lez imiñ dxot, baie eztost ardure*

Azkuek ez du jaso. D. A. R.k beste esanahi batez azaltzen du, **mentidero** zentzuaz hain zuzen.

## BERDELA

Berdela. Baina kasu honetan **mozkorra**.

- *berdel matrugaz etor nai etzera*
- *lagunen despediden danok on garizen berdelagaz*
- *berdela be berdela lakue ezan da atzo gauekue*

Bermeon, itsasoko beste gai asko bezala, herriko egoeran sartu da.

## BERDETU

Haserre bizian jarri.

- *da ori esan tsonien berdetute para da*
- *ez etorri ona berdetute, inok eztako kalperik eta*
- *beitu ori berdetute! Ezer esan barik ori; zeuzer esan badaxatzon eztot kure pentza*

## BERESIETU

Bereganatu.

- *gauze guztidzek takoz bereñutete, diruek eta etziek*
- *bereñetu txuz arek ondasunek*

## BERTUTE

Zaporea.

- *bertuterik pe eztako onek esniek*
- *muxillek eztakoie bertutien arrasarik pe*
- *ur asko bota ezker bertutie kentzien dxatzoie inñxabai*
- *bertute ona okitxeko estarlux bota bi zazu okeliri*

Seguru aski, gaztelerazko **virtud** hitza hartu da hitz hori egiteko. **Virtud** gauza ona bezala, gero jatekoari edo jakiei aplikatuz.

## BERTUTE BARIK

Zapore gutxi edo batere ez. Gehienetan janariei dagokie.

- *onek marmitxek bertuterik pe eztako*
- *bertute barik badau, zeuk emon*
- *onek gaztaiñek bertuterik pe eztakoie*

## BESEUEN BEGIDXEK

Pepelerdoaren begiak.

- *niri ez imiñi beseuen begidzek, ezetuten zaitxut eta*

- *beran beseuen begijekaz beitu dosten da aurrera segidu zauen ezer esan barik*
- *gusta be eitxie berori beseuen begidune*
- *ensegidako baten imintzen txuz beseuen begidzek, engaño gure zaitzuzenien*

## BESTE ERREKADUE

Minbizia.

- *Anton ill dxe. Ze okiñ dxau ba? Beste errekadue*
- *beste errekadue dako zeure lagunen andriek pe*
- *gaur egunien beste errekaduegaz, jente gitxi iltzen da*

## BESTE KONTUEK

Emakumearen hilekoak.

- *atrapata nau, beste kontuek etor dxastez da*
- *eztot pentsa beste kontuek etorko dxastezenik, orrek gu dau esan ondiño ez dauela imerik*

## BESTE MANDAKUE

Beste partidu batekoa edo aurkako taldekoa.

- *orren aurrien ez esan ezer, ori beste mandakue da ta*
- *nongo mandakue zara zu be? beste mandakue, enai zuen partidokue*
- *beste mandakuek etor diez, dirue eskatuten presuentzako, da etsatie emon*
- *ba nik, beste mandakue ez ezan da be emon tsatie dirue*

## BESTE MORROIEK

Poliziak, Guardia zibilak. Aurkakoak.

- *kuidadue gero! Beste morroiek tauz aur de*
- *beste morroiek ikusi duz Bilbotik etor garizenien kontrolak imitsen*
- *orrek beste morroiek zelako txikotazuek emon doskuie ba*

## BESTELA NAU / ZAUZ / DAU...!

Denbora luzean itxaroten egotea. Hala ere **bestea** eta **bestelakue** lokuzioak askotan agertzen dira era guztietako esaldietan.

- *bestela nau bertan zutunik, zeu noix etorriko*
- *bestela dau bertan oso osoko santue lez*



## BESTELAKUE NAU / ZAUZ / DAU...!

**Bestela** bezala era guztietako esaldietan agertzen da, batez ere esaldiari sarkasmo kutsua emateko.

- *bestelakue zauz or, inoren azaorrazidxei eraitxen*
- *bestelako diro pillue dau irebazten!*

## BESTIEK

Andrazkoaren hilekoak. Beste berba bat gehiago, egoera hori definitzeko.

- *ezin dxot dxuen plaidxera bestikaz nau te*
- *bestiek etor dxastez da enai kapaz izter bat mobiteko be*
- *alabaxu ez dxastez etorri bestiek. Ia bazauz gero*
- *eztot pentsaten nauenik (haurdun) baie bestiek etorri arte enau trankill*

## BETARRA

Abratik haranzko arrantzaleak.

- *betarrakaz ibilli gariez Canariasen*
- *betarrak bakizu zer dizen koipeztuek ederrak*
- *betarrak eztakidxe arraiñtzen*
- *betarran kontorik ez atara, arek erridzen eitxen dauie denpora geidxena*

## BETE BETE

Gezurrekin bete.

- *auntxe be zure lagunek bete-bete eingo nau*
- *telebisiñuek eitxen gaitxuz bete-bete*
- *elixera bazuez be, bete-bete eitxeu zaitxuzie*

## BETERRE

Hitz honen esangura beste bat da guretzat. Bermeoko hizkeran **makar** gura baitu esan. Ez da **begi-erre** hiztegi askotan agertzen den moduan.

Hala ere, gero pertsona zekenei aplikatua izan da.

- *orrek beterririk pe elekitzu emongo*
- *beterriae da, beran beterrie be saldu eingo lekida*
- *beterre utse da ta inok ezta gure dxakin ezer beragar*

## BETERRIEK DAIDXOLA

Makarrak, piztak dariola. Konparazioan ere erabiltzen da, miseria gorrian bizitzea da, adibidez.

- *oiñ kukurruku eiñ dxe dauz, baie ez tiez akordaten beterriek daidxola bizi ezan dizeneko gosie*
- *len beterriek daidxola, da orain arpeire beitu bez niori*

## BETERRIEK PE OSTU

Edozer eta edonola lapurtu.

- *ez dxuen plazara jente asko dauenien, ze beterriek pe ostu eingo tzue*
- *akordaten zara Torreviejako merkadilluen, konturetu barik beterriek pe ostu*

## BETI GAZTE

Gazte ematen duen adineko pensona.

- *larogei urte dako da beitu zelan dauen, beti gazte lez dau*
- *txo, beti gazte zara txo, urterik be ez dxatzu pasaten*
- *zueneko ama beti gazte lez dau, ezta pentsaten orrenbeste urte dakozenik*

## BETIK GORA EZ ALTZATEKO BERBAK

Berba gogorak esan.

- *arek esan dostezen berbak, betik gora ez altzateko berbak alabatxu*
- *zeuk pe betik gora ez altzateko berbak esaten tsazuz de*
- *nik eztot esaten betik gora ez alizateko berbarik*

## BETONDO / UE

Bekokia. Kopeta.

- *zer diño orrek, betondue garbi dxakotena nik*
- *ixillik ezpazauz, betondue baltzitxuko tzut*

## BETONDOKUE

Zartada. Betondokoa.

- *betondoko ederra emon tso*
- *zelako betondokue omon dost ba, begidzek pe lankrieta itxi dostez*

## BETONDUE BALTZITXU

Kolpatu. Jo.

- *emoten tsuten ostidregaz betondue be baltzitxu eingo tsut*
- *ametiek tire betondue baltzitxu orduko*
- *zapatien takoiegaz dxo, da betondue baltzitxuko tsola esan tso*
- *betondue baltzitxu barik gero, nok esan dotsu zuri berandu etorteko?*

## BIARRARI IXO

Oso alferra.

- *arek biarrari ixo eitzen tzo, ezta kapaz bienganetik papel bat altzateko be*
- *ixo ein biar biarrari, garridxe gogor dako ta*

## BIBERAK

Janariak.

- *biberak eitzen dxun diez neskatillek*
- *domekan eguerdidxe dakulez biberak ein bi duz*
- *orrek enbarkaziñuek bibera guztidxekein dakoie*
- *egualdi zantarragaz itxosora urten barik, bibera danak usteldu dxakoie bodegan*
- *Andresa, biberak prepareteko esan denderiri*

Gazteleratik hartua, erabilera zabala dauka.

Vívere → **bibera**.

## BIDIEK EITZEN

Ibilaldia.

- *Mundekara guez bidiek eitzen, egualdi ona dau te*
- *Domekan etzien? Erdu bidiek eitzen portora*
- *Errotatatik elegante dau bidiek eitzen juteko*

## BIDXAR BE EGUNE DAU

Aurretik denbora dagoela adierazteko.

- *gaur ariñ erdu etzera e? Bidxar be egune dau te*
- *uf! enun geidxau biarrrik eitzen bidxar be egun dau te*
- *bidxar be egune dauelez, bidxarko itxiko dot plantxie*

## BIDXARKOPASATA

Etzi. Oso gutxi erabiltzen da hitz hau. Auzoetan zabal izan arren, herrian eskasa gertatzen da. Baina herrian bestea da nagusi, gazteen artean entzuten da gehien bat, eta logikaz egindako hitza dela ezin ukatu.

- *bidxarkopasata dxungo nai Bilbora*
- *bidxarkopasata asten diez eskolak*
- *eztator bidxarkopasatararte*
- *bidxarkopasata baño lelau enai dxungo*
- *bidxarkopasatara pasa da dxaidxe*

## BIDXORKADIE

Bihurdura.

- *olgetan ibilli nai da bidxorkadie eĩñ dxot*
- *izterran bidxorkadie eĩñdxex dau da ezta etorriko*
- *ez ibilli korridxex bidxorkadie ein barik*
- *bidxorkadie santiritue eĩñdxex kentzien da*

Ikusten denez, Bermeon atzizkia aldatuta erabiltzen da. Ez du Azkue, Kintanak edo D.A.R.k ematen dioten zentzua. Azkuek eta P.M.k, zentzu horretan **biurdura** hitza darabilte.

## BIDXORRA

Tortsio. Tximur.

Zentzu hauekin erabiltzen da. Bigarrena gutxiago bada ere.

- *erropie bidxortute dakozu*
- *arpeidxex be bidxortute dako urtien pasiñugaz*
- *bidxorrak plantxex eziñik onai arratzalde santu guztidxex*
- *oneri txikotari bidxorra kendu bi dxatzo*

**biur** hitzetik hartu da, eta zentzu horiek eman zaizkio.

## BIDXOTZA LO

Ondo esnatu gabe, ondo itzartu barik.

- *goixeko amaiketan oitxik altza da ondiño bidxotza lo, politxo emoten tzu!*
- *dutxex artun de be, ondiño bidxotza lo, izartu barik txo*

## BIDXOTZEKO KOILARIE

Antzina andrek dirua titi artean eramaten zuten, eta diruari buruz hitz egiteko erabiltzen da gaur egun.

- *bidxotzeko koilarako miñe dakot, diro barik nau te*
- *bidxotzeko Koilarie beteta dakot gaur, diro masie dakot*

## BIDXOTZIK EZ IL

Ez etsi. Ez amore eman.

- *ez ill bidxotzik alabatxu, gaur ezpada bidxar ezango da ta*
- *benetan nau desanimeta, baie nire gizonak diñost ez bidxotzik illtxeko, ondiño gaxtiek garizela da okingo guzela imiek*
- *ba, berak ori badiñotsu ez ill bidxotzik eta aurrera*

## BIENGANERA DXEUSTEKO BERBAK

Berba gogorrak. *Betik gora ez altzateko berbak* lokuzioaren alderantzizkoa da gauza bera adierazteko.

- *da berba batetik bestera, non asten dxasten bienganera dxeusteko berbak esaten*
- *neuri esastazu zeuk, bienganera dxeusteko berbak*
- *alabatxi, bienganera dxeusteko berbak esan bi tsazuz amari?*
- *ez zara batiitue, zetako esan bistazu niri bienganera dxeusteko berbak?*

## BIENGANIE

Zoladura. Lurra.

*berenganie* eta *beringanie* aldaerak ere entzuten dira.

- *eskursiñuen dxun garizenien bienganien eñ dxu lo*
- *mai ganien bazabiltzez bienganie dxoko zu*
- *bienganin be dxokazo eñ dxau da zaratie Mundekatik pe entzun*
- *bienganie dau labanduteko moduen, asike ibilli kuidadugaz*
- *azidente bat on da, ta bienganien on diez batzuk illdxe*

**behean** + **ganean** hitzez osatzen da.

**beearenganean** → **bienganean**. Aurreko **e** disimilatu egin da.

## BIETZARRIDXE

Estropezu. Era guztietakoak.

- *plazara dxun nai da bidien bietzarridxe topa dot, neure lagunegaz topa nai*
- *kuidadugaz ibilli biko zara bietzarridxe dxo barik*
- *aulan ibilltxie dako; laster dxoko dau bietzarridxe*
- *nik eztaitx alabatzu, baie edonon topaten dot bietzarridxe*

Azkuek ez du jaso bere hiztegian, baina bai D.A.R.k, Bermeoko hitza bezala azalduz.

**behatz** → **bietz** + **arria** → **bietzarria** → **bietzarridxe**.

## BIGARREN ESKOKUE

Lexikoan *eskoganekue* hitza agertzen da zentzu berberaz gaztelerazko itzulpen literala da oraingoa.

- *erosi dauen kotxie bigarren eskokue da*
- *eztot gure bigarren eskokorik ezer*
- *karue ezanda be, obeto orrotzetik arakue bigarren eskokue baiño*

## BIKORRA

Esne-gaina.

- *Esnien bikorra bokadilluen azukariegaz gozo!*

## BINBOLIÑE

Biolina. Figuratiboan edozer gauza adierazteko erabiltzen dugu hitz hori, tresna bat zein egoera bat.

- *zer ekar zu ama? Zera! Binboliñe*
- *zer eitxen zauz ba? Ni, binboliñe dxoten*
- *zer eitxen on zara egun guztidxen ba? Binboliñe arraskaten*
- *zer erregalako tzazu amari beran egunien? Binboliñe*
- *amen gauz gu binbolifie dxoten, bera etorri arte*

Beti erabiltzen da iroriaz edo mesprezuaz.

## BINBOLIÑE DXOTEN

Ezer egin barik. Lanik egin barik.

- *Baie dxakin lekide zer eitxen on zarien orain arte? Zera, binboliñe dxoten!*
- *an dakozuz arek ama ta alabie zer eñ ezien binboliñe dxoten*
- *binboliñe dxoten on barik, anun eskobie da kolarra eskobatu*

## BINKE!

Hori ba!

Arrazoa emateko batzuetan, baieztapena beste batzuetan, enfatikoa ere bada: *biiinke*

Gaztelerazko **bien que...** lokuzio hori hartuz egin da.

- *eztozue pentzaten ori dala onena? Binke*
- *au aulan ein bidu ezta andrak? Binke*
- *binke, au aulan ein bi du*
- *eitxen dun beste biarregaz geuk pe pastelak dxan biduz, ezta? Biiinke dxan bi duzena*

## BIRI BIRIKE

Erdi zorabiatuta, egon ezinarekin, aurrera eta atzera ibili.

- *biri-birike pasa dot gau osue ta banun medikunera*
- *biri-birike berton medikuen analizuri itzaroten*
- *biri-birike zeuri begire, ta zu bertan tortola bedeinkatulez!*

## BIRIBUELTADIE

Paseoa. Buelta bat.

Hitz konposatua da eta errepikatu egiten da.

- *biribueltadie emon baiño lelau etzera dxungo nai*
- *ez emon biribuehtarik dxeusi eingo zara ta*
- *ia, biribueltadie emon bi zu ikusteko goniek aldegoirik badako*

**bir** + **bu**elta + **-ada** atzizkia.

## BIRIBUELTAKA

Jira-biraka.

- *tieskuri biribueltaka ibill dxe da marie eiñ dxe*
- *biribueltaka dxun da andik bera atxetararte*

## BIRIKIDXE

Birikia. Baina zentzu figuratiboan asko mugitzen dena.

- *au imie birikidxe barriz lotu be ezta eitzen*
- *biriki utse da, goizerik gauera loru barik dabil ara ta ona*
- *egoadi geldik, birikidxori*
- *au telie txar-txarra da ebaitzen, birikidxe lez dabil*
- *birikidxe baiño txarraue zara txo*

**biriki** hitza erabili da adjektiboa sortzeko.

## BIRINBOLA / IE

Biribilak diren eta arrodutzen duten gauza guztiak.

- *birinbolakaz ibill dxe olgetan*
- *birinbola bat okiñ dxau barruen da orain eztako*
- *birinbolie lako gauze bat sartu bi tzazu ondo imiñi gure bazu*

Hitz hau logikaz sortu da. Badago hiztegian, honen antzeko hitz bat, **txiringol** edo **txirinbol** hitza Bermeon ere erabiltzen dena. Baina hori **tresna** bat izango da, berdin da biribila ez bada ere. Orduan, gauza biribilentzat beste hau sortu da: **birinbola**.

## BIRINBOLAKA

Arrodutzen.

- *eskilatatatik dxeusi de birinbolaka*
- *bostekue birinbolaka dxun da kañotik barrure*
- *txikilliste guztidrek dxeusi diez birinbolaka karreran*

- *Belokiri aurrien para dxatzo txikilliste bat, da gero bidzek dxun diez birinbolaka*

D.A.R.k, Beran jartzen du hitz hau, baina froga daitekeen bezala, hitz honen erabilera Bermeon oso zabala da.

**birinbola + ka → birinbolaka.**

## BITSE DAIDXOLA

Presaka ibili.

- *bitse daidxola ibil garie fabriken biarra akabateko*
- *bitse daidxola ibilli nai azkaningoko trena atrapateko*
- *trankill ein guz gauzek bitse daidxola barik bidzar be egune dau te*

## BITSIK GALDU BARIK

Denborarik galdu gabe.

- *entera garizenien errebajak imiñ dxauela, bitsik galdu barik dxun garizen*
- *bitsik galdu barik dxun zara Bilbora konprak eitzen*
- *Lameran dauela dxakiñ dxau gizona datortzona, da bitsik galdu barik dxun da etzera, errezibimienrue eitzen*

## BIZARDO

Bizartsua.

*Bizartsua* hitzaren sinonimoa da, baina gutxiago erabilia. Gainera halako kutsu beldurgarria du, eta umeei ikara sartzeko edo, erabiltzen da gehienetan.

- *bizaro bat ezan da atie dxo dauena*
- *bizardue etorko da gero!*
- *mutil bizardo bat topa du bidien da, ikaratu ein garie*
- *bizarduen antza dako zu orregaz bizarragaz*

**bizar + -do atzizkia → bizardo.**

## BIZIDXENA

Minbizia.

- *nire amak bizidxena dako*
- *gure laguneri medikuek esan tso bizidxena dakola*
- *bizidxena osatuteko okelie dxan bi dela diñoie*

**biziarena → bizidxena.**



## BOBO SERGERIE

Sergera, hegaluze eta hegalaburren multzoa da. Baina konparazioan, gizon multzoa da, txikiteoan ibiltzen diren koadrilak. Emakume gazteek lokuzio hau erabiltzen dute, sarritan, horiek definitzeko.

- *abe! Zer dator bobo sergerie ba, igarten da etzegune dana*
- *ez dxast gustaten bertan borbo sergeran artien ibilitxie*

## BOLADIE

Hazi. Gorantz egin.

- *honek imiek zelako boladie eñ dxau denpora gitxidxen*
- *soluen dakuzen azak eñ dxaiuen boladie! Gora ta gora duez*

## BOLO SANDXIE

Burutaldia. Txabetada. Ez da burua galdua edukitzea, momentuko guraria baizik.

- *noiz etorko da ba? Bolo sandziek emoten tsonien*
- *gure gizonak zelako bolo saildrek okitxen txuz ba*
- *neuk pe okitxen dotez bolo saildrek neuri konbeniten dxastenien*

## BOLTZIEK ERREMENTA

Bat batean miserian egon direnak diruak gastatzen ikustean esaten da.

- *entzuixu! Boltsiek errementa dotsue la? Atzo diro barik, eta gaur aberastute*
- *nik eztaitx alabatxu nondik atara dauen a pulsera ederra erosteko dirue.*  
*Boltsiek errementa dotso antza*

## BOLUEK

Barrabilak.

Barrabilak deitzeko, Bermeon erabiltzen diren hitzetariko bat.

- *zer ekar dauie ba? Zer ekar dauien? Boluek!*
- *zetan zauz ba? Boluek arraskaten zauz ela?*
- *ezu esan ba diro asko irebazi dauuela ba? Zeure boluek!*

Ikusten denez, beti erabiltzen da esaldi gogorretan eta tonu zakarrez.

## BOLUEK ARRASKATEN

Ezer egin barik. Eskua eskuaren gainean.

- *an dauz arek boluek arraskaten, da andra koitzadak goizerik gauera biarrien*
- *ze eitxen zauzie ba! Zera! Boluek arraskaten*

## BOLUEK SALTSAN

Lelo baten antzera erabiltzen da. Ez dagoela ezer, ez gauza onik, ezta itxaropena sortzen duen ezer ere.

- *arrañ asko dakartzue, ezta? Arraiñ asko? Boluek saltsan!*
- *esperantzie badakozue, behintzet. Esperantzie? Boluek saltsan!*
- *kotxe elegantie dakozuela esan dost zure koiñatuek. Beran boluek saltsan!*

## BONBATXUEK

Mahonezko prakak.

- *Andra maidxetan bonbatxuekaz fresko-fresko*
- *bonbatxuek agurek baño eztaue eruten*

## BORBOLERA

*Borbolien* bera da, baina deklinabideko kasu ezberdina.

- *ez bota borbolera gero zeuk ein bi zu te*
- *an dako arek borbolera botata ainbeste diroko erropie*
- *alan botaten diez borbolera zapata barridzek*

Azkuek honen aldaera den **bolborrera** jaso du Ondarrun.

## BORBOLIEN

Gauzak pilatzeko lekuan.

Gorago *alborbol* azaldu dugu eta aipatu ere egin dugu hitz hau.

- *nora zuez gauzek borbolien itxitxe ba?*
- *borbolien bota, da dana ondo, ezta?*

## BORLAK

Beste hitz bat barrabilak defintzeko. Hitz honekin egindako esaldiak ere gogorrek izango dira.

- *borlak dxoten on dxatzuz arek itxosuen arraiñik ez ekarteko*
- *zer, modurik edo? Borlak!*
- *arrañ asko ekarri ei dauie e? Arraiñ asko? Borlak!*

Kintanak ere jaso du hitz hau bere hiztegian.

## BORRO KOLORIE

Masail gorriak dituen pertsona. Gehienetan, mozkor dagoenari esaten zaio.

- *an dator lebatz manduegaz, borro kolorie zer dakar ba*

- *orregaz borro kolorigaz ezin zu konduzidu*
- *borro kolorie zer dakarzu ba! Auntzek pe Herrikon ibil zara patxaranak edaten?*

## **BOST BOST!**

Bai zera!

- *zer esan tzu, dirue emongo dotsule? Bost bost areri*
- *zer diñostak ik, partidue Madrillek irebaziko dauela? Bai, bost bost*
- *ik eztakik ezebe; zer pentsaten dok ba, Ateletik irebaziko dauela? Bost bost zuri*

## **BOSTARRIDXEK**

Kanika bestekoak, oso txikiak.

- *onek bostarridzek zemat*
- *onek eztiez bostarridzek, magaridzek paiño*
- *merkiau eingostazu onek intxorrak, bostarridzek pe badiez da*

## **BOTA GATZA!**

Entzundakoa edo esandakoa ez dela sinisten, zalantzan jartzen dela edo pertsona bat edo gauza bat badaezpadakoa dela adierazteko esaten da. Mesperezua adierazteko ere bai.

- *bota gatza orreri mutilleri, ez da fidxetekue ta*
- *zer zauz esaten, diro asko dakola? Bota gatza!*
- *bota gatza orreri dxatekuri, eztako bertuterik pe ta*

## **BOTAKIAK**

Txibia edo txipiroiaren zatikiak, karnata moduan erabiltzen direnak, baina soberan geratzen direnak jateko balio dute.

- *botakidzek dxan duz gaur gizeta, ze gozo!*
- *botakidzek saltzien dxun nai, baie iñok eztauelez guzan, etzien dxan duz, ederto dxan be*

## **BOZINDXUTE**

Ia ustelduta. Edozer gauza izan daiteke.

- *euridxen euridxegaz agak pe bozindxute dauz*
- *neberan sartun barik itxi dot okelie ta bozindxute topa dot*

## BRAIE

Braie.

Itsasoko txori bat da. Itsua edo erdi itsua dela diote. Orduan, inora begiratu gabe, itsuaren antzera doan pertsonari aplikatzen zaio. Arrantzale giroan erabiltzen da, ez, ordea, besteetan.

- *braie zara txo! Beituik aurrera, mosuek apurtuko dozak eta*
- *braie utse da, eztau beituden inora be*
- *nok pitzu braie lez bazabiltzez, kuidadugaz ibilli biar*

Baina askotan *itsua* berba ere gehitzen zaio:

- *braie itsue lez nabill, ezer ikusi barik*

Azkuek Bermeoko hitza bezala jaso du bere hiztegian.

## BRAUNTADAN

Denak batera. Tropelean.

- *brauntadan sartu gariez elixera barrure*
- *brauntadan sartziekutan enue zñera*
- *danak brauntadan saltaten baporatara, izterra apurtuteko moduen, Madalen guztidxetan igual*
- *brauntadan etor dxastez disgusto guztidxek*

## BRAUNTADIE

Onomatopeikoa. Zarata hotsa.

- *ixixillik gauzela non entzuten dun brauntada bat*
- *iñor sartun de etzera ? Eztaitx. Atien brauntadie entzun dot paie*
- *urteten zunien atiri emon brauntadie*
- *zelako brauntadie eiñ dxau ba bonbiek esplota dauenien*

Hitz hau **braunt** onomatopeiazkoa da.

## BREBERUEN

Denbora laburrean.

- *breberuen eitxen dan gauziek eztako bertuterik*
- *baiñek breberuen ein bi diez, ostantzien baltzitxu eitxen diez*
- *txarto urten dosku tartiek. Bai ba! Orrek, breberuen eitxen dizen gauzek tiez*
- *etzie erosi gure danien ezta pentza biar bi bidar, breberuen ein bide*
- *gauzek breberuen ein bizaten diez gero damutu barik*

Hitz hau, gazteleraizko **breve** tik hartuta dago, baina oso zaharra da.

breve → brebe + ro + an → breberoan.

## BREBIE

Olio-berakatzza. Zenbait jatekori gainetik botatzen zaion olio-berakatz erre.

- *bañei brebie ein bi dxatzo*
- *barbañei erre ta gero, brebie botaten badxatzo asko be gozuau*
- *orrek antxobak oridxo brebetan sartu ezkerro obeto dxaten diez*

breve hitzetik hartuta dago.

## BREGALDARIE

Galipot galdara. Konparazioan tartera edo ontzi erraldoia.

- *dxan arek, bregaldara bete*
- *dakoten gosigaz auntzek dxango lekidot bregaldara bete*
- *prepara bregaldarak, amen datoz azurrik pe eztauienak itziko ta*

## BREKEKE

Alferkeria.

- *zu takozu brekeke, Bilbora dxun bi zule ta ondiño etzien?*
- *zelako brekeke dakoie ba, ezkondu ein biar da ondiño be etzie erosi barik*
- *guk takule brekeke? Da zeuk zer dakozu ba? guk eztu biar etzerik, baie zuk nobidxue bi zu*

Esaldian hobeto ikus daiteke hitz honen zentzua.

## BRILLADIE

Paseo labur-labur bat.

Gazteen artean batez ere, eta gehienetan nesken artean. Nahiko galduta dago.

- *onek tiez orduek? Eske brilladaxu bet emoten dxun gariez*
- *eskolatik urten da brilladie emon gu*
- *ama, urtengot kalera? Brillada bat baiño ez e?*

Hitz. honek gaztelerazko **brillo** hitzarekin zerikusi handia du: **un ir y venir corto, que dure tanto como un relampago** Hori da hitzaren esanahia.

brillo + ada → brilloada → brillada. oa → a.

## BRUSE

1. Eskuila.

Seguruena frantseseko *brosse* edo ingeleseko *brush* hitzetik hartuta dago. Baina hizkuntza hauetan, orokorrean **cepillo** bada ere, Bermeon, ontzia garbitzeko eskuila handia da.

- *au loidxe kentzioko, bruse ekar biko zu*
- *arraska ori ondo brusegaz*
- *txo! bodegak eta kasetie brusegaz garbitxuko zu gero!*

2. Bata.

Gehienetan umeak eskolan, baita etxean ere, erabiltzen dutena.

- *eskolan itxi dot bruse aztute*
- *ama, brus barridxe gu dot nik eskolarako*
- *brusegaz ibilli kalien frakak ez loitxuteko*
- *etзера zatozen momentuen bruse dxantziko zu gero*

Kasu honetan hitzak forma berdinak izan arren ez du esanahi berdina, oraingoan hitzaren jatorria erdarazko **blusa** edo **blusón** da.

## BUELTADIE

Paseo. Bueltatxoa.

- *afaitxue dxan da bueltadatxue Lameratik iñok eztosku kentzien*
- *omon zue bueltadie? Ez, ondiño ez gara dxuen*
- *bueltadie ein bi du gaue eñ orduko*
- *ez etorri berandu gero; bueltada bat emon da etzera*

Kasu honetan ere, gaztelera-ko **vuelta**-ri **-ada** atzizkia jarri eta euskaratu egin da hitza. **biribueltadie** hitzaren aldaera da.

## BUENO!

Nahikoa!

- *bueno! Ez bota geidrau ganez eingo dau te*
- *bueno-bueno! Naiko da, eztot kure geidrau*

## BUKOIE

Ardo asko edaten duena.

- *a bukoie, kapaz da tabernako arda guztidrek edateko*
- *bukoien beste edaten dau arek*
- *arek ardaue edan, bukoie*

## BURDI BETE

Asko. Kantitate handia.

- *burdi bete erropa dakot garbitxuteko*
- *burdi bete sagar ekar dau plazatik, berreun pezetaixik*
- *burdi bete antxoba dxan, da beste burdi bete ardau edan, da gero, egun bidxen lo*

Lokuzio hau, baserriko gai batez egindakoa bada ere, herri osoan esaten da.

## **BURDIKADA / IE**

1. Kantitate handia.

Ugaritasunaren sinonimoa izan daiteke, esanahi berdina baitute.

- *burdikada erropie dakot plantxeteko*
  - *zelan dxungo nai kalera ba, an dakot burdikadie ta*
  - *gure etzien abillek garie burdikada erropak batzien*
2. Itsasontziak ihes egiteko maniobra da. Analogiaz, herrian ere esaten da, baina ez askorik.
    - *neugaz tofez ez eitxeko, burdikadie eiñ dxau*

## **BURUKO ULIETARARTE DAMUTU**

Erabat damututa.

- *etzie erosi dotenien buruko ulietararte damutu dxasten, baie oiñ ez*
- *esan dost buruko ulietararte damutu dxatzola arek zapatak erosi biarra*
- *zeitxik buruko ulietararte damutu*

## **BURUKO ULIETARARTE ZORRAKAZ**

Zorrez beteta.

- *buruko ulietararte nau zorraz, da eztaix nondik urtengo ten*
- *oraintsu arte buruko ulietararte zorraz on arren, orañ iñok paiño diro geidxau dako*
- *buruko ulietararte zorraku, da itxosopeteko kotxie erosi; eztot enteniten*

## **BURUKO ULLEK ZUTUNDU**

Haserre bizian jarri.

- *ikusi dotenien neure aurrien ainbeste diroko katie erosten, buruko uliek pe zutundu eiñ dxastez*
- *da zeitxik zutundu biar dxatzuz uliek ba?*
- *ez dxastez zutunduko uliek, neuri ainbeste diro emoteko okiñ, da bera katie erosten?*

## BURURI LARGATA

Bertan behera. Jaikitzeke adore barik. Ilusio barik.

- *uger dxun da, ta eziñ ezan dauenien geidxau, bururi larga dotso*
- *bururi largata dau oien kalenturiegaz*
- *denporalieg, az sartun diez Vigon, buruei be largata*
- *bururi largata dabill edozelan dxantzitxe*
- *ze pasaten dxatzu alabatxi, bururi be largata zauz de*

## BURUTIK BERAKUE

Berebalako heriotza. Enbolia edo infarto batez.

- *burutik berakuegaz ill dxæ*
- *nire lagunen gizonari be burutik berakue etor dxatzu, baie ezta paralitiko geratu da*
- *burutik berakue emoten badotsu, ariñ dxun biar zara medikuñe*
- *burutik berakue emoten badau, illdxæ kitxu*

## BURUZKUE

Portuan arrain salerosketa txikiak egiten dituen. Gaztelerazko **al por menor** izango litzateke. Saltzaile hauek kantitate txikiak edo arrain banakak erosten dituzte, itsasontziko gizonari ematen zaion arrain parte eta neskatillena, gero eurak arrandegietan saltzeko.

- *orrek buruzkuek parritz negargarridzek tiez, iru txikidxen gu dauie arrabiek*
- *gaurtik aurrera etzatie emongo buruzkuei arraiñik*
- *buruzkuen arraiñ guztidzek erosten txuz Sanchezek*

Hitz hau antzina-antzinakoa da. Buruzkoa, hau da, arraina buruan eramaten zuten garaikoa. Horregatik, izenak berak dio zer diren arraina buruz eramaten zutenak.

## BUZKENTZA LEZ

Gizenduta. Lodituta. Konparazioan, buzkantza moduan.

- *ezkondu danik eta ona asko loditxu de, buzkentza lez dau*
- *zer da lodidxerie alabatxu! Laster buzkentza lez parako ura*



## D

### DABURDUKO / DAUORDUKO

Hain arin. Dagoeneko.

- *daburduko etor zara, ez u ezer eitxeko la?*
- *erdu etzera. Daburduko? On apurtxu baten*
- *oire dxun bizuie, berandu da ta. Daburduko?*

### DAIDXOLA

Dariola.

- *dauen hotzagaz mokue daidxola dakot*
- *argaldu eindxe, eta frakak daidxola daruez*

### DALE BETI

Lelo antzean erabiltzen da, batez ere animoak emoteko.

- *dale beti, aurrerantz in bi du te*
- *ez zaran arte kantzaten, dale beti*
- *dale beti txo, ez itxi burle eitxen*

### DALEFUERTIEK

Zigorra. Zartadak.

- *dxun etzera da esan amari iru txikidxen dalefuertiek omoteko*
- *emon dalefuertiek, merezidu dau te*
- *neri imiri dalefuertiek emon bi dxatzo geiztue da ta*

Gazteleratik hartua, hitz konposatu honen zentzua argi dago: *dale fuerte* hitza pluralizatuta erabiltzen da.

### DANA BIARREKUE

Dena baino gehiago gura duena.

- *nire aiztie da, dana biarrekue, dana gu dau berantzat*
- *orrek personak aulakuek ezaten diez, dana biarrekue, dana gu dau dauie traga*
- *bai, dana biarreko ustel batzuk tiez, tragarroiek*

### DANA, DANA DALAKUE

Denetaz.

- *añe on naien lekuen dana, dana dalakue oten ezan da, dxatekue zein edaridrek*
- *geure etzien be dana, dana dalakue oten da, an bakarrik ez*

## DANDARREZ IBILLI

Lan asko egiten jardun.

- *dandarrez ibillitxe be eztau aillegaten dxazteko*
- *dandarrez ibilli arren, dxateko bakarrik aillegaten dau*

## DANDANDORIDXE

Urdaibain Oka errekatik datorren behelainoa.

- *dauen dandandoridregaz ezin gara jun Laidatzure*
- *arraunien jun gara Urdaibaitrik eta dandandoridregaz metro batere ba ikusi bez txo!*

## DANGILIZKE

Dandarrez edo dariola zerbait janzte.

- *txetxo erropa txikidxauek erosi dangilizke dakozuz eta!*
- *argaldu ein zara ta oin erropak dangilizke*
- *Kantiflaselez daruluz frakak, dangilizke!*

## DANOK BARRU

Ez da faltatzen inor.

- *auntzek gauz danok barru, asi sesinue da ia nok irebazten dauen*
- *asanbleie on da, baie berandu asi de konzejal bat falta ezan dalako eta danak barru on dizenien, alkatiek esan dau suspendidu eitxen dala*
- *an on dxatzuz danak barru, alan da ze, ez deidxela atxakirik atara erre-uniñue ezpada eiñ*

## DARDART

Zentzu askotan erabilitako forma hau, oso erabilia da Bermeon.

- *orrek asko daki, orrek dardart eitxen tzo biarrari*
- *etorteko esan tzat lagunduten, baie berak dardart*
- *erropa barridxe erosi tzut, da zuk dardart orreri, zer guzu ba?*

Hemen hiru zentzutuan agertzen da onomatopeiazko hitz hau.

## DARDART EIÑ

Atzez egin.

- *dardart eitxen tzo arek biarrari*
- *neuk pe eingo lekitzat dardart arek itxi balekidost*
- *danok eitxen tzagu dardart indxabai, okelie dauen lekuen...*

## DEBALDEKO BIARRAK

Ordaindu gabeko lanak.

- *eitxen duzen biarrak debalduet tiez*
- *etzeko biarrak pe debaldekuek tiez da*
- *baitxe solokuek pe, arek pe debaldeko biarrak tiez*

## DEBALDEKO PAUSUEK

Alferrik emandako pausuak.

- *ene alabie! Ibili txe ibilli gabiltzez, debaldeko pausuek eitxen gauz*
- *debaldeko pausuek ezango diez, baie eztakigu lez non dauen etzie, ibilli ein biar*

## DEBALIE

Eztabaida.

- *zelako debalie okin dxu ba, berak baietz da nik ezetz, ez dala ezan Gar Gable, pelikuleko artistie*
- *zu be debalan sartute on zara?*
- *bueno, itxi ori debalie da dxun gaitxezen arire*

## DEFUNTU EDERRA

Hildako bati buruz berba egiten denean, hori esaten da.

- *zure gizona Tomas, defuntu ederrak errozoiek esaten ezan txuz*
- *Maria, defunte ederrak diro asko itxi dau*

## DEGOLLUEK

Iskanbila. Errieta.

Zentzu guzti hauetan, baina, gainera, gogorrak direnean erabiltzen da.

- *gaur goizaldien degolluek ezan diez lameran, ertzaiñek, balizak etor diez, da danak dxoten asi diez*
- *zelako degolluek on diez kofradidxen ba, armadoriek eta tostartekuek alkar-reri edozer esaten*

- *degolluek ezan diez areneko etzien, kotxe barridxe dala ta eztala*
- *arek atara dosten degollue erropie etsatelako erosi...*
- *ez atara niri degollorik nik eztakot kulperik eta*

Bermeoko hizkeran hitzak sortzeko edo egokitzeko jokaera argi ikus daiteke etsenplu hauetan. Gaztelerazko **degüello** hitza erabili da:

**degüello** → **degollu** diptongoa monoptongatuz.

## DEJANIELAPAZIENTZIA

Asko estutzen ez den pertsona.

- *alabatzi dejamelapazientzia zara, mobidu adi!*
- *arelako dejamelapazientziarik ez zu topako*
- *ez ezatie dako dejamelapazientzia, da ernegatie dako*
- *bestelako dejamelapazientzia dau or, eztau gure moja dxuen?*

Gaztelaniatik hartutako hitz honek, **déjame en la paciencia**, esanahi literala dauka.

## DEKLARA

Nabarmen utzi. Salatu. Lotsarazi.

- *amen ni, neure gauze guztidrek deklarata*
- *alabaxi, deklarako nozu, iñok eztaki nik zer eñ dxoten gaur goixien*
- *zeuk deklaratu zu masuste guztidxe*
- *iñok eztau deklaratu amen ezer, asike ixillik on*

Gaztelerazko **deklarar** aditza gauzak agirian jartzeko erabiltzen da.

**deklarar** → **deklara**.

## DEKORA

Konturatu. Akordatu

- *enai dekoraten zelan esan tzuten ori gauzie*
- *ez zara dekorako, baie bai berak esan dauenagaz*
- *berak esan dau ez dala delcoraten aregaz personigaz*
- *dekora zaitzez alabaxi, inportantie da ta*

Gaztelaniako **decorar**, hau da **aprender de memoria** hitza eta esanahitik zuzenean hartuta dago.

Ez du Azkuek bere hiztegian Bermeorako jartzen duen zentzuaz jarri. Honek, **flojo**, **tardo** zentzua jartzen dio.

## DEMANDUEN

Denboran.

- *Francon demanduen ezta egon euskera berba eitzirik*
- *Aznarren demanduen be bardin pasaten da*
- *aren demanduen ill dxauie inuzente asko*

## DEMASA / DEMASEKUE

Ahozabal. Demasekoa.

- *zure lagune demasa da, destaiñek botaten eztau bera baiño obiaurik*
- *ez ezan demasekue, ostantzien zeure amaiñe dxungo zara*

Erdarazko **de más** hitzak gehiegikeria adierazten du.

**de mas** → **demasa**.

## DENPORALTZA

Ekaitz gogorra. Leunagoa denean **denporalie** esaten da. Baina kasu honetan **-tza** ugaritasunezko atzikia jarri da.

- *denporaltzie dauelez ez tiez dxungo itxosora*
- *atzo denporaltzie on da baie gaur bare-bare dau*
- *denporaltziegaz on diez iru egunien*
- *denporaltza andidxe ekar dau te, etzien geratu bi zan dauie*

Azken esaldi honetan gainera, **handi** adjetiboaz indartu da denporaltza.

## DERROT

Zuzen.

- *elixie dau ametik derrot dxun da*
- *derrot dxun barik, alborantz eiñ da bertan topako zu*
- *eztakozu galtzeirik derrot dxun ezkeru*
- *iñon lotu barik dxun garizen, derrot bertararte*

Hitz hau gaztelerazko **derrota** = **rumbo de las embarcaciones** hitzetik hartua da. Azken bokala galdu ondoren **derrot** geratu da eta zentzua aldatu egin da pixka bat, **con rumbo** izan beharrean **derecho**, **sin parar** egin da.

## DESABANDONA

Abandonatu.

Arraro samarra den arren, hitz honek esanahi hori dauka Bermeen. Oso erabilia da gainera.

- *imiek desabandonata dxun dxatzu a juergan*

- *etzie desabandonaten badau deretxo guztidrek galtzien txuz*
- *eskapa eñ dxau Madrillera, gizona ta alabie desabandonata*

Ikusten denez, **abandonar** gaztelerazko aditza eta euskaraz ere erabiltzen den **des-** aurrizki negatiboa erabiliz, aurkako hitz bat sortu da. Hala ere, zentzua bera da.

## DESAPARTA

Banandu.

- *ori parejie atxiñetik dau desapartata*
- *entzun dot arek be desaparta eingo dizela*
- *desaparta ezkeru gauzek txarrau paraten diez*

**Desabandona** hitzaren jokabide berdina hartu du.

## DESASIDU

Desegin.

- *airiek arbola guztidrek desasidu eñ txus*
- *indxaba danak eñ dxiez desasidu, orrenbeste su ezta okin biar*

Kasu honetan **du** partizipioa erabili da gaztelerazko hitza euskaratzeko.

**dezhacer + du → desazedu → desasidu.**

Adberbio moduan.

- *au telie desasite dau*
- *txikota desasite topa du dxun garizenien*

**dezhacer + ta → desazeta → desasite.** Askotan atzizki biak hartzen ditu:

**dezhacer + du + ta → desazeduta → desasidute.**

## DESBRAZETE / DELBRAZETE

Besotik helduta.

- *an dutzuz arek delbrazete, ezer ezalakuen pasa*
- *mojak esaten ezan doskue ez dxuteko desbrazete*
- *delbrazete agarrata dxun bizan dot ez dxrusteko*

Gaur egun askoz gutxiago erabiltzen da, **del brazo** erabiltzen baita.

## DESETXUE

Enbata. Denboralerik gogorrena.

- *desetxue due itxosuen, eztakigu zer pasako dan*
- *desetxuegaz, guarda-guardaka duez enbarkaziñuek*
- *sekule ezetu ez dan desetxuek atrapa gaitruz*

## DESGUARNIE

1. Denborale gogor baten baporeko horniketa guztiak apurtu edo galtzea.
  - *dxo ta tapa, itzosuek dana erun dosku, da desguarnieta aillega gara etzera*
2. Baina hitz hau herrira pasatu da eta egoera askotan erabili ere. Esaterako, indarrak galduta, gauzak apurtuta edo soinekoak urratuta gertatzen direnean.
  - *txo, nik eztaix non ibilli garizen, baie desguarnieta aillega garizena badakitx*
  - *jinasidxora obeto egoteko dxuen, da andik desguarnieta etzera*

## DESIGUALEKO BERBAK

Berba desegokiak.

- *desigualeko berbie esan zu auntxek pe, ori da esatekue!*
- *desigualeko berbak sarri esaten zuz zuk*
- *beti dau a desigualeko berbak esaten, orreitzik ez tzagu eitxen kasurik*

## DESIGUALEKUE

1. Desegokia. Pertsona edo gauza.
  - *desigualeko berbie esastazu alabatxu*
  - *desigualeko gauzek eitxen zauz*
2. Figuratiboan, korrontearen aurka dabilena.
  - *desigualeko gixona dot berori*

## DESKANTZO

Deskantsatuta egon.

- *ai ze deskantzo zapatak kendute!*
- *sofan tunbeta deskantzo baten oten nai*
- *deskantzuen on garizen, dxesarritxe Lamerako bankuen*

## DESKANTZOZKUEK

Oso erosoak.

- *onek zapatak deskantzozkuek tiez*
- *erosi duzen sillek desk.tzozkuen antza dakoie*
- *ori mantie gozue da, deskantzozkue ezango da oien*

## DESKEDE

Distraitu. Deskuidatu

Ez da arduragabekeria, adia galtzea baizik.

- *oneri dxatekuri gatz larreidxe botaten deskide nai*
- *deskideta beste bide batetik dxun gariez*
- *ez deskide, ze gauzek ondo ezpadiez ikasten gero aztu eitxen diez*

Gaztelerazko **descuidar** aditzetik hartuta dago baina zentzua ez berdina.

**descuidar** → **deskide**. Hau **deskidatu** izan beharko litzateke, baina ez du eman.

## DESKIDUE

1. Oharkabetasuna. Despistea.

- *parkatu, deskiduen dxo zaitxut*
- *oin be zeuzer apurtu zu, ezta? Bai baie deskiduen ezan da*
- *ez totso ein gureta, deskiduen baiño*

2. Badaezpada Beste kasu hau zalantzan jartzea da.

- *deskiduen, neu ez nauela etorten bada, esan bidzar etorteko*
- *deskiduen ez balekitzo akaba, beste erroa bat prepara bi dau*

**descuido** → **deskido**. Hemen **ui** → **i** monoptongatu da.

## DESKONORTA

Kolorea galdu.

- *onek erropak deskonortata dauz, zelan garbitxu zuz ba*
- *ulie be deskonorta dxatzu, pelukie erosi bizu*
- *mantelak deskonorta, izarak deskonorta, zer da in bi dotena?*

## DESTROZUE

1. Balentria.

- *destrozue eñ dxau, iñok paiño arraiñ geidxau atrapa*
- *arraiñe atrapa dau arek destrozue*

2. Kantitate handia. Asko.

- *piñuen erogoiek destrozue on diez Lameran*
- *Aritxatxun, medusek, destrozue on diez*



## DINGILIZIKE

Zintzilik.

- *dingilizke dakozu errobie, idxen ein bi kozu apur bet*
- *atetik dingilizke itxi dot jersie*
- *dingilizke itxitxen bazu forma txarra artungo tzu*

## DIROTZUE BAIÑO OKINTZUE OBETO

Batzuk dirua daukaten itxura ematen dute diru asko izan gabe, beste batzuk, ordea, isilean, diru asko edukitzen dute.

- *diñoie arek diro asko dakoiela, baie obeto okintzue dirotzue baiño*
- *beti esaten da: dirotzue baiño okintzue obeto. Da egidxe da*

## DIROZ ITXOTA

Dirua diruaren gainean.

- *diroz itxota dauzela esan, baie zorrez itxota be bai*
- *neu be diroz itxota nau, ikusten zu? Baie diro danak fajtzuek*

## DIRUE LASKA

Dirua gastatu.

- *etze on bat erosteko dirue laska bi de*
- *benga txo! Laskaik dirue, zeure egune be bada ta*
- *dirue laska barik eztau ezer*

## DIRUEK GATX / KALTE EIÑDXE

Harrokeria gainezka, diruaren diruaz.

- *orrek diruek kalte eindxe dakozuz, egunien egunien kontuixu duez Bilbora*
- *dirue dakona gatx eindxe bizi da*
- *diruek kalte eindxe bizi dana eztau bizirik pe*

## DIRUEK TIÑONIEN

Diruak berak esan zer egin behar den.

- *gauzek erosten diez diruek dinonien*
- *diruek dinonien ein guz berbak, erosi biarbada edo ez*

## DIRUEN KUKURRUKUE

Diruzale amorratua.

- *zelako diruen kukurrukue da ba, eztako beste pentsamenturik*
- *diruen kukurrukue ezatue gauze itzala dala pentsaten dot*

## DIRUEN MAMARRUE

Diruzale oso amorratua.

- *arek elekidau pagako txikito bat, ezta pentza be, diruen mamarrue danagaz*
- *beran andrie be diruen mamarro utze da*
- *bestelako diruen mamarro bi dauz or*

## DIZENAK ETA EZTIZENAK

Egiak eta gezurrak.

- *asarratu dizenien dizenak eta eztizenak esaten ibill dxiez erri guztidzen*
- *dizenak eta eztizenak esan da famie krieli*

## DOIDXE

Inspirazioa. Argitasuna.

- *zer pentsa ezien on nai, da alako baten doidxe etor dxast*
- *eztot kuzan dxuen, baie neuri, doidxe etorritxe, neu dxuen bertar, ta bertan topa*
- *Jangoikuen doidxe okin zu dxakitxeko zer ein bi zun ela?*

## DOLLIDU

Ez damutzea.

- *eiñ txuzenak eiñdxue be ez da dollidu*
- *noiz dollidu de a ezeitrik ba?*
- *dollidu ein bi garizela? Zer eiñ dxule ta?*

Gaztelaniako **doler** hitza erabiltzen dugu damu dugula esateko.

## DOMA

Ofenditu. Menperatu.

- *domateko berbak esaten txuz orrek*
- *andidxek esaten ba tsazuz be ezta domaten*
- *on bia, neuk domako zaitxut*
- *domata itxi nau beran berbakaz*

Gaztelarazko **domar** aditzaren zentzua daukate azken bi esaldiok. Formaz berdinak badira ere, esanahia ezberdina daukate.

## DUNGULUE

1. Artirinarekin egiten den orean, gero esnea botata. Konparazioan erabiltzen da. Oso normala da Bermeoko hizkeran.

- *dxan dungulue lodi lodi eitzeko*
- *au lapikue dungulue lez dau* (lapikokoa)
- *erain dunguluri ondiño loditxu barik tau te*

2. Zentzu figuratiboan: jirak eta birak eman gai bati.

- *zemat eta dunguluri geidxau eraiñ naste geidxau*

Azkuek, Bermeoko hitza bezala azaltzen du, baita Mundaka eta Txorierrikoa ere.

## DUNGULUE ATARA

1. Jipoitu.

- *pazentzidxetik atara dau, da gero bestiek dungulue atara tzo*

2. Gauza bat asko erabili.

- *onei zapatai dungulue atara tzatie*

## DUNGULUE LEZ

Masa bat eginda.

- *au lapikue dungulue lez dau*
- *dungulotuten itxi bi de gozo oteko*
- *bai, berori dungulue dxan*

## DURDOIEN MOSUEK

Ezpain lodiak dituen arraina. Konparazioan erabilia.

Kasu askotan bezala, arrain baten izena erabili da adjetibo bat sortzeko.

- *a mutille, eztakixu durdoien mosuek dakozena, ba bera da ill dxauena*
- *durdoitxue dozu bera imie*
- *bestelakue zauz or gerrie emoten durdoi ori*
- *gusta be eitzie bera durdoien mosodune*

## DURKUBETUTE

Umeak logura direla adierazteko erabiltzen da.

- *au imie durkubetute dau, imiñi sehaskien*
- *pelikulie ikusten imie durkubetute! Ohire eruen lo geratu orduko*

## DXABIE

Zerbait ospatzeko egiten den bazkaria edo afaria.

- *baporan berinkaziñuen dxabie okiñ dxun kasinuen*
- *etze barridxeri teilletue imitxen dxatzonien be okiñ dxu dxabie*

**jana** hitzarekin batera erabiltzen da, baina hau gutxiago.

## DXABONADURIE

Arropa garbiketa.

- *dxabonadurie eiñdxe itxi bi dot kalera urten orduko*
- *nik dxabonadure asko dakot eta eziñ dxot urten ba*
- *dxabonadurek interiniñeri emoten tsatez*
- *eskeitzxe dakozun dxabonadurie, ariñ ein zu*
- *dxabonadurek ez palekidotez okiñ Bilbora dxungo leidnai*

Hitz hau, fonetikazko aldakuntzen bidez ezberdintzen da gaztelerazkotik. Normalki erabiltzen den hitz bat da, eta aspalditik gainera.

## DXABOTURE

Xaboi-ura.

- *dxaboiuregaz garbitxu bi diez histelak*
- *dxaboiure dator, da ori dxaboiure itxosora due*
- *onek esniek dxaboiuren antza dako*

Hitz hau ere, bestea bezala aspalditik sartu da Bermeon, duela laurogei urteko Ortuzarren **Oroigarriak** liburuan agertzen da.

## DXAKADA BATEN

Berehala egin.

- *dxakada baten ein txuz biar guztidxek*
- *nik ezin dxotez dxakada baten ein, denpora geidxau bi dot*
- *imemoko batek pe dxakada baten eingo lekitxuz de, zer diñozu zuk*

## DXAKENARRO

Arrantzaleen itsasoko jantzia. Gaur egun euritarako aproposak daude, baina aurrerago olanaz eta gero linaza olioia emanda erabiltzen zirenak dira. Baina orain ere izen hori ematen zaio.

**Entzadu** eta **frakonozkuek** hitzen antzerakoa beste hau, **entzaduek** jaka eta frakaren konjuntua da. **frakonozkuek** frakak dira eta **dxakenarroa** jaka da. Hirurek hartzen dute izen ezberdina.

- *inundaziñuek ezan dizenien gixon guztidzek dxakenarruekaz dxantzitze ibil dizen*
- *dxakenarruek asko dxaboten zaitxuz euritxen*
- *gaurko gaztiak pe dxakenarruek dxazten dauie euridxe danién*
- *baie oraingo dxakenarruek politzauek tiez*

**jaka + larru / namil → dxalcenarru → dxakenarro.**

Aurretik esandakoa kontutan izanik, hemen ere **u** bokalea deklinatu gabe doan hitzean **o** bihurtzen da.

Kasu honetan, ez da larruzko jaka, linaza olioá emandako olanazko jaka baizik. Gero, horrek larruaren funtzioa beteko du.

## **DXAKIDXE**

Jaki.

- *dxakidzek danak ezan diez onak, baie kafe ure*
- *dxaki onik eztau oraiñ, dana da artifiziala*
- *dxakidzek geure amak imitoen ezan txuzenak*

## **DXAN DA LO**

Jatekoa oso ondo dagoenean esaten da.

- *zelako dxatekue dxan du ba, dxan da lo txo, dxan da lo*
- *armozue be dxan da lo eitxekue emon doskuien, dana, dana dalakue*
- *zelan dau marmintxe ba? Marmintze dau, dxan da lo*

## **DXAN-DXAN BARIK**

Erdi janda ibili.

- *zeureitxik dxan dxan barik nabill*
- *ba ez ibilli dxan dxan barik, ze ostantzien firue lez parako zara*
- *beruegaz da kantzaziñuegaz eztu okiñ dxateko ganarik eta dxan dxan barik ibil gariez*

## **DXANA**

**Dxabie** hitzaren parekoa da, hau da, zerbait ospatzeko egiten den bazkaria edo afaria, baina hau gaur egun erabiliagoa da.

- *gaur dxana daku Mikelen egune da ta*
- *zuek dxana okitxeko eztozue biar ezer zelebrateko*

## **DXANGANGAR**

Jateko gogorik ez.

- *aspaldidxon dxangangar nau, eztakot dxateko ganarik*
- *geure imie be dxangangar dabil*
- *dxangangar dauela, baie berak langostino guztidzek dxan*
- *ori ezta dxangangar egotie, askatan dxatie baitio*

Forma hau, hiztegieta datorren **jangar** hitzaren aldaera izan daiteke.

## DXANOIXU-DXANOIXU

Janaria bikain prestatuta.

- *zetako zauz dxangangar ba, dxanoixu-dxanoixu dau dxatekue ta*
- *emon doskun paillie dxanoixu-dxanoixu on da, baie geuk ez ganarik*
- *dxanoixu-dxanoixu dauen lapikue eztozule gure diñozu, mizketute zauz de*

## DXANTXAKURRE

Beste batzuen lepotik bizi dena. Engainatzen duena.

- *dxantxakurre be ezta makala a dxan tsoz andriri diruek eta*
- *dxantxakur guztidzek bixi diez ondo*
- *ezetuten dotez nik ainbet dxantxakur*

## DXANTZI BAKO TXORIDXE

Konparazioan osagaiak falta edo gauza eskasekin jantzita.

- *nora zuez dxantzi bako txoridxe lez ba, dxantzixu jersie, utz zauzde*
- *oneri erropiri kuellue ezpazazu imitxen dxantzi bako txoridxe dala atara kontu*
- *ulie ebai zunik eta ona dxantzi bako txoridxe lez zauz*

## DXARRA KATILLUEK

Pitxer eta katiluak. **Jarra** hitza erabili da.

- *dxarra-katilluek garbitxuteko eztau obiaurik deterjente bat baño*
- *amentala imiñi dxarra-katilluek garbitxuteko*

## DXIBO-DXIBO

Zabua. **Columpio**.

- *ama, eruen dxibo-dxibutara*
- *ezpazu dxaten meridxandie eztau dxibo-dxiborik*

## DXIGIDILLEK

Errieta, baina txikia.

- *emontsuten orduen ez bazatuz etxera... dxigidillek ezango diez!*

## DXIGOTAK

Iskanbilak. Haserrekontzak.

- *ezpaztazu emoten dirue, dxigotak ezango diez amen etzien*
- *bardin dxe dxigotak badauz be eztotsut emongo dirorik eta*

## DXIGOTILLEK

Iskanbilak. Haserrekontzak. Baina txikitasunaren atzizkia hartuta.

- *egun santo guztidxetan dauz amen etzien dxigotillek*
- *areitxik edo orreitxik ez da falta dxigotillerik*
- *da non ezkiez oten dxigotillek ba, aberatsan etzien be bai*
- *baitxe kasinuen bertan be, ezu ikusi atzo zelako dxigotillek arma dau*

## DXIK ETA DXAK

Azkar.

- *arin ein zue bueltie Bilbotik, dxik eta dxak*
- *bai, zetako zu an on da ba, dxik eta dxak ein gauzek eta etzera*
- *azpildxurek aulan eitxen diez, artun orrotza da dxik eta dxak*

## DXIPETOI / IE

Jaka luzea. Zentzu peioratiboan erabiltzen da.

- *nora due dxipetoiegaz, dauen beruen*
- *dxipetoi eder bat erosi tsat aitxeri negureko*
- *beran dxipetoie garbiten on nai ontxerarte*
- *dxipetoieri botoiek kanbidxe bi tsatez*

Hitz honekin batera **jipoi** ere erabiltzen da; eta gaztelerazko **chaquetón** hitzaren azken silaba **ton** eta **jipoi** hitzaz konposatuta dagoela dirudi.

**jipoi + ton → jipoiton → dxipeton → dxipetoi.**

## DXIRTADA

Distira.

- *begidxek pe erun dostez zure eraztunen dxirtadiek*
- *dxirtadak, aren belarrikuek botaten dauienak diez*
- *Matxitzakoko farolak botaten dauen dxirtadie baiño andidxaue da orren erropiek daruna*

## DXO ONDARRU DXO MOTRIKU

Bueltak emanda ere, beti bueltatu leku berdinerara.

- *denda guztidxetatik pasa, baie dxo ondarru, dxo motriku, lelau sartun garan dendara barrero*
- *dxo ondarru, dxo motriku, beti bertara kalera*

## DXO POPAN DA KALERA

Kanporatzea. Kalera bota.

- *ainbeste urtien bertan biarren, da gero, dxo popan da kalera*
- *dxo popan da kalera bota dau ama, diro guztidrek dxan da gero*

## DXO TA BUELTA

Astindu. Kolpea eman.

- *ezpaztazu emoten eskatu tzutena, dxo ta buelta eingo zaitxut*
- *dxota ta buelta eingo dauela esan tzonien, ondiño aldarri handidxauek eiñ truzen*
- *ze esan dau, dxo ta buelta eingo nauela? Etortie dako ia*

## DXO TA PASA

Azkar edo erdipurdika egin gauzak.

- *etzeko biarrak dxo ta pasa ein dostazuz, autse be kendu barik itxistazu*
- *erropiri be alborapuntadak dxo ta pasa eitxen tzoz*
- *ez ibilli ondo eitxen, dxo ta pasa eiñ*

## DXO TA SU

Erabat haserre.

- *entera danien loteridrek ekar dauela da berari etzola emon, dxo ta su asi de*
- *baie zeri asten zara dxo ta su, gauzek dxakin barik?*
- *motibuek dakotezelakon dxo ta su asteko, loteridxe ekarri da niri ez tostazulako emon*

## DXO TA TAPA

Itsasoko termino bat da. Eguraldi txarra dagoanean, olatuek ontziaren gainetik pasatzen dira, eta orduan *dxo eta tapa* dabiltzala esaten da. Gero herrira pasatu da, eta arraina, dirua edo beste edozer ugari dagoanean aplikatzen da.

- *auntse dabiltzuz arek dxo ta tapa, ainbeste diro irebazten*
- *andabill a, Benidorren. dxo ta tapa, berak gure dauen beste enbragaz*



## DXOKAZO

Zerbaiten kontra jo.

- *negarrak isildxuten ezpazuz beiegaz be dxokazo eingo zu*
- *ekar dauen andanigaz, ormigaz be dxokazo ein dxau*
- *zelako dxokazue ein dxau ba, Mundekatik pe entzun zaratie*

Hitz hau **jo erazi** izango da seguruena, **-era-** zatikia galdu eta **-ka-** tartizkia hartu ondoren: **jo + ka + zo**.

Baina beste hipotesi hau ere kontutan izan beharko litzateke: beste kasu batzuetan bezala gatzeleratik hartutako **tortazo** hitzaren **-zo** atzizkia izan liteke.

## DXOSI

Arraina josi, harrapatu. Konparazioan beste edozer harrapatu. Arrantzale giroan erabiltzen den hitz hau nahiko zabala da beste testuinguru batzuetan ere.

- *arraiñe dxosi bai, baie txikidxe*
- *onek amuek eztaue balidxo ezetako be, dxosten dauen arraiñek pe eskapa eitxen tso*
- *an darue dxositxe arraiñe, laster itxiko dau bertanbera*

## DXOSUE / K

1. Denbora laburreko haize eta euri gogorra.
  - *itxosora urten dun egunien dxosuek ezan diez*
  - *zelako dxosue ekar dau ba*
2. Haize gogorrak itsasoa harrotzen duenean.
  - *ikaragarriko dxosue altza dau aixiek*
  - *eta derrepentien alako dxosurik ekarten; para arte bertan on biar*

## DXOTA

Erdi edo osorik erotuta.

- *ori morroie dxota dau etso eitxen iñori be kasurik*
- *zer diñozu! Dxota on barik gero zu gero!*
- *dxota dauela diñoie. Neguen uger eitxen dau orrek Aritxatxun*
- *enebada! Dxota ete nau ba, orrek gauzek eitxeko?*

D.A.R.k bakarrik jaso du honen aldaera bat izan daitekeen **joa** forma. Hau, **jo** aditzaren sailean, XL. definizioan, Harriet-en zita bat azalduz, **tocado de la cabeza** definizioaz agertzen da.

## DXUENA

Gastuak. Diruaren irteera.

- *an etzien dauen dxuena andidxe da, danak takoz estudidxeten da*
- *diruen dxuena andidxaue da dirue irebaztie*
- *dxuenari ez beitu, laster datosku diro freskue ta*
- *dxuena badxakotena ba, eztaitx nondik atako ten dirue etziepagateko*
- *zelako irebazidxe alako dxuena dako*

## DXUN KAKA SALTZIEN

Zoaz pikutara!

- *dxun zaitxez kaka saltzien eztakot zeure kontorik eta*
- *eulimandue lez ibill dxe da kaka saltzien bota dot*
- *eztau biar askorik arek jentie kaka saltzien botateko*

## DXUN POR DXUEN

Joan, baina gogo gabe.

- *ez dxast gustaten ziñera dxutie, dxun por dxuen eitxen dot*
- *ezu esan ba, ezula gure ronpiolasetik ibilli? Da ez dxast gustaten, dxun por dxuen eitxen nai*

## DXUSTURIDXE

Tximista. Tximistargia.

- *dxusturidxek ikarie emoten dostie*
- *neuri be bai, beñola basuen on gariez da zelako dxusturidxek eta truboiek on diez ba, ni, dardakadan*
- *ba ni enai ikaratuten dxusturidxekaz*

## E

### EDAN BAKO MOZKORRA

Mozkorra lez ibili, baina edan barik.

- *edan bako mozkorra dakot nik, eztakitx zer eitxen doten be*
- *edan bako mozkorra txarraue dala esaten dauie, ez zara akordaten ezegaz be*
- *edan bako mozkorra lez nuen kaletik, mandaz mandazka*

### EDEGI

Ireki.

- *bidzar jai egune dala ta, okindegidxe beranduau edegiku*

### EDERRAK EMON PALO BARIK

Agirika egin. Lotsak eman.

- *eztau dxo, baie ederrak emon dotsoz palo barik*
- *ene alabie! Ederrak emon dostazuz palo barik, ori dona esalie be*

### EFETUE

Efektua edo kaltea.

- *isillik ez pasauz efetue eingo tzut aunegaz kutxillugaz*
- *emon tson zartazugaz efetue ein tso begidxen*
- *ezu ikusten efetue ein tsona buruen arridxegaz*

Erdarazko zentzu berbera dauka: *resultado de una acción* beti izaten da ekintza gogor bat.

### EGABANATU

Desagertu. Barreiatu.

- *mai ganien itxi dotezen gauze guztidrek egabanatu eñ dxiez*
- *zeuk pe ez itxi biar, bakiru egabanatuten dizena ta*
- *arin egabanatu diez, eztiez minitu bi pasa ta*

### EGARRIDXE

Gehigarria, baina likidoa.

- *egarririk pe ezu bota, ezkas dakozu esnie la*
- *ardaue ekarri, da esan egarridxe botateko*
- *gure esnedunek beti botaten dau egarrirxue*

- *ezu botaten egarridxe la? Egarridxe bidzar*

Formaz **egarria** bada ere, zentzua besterik da. Seguru **gehigarria** dela hitz honen jatorrizko forma.

**geigarria** → **geigarrije** → **geigarridxe**.

Bokal itxidura gertatuz gero, **j** epentetikoa sartu da, oso normala bait da Bermeoko hizkeran.

**geigarridxe** → **eigarridxe** → **egarridxe**.

## EGI BERDADERUE

Egia benetakoa. Azpimarratzeko esaten da.

- *nik ez diñot guzurrik, egi berdaderue baiño*
- *egi berdaderue dala diño, bai e guzur txarridxe diño*

## EGUALDIDXE HABANA CUBA

Eguraldi ona.

- *egualdidxe habana cuba! Aritzatzure osti bi txe erdigaz!*
- *aurton Madalenatan egualdidxe habana cuba!*
- *Canariasen egunero egualdidxe habana cuba*

## EGUERDIDXE

Bazkaria.

*. eguerdidxe prepara barik takot ondiño - ez takot ezebe eguerditzerako; patatak dxan bikuz - eguerdi ederra paga dosku, beran egune ezan da ta - eguerditxen eztot dxan ezer, eguerdidxe ezta ezan neure gustokue ta*

**Jatekue** ere erabiltzen da **bazkari** hitzaren ordez, baina gitxiago. **Eguerdikoa** hitzetik hartu eta zuzenean sartu da. Auzoetan **eberdidxe** esaten da.

Azkuek ez du jaso zentzu honetan, bai, ordea D.A.R.k Bermeoko hitza dela esanez.

## EGUERDIKORA

Bazkaldu ostean. Arratsaldean.

- *eguerdikora dxungo gariez Bilbora*
- *esan dau eguerdikora dxuteko bera ikusten*
- *eguerdikora ezan ezik eztau eitxen biarrik*
- *eguerdikorako prepara plaidxera dxuteko*

Oso arraroa egiten zait hitz bau, baina hor dago. **nora** erabiltzen da **noiz** erabili beharrean. **eguerdi** + **ko** + **ra** → **eguerdikora**.

## EGUNEK ARGI

Konturatu.

- *badakizule nor dan diñozu, orain egin dotsu egunek argi?*
- *auntzek egin dotso orreri egunek argi*

## EGUNO

Sekula. Inoiz ez.

- *San Mamesera enai juen eguno!*
- *nota txarrak bazatozen etxera eguno etsut eingo erregalorik*
- *Aqualandiara enai juen eguno, baie gustako lekidast!*

## EGUNO LAKORIK!

Sinestezina denean. Holakorik!

- *eguno lakorik e! Sekule be eztot ikusi!*
- *eguno lakorik! Guzurre diñotela ta ez dost egin kasurik*

## EGURREN BILLE IBILLI

Norbera ibili zigorraren bila.

- *alabatxu, zeu zabiltzez zeure egurren bille*
- *neu nabillela neure egurren bille, zeuk emon dostazulako emotekue*

## EIDXO

Nekatu. Literalki, eho.

- *eidxo eidxo eiñdxe etor gariez kaletik*
- *olan bazabiltzez eidxo eingo zara*

## EIDXOTA

Nekatuta.

- *eidxota itxi nau San Juanerako bidiek*
- *dxantzan eidxota, Lamerako banko baten dxesarri garizen*

Adberbio funtzioan ere erabiltzen dela ikusten dugu.

## EIDXUEK

Nekatuta, baina pluralean.

Kasu honetan aditza substantibatuz egiten da. Gainera beti erabiltzen da pluralean.

- *eidxuek eĩn dxuz dxantzan, ordu bi bai*
- *negar eidxuek eĩn dxe dxun da oire*
- *negarrez eidxuetan egon da goix guztidxen*
- *biarrien eidxuek ein bidiez gauzek ondo okitzeko*

Ikusten denez, deklinatu ere normal egiten da. Azkuek bere hiztegian Mundakakoa bezala azaltzen du. Baina zentzu aldetik ere ez da berdina, zeren berak, **hacer ezfuerzos excesivos** itzultzen du, eta Bermeon **muchas moliendas** izango litzateke literalki itzuli ezker, beraz, ugaritasuna ematen du. Honela, kantitatezko adberbio baten funtzioa betetzen du.

## EIN BIARRA GOGORRAUE

Derrigorrez egin beharra.

- *eztot guzan ein, baie ein biarra gogorraue*
- *etor biarra gogorraue ezan da, da etorri ein biar*

## EITXEN EITXEN

Ekinean-ekinean. Egiten-egiten.

- *eitzen eitxen okin bi de lapikue, su gitxigaz*
- *eitxen eitxen, ikasi eitxen da*

## EIÑ ARIN

Ondo egin barik, gehienetan jatekoa.

- *dxatekue eĩn arin ein bide ondo egoteko*
- *okelie be eĩn arin badau gozuau*

## EIÑEKIDXEN / DXON

Ekinean. Konturatu barik zerbait egitea. Ekinean-ekinean.

- *eĩnekidxon eĩnekidxon, etzeko biarrak akaba dotez*
- *zer eĩnekeidxen, Bilbora allega garizen*
- *zer eĩnekidxen, jersie akaba zu*
- *ardau botilliri akabue emon tsagu zer eiriekidxon*

Hitz honen etimologia **ekinean** hitza da.

**ekinean** → **ekiñean** → **ekiñien** → **ekiñijen** → **eĩnekidxen**.

Kontsonanteen metatesia egiten da. Aurrerago ere, ikusi dugun bezala, nahiz eta palatalizatu, Bermeoko hizkerak ez du galtzen aurreko **i**. Horregatik, kasu honetan, sudurkari borren aurrean **i** bat desarroilatu du.

## EKAU

Emaidazu.

Aginte kutsuaz erabilitako aditza da.

- *ekau ori boltsie neurie da ta*
- *emon tzuten gauzie ekau iñok dxakin barik*
- *ekau aur ganiien dauen librue*

Nahiz eta **ekarri** aditzetik hartuta egon, zentzua **eman** da.

**ekar eidazu** → **ekardazu** → **ekadazu** → **ekazu** → **ekau**.

Azkuek, bere hiztegian Mundaka, Ipazter eta Bermeorako jartzen du.

## EKILIKUA

Horixe berori. Ondo. Horrela da.

- *au ein bi dot? Ekilikua*
- *bidzar etorko dala esan dau ezta ? Ekilikua*
- *zuk danari esan bi tzazu ekilikua*

Hitz hau gaztelerazko **equilicuá** dugu, etimologia italierazko **eccoli qua** izan daiteke, **eccoli** hitza **ecco**-tik datorrelako, eta berori latinezko **ecce**, **eccum**, **hona hemen** esanahia duelarik.

## ELANBRA

Arlanpa. Moilan batelak igotzeko egindakoa.

- *elanbran itxi dotez otzarak garbiteko*
- *elanbran dxeusi de, batela altzaten dauela*
- *eztakixu portuko elanbrie non dauen?*
- *elanbrara baja bi dot izterrak garbiten*

Gaztelerazko **rambla** hitzetik hartuta dago, baina zentzua ez du hitz horri dagokiona, **rampa** hitzari baizik.

**rambla** → **erranbla** → **elanbra**. **i** eta **rr** kontsonanteen metatesiaren bidez aldatu da hitza.

## ELASTIKO / UE

Kamiseta.

- *elastiko barridxe erosi bi tzut*
- *kakaz beteta dako zu elastikue*
- *abanderado ixena dakoien elastikuek tiez onenak*

Jantzi hori deskribatzeko beste hitz bat, **interiora** da. Kintanak **barrengoelestikoa** deitzen dio. Gaur egun, soineko horren materiala ez da izaten hain malgua, baina antzina bai, eta hitz hau aspaldikoa denez, horrela geratu da gaurko barne jantzi horretan.

## ELEGANTE / IE

Bikaina. Oso gozoa. Ederto dagoena.

- *ure dau elegante, asma be ezta eitxen otzik sartukeran*
- *indrabak tauz elegante, inon bez obiaurik*
- *erosi dauen kotziek motorra dako elegantie*
- *egualdidxe dau elegantie*
- *pelikule elegantiek emoten txuz telebisinuek*

Hitz hau aspalditik erabiltzen den gaztelerazko hitza dugu. Adineko zein gazteen arteko erabileran ez dago ezberdintasunik, normalki erabiltzen da.

## ELEJIDXE

Aukeran.

- *plazan eleji andidxe on da, arraiñe arraiñe lez on da*
- *arek, zapatatan, elejidxe dakotzu*
- *elejidxe on da lez, elejiten emon dost*
- *ezta on elejirik, da dauena artun de etorri bi zan nai*

Argi dago gaztelerazko **a elegir** hartuta dagoena. **elegir** → **elegia** → **eleji**.

## ELIXEKUEK ARTZIKO / EMOTeko MODUEN

Erabat nekatuta.

- *San Juanera dxun nai da orain nau elixekuek artzioko moduen*
- *zure alabie ikusi dot Lamerako bankuen tunbeta, kantzata, elixekuek emoteko moduen*

## ELIXEN DEITXU BAKO DXOSTUNE

Titulu edo esperientzia gabeko jostuna.

- *nok ein dotsun erropie, elixen deitxu bako dxostune da*
- *elixen deitxu bako dxostune da baie eztau besterik*

## EMOISTEK AMORE!

Bai zera! Esandakoa sinesten ez denean.

- *Erreala Uefara dxungo dala? Txo, emoistek amore*
- *emoistek amore lagun, ori eztau sirñistuten zeure amak pe*



## ENBAJA

Kontserbatzeko arraina latetan sartzea.

Arrain lantegietan erabiltzen den hitza da. Antxoa, zein atun trontzoiak latetan sartzeari deitzen zaio. Baina konparazioan ere, asko sartzen da.

- *gaur antxobie enbajaten on gariez frabiken*
- *ezta etorri enbajateko antxobarik, txikidxe ezan da dana*
- *bertan on gara, antxoba lez enbajata, prentsata*
- *an bota dostez kajan barruen enbajata tomate guztidxek*

Gaztelerazko **empacar** = **enfardar**, **empaquetar** hitzetik harruta dago. **empacar** → **enpaka** → **enbaja**. Joera normala ez izan arren **p** → **b** egitea, gehienetan alderantziz gertatzen baita, Bermeon behintzat, kasu batzuetan ematen da.

## ENBAJADA

1. Arazoa. Buruhaustea.

- *bestelako enbajadie dakastazu alabatxu*
- *enbajada ederra dako arek etzien*

2. Notizia.

- *neure aiztiak ekar dau ori enbajadie*
- *ez etorri niri enbajadakaz*

Badirudi gaztelerazko **embajada** = **mensaje** bera dela hitz horren jatorria.

## ENBARKA

Harrapatu. Itsasoan erabilitako hitz hau, edozer harrapatzen denean erabiltzen da.

- *an, enbarka dau arek boltsie, da iñok etso esango ezer*
- *enbarka ta enbarka diruek, kantsa be ezta eitxen*

## ENBLEMA

Arazoa. Buruhaustea.

- *zelako enblemie dxekusi dxatzo ganien ba*
- *arek bestelako enblemie dako baporien*
- *enblemakaz kokoterarte nau*

Ez da gaztelaniako **emblema** edo ezaugarriaren zentzuaz erabiltzen, nahiz eta hitz hori izan formaz.

## ENBOLIKE

Liluratu. Turditu. Tontatu.

- *zeure berbakaz enbolike nozu*
- *enboliketa nau alabatxi berak esan dostezenakaz*
- *ez enbolike iñor, enau orretarako ta*
- *onek imiek enbolike enbolike eitxen zaitxuz*

Hitz honek, gaztelerazko **embobar** eta bobalicona hitzak hartu ditu oinarritzat.

**emboba** + **licar** → **enbopalika** → **enboalika** → **enbolika** → **enbolike**.

## ENBRA / IE

Emakumea, baina gaztea.

Ez dauka gaztelaniazko zentzua bera. Euskaraz, toki batzuetan adineko emakumeari dagokio, edo beste zentzu batetan, Kintanak jartzen duen bezala **mujer apetitosa**, Bermeon, emakumezko gazteari dagokio. Ezkondu gabekoa. Jaioberria bada ere berdin.

- *dxaidxobarridxe zelakue ezan da ba, enbrie edo mutille?*
- *aurrek enbriek dxo nau*
- *enbrak bakarrik on diez Lameran, mutillek frontoien on diez*
- *mutillek mutilletara da enbrak enbratarara para bi diez*

Gaztelerazko **hembra** da hitza, baita zentzua ere, baina esan bezala, mugatu egiten da.

## ENDEKATU

Sikatu. Gutxi garatu.

Aditz funtzioan:

- *balkoien okin dxoten lorie endekatu eñ dx*
- *amuma be aspaldidxon endekatu eñ dx*

## ENDEKATUTE

Sikatu. Gutxi garatu, baina adberbio funtzioan.

- *onek sagarrak endekatute dauz*
- *endekatute dau au imie, geixoren bat dako antza*
- *endekatuiko gixona da ori, asi be ezta eitxen da*
- *endekatute geratu da, etsazu ikusten tximorrak?*

Badirudi hitz hau, gaztelerazko **endemia** hitzetik sortu dela. Hala ere, ez nagoenez seguru, hitz honen eboluzioa zein izan zitekeen, hipotesi modura azaltzen dut hurrengoa.

endemia + tu → endemikatu → endeikatu → endekatu.

## ENE ALABIE!

Esklamatiboa. Lelo antzekoa.

1. Haserrea.
  - *ene alabie! Ori ein bi zan zu!*
  - *ene alabie! Abixe bi zan zu lelau, Bilbora dxungo zarana*
2. Kezka.
  - *ene alabie, eztaJa etorko pentzaten zu?*

## ENEBADA TA ENIE!

Zoritxar bat, disgustu bat edo antzeko zerbait gertatzen denean erabiltzen den esaldia dugu.

- *Enebada ta enie! Ze ikusteko gauz, seguru illek pe badauzena!*
- *desetxue duela itxosuen dinoie, ai enebada ta enie!*
- *enebada ta enie! Zer da pasaten dana amen erridxen, gaztiek galdute dauz da*

## ENEFRAKAS

Zentzu karinosoan erabiltzen da. Txarto janzten den gizona edo umea, fraka zabalak edo antzeko soinekoak.

- *enefraskasen antza dako zu*
- *gure enefrakastxu! baie zelan zuez dxantxitxe ba*
- *auna erdu enefraskas, orrek frakak ondo imitxen*
- *enefraskas utse zara txetxo, ezin obeto dxantzi!*

## ENFADA

Beteta. Gogaitu.

- *eztot gure pastelik enfadata nau eurokaz da*
- *Galizidxen, langostiniek dxaten enfada eitxen zara*
- *ez enfada inor e? ez takot umorerik eta*
- *onek imiek enfada-enfada eitxen nau*
- *enfadaten bazaitxuz kalera bota*

Ez du gaztelerazko **enfadar** zentzua.

## ENFADO / DUE

Nazka. Arrabia.

- *enfadue emoten dost orrelako gauzek entzutiek*
- *eske enfadue emotekue da*
- *ba enfadue emoten batsu auenta*
- *nik berari esan tsat arpeire, enfadue emoten dostela*
- *iñon begire egotiek enfadue emoten dau*

Gaztelerazko **enfadar** aditzak eta **enfado** izenak ez dute Bermeon erabiltzen den zentzua.

## ENGAÑOTI / DXE

Engainatzen duena.

- *engañotidxe zara engaiñe ein nozu te*
- *zu zara engañoti bet*
- *engatitidxekaz eztot kure ibilli*

Gaztelerazko **engaño** erabili da adjetibo hau egiteko. **engaño** + **-ti** atzizkia gehituz → **engañoti**.

## ENKALLE

Ainguratu. Aditz funtzioan.

- *ez enkalle niri iñok ez tauena gure*
- *saldu iziñik okiñ dxauena laguneri enkalle tso*
- *txakurre enkalleko tsut eziñ dxot dxabon da*

## ENKALLETA

Ainguratuta.

Adberbio funtzioan.

- *goixeko laurek emon doskuz bertan enkalleta ardauek edaten*
- *egun baterako dxuen da bertan enkalleta geratu da illebetien*
- *enkalleta nau etzien, eziñ dxot urten iñora*
- *amari itxi tso imie enkalleta, bera Benidorrera dxuteko*

Itsasontzientzat erabiltzen den hitza, hizkera arruntera pasatu da.

## ENPANADA

1. Pertsona edo gauza ezatsegina. Aspergarria.

- *bestelako enpanadie ekartso, berak eziñ dxauela ein dxe, tanborradako erropa guztidxek in bi txuzela*
- *niri ez ekarri enpanadarik, zeure lagune da ta zeu konpondu*
- *enpanadie zara tso, enpanadie, eztok enteniten ela?*
- *ez tokure beran onduen para, empanada utse da ta*

2. Turdiduta. Tontatuta figuratiboan.

- *ez zarala entera? Enpanadie be ez takozu zuk txikidxe*
- *zelako enpanadie dako ba, ondiño pasa barik tako atzokue*
- *ekar dauen enpanadigaz iñor be eztau ezetu*

Gaztelerazko **enpanada** edo **torta** bi hitz horien zentzua hartu du literalki, baina zentzu figuratuan erabiliz.

## ENPATXA

Nahastu. Endredatu.

Aditz funtzioa betetzen du.

- *enpatxa-enpatxa eitzen nozu da gero zeuk burue libre*
- *iñor ez enpatxa, neiku nau eindxe ta*
- *eztot kuzan dxuen, baie azkanien enpatxa nau*
- *zeu tire gure bazu baie ni ez enpatxa*
- *onek neu enpatxaten nau leko g,uztidxetan*

Azkuek ez du jaso forma bau, bai, ostera, **enpatxata**. Baita D.A.R. k eta Kintanak ere, baina beste zentzu batez jaso dute, hau da, **impedir**, **obstaculizar** definizioa ematen dute.

## ENPATXATA

Nahastuta. Endredoan sartuta.

Adberbio funtzioan dago.

- *aregaz enbriaz nau enpatxata*
- *buruko ulietararte dau enpatxata*
- *enpatxata on barik pe, neiku burukumiñ emoten dau orrek*

## ENPATXO / UE

Endredo.

- *bestelako enpatxue arma dau ba*
- *ba, nik, enpatxotik libretoko, enuela esan tzat*
- *eztau aman semerik au enpatxue libreko dauenik*
- *enpatxutan ibilltxie gustaten dxatzo*

**Enpatxu** hitza, arrantzako apaiiak edo hauen txikotak, fitak edo potxerak nahastuta daudenean esaten da. Gero, hitz hori hizkera arruntera pasatu da, eta nahastuta dauden gauzak adierazteko erabiltzen da.

Azkuek beste zentzu batez jaso du bere hiztegian, eta D.A.R.k, eta Kintanak ere, zentzu hori ematen diote: **preñez** eta bigarren definizio bat **estorbo** izango da. Beraz, guztiz ezberdinak dira.

Izenaren funtzioa betetzen du.

## ENPEÑO / UE

Influentzia. Boterea.

- *arek enpeño andidrek takoz Madrillen, aurreitxik ekar dau semie Bilbora serbezidxue eitxen*
- *zuek takozuen enpeñugaz ezin bazue eiñ, guk gitxiau*
- *enpeñugaz irebazi dau oposiziñuek*
- *enpeñuen enpeñugaz atara dau karrerie, ostantzien ondiño be unibersidadien ongo zan*
- *enpeñorik ezpako zu, biar barik gosiek ill*

Gaztelerazko **empeño** + **protector o padrino** hitzetik hartua da, eta esanahia berbera dauka.

## ENPIKE

Erantsi, itsatsi. Pertsona edo gauzak.

- *makalluek okiñ dxauen jelatitiigaz atzamarrak pe enpikete eitxen diez*
- *onek papelak kalien enpikete bi diez jentiek ikusteko*

Gaztelerazko **empegar** aditza ez litzateke hain egokia, baina **pegamento** hitza harturik zuzena izan daiteke.

## ENPIKETA

Itsatsita.

- *ixerdidxegaz asientueri enpiketa lotu nai*
- *merengien merengiegaz mosuek pe enpiketa dakozuz*
- *ori mutille ta ori enbrie enpiketa dauz egun guztidxen*
- *lagun andidxe tozuz orrek, goixerik gauera dauz enpiketa*

## ENPLASTO / UE

1. Oztopo. Destorbo. Konparazioan ere bai.

- *bestelako enplastue zauz or, danan aurrien parata*
- *enplastue lez dau erdi erdidxen*
- *da egun guztidxen on da bertan enplastue lez*

2. Pertsona aspergarria.

- *aur datortsu enplastue, eztotsu itxiko baketan be*
- *iñori ez bota enplastorik eztot biar da*
- *enplastue biar bazu amen dakozu*

Gaztelerazko **emplasto** hitza erabili izan da. Enplastoak ipintzen edo ipintzea agintzen duena **enplasterie** da.

- *Añorgako enplasteriñe dxun nai, garidxuek takotez da*

## ENTBLAZIÑUE

Taulamendua. Oholeria.

- *entblaziño barridxe imin bi dot, politxau oteko*
- *entblaziño zarra kendu ta barridxe imitxie inpididxue kostaten da*
- *entblaziñue barik eztozu gure baldosie imiñi?*

## ENTREPITXIE

Tartekatzen dena. Edozertan sartzen dena.

- *bestelako entrepitxie zauz or, iñon gauzetan sartzien*
- *beran entrepitxie dozu, dana dxakin bi dau*

## ENTZADO / UE

Itsasoan ibiltzen diren jantziak. Gaur egun plastiko edo nylonezkoak dira, baina olana sendoari linaza olioia emandakoak izaten ziren. Hala ere izena ez dute aldatu.

- *entzaduek apurtu dotez baporetik saltakeran*
- *oingo entzaduek ez tauie balidxo ezetako be*
- *entzaduetan tarratada andi bet eiñ dxot*
- *entzado zarrak bota da entzado barridrek erosi bi dotez*

Esan bezala, gaztelerazko *encerado* hitzetik datorkigu.

/encerado → entzerado → entzeado → entzado → entzadu/

## ENTZUN BERBIE

Entzun esango dizudana. Gehienetan serio hitz egiteko.

- *entzun berbie, ori ezta olan, guzurre esan dotsu*
- *isillik on, da entzun berbie, dxun zeure etzera da ikusi an badauen*

## ENTZUN DE GOR

Gorrarena egin.

- *esan etorteko etzera, da entzun de gor*
- *entzun de gor eitxen dauie beti, ezer entzun eztauielakuen*

## EPERDIKARIE

Asko mugitzen den txori bat da. Konparazioan urduri ibiltzen den pertsona da, mugikorra dena.

- *zer dabill berak pa, eperdikarie lez dabill dx*
- *ara ta ona dabill, eperdikarie ibiltzen da olan*
- *on zaitzez geldik, eperdikarie lez zabiltzez da*

## EPERDIKUEK

Lotsarazi.

- *eperdikuek emoten etor dxast lotsabako zantarra*
- *obeto eingo dau arek, eperdikuek emon barik ixillik otie*
- *ze ein tsazu ba eperdikuek emoten otorteko?*

## ERARA / TARA

1. Artez egon.
  - *ez zu inuñi kaltzetiñek eratar*
  - *ez zauz erara, okerretara zabiltzez*
2. Eskura izan.
  - *erara bakozu ekarri neuri be ogidzek*

Azkuek bere Morfologia liburuan **eratar** jaso duela dio D.A.R.k, eta **a derechas** definizioaz jartzen du. Bermeon ere erabiltzen da forma hori.

## ERATSITZE

Zauriengatik azala altxatuta duzunean.

- *eridiek eratsitze itxi dost eskue, ta dolore mandue dakot*

## ERATZI

Jetzi.

- *behidzek erazten nuen, esnie erun bidu herrire ta*

Gazteleraz **ordeñar**.

## ERDI ZIMARROIE

Maltzurra. Trikimailuak ondo ezagutzen dituen.

- *ori erdi zimarroie da, orrek trikimallo asko daki*
- *bateri diñotzazu! Eztakizu ori erdi zimarroie dana eta dana dakidxena?*
- *asko dakidxi gizonak tiez orrek, erdi zimarroiek*



## ERDIKIÑIEN

Erdizka. Erdizka egin.

- *erdikiñien eĩndxe itxi dotez etzeko biarrak*
- *gauze guztid̄ek itxit̄xen zuz erdikiñien, bat pe eztozu akabaten*
- *erropie erdikiñien dakot eta gauerako akaba bi dot*
- *dxatekue be erdikiñien itxi dot*

Hitz honen jatorria **erdi eginean** da. D.A.R.k jaso duena antzekoa da, baina ez da deklinatzen eta ez du zentzu bera. Kintanak ere, hark azaltzen duen forma jaso du.

## ERLAU / E

1. Zama. Erantzukizuna.

- *ama bakan-ik geratu dxatzo lez, berak artu bi dau. Ezta erlaue makala*
- *bapor barrid̄xe eit̄zeko bankuen atara bi dau dirue ta dauzen interesakaz bestelako erlaue*
- *deklaraziñue eit̄xen dunien erlaue dxeusko dxasku*

2. Gripea.

- *atzo gauien jerse barik ibilli nai da erlaue atrapa dot*
- *zelako erlaue dakot pa, berbarik pe eziñ dxot eĩ*
- *ori erlaue osatuteko oien sartu bizu*

3. Gaueko leia.

- *erlaue dau botaten, bid̄xar goixien otz eingo dau*
- *bota dauen erlauegaz solo guztid̄ek pe zurit̄xute on diez*

## ERLUZIDADIE

Dirdira.

- *orren pantaillien erluzidadiek itsutu eit̄xen nau*
- *kotxien argid̄xen erluzidadera ikusi dau ill dxe dauena*
- *orrek eraztunek botaten dauen erluzidadiek begid̄xetan be miñ eit̄xen dau*
- *eguzkid̄rek erluzidade andid̄xe dako*

Gaztelerazko **relucir** aditza aldatuz gero egin da hitz hau.

**relucir + dad** → **relucidad**.

Desegokia da, baina hor dago.

**relucidad** → **erluzidad** → **erluzidade**.

Ez da egon **e** protesia hartzerik; bokale horrek tokiz a]datzea besterik ez du izan.

## ERMERIE

Gauza baten era.

- *zeiñ dxe onen erropien erie ba? Ez tako erarik*
- *orren telien erie baiño politxaue da iruntzetie*
- *jersien era guztidxe mudeta dau*
- *era partetik ebai telie, baie gero aldrebesetara dxosi*

## ERNEGA

1. Aspertu. Haserretu. Izorratu.

- *berari begire ernega eiñ dxot eta eskapa ein tsat*
- *ernega baiño eztot eitxen aurrek gauzek ikusi txe*
- *onek imiek ernega eraitxen dost*
- *ori eiñ dxostenien ernegaten para nai*

2. Kezkatu.

- *ernegaten nau eztaitx zelan urtengo dauen da*
- *imie eztakola ondo ta ernegaten on da*
- *eskolan txarto dabillega da ernega be eztau eitxen*

## ERNEGADU

Aspergarria. Kezkatuta. Haserretuta.

- *alabie ezatortsola ta ernegadu ibill dxe*
- *ernegaduen arpeidxegaz ikusi dot*
- *zelako ernegadue da ba*
- *ernegadue bazara no pi tzu*

Aurreko aditzak adberbioaren funtzioa betetzen du lehen esaldian eta adjektiboaren funtzioa beste hiruretan.

## ERNEGUE

Kezka. Haserrea.

- *ernegue bakozi iñori ez atara kulperik*
- *ondiño ernegue kendu barik takot*
- *arpeidxen igarten eixatzu ernegue*

Azkuek ez du jaso bere hiztegian eta D.A.R.k, lehenengoa jaso du, baina zentzu ezberdinez. Honek gaztelerazko zentzuaz azaltzen du. Kintanak ere **ernega** eta **ernegu** jaso ditu, baina zentzua gaztelerazkoa bera da.

**renegar** erdarazko aditza hartu da.

**renegar** → **ernegar** → **ernega**.

Lehenengo kontsonantea eta bokalea tokiz aldatuz gero, eta azken dardarkaria erorita, euskarazko forma eman zaio, eta izenaren funtzioa betetzen du.

## ERRAMA / IE

Abar. Edozein motatako abarrak.

- *erranoan ganién on da d̄xesarritxe ta bertatik bera d̄xeusi de*
- *pasakeran errama batek d̄xo nau begid̄xen da gorritxute dakot*
- *orrek arboliek errama asko dako*
- *neguen arbolai erramak kentzien d̄xakoie*

Erdarako **rama** hitzari e proteiko bat erantsi zaio.

## ERREBATI(G)UE

Estropada.

**Estropadak** gutxiago entzuten da, baina biak erabiltzen dira, eta gazteen artean berriz **regatak** sartzen ari da.

- *errebatiue ikusten on gariez ronpiolasen*
- *errebatiue Santurtzik irebazi dau*
- *errebatiurako bud̄xek imit̄xen on diez*
- *ikusten bagarie, errebatiuen ikusko gariez*
- *errebatiutako traiñeruek enpresak pagaten dauie*

Gazteterako **regateo** hitzetik sortu dena argi dago.

**regateo** → **errebateo** → **embatio**.

Gero artikulua gehituz: **erretatioa** → **errebatiue**.

Batzuetan **g** desarroilatzen du: **errebatiue**.

## ERREBOLBIDU

Azpikoz ezarri.

- *orre gauzek ikusit̄xe, barrue errebolbidu eit̄xen d̄xast*
- *tripek errebolbite dakotez, esan dostezen berbakaz*
- *ez eiru errebolbidu geid̄xau txokolatie, txarrau de ta*

## ERREBORNO

Zurrumbilo. (Itsasokoa)

- *errebornoek batela be arantz erun dau*
- *portuko entradan erreborno andid̄xek formaten diez*
- *Tonpoiko atxetan errebornuek eruen eit̄xen zait̄xuz*

Arrantzale giroan bakarrik erabiltzen den hitz bat da.

Honen sorrera, remolino hitzari zor zaio.

**remolino** → **arremolino** → **errebolino** → **erreborino** (asimilazioz) → **erre-  
borno**; **i** galduz gero.

## ERREBUOLTADA

Kurba.

- *Sollubeko bidien errebueltada asko dau*
- *azkaningoko errebueltadan dxeusi de*
- *aulako errebueltada baten, non urteten dauen berak*
- *errebueltadatan ikaratuten nai geidxen*
- *errebueltadarik ez balekide on, ez lekidiez etorko txikillistek*

Gaztelaniako **revuelta** (segunda vuelta) hitza hartu da beste esanahi hori jartzeko **revuelta** + **-ada** → **errebueltada**.

## ERREDONDAMENTIEN

Kategorikoki. Ia beti izaten da erantzuna ezezkoa.

- *dirue eskatu tsatenien erredondamentien esan dost ezetz*
- *Bilbora dxun bi dule esan tsatenien, berak erredondamentien ezetz*
- *ene alabie! Personiri entzun orduko, erredondamentien emoten zu ezetza*

## ERREKADUE

1. Errekadua. Mandatua.

- *errekadue bota dost esaten ezatala etorko*
- *errekadue eiñ, ostantzien bunie apurtuko tsut*
- *errekaduek eiñ dxe gero dxun gariez plaidxera*

2. Erosketak.

- *denda baten eiñ dxotez errekkado danak*
- *ezpastazu Eroskiko errekkaduek eitxen, zeuk atara kontuek*

3. Mutilak neskari nobia izateko eskatu. Gaur egunean, neskak ere eskatzen dio mutilari, agian ez bata ez besteak.

- *orrek mutillek aurreri enbrieri ein tso errekkadue*
- *orain modie da enbriek eitxie errekkadue*
- *arek etso eiñ errakadorik, berak baietz esan badau be*
- *gaur egun ezta eitxen errekkadorik*

**recado** → **errekado** / **errekadue**.

Gaztelerazko zentzua bera dauka: **mensaje** = **provisión diaria**.

## ERREKAJABOLIE

Sorgin-orratza.

- *Ze politzek dizen errekajaboliek, ata kontu, hegaz eitzen dauien marisorgiñek dizela*

## ERREKALISTIE

Ez dakit gaur mezulari edo mandatari bati gaztelerazko **recadista** esaten bazaio. Bermeon oraindik erabiltzen da azken hau, baina geure erara, hemen ikusten dugun moduan.

- *ezin dxot Bilbora dxuen da errekalistiri esango tsat ekarteko paketie*
- *errekalistiek ingo tsuz igualatoidxoko papelak*
- *errekalistiri paga ein bi tsat, da nire laguneri ez, bide batez dxun ezker...*

## ERREMATIEN

Enkante baten azken fasea.

Arrantzale giroko hitza da. Itsasontzi bat enkanterako bidean jartzea da. Baina enkantea oso berezia izaten da ontziko armadoreetara mugatzen baita.

- *asarrakuntze andidzek on diez da bapora errematien bota bi zan dauie*
- *errematien botateko zor asko dau or*
- *ez pentsa errematerako biarrak ingo dauienik*
- *erremata gogorra ezan da, baie azkanien konpondu diez*

**remate** → **erremate** → **errematea** → **errematie**.

## ERREMENTA

Lehertu.

- *ezin ezan dot geidxau, da azkanien errementa eiñ dxot da esan tsatez esatekuek*
- *aitxe ill dxatzonien negarrez errementa zauen*
- *ainbeste egunien aidien on danak errementa dau; danak asarratu diez*
- *an fabriken personie errementa eitzen da biarrien*
- *bertan egunien akabatitxik, errementa ein garizen*
- *ez errementa iñor e? Amen ezkaux tentelak eta*

Gaztelerazko **reventar** aditzetik sortua da.

**reventar** → **errebentar** → **errementar** → **errementa**.

Kintanaren hiztegian baino ez dator hitz hau, eta bertan beste zentzu batez agertzen da: **desternillarse** zentzua ematen dio.

## ERREMORKA

Atoian eraman. Ontzia zein autoa.

- *aberidzegaz on da ta erremorkan erun dau*
- *erremorkan guzan dau eruen, baie itxosue ezta on orretarako da bertan itxi dau*
- *erremorka paga ein bi de, orreitzik aberidxe konponduteko alegiñek eiñ dxaue*

## ERRENDIDU

Ahuldu. Nekatu.

- *eiñ dxun beste dxantzagaz errendite dxun nai etzera*
- *gure imie luek artun dau, errendite on da, egun santo guztidxen kalien ibiltxen*
- *allega garizenien, errendidute, oire barrure dxun garizen*
- *errendidu-errendidu eiñdxe zauzela ta kalera zuez?*

Erdarazko **rendidos de cansancios** berbera dugu, **rendir + du** partizipioa → **errendidu**.

Kintanak **producir** zentzuaz jaso du hitz hau.

## ERRENKIDXE

Errain-gaia.

Arinago aipatu dugu **-ki** atzizkia erabiliz nola egiten diren honelako hitzak:

- *errenkidzegaz dxun da Bilbora*

## ERRENKOLADA

Hilera.

- *an para dxatzuz danak errenkoladan komuniñue artziko*
- *baporak bata bestien atzien etor diez, errenkoladan*
- *errenkolada andidxe on da ziñerako entradak artzien*

**erronka** edo **errenka** hitzen aldaera izan daiteke, zeren, Bermeon, atzizkiak itsatsi eta gehitzeko joera baitago, eta horrela, **-ada** atzizkia gehitu zaio.

**errenkola + ada** → **errenkolada**.

## ERRESKADIE

**Errenkolada** hitzaren sinonimoa, hau da, hilera.

- *ikastolan jolasordue eta gero erreskadie eitzen zan dun gelara idxeteko*
- *ziñera juteko erreskadie badauen ni enuen*

## ERRESKITXE

Arakatu. Miatu.

- *goitxik bera erreskitxe dauie etzie polizidzek*
- *nik eztakot zure gauzerik, ostantzien erreskitxe*
- *etzie erreskitxeten ibilli nai da eztot topa biar doten gauzie*

Hiru esaldi hauetan, aditzaren funtzioa betetzen du hitz horrek.

- *dxun orduko erreskitxeta itxi dauie etzie*

Azken esaldi honetan adberbio baten funtzioa betetzen du.

## ERRESKITXUE

Miaketa.

- *erreskitxuek gau ta egun eñ dxauie, zeuzer topateko edo*
- *erreskitxuetan egunek emon dauie*
- *nik esan tsatie, nik eztotela biar erreskitxorik, gure etzie garbi dauela*

Gaztelerazko **registrar** aditzetik sartua, Bermeon normalak diren fonetikazko arauak ematen dira:

**registrar** → **erregistrar** → **errekistrar**.

Azken honek beste aldaera eman du, gaur ere noizbehinka entzuten den **errekistre**; baina ez da hain erabilia. Eta badirudi, hortik irten duela gaur erabilitako forma: **errekistre** → **erreskitxe**.

## ERRETOLIKIE

Berba uholdea. Leku askotan galduta dagoen berba hau, tinko mantentzen da Bermeon, zentzu honetan behintzat.

- *bestelako erretolikie dabil, egunen baten kantsako da*
- *zelako erretolikie arma dost ba, dxuten be eztost itxi*
- *beran erretolikiegaz, buruko kankamuek atrapa dostez*

## ERRIDXE

Figurazioan, hainbat pertsonak zerbait erosteko edo beste zeozertarako mahai gainean jartzea dirua.

- *arek dirue erridxe dauie txokoko zorrak pagateko*
- *dirorik eztaue erridxe eztaue ikiñ dxe*
- *dirue erridxeteko okiñ ein bide lelau*
- *amar lagunen artien erosi dauie, da bakotzak ogei mille bana ogorloko erridxe dauie*
- *dirorik erridxe barik zelan okingo dau partie ba?*

Gaztelerazko **arriar** dela argi dago.

## **ERRIDXE NASTA**

Nahastea sortu, egiak eta egia ez direnak esanez.

- *auntxe be erridxe nastaten zauz, esaiñu artez gauzek*
- *an dau a, erridxe nastaten, da jentie sinestute*

## **ERRIE**

Jaitsi, Baja.

Itsas giroan erabiltzen den hitz hau, gizonen ahoan emakume bat erditzen denean erabiltzen da; batzuetan emakumeen artean ere bai, nahiz eta oso gutxi izan.

- *aren andriek imie errie dau*
- *noizko errieko dau zure andriek ba*
- *errie dauela imie esan dauie*

## **ERRIE MANDA**

Bertan behera utzi. Amore eman.

- *errie manda biarrari, gaur dxai bisperie be bada ta*
- *emon doskun arrapaldiridxe patrulleriek, geure trakero guztidzek errie manda eiñ, da eskapa eiñ dxun andik*
- *andik enpatxotik eziñ ezan da lez urten, errie manda eiñ dxot*

## **ERRIEBERA**

Kantitate handiak. Ugari.

- *dirue dako erriebera*
- *erriebera ekar dauie antxobie*
- *guzurre esaten dau, erriebera*
- *soluen dakoie tomatiek, erriebera*

## **ERRIME**

Arrimatu. Bateren baten babesa bilatu.

- *nireñe ez errime, useiñ txarra dako zu te*
- *zeureñe errimeten da beti, badakidxelakon zeuzer emongo tsazune*
- *ez errime be eiñ, ez zaitxut gure ikusi be ta*
- *errimeten errimeten, azkanien be, geure onduen dxesarri da*
- *errime-errimeta dxun dxatzuz, nobidxu lez*
- *ondo gure bazu ibilli diruduneñe errime bi zara*



Azkuek, D.A.R., P.M. eta Kintanak **diestro** zentzuaz azaltzen dute forma hau, Bermeon, ostera, gaztelera-zko zentzua bera hartzen du bete-betean.

## ERROZOIE ORDIDXERI

Oker egonda ere, arrazoia eman.

- *errozoie ordidxeri emoten dxatzo, da ni enau ordirik*
- *errozoie dakola esan dotso, baie berak errozoie ordidxeri emoten dxatzola esan dotso*

## ESANAK ETA EGIÑIEN

Berriketan.

- *esanak eta egiñien ikusi zaitxut goixien errenkidxen amagaz*
- *arratsalde santo guztidxen on diez arek Portaleko bankuen esanak eta egiñien*

## ESANTXARREKO / UE

Obeditzen ez duena.

- *au imie esantxarreko utse da, eztau eitxen esaten tsatena*
- *ez esan esantxarrekue ostantzien belarrieskiñekue emongo tsut*
- *esantxarrekue ezatearren pasa dxatzo pasa dxatzona*
- *esantxarrekue bazara ez zaitxut erungo Bilbora*

## ESATEKUEK ESAN

Gogorak esan, berba lodiak.

- *arek lotsabakuek, esatekuek esan dostez berba batetik bestera*
- *entzun dozu telebisiñue, Zapaterok Aznarrerri esatekuek esan dotsoz, errozoiegaz*

## ESKANDALO / UE

1. Asko. Kantitate handia.

- *eskandalue atrapa ei dauie arraiñe Canariasen*
- *zorridzek buruen... eskandalue, orrazidzek pe eziñ atara*
- *jentie eskandalue on da frontoien*

2. Bronka.

- *zelako eskandalue arma dost ba Lameran, ni, lotsatute*
- *eskandalue arma tsula diñozu, neuri be bai*
- *ez arma ainen eskandalorik neiku garie geu be ori eitxeko ta*

Gaztelerazko **escandalo** hitza hartu da, baina lehen definizioan ez du zentzu berdina.

## ESKANDALO GORRIDXE

Iskanbila. Haserrekuntza.

- *eskandalo gorridxek ezan diez Parlamentuen, pelikadatararte*
- *neure lagunen koñatuek eta be, eskandalo gorridxek okiñ dxauie*
- *arek eskandalo gorridxe arma dau tallerrien be ordu geidxau sartzieko biarrien*

## ESKO ARRAIÑE

Eskumuturra indargetua, ahul edo mingor dagoenean.

- *eziñ dxot eiñ ezebe onegaz eskugaz, esko arraiñe dakot*
- *esko arraiñe dakola eskuen, da tauketik pe eztau eiñ*
- *medikuek eztauie esaten esko arraiñe, beste gauze bat baiño*
- *amen eskuen esko arraiñe dakot, da trapo gorridxe imin bidot*
- *esko arraiñentzat ona dala trapo gorridxe imitxie esaten dauie*

## ESKO BETE EULI

Baliorik ez duela adierazteko erabiltzen da.

- *Horregaz kañoberiegaz arrantzen? Hori eta esko bete euli bardin!*
- *Ha saldu? Zetako! Haregaz irebazko dan dirue eta esko bete euli bardin!*

## ESKOERARA

Erraz edukitzea gauzak. Eskura.

- *eskoerara bakozu, ekarristazuz Bilbotik zapata batzuk*
- *eskoerara okiii dxe be ezin tzutez ekarri zapatak proba in bidiez da*
- *ez da esaten erreza eskoerara okitxie gauzek amen etzien*

## ESKOGANIEN

Usatutako gauzak erostea.

- *au armaidzxue eskoganaien erosikue da*
- *eskoganien erosi dau arek katie*
- *eztot kure ezebe eskoganezorik*
- *joyeridzen erosi dauela esan dau, baie guzurre da, eskoganien erosi dau te*

Gaztelerazko **de segunda mano** ere literalki erabiltzen da:

- *bigarren eskokue da erosi dauen pielezko abrigue*

Azkuek Mundaka eta Otxandiorako jartzen du, baina Bermeon ere asko erabiltzen da.

## ESKONEKUE

Esku onekoa. Baina zentzua bestelakoa da. Bermeon, bai dendari eta beste mota batetako saltzaileen artean, sineskera bat dago: eguneko salmentak **esku ona** daukan pertsona batek hastea; horrela egun horretan izango dituen salmentak oso onak izango dira.

- *ia eskonekue bazara, da asko saltzien badot*
- *zure ama eskonekue da; beti gu dot bera etortie dendie igiritxen dotenien*
- *ia eskonetik asten banozu arraiñ guztidæek saltzieko*

## ESKOPOLOTA

Armairua.

- *eskolotan barruen sartun txuz gauze guztidæek*
- *eskolota garbitxu bi dot agurrasagaz*
- *amak esan dau eskopoloteko giltzek emoteko*
- *eskoloteko kajoie dæusi dxast kadera ganera*

## ESKOTXARREKUE

Esku txarrekoa. **Esku onekoa**-ren alderantzizkoa da. Bermeon, bai dendari eta beste mota batetako saltzaileen artean, sineskera bat dago: eguneko salmentak **esku txarra** daukan pertsona batek hastea; horrela egun horretan izango dituen salmentak oso txarrak izango dira.

- *eztot kure ori andrie etortie dendara eskotzarrekue da ta*
- *eskotzarreko bat etorten badxatzu egun guztidæen ez zu salduko ezebe*
- *aurrek estreñe nau. Enebada! Eskotzarrekue da ori*

## ESKRIPIDORA

Orrazia. Era guztietakoak, baila itsasoan erabiltzen dena ere. Gaur egun adintsuek bakarrik esaten dute garai baten oso zabala izan zen berba hori.

- *onek eskripidorak miñ eitxen dau*
- *adue bako eskripidora dako zu alabatxi*
- *eskripidor azul bet okitxen zan doten*
- *eskripidoragaz ule guztidæek pe atara ein tsoz*

Gaztelerazko **escarpidor** hitza hartu da, hitz honen oinarritzat.

**escarpidor** → **eskrapidor** → **eskripidor**. Hau, metatesia gertatu ondoren, **i** bokalaren asimilazioaz egin da.

## ESKU IKARIE

Eskua dardarka. Baina zentzuak zekenkeria ere adierazten du.

- *gauizek piseten dauenien esko ikararik pe eztau okitxen, gramo bat pez geidrau ez dxatzo dxeusten*
- *ene alabie! Esko ikarie dakozule, bota guzik zauz pixora*
- *bota blasta-blasta, esko ikarie okin barik*

## ESKUE ARTUN

Arduratu.

- *ori neskatue galdute dau te eskue artun biar dxatzo*
- *eskue artzien ezpada galdute gauz danok*
- *amak eztotso ein kasurik da izekok artun tso eskue*

## ESKUE DXEUSI

Zekenkeria.

- *eskue dxeusi be ez dxatzo eitxen, ez dotsu ezer emongo*
- *ene alabie! Eskue dxeusi barik dakozu ikarie la?*
- *bota bota ez dxatzu eskorik dxeusiko ta*

## ESKUBERIE

Belarra mozteko erratza.

- *ekau eskuberie honek bedarrak ebai ein biduz eta!*

## ESKUGAZ KENDUIKO MODUEN

Sendagai batek efektua berehala egiten duenean.

- *enplasterien enplastuekaz eskugaz kenduiko moduen kendu tzo pulmoikue*
- *eridek okiñ txuz idxe pasmata, da imiñi saukuen botikie da eskugaz kenduiko moduen kendu dxatzoz*
- *arpidxe okiñ dxau garauez beteta, da manzanillien uregaz eskugaz kenduiko moduen dxun dxatzoz*

## ESKURE ARTZIKO (MODUKUE)

Balio gabekoa. Kontua ez hartzekoa. Negatiboa da beti.

- *berton erridxen eztau eskure artziko mutillik*
- *plazara dxun nai zapata batzuk erosten, baie eztot topa eskure artziko modukorik*
- *zuretzat danak tiez eskure ez artziko modukuek*

## ESKUREKO

Eskuetara heltzeko prest. Ukabilka hastear.

- *lelau edozer esan tsoie alkarrerri, baie gero eskureko be on diez*
- *sarri oten diez arek eskureko*
- *ez tiez konponduten, beti dauz asarratute, beti eskureko listo*

## ESNE EPELA

Sekula kezkatzen ez dena. Energia gabekon.

- *zelako esne epela zara ba, mobidu adi*
- *aregaz esne epelagaz eztoz kure dxuen*
- *noren kotxien zuz ba ? Neure nebigaz. Enebada! Beragaz esne epelagaz*
- *esne epela da, baie segurue*

## ESNE EPELETAKO SOPIE

Energia gabeko pertsona.

- *beragaz esne epeletako sopiegaz batun nai da gau guztidxe abrosidute pasa dot*
- *ze eingo zu ba, esne epeletako sopie dozu te*
- *auntxe be an dakozu a esne epeletako sopie lez*

## ESPIBOTA

Txapazko itsasontzietan erabiltzen den abiadura handiko ontzia, arrainei sarea bota eta gero objetua bila joateko itsasontzira bueltan eramateko.

- *txo, esan espibota listo okitzeko, hor aurreko atunei eingotzagu etxadie ta*
- *espibota aberidxe dasku, ta etxadie ein barik itxi du*

Ingeleseko **speedboat** hitza hartu da, hitz honen oinarritzat.

## ESPORTAK

Belaunerainoko galtzerdi lodiak.

- *esporta zuridrekaz dxun da ta baltzitrute ekar txuz*
- *esporta barik zauz, otza be ezu pasako gutxi*
- *gure amak eskuetan eitxen txuz esportak*
- *kalautruekaz ein tsoz azkaningoko esportak*

Erdarazko **esport** hartu da, baina izen bezala, eta ez adjektibo moduan.

## ESTAIDXUE

Altuera. Neurria.

- *aren estaidxokue da gure imie*
- *estaidxue ezta bardiñe, baie edadie bai*
- *aren estaidxora aillegateko asko dxan hi zu*

Gaztelerazko **estatura** hartuta egin dela dirudi.

## ESTIEK PE BIDXORTUTE

Goseak hiltzen.

- *Bilbotil etor gariez, estiek pe bidxortute gosiegaz*
- *dxungo gariez nonora zeuzer dxaten, estiek pe bidxortute dakotez gosien gosiegaz*
- *zuk beti dakozuz estiek bidxortute, eztaitx nok beteko zaitxuzen*

## ESTREBILLOSKUE

Normala ez den edozein gauza.

- *zer da kotxi ori, ba, estrebilloskue da la?*
- *estrebillosko erropak erosi ei txuz berbenara dxuteko*
- *ez esan baie berak estrebillosko kollarra dala pentsaten dau*

Gaztelerazko **estrebillo** erabili da bitxitasuna adierazteko. Gazteen artean, oso gutxi erabiltzen da eta zaharren artean ere galtzen ari da.

## ESTRINKE

Estutu. Itsatsi.

- *danok on gariez bertan estrinketa dxesarteko leko barik*
- *orraien kontra estrinke dau, da mosue emon tso*
- *zauzen lekuen be estrinke eingo zaitxut isillik ez pazauz*
- *ori erropie ez dxantzi, estrinketa dako zu te*
- *an dxun dxatzu a, gonie estrinketa popie be markata*

Seguru asko gaztelerazko **trincar** aditza izango da hitz honen jatorria, **desabandona** hitzean eta **eztropeza** hitzean egin den bezala, **ez** partikula aurretik jarrita:

**ez** + **trinear** → **eztrinkar** → **eztrinke** → **estrinke**.

## ETXA BALTZIE

Gezurra edo zalantzan jartzen den zerbait sinisten ez denean erabiltzen da esaldi hau. Itsasoan balsa botatzea. Auskalo!

- *nok esan dau ori, Adalak? Etra baltzie! Ori eztau siñestuten berak pe*
- *etra baltzie! A ezta dxungo Benidorrera*

## ETXADA

Sarea itsasoratzea arrainak harrapatzeko. Baina gero, herrira pasatu da, eta zentzua ere berdina izango da.

- *gau guztidixen etxadaka, da ezebe atrapa bez*
- *lelangonko etxadan atrapa dau kupue*
- *arek baporak etxadie eiñ dxe dauz*
- *gaueko etxadako 'arrain' freskue berantzat gordeko dau*
- *an, eiñ dxau arek etxadie, laster atrapako dau enbraren bat*
- *lelangoko etxadiegaz diruek etzera, dxokue aulan da*

Gaztelerazko **echar** aditzetik hartua.

**echada** (acción de echar) → etxada.

## ETXALAK

Euri-zaparrada.

- *ez urten kalera etxalak dauz botaten da*
- *etxalak ezan diez etzetik urten dunien*
- *etxalak pa diez laster beteko da depositue urena*
- *etxala dau botaten gero, ia inundaziñuek etorten badiez*

Hitz hau konposatua da:

**etxa + ahala** → **etxala**.

Bokal berdinak izan arren, ez da egon disimilaziorik eta erdiko bokal bi erori egin dira.

## ETXAMON

Jaramonik ez egin.

- *etxamon laztana, neuk erosko tzut gure zune ta*
- *ez tostazu gure eiñ, etxamon, etorko da bueltie ta*
- *etxamoixu orreri, da esan zer pasa dxatzun*
- *etxamona! Bera etorko da ostabe ta*

Azken kasu hau hika forman agertzen da baina emakumeen arteko hikan.

Badago **etxaramon** forma ere, Azkuek jaso duena, Kintanak ere jaso du bere hiztegian. Horren laburpena izango da goian aipatutakoa, Beraz:

**ez jaramon** hitzetatik sortua:

**ez jaramon** → **ejaramon** → **etxaramon** → **etxamon**.

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k, Mundaka eta Bermeorako, hain zuzen.

## ETXEPLASTO

Akzidente. Zerbait apurtu edo egin.

- *kotziegaz dxo dau kristela ta bestelako etxeplastue eiñ dxau*
- *arek ori etxeplastue eitxeko mozkorrik dxun bi zan dau*
- *etxeplastue eiñdxe dauelez, oraiñ itxi dauen moduen*
- *gero ta gero be, etxeplastue ein zu motorragaz*

## ETZEALDATZA

Etxebizitza bat aldatzen denean, hango altzariak edo tretxuen mudantza.

- *total istu ibilli nai etze aldatza eitxeko ezan danien*
- *etze aldatza eitxeko dakozunien geuri abixe lagunduten dxuteko*

## ETZEBETE

1. Zerbait apurtu. Zerbaitek txarto irten.

- *an, eiñ dxot etzebete, jersie apurtu dot*
- *etzebete ein zu, non galdu zu dirue ba*
- *aur ba, etzebete eiñ dxau, pintxeta okiñ dxauena atzera loitxu*
- *irebazitxe dakozela oposiziñuek eta berba lar eitxiarren etzebete eiñ dxau, galdu eiñ txuz de*

2. Asko.

- *etzebete bibera erosi duz parrilladarako*

## ETZEGUNE

Itsasoratu barik, derrigorrez edo nahi izanda. Espresio hau, hizkera arruntera pasatu da.

- *ez zarie etorri Lamerara, etzegune ein zue zuek pe la?*
- *idxe danak dxun diez itxosora, baie Maitasunak etzegune eiñ dxau*
- *egualdi ona onda eiñ dxau etzegune?*
- *gaur ez gariz dxungo Laidera? Ez, geuk pe etzegune ein bi du te*

D.A.R.k bakarrik jaso du, eta Bermeoko hitza bezala azaltzen du.

## ETZI

Hartu! Eutsi!

- *etzi dirue ta erosi bi dena*
- *zor tsuten dirue etzi*
- *itxi dostazuzen zapatak etzi*
- *etzi alabatru zeure alabien otzarie*



**etsi** aditzetik hartua da, eta aldaketa tziki bat besterik ez du izan.  
**eu** diptongoa **e**-n monoptongatu da.

## ETZIKARAMU

Etzidamuren hurrengo eguna, hau da, gaurtik laugarren eguna.

- *noiz zuzie ba etzi? Ez, etzikaramu*
- *etzikaramu datorrela esan dau*
- *etzikaramuk ekarko dau beste egun bet*

## EUN MILLE BIDAR

Askotan.

- *eun mille bidar ezpatzat esan arrikue ein bi dauela; baie berak nogaz dauen bez*
- *ez esan etsutenik esan, eun mille bidar esan tsut etzie saltzien dotela*
- *eun mille bidar esanda bez. antzidzerako be eztaue eitzen*

## EURILANBRO

Sirimiri.

- *lanbrue dxeusten on da ta busti-busti ein gariez*
- *eurilanbrue dxeusten asten danien ez da para be eitzen*

## EURISIRIDXE

Sirimiri.

- *eurisiridxe botaten on da egun guztidxen*
- *au eurusiridxe barritz ulietan be pega eitzen da*
- *eurisiridxe eiñdxe on da, ta aurreitxik labandu de kotxie Sollubetik berantzien*
- *eurisiridxe txarra da biderarako*
- *eurisiridxe asi de ta laster beitu zemat azidente ongo dizen*

## EUTZO AMUE

Eutsi amua. Iruzurra edo engainua sartzean edo susmatzean jaurtitzen den leloa. Figuratiboan amua karnataz horniturik doalakoan erabiltzen da.

- *da eutzo amue ein tso engaiñeteko dauelakuen*
- *txo, eutzo amue, ori esan beste bateri*

## **EZ ARDAUTEKO EZ URETARAKO**

Ez baterako ez besterako. Zalantzak daudenean.

- *ezaix Bilbora dxun biar badot edo ez, enau ez ardauteko ez uretarako*
- *pintoreruek esan dost zuridzegaz pintzeko dauela, da Mirenek diñost ezetz, da oiñ enau ez ardauteko ez uretarako*

## **EZ BATA, EZ BESTIE, EZ ZEZTRIE**

Ez bata, ez bestea, ezta hurrengo ere.

- *Gazteako esataridzek zeintzuk dizen onak? Ez bata, ez bestie, ez zeztrie!*
- *nok irebazi dau rugby txapelketie, Irlandak, Inglaterrak edo Frantzik? Ba ez bata, ez bestiek, ez zeztriek, Galesek!*

## **EZEBE EZ DALAKUEN**

Disimuluaz.

- *ikusi guzan dot ein, da ezebe ez dalakuen, beran ondotik pasa nai*
- *ezebe ez dalakuen sastarratara bota dau gordeta okiñ dxauen papela*
- *aulan, ezebe eztalakuen dxo dot lepuen da ez dxast paraten sulfureta, ezer ein barik*

## **EZEBEZA / EZEREZA**

Miseria. Krisi. Ezereza.

- *ezereza dau andidxe erridxen, aurreitxik ezta ikusten dirorik dendatan*
- *ezereza dauela, baie jentie ezta geratuten etzien*
- *ezebezik andidxenien loteridzek urten nuen da apur bet zabaldu zan erridxe*
- *ezebeza dauen artien kotxe barririk pe ezu ikusko*

Azkuek ez du jaso, baina D.A.R.k ezer ez forma jaso du eta horren definizioetariko bat Bermeoko zentzuaz agertzen da.

## **EZEBEZA BEGIREKO ONA**

Beste esaldi bati erantzuten dio esaldi honek.

- *zer dakazu ba? Ezebez. Ezebeza begireko ona, baie partikararako txarra*

## **EZKIÑERUE**

Lorontzia jartzeko izkina baten ipintzen den altzaritxoa.

- *eskiñero bat erosi dot salan imitxeko*
- *muebleri guztidzetara dxun nai da eztot topa eskiñerorik*
- *klaro! Orain ezta eruten eskiñerorik eta*

## EZNIRIKUTU

Pertsona delikatua, ala fina izatea nahi duena. Gehienetan emakumezkoiei dagokie.

- *zer da bera, eznirikutuikue dozu*
- *enebada, orreri ez esan ezebe, eznirikuruikue da ta*
- *eznirikutuikue lez ibiltzen dxatzu a lameran*
- *zure lagune, eznirikutuko personie da*

Hitz konposatu hau hiru elementuk osatzen dute:

**ez + niri + ikutu** → **eznirikutu** + **riko** → **eznirikuturikoa** → **eznirikuitikoa**;  
r galdu eta **oa** → **ue**.

## EZTA KRISTIÑO BATIITUE

Kristau bataiatua izan ez. Ez dela behar den modukoa adierazteko.

- *au imie ezta kristiño batiitue, etzeko kristel guztidzek apurtuten dabill*
- *baie txetxo! Kristiño batiitue zara orrek gauzek eitxeko?*

## EZTA NOGAZ DAUEN BEZ

Kasurik ere ez.

- *dendara sartun nai da ango dependientiek nogaz dauen be eztost eĩñ*
- *neu denpora guztidzen berba ta berba, da berak nogaz dauen be ez*

## EZTAI ZER DA BADAI NOR

Gauzak zehaztu barik edo azaldu gabe uzten direnean.

- *eztakix nori, ezta zer da badai nor pasa dxatzola esan dost*
- *berbetan egon danari eztotzat entenidu ezebez, ezta zer da badai nor ein dotsola esan dau*

## EZTAKOT ZEURE KONTORIK

Aintzakotzat hartu barik.

- *ara, ein zeuk kuzune, eztakot zeure kontorik eta*
- *ama erdu Bilbora gauzek erosten. Eztakot zeure kontorik*
- *aitzek esan dau eztakola beran kontorik, eta eitxie dakola berak gure dauena*

## EZTAU AMARIK ETZIEN

Ez dago inor etzean erantzukizun bati erantzuteko.

- *diruek edozetan gasta, da zeuzer paga bi denien, eztau amarik etzien*

- *ainbeste zorregaz onda, ara ta ona dabill, da gero arpidxe emon bi denien, amarik eztau etzien*
- *berak arma dau armatekue, da gero, berak, amarik eztau etzien*

## EZTITXUE

Txertoa.

- *semie ambulatoixora tire ezitxue hartuten*

## EZTITXU BAKO ARBOLIE

Txertatu gabeko arbola. Konparazioan gora eta gora doazen pertsonak.

- *zeren bestekue ein zarq, ezitxu bako arbolie lez zuez gora ta gora*
- *balonzestoko mutillek pe, ezitxu bako arbolak ezaten diez*
- *zelan dau zure teillapeko neskatue! Atara kontue ezitxu bako arbolie dala*

## EZTROPEZA

Behaztopatu. Pertsona batekin topo egitea.

Kuriosoa da berba honen konposaketa. Gaztelerazko *tropezar* aditzari /ez/ ezezko partikula erantsita egin da. Baina hitz horren esanahia alderantzizkoa izanda ere, inolako enpatxu barik erabiltzen dugu.

- *goixien beragaz eztropeza nai da eztost ein kasurik pe*
- *arri mando bategaz eztropeza nai da izterra apurtu dot*
- *atigaz eztropeza da betondue baltzitxu, auri da ein dxotena*
- *etropezaten eztropezaten, laistelatararte aillega nai*

## F

### FABORE

Alde egin. Bando egon.

- *zu beti zauz beran fabore, ez zu ikusten txarto eitxen dauenik*
- *ez eĩn faborerik, txarrau de ta*
- *Ateletin fabore on bi gariez, geutie da ta*
- *gure atxitez beti eitxen dosku fabore, baie amumak ez*

### FALTA

Apurtu.

Arantzale giroan erabilitako hitzak, gero, esparru zabalagoa hartu du.

- *kuidadue okiñ txikota falta barik*
- *erresakiegaz txikotak falta da bapora ronpiolasen kontra dxun da*
- *auntzek pe falta eĩn dxau onek fitziek*
- *potxera falta-faltaka on da, ta eziñ ezan da apaidxue bota*

Gaztelerazko **faltar** aditza erabiltzen da, baina zentzua **fallar** izango litzateke.

### FALTADORIE

Errespetu gabeko pertsona.

- *zu zara faltadorie, errespetorik ez takozune*
- *zelako faltadorie da ba, edozer esaten tso personiri*
- *olako failadoriekaz eztot kure tratorik*

### FAMIE

Fama. Erreputazioa. Ona zein txarra, baina gehienetan azken hau.

- *fama txarra dako orrek enbriek, edozeiñegaz dabilela diñoie*
- *orrek beti okiñ dxau famie edonogaz dabillena*
- *zelako famie imin tsoie ba, andra koitxadie lotsatute dau*
- *olan por olan eitxen diez gauzek ela? Bestelako famie imiñ dxostie*
- *famie ona dako behintzat, eztaitx ona ezango badan baie*

### FAMIE KRIELIEN

Erreputazioa, fama eztabaidan jarri.

- *iñok eztaki zelan, baie famie krieliēn dako*
- *famie krieliēn bako, eztau topako berak gure dauelako mutillik*
- *famie krieliēn dakon personie, guzurre badan be, bixi guztireko dau markata*

## FANDANGO

Pertsona gezurtia edo gauzak endredatuta, aldrebez edo nahastuta esaten dituen. Konparazioan ere erabiltzen da.

- *ez eĩn kasurik orreri, fandangue da ta*
- *fandangue be ez zara zu makala, olan gauzek kanbidxeten*
- *niri deitxu fandangue! Persona arteza nai ni, zure aldien*
- *beran fandanguen arpidxegaz beitzen tsu da ortik eztau urteten, berana ta berana*
- *isillik on zaitxex fandanguori!*

Nola sartu den hitz hau ez dago batere argi. Gaztelerazko **fandango** hitzak **baile antiguo español** eta **desorden, tumulto** zentzua baititu.

## FANDERO

Pertsona fidagaitza, gezurtia edo gauzak endredatuta, aldrebez edo nahastuta esaten dituen. Gehienetan emakumeen artean erabiltzen da.

- *zu bakixu zaran fanderue ederra, entzuten zun guztidxe fama bi zu*
- *zu fandero! Nire alabiri ikututen batzazu geidxau, zeuk atako zuz kontuek*
- *berak fandero andidxek esan tsuz orrek berbak? Ezin dxo arpeidxen?*
- *ni naiela fanderue? Da zeu zer zara ba, fandango andidxori?*

Jatorria gaztelerazko **fandanguero** hitza delakoan gaude, eta honela geratuko litzateke hurrengo eboluzioa gertatuz:

**fandanguero** → **fandangero** → **fandanero** → **fandaero** → **fandero**.

Baina beste hipotesi bat ere hor dago: **pandero** hitza hartuta egindakoa. Hitz honen definizioetariko bat **mujer necia y charlatana** da. Beraz ez da baztertzekoa hau ere, zeren eboluzioa askoz ere laburragoa izango litzateke: ez dago **p** → **f** zaharra egitea baino.

Gainera, D.A.R.k **fanderuen dirue**-k **dinero escaso** esan nahi duela jaso du, Bermeoko hitza bezala azaltzen duelarik.

## FANDERUEN ARPIDXE

Gezurra esaten ari denaren aurpegia.

- *ori dona fanderuen arpidxe okitxie, guzurre esaten zauz auntzek pe*
- *nik fanderuen arpidxe! Da zuk zer?*
- *beran fanderuen arpidxe, doma be ez*

## FARDELA

Pertsona gezurtia.

- *fardelaue da, guzurrek baiño eztoitxuz esaten*

- *ez ezan fardela e? Enau guzurrek entzuteko ta*
- *au imie fardel utse da, goixerik gauera dau guzurrek esaten*
- *bai, fardeltxue bada, baie ain da politxe*

## **FARDELKEIDXEK**

Gezurrak.

- *fardelkeidzek esaten on da ta larritxu txuz an on dizen guztidzek*
- *fardelkeidzekaz bete-bete ein nau*
- *egidzek tizen moduen esaten txuz arek fardelkeidzek*

Argi dago Bermeon beste zentzu batez erabiltzen dela hitz hau.

## **FAROLAK AMATA**

Edari botilak amaituta.

- *amen maidxen farolak amatata dauz*
- *farolak amata diez; eztau zer edanik?*
- *farolak amata badiez, barridzek ekarri*
- *da gero, dxatekuek akaba, da farolak amata dizenien, danok dxun garizen etzera*

## **FARRIE**

Akordeioia.

- *gure imiek farrie dxoten daki*
- *orkestie on da Mañun ela? Ez, farrie bakarrik*
- *gazte asko dabill farrie dxoten ikasten*
- *farrie dxoten ikasten bazu, neuk erosko tsut farra eder bat*
- *farrak prezidxo askotakuek dauz, baie au karuena da*

## **FARRISTIE**

Soinujolea.

- *farrie bai, baie farristerik ez*
- *ikasten dozunien zeu izango zara farristerik onena*
- *ez pentsa, farriste onak tauz Euskal Herridxen, Asier Loroño bat*

## **FIFITE**

Txori txiki bat da. Izena izango du, baina hemen **fi fi fi** egiten duen txori bati deitzen zaio horrela. Konparazioan, ahots fina eta epela daukan pertsona da.

- *enebada! Fifite da, bera lez eitxen dau berba*
- *bestelako fifite dau or, entzun be ez dxatzo eitxen da*

- *altuau ein berba, fifite lez barik*

Bazegoen gizonezko bat, horrela berba egitearren, bere izena ahaztuta **FIFIT** zeritzona.

## FIRMADIE

Sinadura.

- *firmadak batzuen on diez, kaliek konponduten asteko eskatuten*
- *firmadie emoten dxun nai notaidxera*
- *firmadarik ezta emon bibar edonori*

## FIRUE

Oso fina. Mehea.

- *au aridxe firue da, ensegida baten austen da*
- *ule firue dako zu lez, endreda be arin eitxen dxatzu*
- *ori imie firue lez dau, eztau dxaten ela?*
- *nongo lana firue erosi zu alabatxi, falta-faltaka dau*

## FLAKEZIDXE

Ondoeza.

- *goixe guztidxen ezer artun barik zelako flakezidxe okiñ dxot ba*
- *neuk pe, atzo Bilbora dxun nai dxan barik eta bidien flakezidxe okiñ dxot*

## FLOTAN

Azalean egotea.

- *lapikuek ur asko okiñ dxau da lau indxaba flotan, da okela barik*
- *plaidxen on gariez, da uger ezta kigu lez flotadorakaz ibil gariez flotan-flotan*
- *eiñ dxauen beste eurigaz kaderak flotan zapatan barruen*
- *arek esniek euli pillo bat okiñ dxau bitsen ganién flotan*

Gaztelerazko **flotando** gerundioa hartu da esanahi hori erabiltzeko; literalki hartu ere.

**flotando** → **flotan**; azken silaba galdu besterik ez du egin.

## FORRA

Auto zaharra, trauskila. Batez ere karrozeria zaharra daukana.

**FORD** kotxe marka hartu zen aspaldi, esanahi hori emateko. Zentzu peiorati-boan erabilia izan da beti.

- *nora due beran kotxe forragaz ba, ezta aillegako ta*



- *ezkoganien erosiko kotxe for bategaz dxun diez Madrillera*
- *kotxe forra baie abille korriten*

Antzina kotxe gutxi zegoenez, eta zeudenak marka horretakoak batzuk, zaharkituta gelditutakoak, burla moduan erabiltzen zen. Gaur egun gutxi erabiltzen da autoei zegokienean.

## FOTA

Fanfarroi.

- *ez esan ba, bera ezan fota da oiñ eztaitx nok auentako dauen*
- *bai, beti ezan da fota, da auto barridxe erosi dauenik eta ona geidxau*
- *aur dakozu fota, iñok bihar badau, alabiek ezkontza ona ein tso lez, artiek artun eziñik*

## FOTA BAIÑO ARRUAUE

Oso fanfarroia.

- *fota baiño arruau dakozu loteridzek urten tzo ta*
- *ori mutille fota baiño arruaue da, eztotso beituten iñori be*
- *gure imie fota baiño arruau dxun da ikastolara beran motxille barridzegaz*

## FRAKARROIEK

Bainujantzia.

- *frakarroi barridzek galdu dotez Laiden*
- *frakarroi politxauek erosi txuz nire lagunek plazan*
- *Antxorako plaidxen danak oten diez frakarroi barik*
- *elejidxe onda frakarroieta or dendan*

Oso bitxia da hitz honen etimoa. Jakina da, sasoi baten bainujantzia marraduna izaten zela gehienetan. Hortik sartutako hitza literalki pasatu da euskarara.

Gaur egun ere oso erabilia izan arren, batez ere gizonezkoen bainujantzia definitzeko, **traje de bañue** hitzak ordezkutzen du ia beti.

## FRAKONEZKUEK

**Entzaduek** itsasoko jantziak baziren, honako hau frakak dira.

- *frakonezkuek dxantzitxe nora due ba, arraiñik pe eztaue ekarri txe*
- *arek enbarkaziñuek arraiñe dakar antza, gixonak frakonezkuek takanie soiñien da*
- *frakonezko luzieidzek dakotez da estorba eitxen dostie*

Hitz hau konposatua da: **fraka** olanezkoak (**lona**). Frakak josi eta gero, linaza olioan ematen zitzaion. Gaur egun plastiko edo tela sintetikoak egindakoak izaten dira, baina izena mantentzen dute.

## FRANTZUNATZATAKO ARRATOIEK BAINO GEHIDXAU JAKIN

Asko jakina.

- *txetxo dana dakizu txo! Frantzunatzatako arratoiek baino gehidxau dakistazu*

## FUETA

Suziria.

- *Gabon eguinen fuetigaz kortiñie erre dostien aurreko etzekuek*
- *proibidu ein biliki dauie fuetak botaten etzietatik*
- *gaur egun fuetak edonon erosten diez*
- *nire lobie fuetien zaratiegaz ikaratu eitzen da*
- *fuetin fuetigaz kalie be erre ein dxauie*

## FUETIE EMON

Zartada bat eman.

- *geldik ezpazauz fuetie dutzu*
- *zelako fuetie emon dost ba, papue gorritxute itxi dost*
- *fuetie entongo dostela esan, da fuetie emon*

## FUETIE LEZ DXUEN

Ziztu bizian joan.

- *fuetie lez, dxun da, inok ikusi be ez*
- *fueitiek baiño abidxada andidxe erun dau*
- *ikusten zu ori fuetie, ba aulan dxungo zara emoten tzuten ostidxegaz*

## FUNTZUE

Tinua. Begia.

- *destaiñek botaten ez dau obiaurik, zelako funtzue dako ba*
- *arridxe bota ta begidxen dxo, olako funtzurik*
- *nik funtzo ona dakot gero*
- *funtzu ona bakok, botaik au botillie aurra balkoie*

## FURIDXE

Haserrea. Zenetik irtenda.

- *ori esan tsonien beran furi guztidzegaz arpire lantza tsoz libruak*
- *amen dator furidzekaz, banuen eskapaten*
- *ona ez etorri furidzekaz, entzun zu? Asike trankilldxu*

## G

### GABILLOIE

Gabirai. Beti izaten da zentzu lizun edo harrapari moduan gizonezkoei aplikaturik.

- *ori gabilloie aurren imien atzien dabil, gazteruek gustaten dxatzoz*
- *bestelako gabilloie dau or, imelapurre, imiek engañeten*
- *orrek gabilloiek dxakostak suertie, diro barik on, da oiñ aberastute*
- *gabilloie ederra ori, iñon lepotik bixi dana*

### GABONTZA

Ahohandi. Ozenki berba egiten duena.

- *ez ezan gabontza, Lamerako jente guztidxe geuri begire dau te*
- *isillik ongo zara gabontzori*
- *gabontza lez dabill, beti aldarrike*
- *bestelako gabontza dau or, danak enteratie gu dau ela?*

Argi dago gau-hontzaren boz lodia edo gogorra hartu dela eredutzat konparazioa egiteko.

Azkuek beste zentzu batez jaso du **persona huraña** definitzen du, eta Mundakan jartzen du.

### GAIÑE / KUE

Haina. Hainakoa.

- *orren gaiñekue neu be banai, asike ezteidxela arrotu*
- *zure gaiñe neuk pe bakitx*
- *aren gaiñekue zarala ta, ez ein gero berak eitzen dauena*
- *aurren gaiñe loditxu nai da oraiñ ezin nai argaldu*

Ez dauka D.A.R.k jaso duen zentzua.

**haina** → **gaina** → **gaiña** → **gaiñe**. **hainakoa** → **gaiñekue**.

### GALAPA / N

Zamalkan. Abiadura handia, baina oinez.

- *zelako galapie darue ba, eztau atrapako iñok*
- *bai, galapa andidxe darue, izter luziek pe badakoz da*
- *arek bidzek tuez galapan, iñok ez atrapateko*

## GALTZEIDXE

Galera. Galketak.

- *galtzei andidzek okiñ dxauie, da oiñ aur dabiltzez zer eiñ ezien*
- *galtzeidzek danok okiñ dxu, da amen eztau besterik auentatie baiño*
- *galtzeidxe ezta ezan ain andidxe, errekupeko dauie*

## GALUFUE

Alferraundi.

- *galufue galufuekaiñe errime, auri bai dok egidxe*
- *beran amak eztau gure entzun semie galufue dakona*
- *ezpadau gure entzun be, aren semie galufue da*

Gaztelerazko **golfo** hitzetik sartua dela dirudi.

## GANBELIE

Tartera handia.

- *oiñ ganbela andidzek eitxen diez, mille lagunentzako dxatekue eitzeoko modukuek*
- *orrenbestekuek? Nik pentsa dot baporeko ganbelie dala andidxena*
- *zeuk bai pentsa. Esairu Marko Pollori beran ganbelie ikusteko*
- *ai arek, laster ganbelan konkursue eingo dau*

## GANGARKEIDXEK

Nabarmenkeriak.

- *gangarkeidxei itxi bakien da artun zentzune*
- *gangarkeidzek eitxen ibill dxe mutillen aurrien*
- *ikusi bazun aren gangarkeidzek, lotsatu eingo zaran*
- *badaitx nik arek gangarkei asko eitxen txuzena*

**gangar + keria** → **gangarkeria** → **gangarkeidzek**.

Izenaren funtzioa betetzen du.

Bi hitz hauek ez dute, Azkuek edo D.A.R.k eman dieten zentzua, Hauek, **fatu-idad**, **engreimiento** zentzuaz azaltzen dute, baina Bermeon, zorakeriak egiten dituen bat izango da.

## GANGARRA

Aldarrika berba eta barre egiten duen emakumea. Ez da harroputza hiztegian datorren zentzuan.

- *zure nebien andrie gangarraue da, ezta bape fiñe*

- *gangarra dala esan dot, eta alan da*
- *aur due ori gangarra, mutillekaiñe*
- *gangarra lez ibill dxo Lamera guztidxen atentziñue deitxuten*

Adjektibo funtzioa betetzen du.

## GANGILLOI

Alferra. Lanari ihes egiten diona.

- *gangilloie bada ikastie dako zer dan biar eitxie*
- *gangidxe okertutie ez dxatzo gustaten gangilloie dalakon*
- *gangilloie lez dabill ara ta ona ezer ein barik*
- *iñok eztau gure gangilloirik etzien*

Azkuek bere hiztegian Mundakako hitza bezala jaso duen **gangil** hitzaren aldaera izan daiteke. Bermeon, handitasuna emateko erabiltzen den gaztelerazko **-on** atzizkia, **-oi** bihurtzen da. Beraz, honela geratuko litzateke **gangil** + **oi** → **gangilloi**.

## GANGUS

Sekula lanerako gogorik ez duena.

- *orregaz gangusegaz ibilltxeko be asko bihar da gero*
- *ganguse! Artun biarrerako maniue*
- *esan tzazu bateri. Orrek gangusek kasu eingo tsula pentsaten zula? Erretute zauz*

## GANOKA

Alperra. Lanerako gogo gutxi daukan pertsona.

- *ganoka, abrebidxue artun*
- *etsoie itxi orregaz mutillegaz ibilltxen ganoka dalako*
- *ganoka dalez, iñok eztau gure enbarka*
- *ganoka ezatitrik bota dauie kanpora frabiketrik*

Azkuek eskualde honetako herrietan esaten den hitza bezala jaso du, baina zentzua **mujer desmañada** da.

Azkuek ere hiztegian Mundaka eta Bermeorako jaso du esanahi honekin.

## GANTZARIDXE

Txarriaren koipea.

- *buzkantzari gantzaridxe sartun tsagu gozuau oteko*

## GARDIE BAIÑO LUZIAU

Garda marrazoen familiako arrain luze bat da. Konparazioan erabiltzen da, pertsona bat luze dagoela esateko.

- *danak egon diez bienganien gardie baiño, luziau, buruen tiro banagaz*
- *aur dau gixon bat gardie baiño luziau bienganien; mozkorra dako antza*
- *aitxe dakot oien ganien gardie baiño luziau konorte barik eta eztaitx zer dakon*

## GARDOSTU

Erdizka egin.

- *dxatekue gardostute itxi dotelez, Lamerara nuen*
- *biarrak pe gardostute dauz, asike, kalera!*
- *bidzar domekie dalez, gaur itxiko dot dxatekue gardostute*

## GARGAIDXO

Samako gorroa.

- *zer dako zu saman ba, gargaidxue dako zu le?*
- *saman okiñ dxoten gargaidxuegaz berbarik pe eziñ eiñ*
- *gargaidxukaz samie zarratute dakot*

Gaztelerazko **gargajo** bera da, baina fonetikaz ezberdintzen da.

**gargajo** → **gargaijo**; **i** bat desarroilatuz gero.

## GARRA

Olatu handiak daudenean itsasoak ateratzen duen laino kresaltsua. Baina konparazioan, beste kasu batzuetan bezala, bronka botatzea ere izango da.

- *itxosoko garragaz landara guztidxe galdu de*
- *aixiek beste mandarantz eruten dau garra*
- *itxosoko garra artzien dauien piperrak eta tomatiek gozuauek tiez*
- *garragaz datorren kresala mosuetan be pega eitxen da*

## GARRA ATARA

Beste askolan bezala lokuzio hau bronka eder bat botatzea izango da. Garra zeri deitzen diogun, lexikoan agertzen da.

- *asarratute etor da ta zelako garra atara dost ba*
- *arek garra atara dost etzatelako esan Bilbora nuenik*
- *eztau biar askozik garra atarateko edozeitxik paraten da gora-goraka ta*

## GARRANTZIDXO

Pasatuta dagoena. Galduta. Zentzu figuratuan modatik pasatuta.

- *oraiñ arte lagun andidzek ezan diez, da oraiñ garrantzidxue aillega dxatzo errenkidxeri la?*
- *ez dxan ori urdidxe, garrantzidxue dako ta*
- *garrantzidxo useiñe dakoie onek kaltzetiñek*
- *eztot guzan esan baie arek pastelak garrantzidxotute dauzela pentsaten dot*

Azkuek jaso du bere hiztegian baina zentzu mugatuagoan, berak Gernikarako esaten du, eta **rancio del tocino** jartzen du.

**garrantzia** → **garrantzidxo**.

## GARUE

Garoa. Hotza eta hezetasunaren eraginez gauzak bustita agertzen direnean, batez ere goizetan, bedartzak, kotxeak eta abar.

- *udien gauz baie berdartzan egunero garue, fresko-fresko!*
- *Aritzatzure goizien goizetik eta bedartzan ondiño garue!*
- *goizero garue kotxiñ txo! Garbitxuteko elegante dator!*

Gazteleraz **rocío**.

## GAUE

Energia gabeko pensona.

- *arek eztau eingo barre askorik, gaue da ta*
- *ez eistazu esan, bera gaue gustaten dxatzunik*
- *gaue bada be, neureztat iñor baiño obiaue*
- *beragaz gauegaz pasa bi zan dot gau guztidxe, da idxe luek artun*

## GAUERIK GAUERDI

Parrandan ibiltzea.

- *nire aitziri gauerik gauerdi ibiltzie gustaten dxatzo*
- *gauerik gauerdi ibilli txe, biar eitxeko orduen, orduen dardart biarrari*
- *Benidorren be gauerik gauerdi ibilltzen dxatzu ori; aztu dxatzo gizona*

## GAUEZ EIÑIKUE

Oso itsusia den pertsona.

- *gauez eiñiko ori be konkursora presenta da? Balora okin biar da gero*
- *baie ze feotxue da ba, gauez eiñikue da koitxadue*
- *bera gauez eiñikue, beti neure atzien, da neuk gure be ez beragaz egotie*



## GAUEZ IBILLI DA EGUNEZ AGIRI

Parranda osteko ajea.

- *zer, eztau biar eitxeko gogorik ela? Bai ba, gauez ibilli da egunez agiri*
- *gauez ibilli da egunez agiri, ori da gaztien sakramentue*
- *gauez ibilltxen danari, egunez igarten dxatzo*

## GAUR POR GAUR

Gaur egun.

- *gaur por gaur eztakot inon ikararik*
- *ondo biri diez arek; gaur por gaur eztakoie inon biarrizanik*
- *esan tzatie nik etorteko, baie esan dostie, gaur por gaur eztakoiela amesik etorteko*
- *gaur por gaur ez, bidzar eztaitx*

Gazteleratik literalki itzulia.

## GAUZE BAT

Deigarritzko lokuzioa.

- *ez, ori eztot entzun, baie gauze bat, eztot dxakin zure aman lagune ill dxenik*
- *Maria, gauze bat, zure amak esan dau etzera dxuteko*
- *gauzetxu bet, beiñola ikusi dun enbrie, apaidxue eitxen ikusi dauie*

Azken esaldi honetan, lokuzio hori diminutiboan jarri da.

## GAUZEZTANA

Eskasa. Garatu gabekoa. Balio gutxikoa.

- *aregaz mutillegaz asi de... beragaz gauzeztanagaz...*
- *gauzeztizen sagarrak erosi txuz, merke dizela ta*
- *ez eixu artun ori gauzeztana, artuixu beste bat obiaue*
- *gauzeztizen pelikulek tauz botaten*

Azkuek ez du jaso bere hiztegian, baina bai D.A.E.k, **inútil**, **inservible** zentzuaz.

## GAUZIE GAUZIE LEZ

Ugaritasuna.

- *gabonatako agillanduen, gauzie gauzie lez emoten doskue ofizinen*
- *maidxie be konpleto oten da, gauzie gauzie lez, turroiek txanpana, sangui-trek...*
- *gauzie gauzie lez daku guk eizien*

## GAZTIE EZAN BAKO ZARRA

Gazte zaharra.

- *atsue dozu, gaztie ezan bako zarra, beti ezan da zarkillie*
- *gaztie ezan bako zarra zara alabatxu*
- *zeitrik eztot erun biar bikinidxe ba? Ez, zeure lez, gaztie ezan bako zarra lez*

## GEIDXAUKO BARIK

Hitza ahoan dela utzi.

- *da geidxauko barik enau itxitzten bertan norantz eñ ezien*
- *ezu itxiko olan geidxauko barik ezta? Por lo menos esplikaziño bat biar dot*
- *da geidxauko barik, tximistie lez dxun da beran etzera*

## GEIXU BATEN

Laster baten. Kaixo esateko terminoan.

- *geixu baten Bilbora dxun biar dogu, eztau astirik eta*
- *geixu baten etorteko esan dotzat, aitzten otornue dauela ta*
- *geixu baten einguz biarrak*

## GERI GERIDXEN

Isil-isilean.

- *geri geridxen atie igiri ta barrure sartun nai*
- *zelan akorda zara ba geri geridxen sartun naitxe*
- *berez asma dotez noix etor dizen, geri geridxen etor diez baie*
- *urrungotan iñok asma be enau ingo, geri geridxen sartungo nai*

## GERRAKO BARKULEZ

Pertsona alde batera eta bestera dabilenean.

- *hamen nator ginasidxotik gerrako barkulez, jesarri ein binai*
- *bitu hori, jai handidxe okindxau, gerrako barkulez dabil ta*

## GIBARROI

Atun eta zimarroien gibela.

- *gibarroie dxan dot eta pitxoirik pez gozuau*
- *bakixu zelan oten dan gozo gibarroie, erreta*
- *neure amak pe erreta imitxen txuz gibarroiek*
- *gibarroien koloreko odola bota dau autik*

Azken esaldian konparazioan sartu da hitz hori.

**gibel + marroi → gibelmarrroi → gibamarroi → gibarroi.**

## GILLETZ GORA

Gilaz gora. Itsasontziak egoten diren moduan. Konparazioan etzanda edo erdi etzanda. Ezer egin barik.

- *ikusi dozuz arratsalde guztidxen gilletz gora parata Lameran?*
- *aur zauz zeu be gilletz gora sofa ganien telebisiñue ikusten*
- *beste batzutan Aritxatxun oten garie danok gilletz gora eguzkidxe artzien*

## GILTZEK

Lokiak. Gaztelerazko **sien**.

- *giltzetako miñe dakot, eztaitx zer dakoten*
- *golpie giltzetan emon tsolez, siku itxi dau bertan*
- *giltzetan artzien dan golpie txar-txarra da*

## GINDULEK

Barrabilak.

- *beran gindulek aidien ibill txuz plaidxen*
- *ginduletan dxo dau enbriek eta bienganera dxekusi de konorte barik*
- *gindulei agarrata, iñor lotsatuten, danan aurretik pasa da*

Hitz hau nahiko berria da, eta ia gazteen artean baino ez da entzuten.

## GITXITXU BAIE SARRITXU

Lelo baten antzekoa da *gitxitxu* berbari erantzuteko.

- *gitxitxu dxan biar da tipue konserbateko. Bai, gitxitxu baie sarritxu*
- *gitxitxu baie sarritxu dxan biar dala diño medikuek*

## GLORIDXEN

Gozotan.

- *kantsata nauenien gloridxen oten nai oien tunbeta*
- *ai ze ondo dau berton ba, au de gloridxe!*
- *otz dauenien etzien oten da obien, kalefazinotxuen onduen, gloridxen*

Gaztelerazko **en la gloria**-tik dator.

## GOBERNA

Kasu honetan ez da erabiltzen hitzaren zentzu zehatzean, zaindu edo jagon zentzuaz baizik. Pertsonak eta gauzak izan daitezke.

- *imiek goberna ta gero kalera dxungo nai*
- *ama ta aitxe be ondo goberna txuz arek*
- *ondo gobernata, kotxiek urte asko auentaten dau*
- *txarto goberna ezkerro barritz, egun bi bakarrik*
- *eztakidxe gauzek gobernaten be, esko txarridzek takoie ta*

Gaztelerazko **gobernar** hitz hori erabiltzen da honelako esaldiak egiteko.

## GOBERNUEN KONTRAKUE

Begiak okertuta.

- *dxaidxo danetik dako begidxe gobernuen kontra*
- *anbulatoidxoko zeladoriek lotsabako batzuk tiez baie lotsabakuena begidzek gobemuen kontra dakozena da*
- *bestelakue dau or, beran gobemuen kontrako begidzekaz*

## GOGORTADA

Gogor agirika egin.

- *aita, egin marrada baina gogortada barik*
- *ez eñ gogortadarik triste nau te*
- *gogortadiek zuri belarri batetik sartun da bestetik urteten tsu*
- *ezpaztazu gogortadarik eitxen gauze bat esango tzut*

## GOGUE ARRAIÑ

Gogoa dagoen momentua, gogoa badago ez dago momentu txarrik.

- *Madrillera duzela bizitzen entzun dot; balora dako. E, gogue arraiñ*
- *gure Anuska goixeko ordu bidxetan on da indxabak dxaten; ezta sasoie baie, gogue arraiñ*
- *goixien goixien altzaten da Sollubera dxuteko. Kapazidadie dako, dakon edadien be. Gogue arraiñ alabatxi*

## GOIDXE DXOTEKUE

Oso garaia.

- *gure lobie goidxe dxoteko mutille ein dxe*
- *oingo mutilliek eta neskak goidxe dxotekuek tiez, eztaitx zek eitxen dauen ori*
- *zumosol asko edaten dauielako ezango da goidxe dxotekuek ezatie*

## GOIDX EK BEIEN

Emakumea hilekoekin.

- *enai kapaz pauso bat emoteko be, goidxek takotez beien, da oire nuen*
- *ama, izekok esan dau ezatorrela, goidxek takozela beien da*
- *goidxek beien bakoz ondo dauela esan ze olan, eztako preokupaziñorik*

## GOIDX EK ETA BEIEK DXO

Iskanbila sortarazi.

- *amak esan dotso zer pasaten dan, da etzera etor dani en goidxek eta beiek dxoten asi de*
- *ez asi goidxek eta beiek dxoten ostantzien neu be asi eingo nai*
- *ikusitu zu zelan asi den goidxek eta beiek dxoten?*

## GOITXARRAK

Arrantzale giputzak. Mutrikutik goranzkoak.

- *goitxarrak orretan abillek tiez*
- *gure baporatan ez dabill goitxarrik*
- *goitxarrak eta betarrak eztiez konponduten*

Ikusten denez, banaketa honek erdian uzten ditu bizkaitar arrantzaleak. Ez da ezagutzen hauen definiziorik.

## GOITXIK SARTUN DA BETIK URTEN

Erabat bustita.

- *zelako meladie artun du ba. euridxe asi, da gu guardasol barik, zeuk pentsa: goitxik sartun de betik urten*
- *atzo gauien be bardin pasa dxaskun etzera guzela goitxik sartun de betik urten*

## GONBITXE

Oka egin.

- *ez gonbitxe dxaten zune, entzun zu?*
- *dxan dauen dana gonbitxe dau*
- *gau guztidren on nai gonbitxeten, zeozek eiñ dxost kalte*

Aditzaren funtzioa betetzen du.

## GONBITXOKA

Oka egiten.

- *tabernatik urten dauenien gonbitxoka asi de*
- *bieja osue eñ dxau gonbitxoka*
- *bera ikusten doten bakotrien gonbitxoka asten nai*

Adberbio funtzioan agertzen da.

## GONBITXUEK

Gorakadak.

- *akaba danién itxosoko bueltie gonbitxuek garbitxu biar*
- *askatan bota itxuz gonbitxuek*
- *gonbitxo larridxegaz on nai egun guztidxen*
- *gonbitxo larridxe emoten dost berak mutillek*

Izena bezala erabiltzen da.

## GONBIZE

Itsas kabra baino ilunagoa eta haragi gogorragoa dauka. Askorentzat onena.

- *goinbize itxaskabrie baiño gozuaue da*
- *goinbizen sue sartun dxast da zoldu eñ dxast atzamarra*
- *gonbiz txikitxu batzuk erosi dotez prijite dxateko*

## GORA-GORAKA

Aldarrika hasi.

- *amari txe aitxeri esan tzatienien ezkondu gure dotela, gora-goraka asi dxastezen*
- *ez asi gora-goraka eztakozu errozoirik eta*
- *gora-goraka asi baiño lelau, entzun berbie personiri*

## GORAZKO / UE

Korrokada.

- *ajj, gorazkue datost, ori ezer dxan barik*
- *gorazkuek kentzioko bikarbonatue da ona*
- *gorazkue botaten dauenien berakatz useñe otaten dau*

Azkuek hitz honi **nauseas** zentzua ematen dio eta P.M.k antzeko zerbait azaltzen du.

## GORGOILLE

Samako hezurra.

- *gorgoilerarte nau beteta*

- *gorgoille ebaiko dostela eztost esan ba*

## **GORMANTA**

Tripontzia.

- *ori imie gormanta da, atrapatzen dauen dana dxan bi dau*
- *gormantak badauz amen etzien*
- *ez ezan gormanta da dxan biden moduen*

## **GORPUTZE EBAITXE**

Gorputza ahulduta. Hebainduta.

- *nauen moduen, gorputze ebaitxe, nora dxungo nai ba*
- *ainbeste biar ein fabriken, da gero, etzekue be eiñ biar, gorputze ebaitxe akabaten dot*
- *esango tzazu gorputze ebaitxe bako, eztidxe artzieko ona dala ta*

## **GORPUTZEN KONKABIDEN**

Gogoaren kontra edo gogo barik egitea gauzak. Ibili edo egon ere gogo barik.

- *auntzek pe gorputzen konkabiden zuez, da olan ez zara aillegako iñora*
- *orrek gixonak gorputzen konkabiden eitxen txuz gauzek*
- *kaka be gorputzen konkabiden eitxen dau orrek, ernega be ein barik*

## **GORRINGUE LAKO GIXONA**

Gizon gaztea gaixorik dagoenean, edo hiltzen denean esaten da.

- *gorringue lako gixona ezan da, baie oin beitu zelan dauen*
- *ze gazte il dxe zuen albokue, gorringue lako gixona, ondiño imie*

## **GOSEKILLE**

Goseaz hiltzen dagoena. Gosetia. Arestian aberastutakoa.

- *gosekille ezan bada atxiñe, gaur beitu berari*
- *beti dau dxan da dxan, gosekill utse da*
- *gosekillen arpidxe okiñ arren, eztau dxan barik*
- *zer diño berak gosekillek ba, aztu dxatzo areri, geuri meridxandak ostuten ezan doskune*

## **GOZODXALE**

Gozozalea.

- *alabatxi, gozodxalenekue imingo tsue irixena*

- *ba ni enai bape gozodxalie*
- *gozodxalie ezan balekinai, atiek pe artun bez*

## GRAKADA

Hezurren bihurtura. Lumbagoko bihurtura.

- *garridxen eĩn dxau grakadie ta medikuek esan tzo ez druteko itxosora*
- *izterrien eĩn dxau grakadie fubolien dabillega*
- *zelako grakadie asma dot belaunien ba, pentsa dot apurtu eĩn dxastela*

Hitz hau onomatopeiazkoa da.

Azkuek bere hiztegiko gehigarrian azaltzen du, baina berak *graznido* zentzuaz definitzen du.

## GRAKU

1. Besteak baino indartsuagoa dela eman nahi duen gizonetzkoa. **Tarzan** dela pentsatzen duena.
  - *zer da bera morroie ba, graku da la?*
  - *grakun antzeko bat agertu dxaskun dxantzan gauzela*
  - *txo, graku, saltaik auna orrenbestekue bazara*
2. Asko jaten duena.
  - *txo, astuen boluek pe jan! Graku zara la?*
  - *txo, zemat jaten zu ba? zer zara graku?*

## GRIKO

Lapurtu.

- *amen partikaran okiñ dxotazak baie griko eĩn dxostazak berak*
- *abille dok ori griko eitxen*
- *zeuk pe non okin dxozak ba, dxakin ezkeru griko eitxen obiaurik eztauenta*

## GROKADA

Korrokada.

- *grokadaka nau egun santo guztidxen*
- *grokadiegaz batera datost dxan dotena*
- *grokada zaratatsuek botaten zuz*
- *grokadak botaten kantsata nau*

**korrokada** hitzaren aldaera izango da.



## GU IRUROK BOST

Zerbait zalantzan jartzen denean esaten da.

- *Enrique Iglesias datorreIa Bermiora? Gu irurok bost*
- *dana merketuko dala? Gu irurok bost*

## GUARDA GUARDAKA

Hitz hau arrantzale giroan erabiltzen den hitz bat da, eta denborale handia dagoenean ontzia asko mugitzeari deitzen zaio.

- *on dan denporaltzigaz, guarda guardaka sartun garizen Avilesen*
- *kaletik pe guarda guardaka dxun da, inok eztaki marieta dxun badan*
- *guarda guardaka dxuteko, seguru mozkorra okiñ dxauena*

## GUARDA!

Kendu!

- *guarda ortik enbarazuen zauz de*
- *guarda txo, neuk eingo dxotak eta*
- *guarda, guarda, amen dator graku te*

Arrantzale giroan erabilitako hitz honek, gaur egun erabilera zabalagoa dauka.

## GUARDABAJO

Behera etorri. Jausi.

- *guardabajo dxeusi de, da eiñ dxuzen biarrak alperrik*
- *an due andamiñue guardabajo, eskerrak inor eztauena atrapa azpidxen*
- *banue eskillaratatik eta alako baten anutak guardabajo*
- *ezpatzon agarraten an dxungo zan guardabajo*

Hitz hau ere portuko giroan erabiltzen zen, baina, gaur egun, denek erabiltzen dute normalki.

## GUARDAKOLA

Itsasontziko zubia eta makina tapatzen dituen, sukaldea eta denak hor barruan doaz.

- *guardakolan daku kapitxena*

Gaztelerako **guardacalor** hitzetik dator.

## GUK TAKUZ EGUNEK

A zelako egunak, geratzen zaizkigunak!

- *loteridzek urten tzoieia? Guk takuz egunek!*
- *andrak! Astebeteko bakaziñuek ei dakuz, ezta? Guk takuz egunek!!!*
- *guk takuz egunek, musikiegaz batera dxuten garizenien mutute itxiko duz danak*

Askotan, lokuzio hau beste batez lagunduta agenzen zaigu:

- *Bermioko Andramaidzek bidxar, guk takuz egunek gauek nora eztiela*

## GULERI

Jaki bereziak. Finak. Gozoak.

- *orreri bakixu zer gustaten dxalzon, guleridzek*
- *eztau dirorik guleridzek erosteko*
- *guleridxeri danak imitxen tzoie arpi ona*
- *zelan dxango dau eguerdidxe ba, guleridzek dxaten on ezkeru*

Gaztelerazko **gula** hitzari **-eri** atzizkia jarri zaio beste kasu askotan bezala.

## GUREZANA

Maitasuna.

- *gurezanik ezpadau, obeto ontxerik itxitxie*
- *guretan andidxe dakotsut, baie kanpora dxun bi dotelez itxi in bi zaitxut*
- *atzoko pelikuleko neskiek eztotso okiñ gurezanik, bestigaz on da enamorata*
- *gurezan bako ezkontziek beti urteten dau txarto*

## GUSTA BE EZ

Atsegina ez den gauza bat eskaintzea.

- *emongo tzuten ostidxegaz, gusta be ez dxatzu eingo*
- *esango tzaten berbiegaz, gusta be ez dxatzo eingo*
- *gusta be ez eitxeko kartie eskribidu dotsat, baie ondiño eztost kontesta*

## GUZIK

Gura ez. Edozein aditzekin.

- *au imie dxon guzik tau*
- *zure alabie neureñe etor guzik on da*
- *zeu be aur zuuz bera ikusi guzik*

Hitz honen konposizioa beste bat behar luke izan, zeren osagaiak **gura** eta **ezean** dira. Beraz honela: **gura ezean**. Baina horren ordez **ezik** eskluiatea sartu da, nahiz eta beste zentzu bat izan.

**gura + ezik** → **guraezik** → **gurazik** → **guzik**.

Horren zergatia ez dago argi. Beste kasu askotan bezala, ilun geratzen da.

## GUZU GEIXUERI

Eskaini barik eman egin behar dela esan nahi du esaldi honek. Gura badu galdetu orduko, eman.

- *guzu txokolatie? Guzu geixuri, niri emon*
- *guzu geixuri esaten dxatzo, baie bestien pregunte barik emon*

## GUZUR TXARRIDXE

Gezur lodia.

- *nik esan dotela ori? Guzur txarridxe, ontxe be imenta zu*
- *arek tiño guzur txarridxe, neuk ikusi dot Bilbora dxuten da ez negatie dakola*
- *guzur txarridxe diñozu, guzurtidxori*

## GUZURRE TA ADURRE

Gezur ugari.

- *zer dabil guzurre ta adurre ba, danak dakoz enfadata*
- *berez igarten dxatzu guzurre ta adurre dabilzune*
- *alan engaiñeten dau arek etzeko danak, guzurregaz ta adurregaz*

## GUZURREK ETA BI AMABI

Gezur asko esatea.

- *ori dana esan dotsu, guzurrek eta bi amabi*
- *arek esaten txuzenak guzurrek danak, guzurrek eta bi amabi*
- *txo, guzurrek eta bi amabi, eztotsut siñestuten ezebe*

## GUZURREN ANDIKO MANDIE

Lokuzio honetako **andiko mandie** hitz multzoa lau edo bost esalditan agertzen da. Beti ere, kontrako zentzuaz, hau da, gezurren kontrako jarrera adierazi beharko luke. baina ez da gertatzen horrela, gezurra hitzaren baieztapena azpimarratzeko egiten da.

- *enebada, areri ez siñestu gero, guzurren andiko mandie da ta*
- *imerik txikidxenak ezaten diez guzurren andiko mandie*
- *guzurren andiko mandie dan personigaz trato gitxi*

## GUZURREN MAMARRUE

Lokuzio hau eta **guzurreri dxeusten itxi bez** biak parekoak dira, esanahi berdintsua daukate. Pertsona gezurtiari dagokio.

- *guzurren mamarruri, itxi berbetan, baie ez siñestu ezer*
- *guzurren mamarruek guzurrek egidzek dizen moduen esaten txuz*

## **GUZURRERI DXEUSTEN ITXI BEZ**

Zeharo gezurtia.

- *orren amak guzurrei dxeusten be ez dotso itxitzen*
- *guzurreri dxeusten itxitzen ez dotsona zeure ama da*
- *esaten dotsuzen gauze guztidzek tiez guzurrek, guzurreri dxeusten be ez dotso itxitzen da*

## **H**

### **HAURI MAURI**

Asko.

- *jentie aritzatxun hauri mauri*

### **HAGIE**

Habea.

- *etxie eitxeko lelengo gauzie haguek imintzie da*

### **HOMBREBUENUE**

Bitartekaria.

- *grazidzek lehengusue imindxela hombrebuenuen biharra eitxen, ostantzien ostike amaitzuko lekidu*

## I

### IA MARKIE!

Holako markarik! Harridurazkoa da. Edozein egoeratan erabiltzen da.

- *zelako ez dauela irebazi ezer, ia markie! Ori eztau siñestuten berak pe*
- *bide guztidrek zarratute. Ia markie! Oiñ zelan dxungo nai Bilbora*
- *zapatak apurtute dakotez. la markie! Ibilli barik apurtu*

### IBILTXUN

Parranda asko, gaurik gauerdi dabilen pertsona.

- *diruek gastaten dabiltzu a, ibiltxun zantarra*
- *ibiltxune dala diñoie, baie orretarako dirue bi de, da arek ez tako*
- *gaztetan ibiltxun-ibiltxune ezan da, oiñ fraillie da baie*

### IDXE

Ia-ia.

- *idxe Tonpoitrik bera dxeusi nai deskuideta*
- *idxe diñozu, baie horrek asko falta dau gero*
- *idxe kotxie ostu! Grazidrek konturatu garizena!*

### IDXEITXIK

Apur batengatik.

- *idxeitrik aberastu, lumero bategaitrik ez dost unen loteridrek*
- *idxeitrik arboliek zapaldu geure ganera dxeusitxe*
- *amaperrien txakurre! Idxeitrik bienganera botaten gaitruz*

### IDXEK ETA

Aditz guztiekin erabilia da. Gaztelerazko **ya que...** adierazten du.

- *idrek eta etor zaran, au biarra ein gu*
- *eztot pentza etortie, baie idrek eta amen nauen, ziñera dxungo garieiz*
- *idrek eta txikidxena naien neuri emon bistazu eraztune*
- *idrek eta eztakidxen, etzagu esango ezebe*
- *idrek eta apurtute dauen, bota eingu sastarratara*

Gaztelerazko **ya que** horri **eta** gehitu zaio forma hori lortuz.

**ya que** → **iake** → **ijake**

Normala denez **j** epentetikoa sartu zaio. **j** → **dx**. Gero apokope baten bidez azken **e** galdu eta **a** → **e** egin da.

## IDXELIEN

Hiltzeko zorian.

- *idxelien on da ainbeste denporan*
- *idxelien zauzela esan dostie da orain parrandan*
- *azidentie on danien bertara dxun garizen da an ikusi dun idxelien dauena*
- *guzurre ezan da idxelien dauena*

## IDXEN

Igo.

- *San Juanera dxun gariez baie eztoqu idxen bertara gora*
- *idxen eskillarak ontxe momentuen*
- *idxengo zara aurra teillatora?*
- *zelan idxengo nai ba, eztakot eskillararik eta*

**Idxelen**-en antzeko beste kasu bat. Fonetikaren aldakuntzaz aldaera sortu da.

## IDXETXUEN

Itotzeko zorian. Presaka ibili.

- *Laideko plaidxen mutil bet atrapa dauie idxetxuen*
- *neu be olato andidrek dauzenien idxetzuen ibilltxen nai*
- *trenarako ordue dala ta, idxetxuen ibill dxe*
- *idxetxuen nabil biarrak eitxen gero telebisiñue ikusteko*
- *idxetxuen dator, zer pasa dxatzo ba?*
- *idxetxuen eiñ txuz eskillara guztidrek*

**Idxen** bezala, jasan dituen aldaketak izan dira arrazoi, forma hau sortzeko.

## IGELENIEN

Iazko urtearen aurrekoa. Orain bi urte.

- *ori ezta ezkondu igez, igelenien baiño*
- *igelenien dxun garizen Parisera*
- *guzurre zauz esaten, igelenien ezta ezan da*
- *zuk esango dostazu niri, ni igelenien dxun banai!*

## IGIRI

Ireki.

- *Igiri ahue, hagiñek gutxutez ikusi txe*

## IGUAL EZANGO ZARA OSABA KARNALA, EZER EZ PADAKOZU IÑOR BE E ZARA; IGUAL EZANGO ZARA BIGARREN LENGUSU, ASKO BADA KOZU OSABA ZAITZUZ ZU

Interesengatik dabilen pertsonari esaten zaio.

- *Zu oin nora zatoz ba, dirue bizu le? Igual ezango zara osaba karnala, ezer ez padakozu iñor be e zara, igual ezango zara bigarren lengusu, asko badakozu osaba zaitzuz zu*

## IGUZIDXE

Igurtzia.

- *iguzidxe eĩn ezkeru miñ dxakozun lekuen, dolorie kenduko dxatzu*
- *eistazuz iguzi batzuk lepoko miñegaz eziñ dxot auenta ta*
- *igutidzek eitxen eitxen argaldu eitxen zara*

**iguzi** aditza izen bihurturik erabiltzen da. Aditz forman ere erabili arren, askoz ere gutxiago gertatzen da.

## IKESKI / DXE / IKESKIÑE

Ekandu. Ohiturak. Bi formak erabilizen dira.

- *ikeskidzek takoz onek imiek*
- *bai, iceski txarrak takoz, baie neuk kenduko tzatez*
- *ez pentsa, iceski onak pe bakoz*
- *ikeskiñek ez tiez aztuten*
- *an dau nire semie, neska-mutill txarran tartien, iceskidzek ikasten*

Azken esaldi honetan bi eratara erabili da **ikasi** aditza. Hitz honen osagaiak **ikas** + **-ki** atzizkia izan dira.

## IKOMELAUE

Mozkorra.

- *ikomelauegaz etor da etzera, da ganera aldarrike*
- *bestelako ikomelaue dakozu, non atrapa zu ba*
- *gaur ondo pasateko egune da, ikomelautxue artun da enbraren bategaz andratan ein*
- *ikomelauen antza dakostazu txo*

Hiku edo piku melatua hartu da, konparazioa eginez, izen baten funtzioa betetzeko.



## IKUE ATARA

Errieta handia egitea.

- *kalien entzun dau enbarazada dauena, da etzera dxun danien ikue atara dotso alabiri*
- *nora dator au ikue ataraten ba, ataraixu kulpie dakonari*
- *zelako ikue atara dotzo nobidxuri, berari ezebe esan barik Dolostire dxun dalakon*

## IL DA JESUS!

Umea loari emanda geratzen denean.

- *an il da jesus, bidzar goizerarte lo*
- *ama il da jesus, gure Kesusito lo dau*

## ILLBIXIKUE

Hil itxura.

- *nondik zatoz ba, illbixikuen arpeidxe dako zu te*
- *alabaxi eguzkidxe artzien tire illbixikuelez zauz de*
- *au illbixikuen kolorie kentziko tunbeta para bi nai eguzkitan*
- *zer diño berorrek illbixikuek ba, pentsaten dau grakue dala bera*

il **bizikoa**, beraz hitz konposatua da.

## ILLE

Pertsona ahula, adore gabekoa. Zapore edo gatz bako gauza.

- *nongo ille da berau imie, kalera be eztau urteten*
- *ille da, baie berak ku dauenien majo mobiten da*
- *olako persona illegaz ibilli baiño, obeto da ormigaz ibilli*
- *brekie beseue baiño illaue ezaten da dxaten*
- *argi ille dau berton, ikusi be ezta eitxen*

Lhanderen hiztegian baino ez dut aurkitu zentzu horretan.

## ILLEKUEK

Andrazkoaren hilekoak.

- *illekuek amabi urtegaz etor dxatzoz*
- *illekorik ezpako zu, ez zauz ondo, ez zauz seguru te*
- *illekuekaz be uger eitxen dot nik*
- *ba illekuekaz baiñue artzie ezta ona*

## IMAJIÑIE

Emakume oso polita.

- *Edurnen imie imajiñie da, politzaue!*
- *nire semiegaz dabillen neskatue imajiñie da*
- *imajiñilako imiek takoz gure alabiek*

## IME BETERRIE

Ume nazkantea.

- *onek ime beterriek neure atzian dabiltzez*
- *aurrek ime beterriek eñ d̄xost eitxekue*

## IME LETXIE

Ume nazkantea.

- *ime letxiek ez dostie indoten ezer eitxen*

## IME LUPUE

Ume nazkantea.

- *ime lupuok, egongo zarie leko baten geldik trena etorri arte?*

## IME OSTIDXE

Ume oso nazkantea.

- *ime ostidxek apurtu dostie kotzeko kristela*
- *beragaz ume ostidxegaz dxun biar ezan dot plaidxera*
- *ime ostidxei esan isillik egoteko, ostantzien plastazo bana dutzoie*

## IME TERNUE

Ume koitadua.

- *arek ime ternuek gosigaz illtzen dauzenak*
- *ime ternuek sufriten dauie gerrie*

## IME TXIKIDXE LEZ / MODUEN

Ume txikiak bezala, korrika.

- *ni ez ibilli ime txikidxe lez, enau orretarako ta*
- *ime txikidxe lez dabill egun guztidxen, ara ta ona*
- *arek ibilltzen gaitxuz ime txikidxen moduen; ez gariez atzo goixekuek ba*

## IMELAPURRE

Gizon oso lizuna, neska gaztetzoak gustatzen zaizkiona.

- *aregaz ez dxun gero, imelapurre da ta*
- *ori neskie imelapur bategaz dabill*
- *imelapurrek ibill dziez atzoko berbenan*
- *imelapurren antzeko bategaz etor da Benidorretik*

**ume** → **ime** + **lapurra** → **imelapurra** → **imelapurre**.

## IMEMOKUE

Gazteegia. Umemoko.

- *imemoko guztidzek takoie kotxie*
- *imemokue zara ondiño, berbenara dxuteko*
- *berak imemokuek esan dotsu ori*
- *Bermioko imemokuentzat neiko ta lar diez onek dxaidzek*

Goikoaren antzera, izen bat eta adjektiboa lotzen dira.

## IMENTA

Asmatu.

- *ori ezta egidxe, ori berak imenta dau*
- *ez esan ori alabatxu, eztau imenta ta, egidxe dozu*
- *beti gauz gauzek imentaten da sekule be eztosku uneten ondo, baie arei bai*

## IMEZANTARRA

Umemoko. Zentzu berdinean erabiltzen da, baina peioratiboagoa da.

- *Imezantar guztidzek bertan dandarrez kabezuduen atzien*
- *zer dakarrie imezantarrok*
- *beti esaten dot imezantarrakaz ez ibilltzeko*

## IMIEK INBERTIDU

Seme-alabak ezkondata, bakoitza bere lekuan jartzea.

- *trankill dakozu oiñ a, imiek inbertidu txuz da*
- *imiek inbertite, da ondo ganera, Benidorrera bixitzen dxuteko asmue dakoie*

## INDXADA

Atunaren belarriak deituak. Gazteleraz *ventresca* deitzen diete, baina Bermeon erdaraz ere *ijada* deitzen diegu.

- *ze gozo dauz onek indxadak, obienak tiez*

- *eztau indxadarik, eztau atunik eta*
- *karu dauz gero indxadak, laster lebatza baiño karuau*

## INFERNORA ZAPATA TA GUZTI

Gaiztoa, maltzurra edo gezurtia izateagatik infernuko sua jasango duenaren iragarkia.

- *ori guzurre esan, infernora dxungo zara zapata ta guzti*
- *infernora dxun bi dau arek zapata ta guzti, ostu doitxuzen diruek pagateko*

## INFLE / TA

Bete. Hanpatu.

- *ai! Infleta nau dxan doten bestegaz*
- *pastelak dxaten infle, txanpana edaten infle, geidxau zer?*
- *infleta ikusten dot ori mutille, geixorik tau ela?*

## INGIRUEK

1. Pertsona baten gorputzeko atal ikusiezinak.

- *neure ingiru guztidxetatik izerditxen nau*
- *ingiruek agiridxen on da Antxorako plaidxen*
- *gonak altzata ibill dxe ingiruei aixie emoten*

2. Gauzak.

- *ingiro guztidxek endredaten dau, zer topako*
- *da aixie ekar dauenien, geure ingiruek errekojiten asi garizen*
- *zeure ingiro danak berton itxitxe nora zuz ba*

3. Inguruneak.

Zentzu honetan askoz ere gutxiago erabiltzen da.

- *amen ingiruen eztau mutillik*

Hitz hau **inguru** hitzaren aldaera da, eta **i** bokalaren asimilazioa gertatu da.

## INKE

Sartu.

- *sasidxek inke dxastez izterratan*
- *au kuadrue orman inke bi de*
- *orrotzak inketen okitxie lez dakot gorputz guztidxe*
- *isillik ezpazauz kutxillue inkeko tsut tripen*
- *untze bat inke dxast buruen*

Gaztelerazko **hincar** aditzak **inkatu** eman behar zuen, baina ez da geratu horrela, bide erdian geratu da.

## INKIRRIDXO

Afan.

- *alabaxi artuixu inkirridxue, ostantzien ez zara ailegako iñora be*
- *abille da arrañek atrapatzen baie inkirridxo andidxe dako*
- *inkirridxuen pasinuegaz eitxen txuz andidzek*
- *patroi ona da baie eztako inkirridxorik*

## INKIRRIDXOZUE

Ahalegintsua.

- *ba gure patroie total da inkirridxozue*
- *inkirridxozue ezpada eztako zeregiñik*
- *inkirridxozue ezanda be, beti ezta oten arrainek atrapateko erarik*

Hitz hauen oinarria bilatzeko hipotesi baten sartu behar da. Hau da, **inquirir** aditza hartu. Hala ere ez dago argi zein izan zitekeen hitz honen eboluzioa.

**inquiridor** → **inquiridoso** → **inkiridoso** → **inkirridoso** → **inkirrodxoso**.

Gero, hemendik **inkirridxo** geratuko zen.

## INKISISINTIE

Gauzak nahasten dituen pertsona.

- *eztau inkisisintiaurik, egidzek eta guzunek nastien esaten abille da*
- *isillik on zaitzez inkisisintiori, enidxe nasta zu te*

## INKISISIÑUE

Nahastea. Iskanbila.

- *zelako inkisisiñue arma dau ba, iñor be aklara bez*
- *jente guztidxe aldarrrike, eskureko, inkisisiñue bertan*
- *amen armaidxuen inkisisiñue dau, dana dau nastata*

## INKOMODATA

Haserretuta.

- *inkomodata dauz, diruen ganien*
- *ori be bada tristie ba, aizte bat bakarrik okiñ da beragaz inkomodata egotie*
- *atziñe inkomoda diez, imiek trikidzek ezan dizenetik dauz asarratute*

Gaztelerazko **incomodar** hitzetik dator, baina ez du esanahi berbera.

## INPIDIDXUE

Inperioa. Diru asko.

- *oiñ ondo dau bera imie, baie inpididxue kostata*
- *irebazi orrek, inpididxue, gaur eztako txiki bet baie*
- *inpididxue okiñ dxe be, askotan dana gastaten da*

## INTERIORA

Kamiseta edo alkandoraren azpitik jartzen den barruko kamiseta zuria.

- *interiora kendu bustitxe dako zu te*
- *merke on diez gaur interiorak plazan*
- *kolorezko interiorak ez dxastez gustaten*
- *negureko interior lodidrek erosi bi dotez*

Gaztelerazko **ropa interior** etik hartu da eta **elastiko** hitzarekin batera erabiltzen da.

## INTRANKILL

Urduri. Artega.

- *bera imie etorri arte intrankill oten nai*
- *ez on intrankill ba, laster etorko da ta*
- *ikusten ezan dxatzo intrankill dauena*
- *intrankillidadie gauze txarra da, orreitzik on trankill*

Azken esaldi honetan bi forma agertzen dira:

1. Izenaren funtzioa betetzen duen **intrankillidadie**.
2. Adberbio funtzioa betetzen duen **trankill** antonimoa.

**Lasai** eta **urduri** hitzen ordeztu, gaztelerazko hitz hauek erabiltzen dira normalki.

## INTZENTZUE

Mailu bat. (figuratiboan). Aspergarria.

- *intzentzue zara alabatxi, ez zara lotu be eitxen eskatuten*
- *intzentzue lez dabil zapatak erosteko esaten*
- *intzentzue ezan bi zara, baten batek kasu eitxeko*

## IRRIKILLO / UEK

Apaingarri barrokoak.

- *orrek silloiek irrikillo lar dako, ezin dxe garbitxu be*
- *espilluen bueltiek ez pentza irrikillo gitxiau dakonik*
- *modan dauz ostabe irrikilluek baie neuk elekidot erosiko olakorik*

## IRU KIKIMERA EINDXE OIRE

Oso esaldi berezia dugu hau. Lotara joatean esaten da.

- *laster, iru kikimera eindxe oire*
- *dakoten loguriegaz, iru kikimera eindxe oire nuen*

## IRU TXIKI LAUPERRA

Oso merke.

- *etzie iru txiki lauperran erosi ezker, gasta biar obratan, ondo gure bada okiñ*
- *orrek etziek iru txiki lauperrakuek ezan diez*
- *iru txiki lauperraitrik Torrebiejan erosten zu etzie.*

## IRU TXIKIKO FUETIE

**Fueta / fuetie** hitza erabilia egindako esaldiak. Kasu honetan hitz horri **iru txiki** antzinako txakurtzikia, hau da, bost zentimo hitz multzoa gehitzen zaio, esaldiari enfasi gehiago emateko.

- *iru txikiko fuetie baiño ariñau dabill*
- *auna ezpazatoz, iru txikiko fuetie emongo dotsut*
- *zer diño berak iru txikiko fuetiek ba, lau killo be eztoitzuz piseten da*
- *iru txikiko fuetiek paiño andana andidxaue erun dau*

## IRUNTZETARA

Iruntzietara.

- *hau morroie lo dau, jertsie iruntzetara imiñi dau, eta ezta entera bez*

## IRUTXIKIKOA

Balio gabekoa.

- *irutxikidxen artun da gero milloiekaz saldu, auri eiñ dxau arek*
- *arrañnek saldu duz irutxikidxen, total merke*
- *alabatri, niri ez emon irutxikiko sagarrak, ostantzien arpeidren emongo tzut eurokaz*
- *irutxikiko arrañnek ezan diez gaur, txikidxe ezan dan lez, prezidxue be merke*
- *irutxikiko arpeidxe para dxatzo oneri imiri, dxan barik tau te*

## ISILLEKUE

Isilean aurreztutako dirua. Baina ezkutuan gordetako dirua ere isilekoa izango da.

Arrantzaleen artean erabili ohi da. Partila egiten denean, emazteak jakin barik, diru apur bat sisatzen da. Hori da isilekoa. Baina orain oso arrunta da egoera guztietan.

- *beran isillekuekaz erosi dau erlojue*
- *isillekuek okiñ txuz gordeta, ta arekaz dxun da Benidorrera*
- *gordeta dakozuzen isillekotxuek atara, afaidxe dxaten dxun bi du te*
- *nire isillekuekaz ez tu gauze andirik eingo*

## ISILLIKOSTUKE / ISILLOSTUKE

Ezkutatzen.

- *isillikostuke ibill gariez Lameran eureri eskapatzen*
- *eurek pe igual ibilli diez atzo, isillikostuke geuk ez topateko*

## ISPITXIE

Espia. Zentzua zabalagoa da, bizitzaren edozein egoeratan erabiltzen delako.

- *ispitxie da a, arenak eta orrenakaz enteratu da gero beste batzuei konta*
- *ispitxien biarrak dabill eitxen, an entzun da gero, orregaz aprobetza*
- *zelako ispitxie zara ba, neu elekinai fidreko zugaz*

## ITON BAULE

Ito nor izan den ez dakigu, baina maleta, baul, poltsa edo fardel handiak erabiltzen zituela esaldi honek adierazten digu.

- *nora due ba, iton baulegaz*
- *iton baule baiño andidraue dan boltsiegaz ikusi dot*
- *iton baule atarako dot Benidorrerako erropak sartzieko*

## ITSUATZEKUE

Beti atzean dabilena.

- *bestelako itsuatzekue zauz or, dxun adi ortik*
- *amen dator itsuatzekue, eztost itxitzen baketan be*
- *enator zugaz, itsuatzekue naiela diñozu te*
- *itsuatzekue lez ibilltxen dxatzo amari, atzien atzien*

Gaztelerazko **lazarillo** edo horren antzeko zerbait definitzeko erabili izan dela dirudi. Baina **lazarillo**, **itsuaurrekoa** izango da eta ez alderantzizkoa.

## ITSUATZIEN

Atzean-atzean ibili.

- *beti itsuatzien, bost urteko imielez ibilltxen, kantsata nako*



- *ez ibilli itsuatzien enpanadiori*
- *itsuatzien ibiltzen badratzu txakurre, ostikada bat emon*

## ITSUKI

Marrazo familiako arraina. Begiak txikiak -marra bi- izanik, konparazioan erabiltzen da, oso gutxi ikusten duten pensonei aplikatuz.

- *itsuki esaten tzoie gitxi ikusten dauelako*
- *eztozuz topaten? Itsukidrek paino gitxiu ikusten zu alabaxu*
- *an ibill dxe, itsukidzen moduen gauzek topaten, da ezin topa*

Hitz hau, hiztegieta datorren definizioa azaltzeko, kostako herrietatik edo eurretatik batetik sortu dela esan dezakegu. Edo alderantziz gerta zitekeen **itsuki** izena arrain horri jartzea, begi txikiak dauzkalako.

## ITSUMENDEDUN

Presaka eta presaka ibiltzea edo egitea gauza guztiak, edo ondo pentsatu gabe.

- *da itsumendidzen, gauze guztidxe benan itxitxe eskapa dun*
- *itsumendidzen zabiltzelako pasaten dxatzuz olako gauzek*
- *itsumendikue zara alabatxi, ez zu ikusten aurrekue be*

Hitz honen konposizioan **itsua** eta **mendia** hitzak agertzen dira. Baliteke, zentzua, itsua mendian ibiltzen den moduan ibiltzea izango dela. Baina **itsumendua** ere izan daiteke. Azkuek beste zentzu batez jaso du hitz hau.

## ITXI BERTON

Sinisten ez den zerbait entzuten denean.

- *egualdi ona eingo dauela plaidxerako esan dau? Itxi berton! Eztau eingo ta*
- *loteridzek urtengo doskule esan dau adibiñadoriek. Ori esan dau? Itxi berton!*

## ITXIDXE

Arduragabekoa.

- *zelako itxidxe zara ba, gauzek ein barik kalera dxun zara*
- *ofiziñen iguala da, itxidxe, dana itxitzen dau ein barik*
- *itxidxe ezateitrik galdu dau arek puestu on bat*

## ITXITASUNE

Arduragabetasun.

- *itxitasuneitrik lagunek pe eztaue gure kuadrillen*
- *itxitasune da aren defetorik andidxena*

## ITXOSOPETEKUE

Elegante. Ederra. Berebizikoa. Neurtezina.

- *itxosopeteko kotxie erosi dau, lau milloikue*
- *itxosopeteko erlojue erregala tso amañarrabakidzek*
- *ikusi duzen terrenuek itxosopetekuek tiez txo*
- *atzo dxan dun afaidxe itxosopetekue ezan da, kabiar da guzti*

Hitz honek, neurria, kalitatea eta kantitatea adierazi, eta kalifikatzen ditu.

## ITXOSOTIE

Arrainontziak itsasoratzea.

- *dauen egualdidzegaz be itxosotie eñ dxauie*
- *Dakarren on dizenien itxosote gitxi sartun zauien*
- *gaurtik aurrera itxosote askorik eztaueie ingo*
- *itxosote ona eñ dxauie, bost milloien arraiñe erun dauie ta*

Hitz hau **itsasoratzea** hitzetik dator. Substantibo izatea gordetzen du.

Azkuek hitz honekin haitzetako belar bat deskribatzen du. Besterik ez dator.

## ITXOSUE

Itsaso handia.

- *ez dxuen uger, itxosue dau te*
- *ainbeste denporan on diez urten barik itxosuegaz*
- *eztaitx dxungo banai Lagara, ara dxuteko itxosue dau te*
- *atxetan on da, ta itxosuek atara dau ta itxo eñ dxe*

Nahiko da berba bakar hori, itsaso gogorra dagoela adierazteko.

## ITXOTXORIDXEN KONTUE

Zenbat zaharrago, ederrago dagoela esateko.

- *baie ze guapue da ba, da ganera itxotxoridxen kontue dako orrek, zarrau ta ederrau*
- *neuri be gustako lekidxast itxotxoridxen kontue okitxie, zarrau ta ederrau*

## ITXUGIÑE

Itogina. Konparazioan, gauzak berehala egitea edo esatea gustatzen zaiona.

- *bestelako latie emoten zauz, itxugiñori*
- *ez ezan itxugiñe da trankill egon*
- *zelako itxugiñe zara ba, ezin zu on apur baten*
- *itxugiñe dator kamarara, euri asko eñ dxauielez*

- *ara ta oña dabill itxugiñe lez lotu barik*

Hiztegieta **gotera** zentzuaz baino ez da jaso.

## ITXURE BAKO MONUE

Pertsona itsusia, grazia gabekoa.

- *itxure bako monue da, da zer da arrue ba, batzo arek beran bururi*
- *berori itxure bako monue, ezpadako zergusta! Bai, baie dirue dako*
- *itxure bako monuek, diruegaz andobuek diez*

## IXE

Jaso.

- *majo ixex dau arek iñon diruek guzurrek esanda*
- *aixerik eztauelez belak (toldo) ixex bi diez*
- *diruek ixex! Ezta makala zelako diruek ixex txuzen*
- *orrek diro danak ixeten badoitxuz, aberastu eingo da*

Gaztelera **izar** aditza du oinarri hitz honek.

**izar** → **iza** → **ixex**.

## IXENTA

Aipatu. Izenda izango da, baina zentzua beste bat izaten da.

- *danak ixenta txuz bera izan ezik*
- *nora dxungo naitxen ixenta barik pa*
- *eztau zetan ixenta, ixenta barik pe, badakigu zeu zarana ta*
- *ni ez ixenta ezetarako be, eztot kure ezur eiñ dxex*

Hitz hau **izendatu** ren laburpen bat da, txistukaria palatalizaturik.

## IXENTAXIÑO / UE

Urtebetetzea urteurrena edo horrelako zerbaite ospatzen deneko oparitxo edo gomutagarria.

- *neure eguneko ixentaxiñotxue bota dost korreetik*
- *ixentaxiñue baiño ezta*
- *aren ixentaxiñuek eskasak ezaten diez*
- *amuman ixentaxiñue dakozu amen*

Ikusten denez ez du **ixenta** ren antz handirik, zentzua beste bide batelike baitoa. Gainera, hartu duen atzizkia ere beste bat da, **-pen** hartu beharrean **-zino** hartu du: **izenda** + **zino** → **izendazino** → **izentazino** → **ixentaxiño**.

## IXERTZA LAMATAN

Izerditan blai eginda.

- *nondik zatoz ixerdi lamatan ba?*
- *Sollube idreten, ixerdi lamatan, puzkadaka aillega gariez tontorrera*

## IXIXENA

Ezizena.

- *Bermion danak dakoie ixixena*
- *eztakizu nongue dan a mutille, ixixena be eztaitx eta*
- *ixixena ezpadakizu ezin dru dxakin nongue dan*

## IXOTU

Atzera eragin. Izutu.

- *ime guztidzek ixotu txuz, ikaratute*
- *erriko txakur eta kato guztidzek etor dxaskuz etze aurrera, da ezegaz be ezin ixotu*
- *an ibil gairez ixotuten, da azkanien be dxun diez*

## IZARAK ESKEITXE

Umeen aurrean solas berdeak egitean esaten da. Izarak eskegita umeak dira.

- *eztakizu auri enbrie atrapa dauiena apaidxue eitxen? Ixi, izarak eskeitxe dauz te*
- *zer diño, izarak eskeitxe?, onek zeuk baiño geidxau daki tx*
- *izarak eskeitxe dauzenien ezta ibilli biar olako konbertsasinetan*

## IZTERPARIENTIE

Urruneko senideak edo ahaideak. Ia beti zentzu peioratiboan esaten da.

- *gaurko alkatie neure aman izterpariende da*
- *ez tuz ezetuten baie geure aitxen izterparientiek tiez*

## IZTERRA

Izterra.

Bermeon ez da espezifikatzen zein alderdi den iztarra, eta berdin da goia, erdia zein behea, hau da, zangoa, oina edo izterra bera. Zentzu berean erabilzen den beste hitz bat: **kadera**.

- *izterreko miñe dakot*
- *izterra apurtu dau (zangoa)*

- *izter azpidxen kristelak kortada bat eñ dxost*

## IZTERRAK EBAI

Lotsak eman.

- *majo ebai dotzatez nik areri izterrak, beste baten eztau esango*
- *famie krieliën imiñi tzonien, izterrak ebai biar ezan dotzoz*
- *orreri andriri izterrak ebai gero, artazidxe dabil zorrotz eta*

## IZURRI / DXE

Apeta. Guraria.

- *langostinuek dxateko izurrie dakot. Zer ba, agarrakerak dakozuz ela?*
- *arek andriek, estaduen dauela, abillanan izurrie okitxen ezan dau*
- *ni enau enbarazada, baie angulen izurre andidxe dakot*
- *alabatxi, zapatak erosteko izurrie dakozu ela?*
- *izurridxe edo ez izurridxe, nik zapatak erosko tez*

Beraz, **izurri** hitzak, beste zentzu bat hartu du.

## IÑETAZIDXE

Txingorra.

- *menditxik bueltan iñetazidxek atrapa dosku*
- *hotzan hotzagaz euridxe ein biharrien iñetazidxe ein dxau*
- *iñetazidxegaz ezin dxiez edurren muñekuek egin*

## IÑOR EZ DABILL IÑOR BILLE

Inor ez dabilela inoren arduraz.

- *zu santainfanzian bizi zara, iñor eztabill iñor bille alabatxu*
- *zemat bidar esan dost nire amak iñor eztabillela iñoren bille*
- *ai txetxo! Amen bakoitxak eitxen dau al dauena, iñor eztabill iñoren bille*

## IÑOR EZ LEZ / LAKUE

Guztien gainetik dagoela adierazteko egiten dena.

- *iñor ez lako kotxie erosi tzu, konduziten dxakin barik pe ibilltxekue*
- *bera dozu iñor ez lakue, da gauzek pe iñor ez lakuek erosi biar*
- *iñor ez lez dxun da dxantzitxe be*

## IÑUSENTIEN PAPELA

Tontoarena egiten ari.

- *bestelako inñuzentien papela eitxen nau berton*
- *inñuzentien papela eitxen dau, baie inñok baiño geidrau daki*

## IÑUZENTE

Ergela. Tontoa. Harroa.

- *zer dakar berorrek inñuzentiek ba, danak insulteten*
- *dxun zaitzez ortik inñuzente txarridxorri*
- *inñuzentiaue da, danak tuzela berari begire pentsaten dau*
- *baie ze tontue da ba, inñuzente utse da*

Gaztelerazko **inocente** hitza, zentzua aldatuta erabiltzen da.

## IÑUZENTEKEIDXEK

Tontakeriak. Zirtzileriak.

- *inñuzentekeidrek esaten zabiltzez, eztakozu errozoirik*
- *ez takotela errozoirik eta inñuzentekeidrek esaten nabillela diñozu, ba laster ikusiko zu, errozoie badakot edo ez*
- *inñuzentekei gitxiau eiñ da artun zentzune, edadie be bakozu*
- *inñuzentekeidrekaz bete dau etzie, eztau koadro bat non sartun*

## IÑUZENTETUTE

Lelotuta.

- *inñuzentetute dau beragaz mutillegaz*
- *ez takitx non dakoten burue be, inñuzentetute nau*
- *ez da eztrañue inñuzentetute otie, emon tzun disgustuegaz*

## IÑUZENTIEN ARPEIDXE

Tontoaren aurpegia.

- *niri ez esan orrek gauzek inñuzentien arpidxegaz, bakitx zer gure dozun esan da*
- *ez imiñi inñuzentien arpidxe, danak dakidxe zeuk esan zune ta*
- *beran inñuzentien arpidxegaz aitxe ta ama be engaiñe eitxen txuz*

## J

### JANGOIKO FRAKA ZABALA

Ene Jaungoikoa!

- *Jangoiko fraka zabala, emoizu argitxasune!*
- *egidxe da gerrie datorrena? Jangoiko fraka zabala lagunduixu zerotik*
- *beti zauz zu Jangoiko fraka zabalazi erregututen da eztozu kasurik eitxen*
- *\*Jangoiko fraka zabala...! Eta kantzontzilo istuek!*

Askotan batek **jangoiko fraka zabala** esatean, askotan beste batek **eta kantzontzilo istuek** esaldiarekin erantzuten dio.

### JANGOIKUEN ERREÑUTAN

Oso urrun.

- *gure gizona jangoikuen erreñuetara dxuten diez arrantxen*
- *da gerrie jangoikuen erreñuetan badau guk eztozu asmako*

### JAUNE IL NOIXUKO DOLORIEK

Min handiak daudenean.

- *jaune il noixuko doloriekaz egon nai*
- *gure ime txikidxe be alaurike egon da jaune il noixuko doloriekaz*
- *zelako gaue pasa dot ba, tripetako miñekaz, jaune il noixuko doloriekaz*
- *saldarra zoldu arte jaune il noixuko doloriek egoten diez*

### JAZBANA

Orkestra. Jazz Band.

- *gaur Mañun jazbana ongo da Karmen egune da ta*
- *eztau dirorik jazbana imitxeko*

Adinekoen artean baino ez da entzuten. Ingelesezko *jazz band* etik dator.

### JENIDXUE

Jenio bizia. Jenio txarra. Haserrea.

- *jenidxo txarra dako baie persona ona da*
- *kalera zatozenien, jenidxue etzien itxi*
- *ez imiñi inor jenidxotan ostantzien zeuk atara kontuek*
- *jenidxue badako berantzat txarrau*
- *jenidxue emoten dost Bilbora dxutiek, baie dxun ein bi dot*

Ahoskeran bereizten da erdarazko hitzaren jatorria.

## JENTE MODUE

Badaezpadako jendea edo pertsonak.

- *zelako jente modue dau berton erridxen ba, lotsatu eitzen nai berton bizitzan*
- *Madrillen dauen jente modue gure dot nik gerrara dxutie*

## JOSEPA KALEKALE

Beti kalean dabilen pertsona.

- *esan be ez eiñ nor dan, badaitx eta. Josepa kalekale, beti dabill kalien da*
- *benetako josepa kalekale, goixerik gauera dau a kalien*

## JUANTRINKO

Ibiltzeko dorpe dagoena.

Beti gizonezkoentzat erabilia. Hala ere, noizbait erabili izan da emakumeren baten ibilera adierazteko.

- *juantrinko lez korriten dauen bat ezu ezetuten?*
- *bera mutille juantrinko utse da*
- *txo, juantrinko, ekarrieste auri otzarie*

Antza denez, **Juan Trinko** ezizenez ezagutzen zen gizon batek horrelako ibilera dorpea zeukan, eta hortik adjektibo horren sortzea.

## JUEGUE

Hezurretako artikulazioa.

- *belauneko juegue dakot paralizeta*
- *ba nik azidentie okin dxotenien, izter bidxetako juegue okin dxot lotute*
- *medikuek esan dost, atzamarran juegue ez galtzioko pelotie ibilltxeko eskue-tan*

Gaztelerazko **juego** (de dos cosas articuladas) hitzetik literalki hartua.

## JUGOI / E

Neguko kamiseta lodia.

- *gure amak emon dost ordenie jugoiek erosteko berari*
- *oraiñ ezta eruten jugoirik, kamiseta metxuek baiño*
- *onentzat imientzat jugoiek tiez onenak ixerdi asko emoten dau te*
- *itzosorako dozena erdi jugoi erosi tsatez plazako marikaflorreri*

Erdarazko **jubón** da horren jatorria.



## K

### KABRA GORRIDXE

Itsas kabra. Konparazioan, kolore gorriagatik.

- *Laiden on nai eguzkidxe artzien tunbera, kabragorridxe lez para arte*
- *orrek dozana koloriek, kabra gorridxen antza dakozu*

### KABU MONTA EZIÑIK

Gura eta ezinezkoa gertatzen danean. Batez ere ekonomian.

- *beti dau a kabu monta eziñik, asko bidau te. . .*
- *dirorik ez, da ezin erosi neuk gure dotena. kabu monta eziñik beste askon antzien*
- *Benidorrera dxuteko, kabu monta eziñik ibillitxe?*

### KADERA

Hemen, mokorra, izterra, berna eta oina, dena batera hartuta izango da.

- *kaderak altza azpidxen zer dauen ikusteko*
- *Demikure dxun gariez da kadera azpidxetako miñe dakot*
- *kadera atziek ikusi zelan dakotezen, zuri edo baltz?*
- *kaderatik agarra tsoie ta kalera atara dauie*
- *kadera ganera dxekusi dxast arridxe*

Azkuek ere jaso du, baina honek, **extremidad inferior** dio. Kintanak, **pierna** jartzen du.

### KADERAK ALTZA

Denbora ez galtzea.

- *au imie eztau ondo, kaderak altza biar duz*
- *kaderak altza! Odola galtzien dau te*
- *arinau altza bizan duz kaderak, oin berandu de*

### KADERAK MOBIDU

Denbora ez galtzea.

- *kaderak mobidu berandu de ta*
- *kaderak mobiten bazuz ariñau aillegako gariez*

### KAELA

Ogi zati handia.

- *nora zuez zu ogi kaela artun de ba?*
- *ogi kaela eskuen artun ezkeru, dxatekue, lo bertan*
- *okiñ dxun gosiegaz ogi kael bana artun de gaztaiegaz, bera dxan da etzera*

## KAFEKOLETXIE ESNIEGAZ

Kafesnea.

- *ata eistezu kafekoletxie esniegaz bidxotza lo dakot eta*
- *goizetan armosotarako kafekoletxie esniegaz elegante oten da*
- *kafekoletxie esniegaz hartzien badoten kumunera nuen osti bi txre erdigaz*

## KAIDIE

Joera.

- *auna mandarantz dako kaidie*
- *beraiñe dako kaidie, beti dau beragaz*
- *beti egoten da nonorantz kaidie*

## KAIGANE

Goialdea.

- *zer eitxen zu or kaiganen parata ba?*
- *an dako zu a kaiganen, errebatuie ikusten*
- *e? kaiganen zauz ba, balkoitrik obeto ikusten diez ela?*
- *bestela zauzie kaiganen madalenie ikusten*

Hitz konposatu honek erabilera zabalagora jo du:

**kai + gane → kaigane.**

## KAIXE

Arduratu.

- *zure aiztie barriz ezta kaixeten bape, neure pentsure itxitzen dau dana*
- *geidxau kaixe balekizara, beste txori batek kantako lekitzu*
- *asko kaixe da nire gizona, gauzek aurrera atarateko*
- *kaixetute nau neu be, ia zeuzer eitxen badun*

## KAIÑE

Itsasertzean edo itsasadarretik irteten duen behe-lainoa. Kalima.

- *Izaro be tapata dau kaiñegaz*
- *zarratu dau gaur kaiñe, ez da ongo errekie ikusterik*
- *Gerniketik berantz dator kaiñe*
- *ori kaiñe laster kenduko da ta eguzkidxe okingu plaidxen*

## KAKA

Mozkorra.

- *amabost egunien dako kaka ganetik kendu barik*
- *kaka dako zu alabatxi, mozkorrik zauz de*
- *klaro dakona kaka, orduri be eztotso beitu ela?*
- *atrapako doten kakagaz, aste guztidxen enau ikusiko etzien*

## KAKA ATARA

Errieta gogor egitea.

- *zelako kaka atara dost, eztotsatelako ekarri erregalue*
- *kaka atateko kapazidadie baiño eztako arek*
- *kaka ata dotsu ezta! Ez eñ kasurik, laster pasako dxatzo*

## KAKA BADAN / ZARAN BEZ

Arreta erakartzen ez duen gauza edo pertsona.

- *ainbeste denporan bertan da iñok kaka bazaran bez*
- *arrañek bertan da kaka badan bez*
- *erroparik onenak soiñien da kaka badan bez*

## KAKA BURUTIK BERA

Aintzakotzat hartu ere ez, abusatu, burla egin.

- *onek imiek kaka burutik bera eitzen dostie*
- *itxitzen batzazue kaka burutik bera eingo dotsue*
- *ondo artun, da gero kaka burutik bera*

## KAKA DAIDXOLA

Larri ibili, estu, arduratuta.

- *ezkonduteko egune zemat eta urriau, istuau; kaka daidxola dabiltzu*
- *eztai nik zeitrik dauen kaka daidxola, ez dxatzo pasako ezer nobidxuri tre*
- *kaka daidxola ibil gariez trena atrapateko*

## KAKA EITXEKO ASTI BARIK

Beti presaka ibiltzea.

- *alabie ezkondu dxatzonik eta ona, kaka eitxeke asti barik dabiltzu*
- *dxaidxek zelakuek tizen be eztaix nik alabatxi, kaka eitxeke asti barik nabil da*
- *il be alan eingo zara zu, kaka eitxeke asti barik*

## KAKA EITXEKO BALIDXO BEZ

Ezertarako balio ez duen pertsona.

- *amen munduen kaka eitxeke be balidxo ein bide gero*
- *orrek enbriek kaka eitxeke be eztau balidxo, orreitrik dau ezkondu barik*
- *eztozue ernegaten zentimorik pe, kaka eitxeke be eztozue balidxo*

## KAKA EITXEKO INDXARRIK PEZ

Pertsona epela, energia bakoa.

- *orrek koitzaduek zer eingo dau ba, kaka eitteko inđxarririk pe eztao ta*
- *ia akabata dau gizajie, kaka eitxeke idxarririk pe eztao*
- *nora onekaz, kaka eitxeke indxarririk pe eztaoienakaz*

## KAKA EITXEKO MOLDARIK PEZ

Pertsona epela, energia bakoa.

- *kaka eitxeke moldarik ez, baie berbie zemakure*
- *zeuk ein bi dozule, baie kaka eitxeke moldie biar da*

## KAKA MEIAU EIÑ

Ekonomian zuhurtziaz jokatu beharra, arreta handiz ibili.

- *panoramie ezpada kanbidxeten, kaka meiau einbiku*
- *alabatri gastaixu gitxiau, ostantzien kaka meiau einbikozu*
- *bota, bota dirue, laster etorko dxasku kaka meiau einbikun sasoie ta*

## KAKA MOKORDUE LEZ

Bertan behera itxi, botata, edozelan.

- *zapatak, barritzen egunien-egunien soiñera, gero kakamokordue lez zokondo baten itxi*
- *latau dana ondo ta gero kakamokordue lez itxi*
- *zelan itxritzen zuz kakamokordue lez ba, edozelan?*

## KAKA OKIÑ

Figuratiboan torta.

- *kaka dakot nik, eguerdiko amabidzek, da ondiño eguerdidxe imin barik*
- *ori ezta imitxen olan, aulan baiño, zelako kaka dakozu ba*
- *arek tako kaka! Bi mille pezatagaz pentzaten dau Dolostitrik bueltie eitxie*

## KAKA PURRUSTIE

Esaldi honek, segun eta zein tonutan egiten den berba, esanahi ezberdina edukiko dau: sinestezina den gauza bat errefusatzeko, burlazkoa, haserrea adierazteko.

- *ogei mille pezeta paga zule? Zeure kaka purrustie!*
- *datorren urtien dxungo garizela Benidorrera? Kaka purrustie*
- *kaka purrustielako jersie erosi dot, ez dau balidxo paga dotena*

## KAKABELENA

Marea behean dagoenean agertzen den lokatz beltza.

- *aixarrak atrapatzen nuen kakabelenatarara*
- *portuko kakabelenatarara dxesusitxe etor dxast semie, Afrikako baltza baiño baltzau*
- *asmaten dozue kakabelenako atsa?*
- *onek imiek kakabelenie lako kaka eitxen dost*

Azken esaldi honetan **kaka** hitza errepikatuta agertzen da.

## KAKABIARRAK

Lan edo behar zikin guztiak.

- *kakabiar guztidzek ein biar, eztauela gure be*
- *zuk ein zeuk gure zune, kakabiarrak eitxeko neu nau*
- *kakabiarrak itxi txuz arek eztaitx nok eitxeko*

## KAKADXALE

Pertsona zekena, dirua gastatzea gustatzen ez zaion pertsona.

- *kakadxaliaue da, edozer dxanda bizi diez dirue ez gastatitrik*
- *neure alabien koñatie be kakadxale utse da, beti betiko erropakaz dabill*
- *kakadxalie da, baie beste leko batetik dxuten dxatzoz diruek*

Adjetibo honen konposizio gaiak izen bat eta adjektibo bat izanda ere, gero adjektibo bat besterik ez du eman.

## KAKAGAZ ARPEIDXEN DXO

Burla egin. Engainatu.

- *auri dona kakagaz arpidxen dxotie, ondiño ganera zeuk takozu errozoie*
- *itxi ein tzazu kakagaz arpidxen dxoten? Nik enauen parkatuko*
- *berak emon berbie eingo dostela erropie da gero ein bez, ori kakagaz arpidxen dxotie da*
- *ez itxi kakagaz arpidxen dxoten*

## KAKALARRIDXE

Dena arin egitea nahi duena.

- *kakalarridxe zara baie, ikasko zu trankillaue ezaten*
- *kakalarridxe lez ibill dxe, da gero be eiñ dxau etxeplastue*
- *eztost itxi baketan pulserie erosi arte, kakalarridxe da ta*
- *ba kakalarridxe lez nabill, eztakotelakon denporarik alperrik galtzieko*

## KAKALEKUE

Itsasontzietan komuna bezala funtzionatzen duen leku bat. Hala ere **irola** hitza jarrita agertzen da Dena den, herrira pasatu dena lehenengoa da eta esanahi berdina emango diogu komunari, nahiz eta askotan peioratiboa izan.

- *kakalekue pintxe bidela esan dau patroiek*
- *gure kakalekue baino politxaurik munduen bez*
- *kakalekuen sartunde emoten txuz orduak leiduten*

## KAKAMOLTZO

**Kakalarridxe**-n alderantzizkoa eman digu. Pertsona trankila.

- *ezta egon ba, kakamoltzue lez bertan , neu dxun arte?*
- *ori dona kakamoltzue ezatie, desdeluego, ez zu merezidu dirorik emotie*
- *bestelako kakamoltzuek zauzie or, dxaten noiz emongo*
- *zer, kakamoltzo, zer erosi zu ba?*

## KAKANARRUE

Pertsona edo gauza txikia, eskasa, gutxi garatua.

- *kakanarruen besteko sagarrak erosistazuz alabatxu*
- *a motorra! Kakanarruen bestekue badan, nora dxungo da ba*
- *zer eingostazu zuk niri, kakanarru orrek?*
- *areri kakanarrueri be etzazu eitxen geidxau?*

## KAKATAN PLAUST

Bi zentzu adierazten ditu: geldi geratu basatan edo leku zikin baten eta figuratiboan, arazo ez atsegin baten sartu.

- *zu kakatan plaust eiñdxe be feliz ezango lekizara*
- *dana guzan dau traga da kakatan plaust eiñdxe akaba dau*
- *olako nastietan sartzien dana kakatan plaust eiñdxe geratuko da*

## KAKATROSKUE

Pertsona edo gauza dorpea, zabarra.

- *kakatroskue lako zapatak erosi zuz*
- *zeu zara zu kakatroskue ezer be ez dxatzu gelditxuten ondo ta*
- *onek kakatroskuek tiez da ekarri belarriko fiñauek*
- *ezta dxuen kalera... belarridxetan kakatrosko bi imiñitxe*

## KAKATZA OKIÑ

Figuratiboan **torta**. **kaka okin**-en parekoa dugu, baina gogorragoa da.

- *nok esan dotsu zuri, arraiñ asko atrapa dauela, Mirenek? Kakatza dako arek, eztaue atrapa ezer da*
- *kakatza zeuk takozu zuk; eurenko patroiek esan dau*
- *kakatza dakot nik, ezkontzako erropie be ondiño erosi barik dakot eta*

## KAKOTA

Mozkorra.

- *okiñ dxauen kakotagaz bienganetik altza be ezta eiñ*
- *kakota atrapaten kanpeoiek gariez*
- *kakota kakotan ganién atrapa dotez*

## KAKULEKEIDXEK

Aitzakiak.

- *zuok beti kakulekeidzek eitxen indxabak ez jateko*

## KALAI MALAI

1. Erdipurdian ibili. Ez ondo. Pertsonak zein gauzak.
  - *gure aitxe kalai malai dau, eztau auentako askorik*
  - *ori telebisiñue kalai malai dabill, arreglaten erun bide edo lasterko da*
2. Badaezpadako pertsona edo gauza.
  - *kalai malaiko kotxie erosi dau, eztozo auentako egun bi*
  - *eztai nik zelan erosten zuen kalai malaiko gauzek*
  - *kalai malaiko egualdidxe dau, da ez gariez dxungo plaidxera*
  - *ori personie kalai malaikue da ta ezta fidxe biar orregaz*

## KALAMATRIKA

Eztabaida. Iskanbila.

- *beti nabil beragaz kalamatriken, eztost eitsen kasurik eta*
- *isillik on, eztot gure kalamatrikerik eta*
- *auntxe be kalamatriken dabiltzez neure goikuek*
- *ori beti due kalamatrikien bille*

Azkuek jaso du bere hiztegia, baina zentzua el **clamor en la conversación** eta **griterio** da. Kintanak, ostera, **sabiduria maliciosa** dela dio. Beraz, esanahi ezberdina.

## KALBA

Piper egin. Eskolara joan barik kalean geratzea. Analogiaz, beste leku batera ez joatea kalba izaten da.

- *meisuek esan dau gure imiek kalba ein dxauiela aste guztidxen*
- *kalba ein dxauie sagarretan dxuteko, da gero aldianuek atrapa*
- *txo kalba ein zu, ez zara etorri txokora*
- *kalba ein zu plaidxera, zer ba, tertzinak etor dxatzuz ela?*

Azkuek, hitz honen definizioa **juego de bolos** dela dio. Baliteke hortik sartzea, umeez eskolara joateari uzten diotelako kalean jolasteko. Baina zalantzazkoa denez, zalanetan jarri behar.

## KALBISTERO / A

Piper egiten duena.

- *ia zelan portaten zaran e? Eztot gure kalbisterarik eta*
- *seme kalbisterue dakot alabatxu, eskola batera be ez ei da dxuten esan dost profesoriek*
- *kalbistera! Non on zara ba dxostera etor barik?*

Beste hitz batzuekin gertatu den bezala, bi hitz hauek ere erdaraz berba egiten denean ere entzuten dira:

- *has hecho kalba, eres una kalbistera*

## KALE GOGORRIEN

Miseria gorrian.

- *il dxenien fameli guztidxe geratu zan kale gogorran ganien*
- *orain ezteidxela ein negarrik, ze berak pe ainbeste jente itxi dau kale gogorran ganien*
- *ime terno asko itxi txuz kale gogorrien, etziek eta diruek ostute*

## KALIEK AUSTEN

Kaleetan zehar ibili. Kalez kale.

- *egun goixerik dabiltzu a kaliek austen*
- *beran amari ez dxatzo gustaten kaliek austen ibilltxie ba*
- *oingo ime guztidxei gustaten dxatzoie kaliek austen ibilltxie*



## KALINPAN

Egunaren ordu guztietan kalean egotea.

- *egun santo guztidixen dabill kalinpan*
- *da kalinpan ibillitxe zelan estudidixeko dau ba?*
- *goixien kalinpan ibilli bazara oiñ etzeko biarrak ein bizuz*
- *udien danok ibilltxen gara kalinpan*

## KALINPENERATU

Kalean ibiltzen obitu dena.

- *gure Amaia len ezta ezan olakue baie oiñ kalinpaneratu ein dxe*
- *zu bakixu kalinpaneratute zauzena?*
- *onetan egunetan kalinpaneratute nabill*

## KALINPANERO / A

Kalean orduak ematen dituen. Gizonezkoa zein andrazkoa.

- *au imie kalinpanero utse da*
- *kalinpanerie lez dabill, da eztau ingo ezer eskolan*
- *kalinpanerak eta kalinpaneruek asko dauz gaur egunien*

Hitz hau gaztelerara ere pasatu da, askotan **eres una kalinpanera** ere entzuten baita.

## KALMA ZURIDXE

Itsaso barea. Konparazioan ere erabiltzen da. Haserrekuntza ondoren, gauzak bere onera doazenean.

- *kalma zuridxe dau, plaidxera dxuteko modukue*
- *gaur dxungo diez itxosora kalma zuridxe dau te*
- *okela txikitxuek ein dxe gero kalma zuridxe*
- *esatekuek esan dotsoie alkarrerri, baie oin kalma zuridxe dau*

## KALMUNE

Bare unea. Zentzu guztietan erabilia.

- *auntxe dxungo gariez, kalmunie dauen artien, euridxek ez atrapateko*
- *aldarridxek gogorrak ezan diez, baie kalmunie ein dxenien normal on gariez berbetan*
- *kalmune baten itxosora urten dauie*
- *doloriegaz eziñ dxot ein biarrrik pe, da kalmuniek okitxen dotezenien eitxen dot eitzeko dakotena*

Beste askotan legez, itsasoko berba bat beste estraktu batzuetara zabaldu da.

## KAMADEMOILLIE

Antzina, koltxoiaren azpikoa deitzen zitzaion gaur egun **somier** deitzen zitzaionari.

- *kamademouille zarrak bota da barridzek eroxi bi dotez*
- *kamademouille gogorra erosi gero, obiauek tiez da*
- *ba niri geidrau gustaten dxastez kamademouille biguntxuek*

## KANKAMO

Burmuina, burua (figuratiboan).

- *kankamuek pe atrapa eitxen dostez kotxe barridxe erosteko esaten*
- *ez artun inori kankamorik, eztotsut eingo zeuk diñozune ta*
- *buruko kankamuetararte nau eurokaz gauzekaz*
- *kankamuek galdute dabill aspaldidxon*

Hitz hau, ontzietan txikotak amarratzeko kabilen gaztelerazko **encamo** izenetik dator. Gero, zentzu figuratuan beste esanahi hori hartu du.

## KANKANKAN

*Karkarkar* barrea bermiotarrez.

- *Ze triste ona konta doskun Txilibristok! Kankankan!*
- *Zelako zartadie hartun zauen ba! Pentsa utsegaz txisek pe urten! Kankankan!*
- *Atzorik txise daidxola nau beronegaz tristiegaz! Kankankan!*

## KANKAÑADO

Azaleko nafarrerria gaixoak aurpegian utzitako zuloak dauzkanari esaten zaio, gizona zein emakumea izan. Gauzei ere aplikatzen zaie.

- *kankañaduen arpidxe dako*
- *Sofia kankañadien alabiegaz ezkondu de*
- *sagar kankañaduek tiez onek*
- *a mutille gustaten dxatzu! Beran kankañaduen arpidxegaz!*

## KANKILLOI

Bonbiltzar.

- *kankilloi bat ein dxot pintxe pantalla moduen imitzeko*
- *kankilloiek politrek ezaten diez adornorako*
- *kankilloien ekar bide ardaue aste guztireko*
- *kankilloiegaz dxo dau buruen*

Azkuek ez du jaso hitz hau, baina bai **kankil** forma. Baliteke hau izatea bestearen oinarria. D.A.R.k bai jaso duela Bermeokoa dela azalduz.

**kankil** + **-oi** atzizkia → **kankilloi**.

## KANKINKABARA

Edozelan. Inklinatuta. Okertuta. Txarto jarrita.

- *agiñek takoz kankinkabara, nora gure*
- *ori kuadrue kankinkabara eskei zu*
- *bertan frontoien, sille guztidæk kankinkabara on diez*
- *zelan in txuz botoiek ba, kankinkabara?*

Umeen antzinako jolas baten izena hartu du. Ormara begira **kan-kin-karaba** esaten zen. Nondik pasatu den hizkera arruntera inork ez daki.

## KANPA DOBLADUEK

Elizako kanpai guztiak batera jotzen dutenean. Konparazioan zerbait ospatzen denean.

- *kanpa dobladuek dxoten dauz, zer zelebraten da ba*
- *elixe guztidæetako kanpa dobladuek entzuten dotez*
- *dxo kanpa dobladuek, amen zeozer pasako da ta*

Bitxia da, berbak laburtzen ohituta dagoen batek **doblauek** esan beharrean, osorik esatea, **dobladuek**.

## KANTA BARIK LO

Berehala loak hartzea.

- *gaur kanta barik eingot lo. kantzata nau te*
- *onek imiek kanta barik ingo dau lo*
- *dxun trankill kanta barik ingo dau lo ta*

## KANTA SEGIDILLETAN

Eten gabe kantatzen aritzen denean.

- *zueneko ama goizerik dabil kanta segidilletan*
- *eskursiñuen dxun garizenien kanta segidilletan dxun garizen autobusien*
- *ene alabie, loteridæk urte dotsu le? Kanta segidilletan zabiltz*

Andaluziako **seguidillas** berba hartu da esaldiak egiteko. Agian, euskarazko abestiak ez zirenez entzuten, orduko jendearentzat kantu guztiak ziren **seguidillas**.

## KANTSAZIÑO

Nekadura. Ahuldura.

- *ai zelako kantsaziñue dakot ba, da ori ezer ein barik*
- *kantsaziñue kentzioko bikarbonatue da ona*
- *kantsaziñue andidxe bako zu oien sartun*

## KAPAN

Denboraleari aurre egiten, geldi itsasoan. Konparazioan herrian denbora txarra dagoenean edo gauzak txarto doazenean.

- *lau egun eñ dxuz kapan, da idxe ondora dxun gariez*
- *kapan badauz eztau arraiñik*
- *geu be amen gauz kapan datorrenari arpidxe emoten*

Maileguzko berba bat hartzen dugunean askotan egiten den bezala sustraia bakarrik hartu da.

## KAPAUE

Lainotua.

- *egualdi kapaue badau ez kara dxungo plaidxera*
- *gau kapaue dauelez ez tiez ikusiko estrellek*
- *goi kapaue on da be, eguzkidxek dxo eitxen dau gero*

Gaztelera zko **encapotado** hitzetik sortua da.

**encapotado** → **kapotado** → **kapotaue** → **kapaue**.

## KAPONA

Emakume antzua.

- *arek kapona txarridzek niri esateko lotsabako imiek dakotezela!*
- *ezta ezkondu, dxakiñ dxauelako kaponie dala*
- *ba zure nebien koñatuegaz ezkondu dana be kaponie da*

Gaztelera zko **capón** = **pollo castrado** hitzetik dator; baina hitz hori emakumezkoentzat desegokia denez **a** bat sartu zaio femeninoa egiteko.

## KARINKARA

Aurrez aurre.

- *zure ama ta ni karinkara bixi gariez*
- *karinkara ikusi dotenien odolak pe berotu eñ dxastez*
- *karinkara topaten dotenien esango tsatez nik areri lau berba*

## KARNADA

Karnata sexuala.

- *karnadie etsonien emoten degolluek ezaten diez aren artien*
- *eztotsu emoten andriek karnadarik ela?*
- *aur due ori karnada freskue bille neskatill gaztieñe*

## KARRAJO

Etxeko ibilgua.

- *gure etziek karrajo luzie dako*
- *ba niri karrajo bako etzie gustaten dxast*
- *karrajourako alfonbra barridxe erosi dozule?*

## KARRAMARRUE

Minbizia.

- *osabari analizuek ein, eta karramarrue atrapa txoie*
- *tripen min dakola ta, medikunera juen, eta karramarrue dakola esan txoie*
- *Ur Handitan telebisiñoko programan bermiotar batek karramarrueri buruz berba ein zauien*

## KARRERIE

Solasgaia.

- *ara, auntek okin dxu zeure karrerie, ia nondik zabiltzezen*
- *egun guztidxetan okitxen dau beran nobidxuen karrerie*
- *guk eztu ataraten politikien karrerarik ez asarraruteko*

Ez dago argi nondik sar zitekeen gaztelerazko hitz hori eta gainera zentzu horrekin.

## KARRIDXUE

Igarotzea.

- *karridxue, karridxue ezan da arena, patata zakuek etzera eruten*
- *arraññ guztidxen karridxue ordubetien ein dxu*

Gaztelerazko **acarreo**.

## KARRIE

1. Jausi. Behera etorri.

- *atzo esan dau telebisiñuek erri txikitxu bateko elixie karrie dala*
- *orregaz pixugaz nora zuez ba, karrie ein bi zu te*

- \*udxolakaz kasinue karrie da beiek amore emonda

2. Igaro.

- *karrie dauie etzeko traste guztidzek*
- *sagarrak karrieten ibilli diez*
- *ezpadakozue zer ein, karrie aunek zakuek*

Gazteleraz **acarrear** izango da.

## KARTA FALTZO

Pertsona faltsua.

- *orregaz ez fidxe karta faltzo da ta*
- *ez nauen esango olako karta faltzue danik*
- *lelau fin fin ibilli da gero karta faltzuek urten*

## KARTAPARTILLEK

Kontuak konpondu; zentzu guztietan.

- *zer, eñ dxauie kartapartillek ela?*
- *bai, arek eñ dxauie, baie zuk eta nik pe kartapartillek ein biduz*
- *zemat eta ariñau eñ kartapartillek, obeto*
- *kartapartillek eñ dxuz, baie ondiño eztogu konpondu dana*

Hitz honek ez du zentzu handirik formari begiratu ezker, baina hor dago eta badirudi, **cuéntas de partija** hitz multzotik sartu dela. **Partille** arrainontzietan egiten den diru banaketa da. Eta banaketa hori mahai baten inguruan egiten zenez, mahai gaineko kartak edo **karta-partillek** hori izan liteke.

## KARTOLAK

Gurdien hegaletako tapak.

- *ia erdu neugaz baserrie gurdidxeri kartolak imintzen*

## KASKABELA LAKUE

Oso arrain freskoa. Batez ere bokarta.

- *ekar dauien bokarta kaskabela lakue ezan da*
- *arek ekar dauena bai ezan da kaskabela, baie bestie dungulue eñdxe etor da*
- *pezidxo andidxe eñdxau orrek antxobiek, kaskabela lez dau te*

## KASKANTE

Alditsua, koskatia. Pentsaera erraz aldatzen duen petsona.

- *orregaz ez ein barbarik kaskantien gauzek esango dotsuz de*

- *zelako kaskantie zara ba, arin kanbidxe zu berbie*
- *kaskante utse da, ontxe dau ondo, da beste bueltan kasurik pe ez*

## KASKARRATOIE

Haitzetan aurki daitekeen karramarro txiki uletsua.

- *ama, kaskarratoien ama dakot atrapata*
- *kaskarratoi gitxi topaten dice oiñ atzetan*
- *ama! Kaskarratoie tangarruen barruen!*

## KASKIE

Zoratu, erdi edo osorik.

- *kaskie eiñ dxela, da aurregaz atxakidxegaz, diro guztidzek kendu tsoie*
- *zelan kaskie da ba, ointxerarte ondo egon da ta*

## KASKIETA

Zoratu, erdi edo osorik, **kaskie**-ren adberbiozko forma da.

- *isilik on e? Kaskieten asitxe nau ta ez dakot burue orretarako*
- *zeuk pe ez imiñi kaskieta zauzenaren atxakirik*

## KASKOTIE

Atunaren buruaren atzealdea. Konparazioan edozein pertsonaren burua.

- *nire gixonak kaskotie atrapa dost beragaz dxuteko partidora*
- *nik eztot biar kaskotie atrapatirik gixonagaz edonora dxuteko*

## KATAPLASMIE

Pertsona gogaikarria. Lapa.

- *geu alegiñek eitxen andik dxuteko da bera kataplasmie bertan, mobidu barik*
- *zelako kataplasmie zara ba*
- *orkestie be kataplasmie ezan da ta gu abrosidute*

Gazteleraz ere horrela esaten zaio pertsona lapa bati.

## KATUEK AUEN IBILLIKO MODUEN

Urratuta. Erasanda.

- *gau guztidxen parrandan ibillitxe, katuek auen ibilliko moduen, ezta?*
- *bestiekaz nauenien, neu be katuek auen ibilliko moduen oten nai*
- *Bilbotik bueltie eiñdxe katuek auen ibilliko moduen on da*

## KATUEN BIZARRAK FEO

Gauza itsusia katuaren bizarrak bakarrik direnaren ustea.

- *onek kortiñek feo ei dauz, baie feo bakixu zer, katun bizarrak*
- *katun bizarrak pe feo oten diez, baie berak aldien*
- *orren zapatan feuel Feuek katun bizarrak, ori eztakixu le?*

## KATUEN GLORIDXEN

Eguzkitan katuak egoten diren moduan, lasai eta gozotan.

- *bestela gauz berton, katuen gloridxen*
- *egun santo guztidxen on gara aretzan tumbeta katuen gloridxen*
- *ze ederto zauzien katuen gloridxen*

## KAÑABERA TXIKIDXEGAZ DIRUEK ALA

Diru asko irabazten.

- *an dabilizu a, kañabera txikidxegaz diruek alaten*
- *zu! Iñok pe eztakidxela ibil zara kañabera txikidxegaz diruek alaten*
- *ala, ala! Ala kañabera txikidxegaz diruek!*

## KAÑADA

Berna-hezur. Tibia.

- *emon dosten zartazuegaz kañadie apurtu dost*
- *kañadie dakot baltzitxute*
- *kañadan artun dau golpie da geldik on bidau illebetien*

D.A.R.n bakarrik dator eta T. Etxebarriaren Lex. aipatzen du.

## KAÑUEK KONPONDUTEN

Haserre bizian jarri.

- *ez imiñi iñor kañuek konponduten, jenidrotan nau te*
- *beti zauz zu kañuek konponduten*
- *zeitrik gauzen kañuek konponduten, eurek gure dauiena eitxen dauzelako*

## KEBRA

Erabat nekatuta. Ahulduta.

- *San Juanetik kebra-kebrata etor nai*
- *eindrun beste biarregaz, kebrata geratu gariez*
- *onek boltsiek kebra eitxen nau*



## KEIE ATARA

Bi zentzutuan agertzen da: biziki jardun egitekoan, eta errieta ederra egin.

- *zelan para dxast ba, keie atara dost*
- *eztan biar arek askorik edozeitrik keie atarateko*
- *gau guztidxen dxantzan, zapatai be keie atara tzagu*
- *madalen egunien goiko plazan arridxei be keie atarako tzat*

## KEO

Nekatuta, lanerako adore gabe, zentzu figuratuan, noski.

- *atzo ein dxun juergiegaz keo ein dxu nau*
- *onek beruek keo ein dxu itxitzen zaitxuz*
- *esan dotsozen berbakaz bakarrik, keo itxi dau*
- *lelangoko ostidxegaz itxi dau keo*

Ingeleseko **knock-out** etik dator.

## KERIXE DIRUE

Diru gutxi. Asko izanda ere, gutxi iritzi.

- *ogei milloi urten dostez loteridxen, da ori zer da ba, kerixe dirue*
- *kerixe dirue geurie, dxateko be eztaue irebazi txe*
- *kerixe dirue dala esan bai berak, baie diro andidzek irebazi dauie*

## KIKADA

Begirada bota.

- *Lameratik dxun naienen kikada da bat ein dxot Izaron*
- *bota kikada bat elixen mezie asi badan ikusteko*
- *aurtik bentanatik ein kikadie ia euridxe badan*

## KIKILDXU

Koldartu.

- *kikildxu ein zara alabatxi, zek agarra tsu ba?*
- *ostidzek emongo dotsozela esan tsonien kikildxu ein dxu*

## KIKILLE

Zakila.

- *kikille dakot gogortute ezer ein barik*
- *zure kikille eztabil ondo antza, hainbeste denporan ezer ein barik*
- *aur dabiluz orrek euren kikille saltzien, lotsatu be eztez eitxen*

- *berari agure zantarrari asgurek ein biar kkillen*

## KIKIMERA / KIKUMERA

Must egin uretan.

- *bigarren kikimeran dxo atxie da paralitiko geratu da*
- *kikumerak eitxie asko gustaten dxasku baie, atentziñugaz ibillitxe*

## KIKIRIKI ATZA / USEIÑE / SUNDIE

Lehenengo hitzak oilar gaztearen kantua esan nahi badu ere, kasu honetan beste modu batera erabiltzen dugu, hau da, **kea** esan nahi du. Gero **sund(e)a**, **usaina** eta **atza** berbak erabiliz egingo dugu lokuzioa.

- *zelako kikiriki atza bertan etzien, iñoiz garbitxu barik. . .*
- *puf! Zelako kikiriki useiñe! Non ibil zara ba?*
- *atakontu gitano tartien ibilli garizela, dakun kikiriki sundigaz*

Azken esaldi honek informazio gehiago ematen digu, zeren **kea** hitza ijitoekin elkartzen baitugu.

## KIKU

Begirada bota. **Kikada** hitzaren sinonimoa izan daiteke.

- *portutik kiku bet eñ dxot nire nobidxue etor badan dxakitxeko*
- *etor da zure ama, baie kiku eiñdxe dxun da*
- *esan dau kiku eitxen bakarrrik etor dala*

## KIKUKE

Kirik egiten. Zelatan.

- *beti dabil kikuke, zer ikusiko*
- *Miren balkoitrik on da kikuke ia zer pasaten kalien ikusten*
- *sartun barrure kikuke on barik or atien*

## KILIN KOLAN

Segurua ez dena. Kolokan dagoena.

- *ama be kilin kokan dau da eztaitx dxungo bagariez bakaziñutan*
- *onek botoiek kilin kolan dauz*
- *eskillara barridzek ezanda, daburduko kilin kolan dauz*
- *agiñek kilin kolan dakotez, atara ein bi dotez*

Hitz hau, Azkuek bere hiztegian jaso duen **kili-kolo** hitzaren aldaera izan daiteke.

## KINITO

Ardo gozoa.

- *zuri asko gustaten dxatzu kinito gero*
- *imien egune ezan da, ta pastelak eta kinito ekar dosku*
- *emon kinito edaten, da gero mozkor mozkorrik etzera*

**Quina** edariaren izena hartu dute ardo gozo guztiek, apur bat aldatuta, noski. Kasu honetan diminutiboan hartu da.

## KINKILLEIDXE

Kinkila. Purtzileria. Zentzu despektiboan, zirtzileria.

- *zer da ganién daruzuna ba, kinkilleidxe daruzu te*
- *zer ez lekidau imingo arek, dendako kinkilleidxe osue*
- *kasinora dxuteko kinkilleidxe erosi dau, gutxi dako lez*

Normala da kinkila dendetan saltzen diren gauzen artean zirtzileria izaten denez, honi *kinkilleidxe* deitzea.

## KINPULIE GANETIK KENDU

Mozkorra gainetik kendu.

- *etzera dxun orduko ronpiolasera dxungo nai uger, kinpulie ganetik kentziko*
- *irugarren egunien be kinpulie ganetik kentziko okiñ dxau. da zelakue okin be*
- *txo, ondiño kinpulie ganetik kendu barik!*

## KINTXEL BAT

Asko, kantitate handia.

- *kintxel bat dxan dot eta oiñ amen nau tripie altza eziñik*
- *onek boltsiek kintxel bat pixeten dost*
- *onek zapatak kintxel bana dakoie bakotzak*

## KIÑE

1. Azkura izaten denean hazkatzea.

- *kiñeten nabil, baie bizarreko azgurie ez dast pasaten*
- *bizarra kiñeten... Magu pentsakor!*
- *belarridxe kiñeten hasten naiénien ezin gelditxu ibiltzen nai!*

2. Zirikatu. Zentzu guztietan.

- *biar bat eitxeko beti ibilli bi zara kiñeten*
- *kiñeta be arek eztau eitxen berak gure dauena baiño*

- *gure alboko andrie beti dabilst kiñeten, gaur be esan dost aulako bat*

## KIRIKILLO

Ile kizkurra.

- *kirikillo luze luziek takoz nire muñekiek*
- *beran kirikilluekaz begirik pe ez dxatzo ikusten*

## KIRIKINA

Ardo gozoa. **Kinito** hitzaren parekoa dugu, eta jatorria ere berdina.

- *kirikina ta guzti zelebra du kursuen akabakene*
- *kirikina baiño gurau dot txanpana*
- *ime guztidxei gustaten dxatzoie kirikina*

## KIRRIKILLUEK

Barrokismoak.

- *orrek armaidxuek kirrikillo lar dakoz*
- *eske, kirrikillo asko dakoien gauzek gero txarto garbiten diez*
- *aunek erropiek be kirrikillo larreidxe dako*

## KIÑADA

Keinua.

- *enai konturatu lelangotan da berak eñ dxostenien kiñadie aurduen dxekusi nai kontuen*
- *bera neuri kiñadaka, da ni santainfanzian*
- *orren kiñadiek zeuzer gure dau esan, kuidadue gero*

## KIÑUE ATARA

1. Biziki jardun egitekoan.

- *kiñue atara tzat oneri kotxieri, ia eztau balidxo ezetako be*
- *au erropie ezta gauze, kiñue atara tzat eta*

2. Errieta egin.

*zure aiztiek laguneri kiñue atara tzo, eintzozen aldarridzekaz. . .*

Baina beste zentzu baten ere erabiltzen dela baieztatu dugu.

## KLARIE

Egusentia. Itsasoan erabiltzen den berba bat da. Herrian ere esaten da.

- *klarie eiñdxe dau, asi gaitxezen gauzek preparaten*
- *klarie etorri orduko dxakiñ dxot egualdi txarra ingo dauena*

## KLAROTASUNE

Egusentia, **klarie** baino gehiago esaten da herrian. Eta gainera, eguraldiari dagokio, hau da, zeruan hodeiak egon ala ez, horren arabera esaten da.

- *klarotasune dakar, altza ingo dau egualdidxe*
- *amen ezta ikusten klarotasunik, seguru euridxe ingo dauena*

Gaztelarazko **claro** hitzari **-tasun** atzizkia jarrita egiten dugu.

## KOBLA

Arrantzarako apareiua. Kordelean amuak jartzen dira, terminorik terminora, tertza moduan. Askotan arraina amu baten baino gehiagotan etortzen da. Baina konparazioan arrainak neskak edo mutilak izango dira.

- *an! Arek an dakaz, koblan bi*
- *bota dau tertzie baie koblan ez dakar arraiñ bet pez\**
- *itxi geldik, trankil badabill berak ekarko dau baten bat koblan, bi edo iru*
- *amuek ondo imin bidiez koblatan arraiñek atrapateko*

## KOFRIE LEZ BETETA

Kofra itsasoko txori bat da. Honek harrapatzen duen guztia jaten du. Horregatik betekada egiten dugunean esaten dugu hura legez beteta gaudela.

- *ezkontzan dxan dun bestegaz, kofrie lez bete gara*
- *an dau a, kofrie lez beteta, mobidu eziñik*
- *eztako dxan txarrik, kofrie lez bete ezker*

## KOIDXIDU

Batu. Itsasoko terminoa da, tresna edo apareiuk batzea esan nabi du. Baina herrian asko erabiltzen da.

- *plaidxen on gariez da jentie gauzek koidxiten ikusi du aixe andidxe dakarrela te*
- *koidxiduten asi ostantzien trena galduko du*
- *airiek gauze guztidzek dandarrez erun biarreko dauela ikusi dunien koidxiten asi garizen*

Gaztelarazko **coger** da. Baina Mañu eta Bakio bitartean dauden baserriren baten **koixu** entzun dut.

## KOIZEZTO

Pertsona zikina.

- *a koizeztue ostabe batorren surre ebai bikot!*
- *aren koizeztuen atzagaz guarda abajo nuen*
- *jaten asi orduko eskuek garbitxu koizezto!*

## KOIPYEN ANDIKO MANDIE

Pertsona edo animalia oso zikina.

- *eztot kure dxaten dxuen, koipien andiko mandie dizen lekora*
- *egidxe da, eskatza koipien andiko mandiezez dakoie*
- *baie txetxo! Koizezto! Koipien andiko mandie zara!*

Koipearen handiko alderdia garbia beharko luke izan, baina ez, horretan geratu da.

## KOIPYEN ARRAZIE

Pertsona edo animalia oso zikina.

- *koizez beterik dako zu etzie, zara, koipien arrazie zara*
- *koipien arrazie ezan ezker, zelan guzu okitxie ba*
- *bazan gure erridxen koipien arrazakue*

## KOIPYEN MAMARRUE

Pertsona edo animalia oso zikina.

- *aizte bidzek tiez koipien mamarruek, soñeko erropai beitutre baiño eztau*
- *a txikitzerik etor da koipien mamarruen antzagaz*
- *bapori en be koipien mamarro utse da*

## KOIXO

Herren.

- *Andres koixoka ibildxe, seguru Aritzatxun jeusi eindxela!*

## KOIXO KOIXOKA

Herrenka.

- *koixo koixoka dabill izterra apurtute dako ta*
- *koixo koixo pla, aulan zabiltzez zu munduen*
- *koixo koixoka ibilli bi naiela esan dost medikuek*

## KOKOTA DXAN

Zigortu. Zentzu figuratiboan, noski.

- *ezpatzo emoten zor tzon dirue, kokota dxango tzola esan dau*
- *alabatxi, lau suspenso atara dozuzela? Kokota dxango tzut!*
- *ezpazara espabilleten kokota dxango tzu aitrek*

## KOKOTA KENDU

Gogor zigortu. Zentzu figuratiboan, noski.

- *orrei bakixu ze ein biar dxatzoien, kokota kendu geidrau ez eitxeko*
- *kokota kenduko tzut, geidrau entzuten badot nireitrik ezer*
- *kokota kendu bi dxatzona zeu zara, lotsa bakuori, iñori kondukie kentzien zabiltz da*

## KOKOZILLO

Lepondo. Kokot.

- *uliek takozuz kokozilluen sartunde*
- *kokozilluen urten dost zaldarrak*
- *kokozilloko miliegaz eziñ dxot auenta*

Hitz hau konposatua da:

**kokot + zulo → kokozulo → kokozüilo → kokozilo → kokozillo.**

## KOLARRA

Etxeko portalea.

- *gure kolarrrien arratoiek sartun diez*
- *kolarra garbitxuteko interiñie ekar bizan dot*
- *giltzek galdu dotez da oiñ eztakot kolarrera nondik sartu*

Badirudi gaztelerazko **corral** hitzetik sartu dela. **corral** → **korrala** → **kolarra** metatesiaren bidez. Azkuek Mundaka eta Bermeorako jaso du hitz hau.

## KOLKOKO OPILLE

Bakoitzaren interesak defendatu.

- *ori guztidxe beran kolkoko opilleitrik eiñ dxau*
- *noperak defendidu bi dau noperan kolkoko opille*

## KOLORIE

Arrabia. Kolera. Azentuatatu egin behar dugu hitz borren zentzua argi uzteko.

- *entera naienien zer eiñ dxauen, neure kólore guztidxegaz beraiñe dxun nai*
- *zelako kólorie emon dost ba, baie eztotsat esan ezebe*
- *eztotsu emoten kólorie, berandu berandu datortzunien zeu berari begire on da?*
- *eztost emoten kólorerik, baie bai ernegue*

Gaztelerazko **cólera** zuzen zuzenean sartu da. **cólera** → **kolera** → **kolerie** → **kólorie** bokalaren asimilazioz.

## KOMADA

Antzinako armairu bat.

- *gure amuman komada bat emon dost amak eta ondo barnizeta barridxe lez geratuko dxast*
- *badakidxela euskerie diño, baie komadan barruen sartute okitxeko baiño eztotsu balidxo*
- *ori komadie andidxeidxe da onako da beste leko baten imin bide*

Gaztelerazko **comoda** -azentu barik- da. **comoda** → **komoda** → **komada** bi o horietako baten disimilazioz.

## KOMENIMENTUE

Egokia dena. Komeni dena. Egiteko dagoena.

- *geure komenimentue eiñdxe, autobusera dxun gariez*
- *dxan eguerditxue, ein zeure komenimentotxue da gero lo*

Gaztelerazko **convenir**, euskaraz **komeni** hitzari **-mendu** atzizkia gehitu zaio, ez da egokia, baina horrela gertatu da.

## KOMOSINO

Hala delakoan.

- *alkarregaz pasatekuek pasa, da gero, komosino*
- *txo, pellikadak eiñdxe komosino zabiltzez berorregaz*
- *ez ein kasurik pe, badator, geuk pe komosino eingo tsagu berba*

Ikusten denez, gaztelerazko **como si no...** lokuzioa, berba bihurtu da.

## KONDUTIE

Fama. Erreputazioa.

- *zer dabiltzu zuk iñori kondutie kentzien*
- *eztot gure entzun be, zelan kentzien dauen orrek kondutie*
- *orrek enbriek kondutie bienganien dako*



Gaztelerazko **conducta** = **manera de proceder** hitza hartu arren, zentzua aldatu egin da.

## KONDUTIE KRIELIEN

Pertsona bat difamatzea.

- *total abillek zarie ñori kondutie krielién imintxen*
- *guk ñori be etzagu imintxen kondutie krielién*
- *noperan lepuri beütuten etzoiénak ezaten diez kondutie krielién imintxen dauienak*

## KONKABIDE

Gauza batentzat egokia den zuloa.

- *maidxién konkabidie dako orrek utsuniek*
- *beronen konkabideko armaidxo bat erosi bi de*
- *au ezta onen konkabidekue aurrenxié ezta kabiten*

## KONKABIDEKO

Gauza batentzat egokia den zuloa, konparazioan, edo zentzu figuratuan, pertsona ere izan daiteke egokia den zuloa.

- *topako dau orrek pe beran konkabidie dakon personie*
- *beran gorputzek diñotso zelakue dan, gorputzen konkabidekue*

## KONKAN

Zalantza. Desoreka.

- *eztot dxakin zer eiñ, konkan on nai, baie azkanien erosi eiñ dxot*
- *ez on konkan da erdu geugaz*
- *egualdidxe be konkan dau, eztaki zer eiñ*
- *au maidxe konkan dau, eztau santus*

## KONOGRAFUE

Fonografoa. Gaur egun **tocadisco** erabiltzen da gehien bat, baina noizbehinka entzuten berba hori.

- *egun santo guztidxen konografue imindxe oten da*
- *ezta ezango konografue, radidxue baiño*
- *konografue edo radidxue, niri buruko kankamuek atrapatén dostez*

## KONPLIMENTO BAKUE

Harrokeria gabeko pertsona.

- *dakoien beste dirogaz be, total da konplimento bakue*
- *etzeko danak tiez konplimento bakuek*
- *aulan ezan bide, aberatsa ezanda be konplimento bakue*

## KONTADUIDXERAKO

Kontagaia.

- *nik eztaitx zelan eitzxen dauen, baie beti dako zeuzer kontaduidxerako*
- *ori be kontaduidxetarako dako zu? Eztau zu lakorik*
- *nire gauzek ez ibilli kontaduidxerako, eztot gure ta*

## KONTUEK ETA ERROZOIEK ESKATU

Zerbaitengatik azalpenak eskatu.

- *nora zatoz nireiñe kontuek eta errozoiek eskatuten, dxun beraiñe, berak eiñ dxau te*
- *barreka artun dau notezidxe, baie laster dxungo da kontuek eta errozoiek eskatuten*
- *alabatxu, eskatuixu meixuri kontuek eta errozoiek, ori ezin dxe ta*
- *ori zelan ezan dan dxakitxeko albokuri eskatu tzatez kontuek eta errozoiek*

## KONTXIDXOPIEN

Udaletxearen azpian.

- *kontridxopien geratu gara txupinazorako*
- *kontridxopien oten diez drogaten*
- *udaletxie erre zanetik kontridxopie baño ezta geratzien*

Kontzeilupean berbatik datorrela uste dugu.

## KOPLA

Tontakeria. Aitzakia.

- *koplak eitzxen ibilltxen da atentziñue deitxuteko*
- *ez ein koplarik ostantzien berton itxiko zaitxut*
- *dana ezanda koplíe, eztau okiñ ezer*

Azkuek ez du zentzu honetaz jaso hitz hau. Bai, ostera, D.A.R.k T. Etxebarriaren **Lexicon** liburuko zita bat aipatuz.

## KOPLOSO / A

Tontakeriak egiten dituen pertsona.

- *ezta bape koplosie, beste bat aren lekuen, iñok auenta bez*
- *zu barriz, koplosiaue zara! Pentsa lekide zeu zarala dana*
- *koploso utse zara txo! Koplak itxi da dxan aurrekoue*

Berba hau **kopla** ren eratorria da, adjektibo bat sortzeko posibilitatea eman du.

## KORDEL FALTAUE

Esanahi ezberdinak hartzen ditu esaldi honek. Batzuetan pertsona trakets bat definitzeko erabili ohi da. Baina nik zalantzazko erreputazioa daukan pertsona definitzeko ere aurkitu dut, eta ez gutxitan.

- *kordel faltauegaz ibiltzen danak, berak pe fama txarra artungo dau*
- *kordel faltaue ezan beti, da zelako mutille atrapa dau*

## KORDU

Etorri, forma inperatiboan, baina tonua ez da aginduzkoa.

- *kordu etzera, berandu da ta*
- *enebada! Amen zeuzer pasako da, kordu ametik!*
- *kordu, kordu, eztot gure or datorren pitxonie ikustie ta*

Hitz honen jatorria gaztelerazko **correr** bada ere, euskarazko **korridu** horren laburpena da.

## KOROSKERA

Itsasontzi baten aurrearen itxura. Baina, askotan, herriko hizkeran, pertsona baten aurpegia edo egitea edo antza izatea da.

- *orrek imiek aitxen koroskerie dako*
- *onek, barriz, aman koroskerie dako*
- *beti gabiltzez koroskerten bille da beti erretuten gariez*

**Korosta** hitzaren eratorria dela esan beharra dago.

## KOROSTA

Bermeon **korosta** itsasontziaren aurrea izan arren, beste leku batzuetan, hau da, beste herri batzuetako arrantzaleen artean, atzeari dagokio.

Gaztelerazko **codaste** dela dirudi hitz honen jatorria: **codaste, madero vertical sobre el extremo de la quilla que sostiene el timón.**

co daste → kodaste → korosta.

**d** → **r** normala den bezala Bermeon. Gero, nomalak diren bokalen irekiera eta asimilazioz iritsi da guk erabiltzen dugun formara.

- *Mutile korostan dau ia sergerorik ikusten dauen*
- *Nebera di dakuz barruen, bata korostan eta bestie popaganien*

## KORRESPONDENTZIDXE

Aire korronea. Ez dauka gaztelerazko posta zentzua.

- *amen etzien korrespondentzi andidxe dau*
- *ziñen atrapa dot au erlaue, korrespondentzidxe on dalakon*
- *zelako korrespondentzidxe dau! Itxizuz atiek!*
- *korrespondentzidzegaz etzeko plantak pe galdu eitxen diez*

Nondik sar zitekeen berba hau zentzu honetaz, ez da erraza jakitea. Hala ere, gaztelerazko **corriente** izango zuela oinarri ez da baztertzekoa. Baina formaz ere, bi hitzak oso urrun daude elkarrengandik.

## KORRI / DXE

Abiadura.

- *ori bapora korri andikue da, baie oingo barridzek dakon korridxe andidxaue da*
- *zelako korridxe erun dot ba, idxe arnasie be galdu*
- *zure korridxe da tortugiena bardiñek*

## KORRI KORRIKUE

Oso arrunta, balio gutxikoa. Askotan ardoa izaten da.

- *au ardaue korri korrikue da, antza dako ta*
- *korri korriko zapatak erosi ezkeru, apurtu biar arin*
- *gaur egun, gauze guztidzek tiez korri korrikuek*
- *metxeruek emon dauie bankuen, baie korri korrikuek tiez*

Lehenengotan edariei zegokien hitz hau, baina orain beste gauzetara ere pasatu da.

## KORRONTA

Ur korronea. Zentzu figuratuan, pertsonen korronea.

- *pertsonan korrontak tabernatan sartzien dizenien, diro asko dauen seiñalie da*
- *korronta nora, ara nuen neu be*
- *gixon korronta dator aurtik bera*

Azkuek ez du jaso, eta D.A.R.k **torrente** zentzuaz jaso du Añibarroren zita bat aipatuz.

## KOSTA / IE

Diru eza. Diruaren krisia.

- *ez zara dxuen afaire ela? Zer, kostie dako zu?*
- *aurten eztue Benidorrera, kostie dako ta*
- *ezin tsut emon dirorik, neuk pe kostie dakot eta*
- *kosta andidxe okin bi dau kotxe barridxe ez erosteko*

## KOSTAZKANIEN

Azken-azkenean. Akabu-akabuan.

- *kostazkanien etor da idxe dana akabata dauela*
- *kostazkanien datortzu a, matsak dxanda gero*

## KRIENTZA

Lotsa. Heziketa.

- *berak krientza bakuek eztau eitxen frakak berantz baja ta beran ingiro guztidxek agiridxen para*
- *zelako krientzie dakozue zuek olan kontestateko?*
- *krientzien arrasarik pe eztakoie oingo imiek*
- *zuk pe bako zu krientzie ba, tapairuz ingiruok*

Gaztelerazko **crianza** hitzetik datorrela ezin ukatu, gero esanahi ezberdinez erabiltzen bada ere.

**crianza** → **kriantza** → **krientza**.

## KRISKO

Lapurtu. Gainera hitz hau eskuaren keinu batez lagundurik joaten da gehienetan.

- *haziendari bakixu zer ein bi dxatzon, krisko!*
- *beran terreno guztidxek ein tsoz krisko aiuntamientuek!*
- *majo eitxen dozue zuek krisko inon dirotik*

## KRISTON SERRIE

Hori eta gainerakoak.

- *etzeko biar danak, errekaduek eta kriston serrie ein biar*
- *ez gixonik, ez dirorik, ez kriston serrarik*

## KUADRA

Topo egin.

- *ez dxast kuadra inoiz beragaz egotie*
- *Bilbora dxun naienen ikusi dot, beragaz kuadra naien denda baten*
- *afaidxe dxaten danok kuadra garizen kasinuen*
- *ez dxatzoie arraiñik kuadra da etzera etor diez denporie baiño lelau*

## KUKURRUKU EIÑ DXE

Pertsona batek edo batzuk, aberasten direnean, botereaz eta harropuzkeriaz jarduten dutenean.

- *zorri ill biztue kukurruku eiñdxe dauenien trixie listo!*
- *kukurruku eiñdxe dakozu a, oiñ ez dxatzo akordaten gosiek illtxen on dana*
- *geldiro! Oiñ kukurruku eiñdxe zauz baie, aztu dxatzu neuk emon bi zan tsutena dirue dxateko?*

## KUNTURRUNIE

Ingurua.

- *kunturrune onetan eztau gaztaiñe arbolarik*
- *bedarrik pez da arbolarik pe eztauen kunturrunie da, atzak baiño eztauz*
- *kunturrune politxe da, baie neuri ez dxast orrenbeste gustaten*

Gaztelerazko **contorno** hitzak beste bat hartu du euskaraz emateko.

**kontomo** → **kontomo** + **une** → **kontornoune** → **kunturrune**.

## KURTZIE IKUSI

Asko sufritu.

- *esango zeuk guzun guztidxe, baie orregaz andriegaz kurtzie ikusi dot*
- *kurtzie ikusi dau arek aregaz imiegaz*

## KURTZIOKO TXILIÑE

Eten barik berba egiten duen pertsona.

- *aren ama kurtzioko txiliñe da, ezta lot.ien goixerik gauera*
- *bestelako kurtzioko txiliñe dako etzien, burue be atrapa eingo tzo*
- *baie egongo zara isillik kurtzioko txiliñe lez zauz de*

## KURUBIDXUE

Liztorra.

- *kurubidxuek pike dost eta min dakot*

- *kurubidxuek aritzatxun... zemat kure!*
- *kurubidxuek erliek baño peligro handidxaue dakoie*

## KURUBIDXUE LEZ

Liztorra legez, burrunbatzen.

- *bestelako kurubidxue zauz or, iñori belarridxe gortuten*
- *kurubidxue lez zabiltzez belarrire gauzek esaten*
- *auntxe be atzetik zauz kurubidxue lez neureitxik edozer esaten*
- *bestelako kurubidxue zauz or, marmurke*

## KUSTIÑUE

Arrazoi. Motibo. Kausa. Hala erem lelo baten antzera erabiltzen da solas baten.

- *ez dot erosi erropie, baie kustiñue da erropie biar dotela Bilbora dxun bi dotelako*
- *kustiñue da ze, etor dizen mutillek kanpokuek dizela da eztakidxiela ez euskeraz ez erderaz*
- *baie ori ezta kustiñue, orreitxik badan... .*

Ia ehun urte da berba hau erabiltzen dena, eta ez dirudi galtzear dagoenik.

## KUTXILLORA DXUEN

Ebaketa bat egitera joan ospitalera.

- *bixidxena dakola ta kutxillora dxun bi dauela esan tso medikuek*
- *ni kutxillora dxun orduko, lelau edozer*
- *ill ezpadozu gure kutxillora derrigorrez dxun bi zu*

## KUTXILLUEK ETA ASKAK

Iskanbila.

- *orreneko etzien gaur be kutxilluek eta askak ezango diez, diro guztidxe gasta dauela enteraten dizenien*
- *kutxilluek eta askak ezan diez Lamerako taberna baten, mutil batek eta enbra batek eñ dxauie pellikan*
- *amen berez armaten diez kutxilluek eta askak*

## L

### LAETRATIK EMON / ARTUN

Atzetik. Popatik.

- *dana ondo, dana ondo, da gero laetratik emon*
- *zer diñozu txo! Dxun adi laetratik artzien*

### LAGUNTZIÑO

Laguntza.

- *zure laguntzinuen begire banau, ondo nau*
- *laguntziñue biar bazu eskatu gero*
- *orrek ezta emoten laguntziñorik pe*
- *nori emon laguntziñue? Iñori bez*

**laguntza** hitzari **-iño** atzizkia itsatsi zaio.

**laguntza** + **iño** → **laguntziño**.

### LAIXARRA

Emakume ederra, bular handien jabea.

- *ze laixarra da ori enbrie*
- *gaztie da baie ondo laixarra da*
- *muziken on danik enbrarik laixarrenagaz eiñ dxot dxantzan*

Zuhaitz batekin konparatuz atera da adjektibo hau. **lizarra** rekin hain zuzen.

### LAMAIDXE

Alua.

- *ez busti lamaidxe alabtxu illekukaz zauzenien*
- *da zelan ongo nai lamaidxe garbitxu barik ba?*
- *karu dako arek beran lamaidxe*
- *da zer, ez da ba karu okitxekue norberan lamaidxe?*

### LAMAIDXEN PUPUE

Zauri txikia. Analogiaz, handia dela pentsatzen den edozein min edo sumina.

- *ezta ezebez, lamaidxen pupue baiño ezta*
- *lamaidxen pupueitxik lotuko zara etzien?*
- *ezta lamaidxen pupue baiño da an dau jauneilnoixuko doloriekaz, komedi-ante ederra da ta*



Esaldi honen jatorria **la Mari** ren **pupa** ote? Ez dakit, Baina batzuk **lau maridxen** pupua dela ere entzun dut. Dena dela, azken honek ez dauka zentzurik esaldiarekin, zeren Bermeon **lamaidxe** emakumearen alua da. Beraz aluan pupua daukala esan daiteke.

## LAMERA

Parke.

- *ikusi zu lamera barridxe?*
- *lamera txikidxen oten diez arek bankuen dxesarritxe*
- *lameratxu bet eingo dauie kanposantuen onduen*
- *baitxe institutuen onduen be beste lamera bat eingo dauie*

Gaur egun **Lamera** izen propio bat da. Bermeoko Lamera nagusiari deitzen zaiona, baina besteak ere **lamerak** dira. Badago **lamera txiki** deritzona ere.

Hitz hau gaztelerazko **alameda** tik sartu da.

**alameda** → **lameda** → **lamera**.

## LAMENEN GOZUE

Mihi gozokoa, engainagarria.

- *zelako lamiñen gozue da ba, edonor engañeten dau beran miñegaz*
- *ba lamiñen gozue badan be, ni enau engaileko*
- *beran lamiñen gozuegaz diro guztidzek enbarka ein txuz arek*

## LAMINTXUE

*Lamia* ren. Beharbada tonua apur bat leuntzeko egina.

- *lamintxue dozu ta danak engañeten txua beran miñegaz*
- *lamintxue bada, nigaz eztako zeregiñik*
- *beran lamintxuen miñegaz aitxe ta ama be enboliketa dakoz*

## LAMIÑ / E

Berba asko egiten duena.

- *lamiñe da, beti dau bera berbetan*
- *gure imie lamiñ utse da, urte bi baiño eztakoz da berbetan daki...*
- *lamiñe lez dakozu egun santo guztidxen, berba ta berba*

**Lamia** hitzaren aldaera da. Hitzegiek ez dute jaso hitz hori zentzu horretaz.

## LAMIÑEN BIZARRA

Pertsona berbaduna.

- *auntxe be an dau a, lamiñen bizarra, artazidxe zorrotzen*
- *bai, lamiñen bizar utze dozu, kantsa be ezta eitxen berbetan*
- *zelako lamiñen bizarra zara ba, ia miñe noix ebaitzen tzuen isillik oteko*

## LANBASA LAKUE

Garbiketa gaintetik egiten duen pertsona.

- *eintxuz biarrak lanbasa lez, da guzango dau dirue emotie*
- *lanbasa lakue naiela diñozu? Zeu zara zu lanbasa da lanbasa lakue*
- *gorputze be lanbasa lakue dako zu te, biarrak pe lanbasa lez ein biar*

## LANBERON GITARRIE

Lelo baten moduan erabiltzen den esaldia.

- *orrek gauze guztidzek erosi biduz? Dxo lanberon gitarrie*
- *ze eitxen gauz ba? Dxo lanberon gitarrie ondiño goixetik da ta*
- *ama, zer ekarko dau aitxek itxosotik? Lanberon gitarrie*

## LANBERONAK

Gauza asko izan daitezke. Barrabilak (gehienetan). Kontuak. Gezurrak. Eta abar.

- *arraiñe ekar dauielat? Lanberonak!*
- *lanberonak dxoko duz amen, olan baduez gauzek*
- *lanberonak, zeuriek eta arenak, danak alda batera*

## LANGANIKIE

Alua.

- *zer eitxen on zara ba? Zera! Zeure langanikie garbitxuten*
- *zer dakazu! Zeure langanikie, nirie garbitxute dau te*
- *langanikie usteldute dako orrek, iñok ikutu barik...*

Emakumearen genitalak definitzeko erabiltzen den hitzetariko bat.

## LANPROIEN BEGIDXEK

Begi lizunak. Lanproia arrain bat da. Geldi egoten da, adi-adi, bistarik kendu barik. Konparazioan gizon baten begirada lizuna da.

- *beti egoten da a gizona Laiden beran lanproien begidukaz enbrak dxan biarreko*
- *benetan dakoz lanproien begidxek berak agure zantarrak*

## LANTZA

Bota. Jaurti.

- *eskue lantzaten bastazu zeuk atara kontuek*
- *ori esan tsonien askorie lantza ta burue igiri tso*
- *arpeire lantza tsazu ardaue? Laster lantzako tsu berak pe zeuzer*
- *alako baten, okin txuzen sagar guztidzek lantza tsoz*

Gaztelerazko **lanzar** aditzetik zuzenean hartuta dago.

**lanzar** → **lantza**.

## LANTZADAK

Batela olatuen gainean bultzatua izatea. Gaur eguneko surflariak ere horrela deitu beharko liokete taulan olatu gainean joateari.

- *bestela ibilltxen garizen Artzan lantzadatan batelien olatuen ganiien*
- *mundekako surfistek pe majo ibilltxen diez lantzadatan*
- *baitxe Lagan be, ikusten dotez nik imiek lantzadatan barre masie eitxen*

## LANTZIMEÑETAN

Noizbehinka.

- *lantzimerietan damutu eiuzen dxast dxuneidxe*
- *beti ez, baie lantzimeñetan Gernikera dxuten nai erosten*
- *lantzimeñetan enpanada utse zara*

**lantzean behin** da hitz honen jatorria.

**lantzean bein + etan** → **lantzien beinetan** → **lantzimeñetan**.

## LAPIKO TXIKIDXE

Albiste, gertakizun bat edo sekretu bat gordetzen ez dakien pensona.

- *ezin dotsut ezer esan lapiko txikidxe dako zu zuk eta*
- *zeuk dxakin dxo lapiko txikidxe dakona, zeri konta areri*

## LAPURREIDXETAN

Lapurretan.

- *lapurreidxetan atrapa dauie denda baten*
- *gaur jentie aurretan dabill, eztaue lez dirorik ba lapurreidxetan*
- *auntzek be au imie lapurreidxetan dabill, amari diruek ostuten*

## LAPURREIDXETIE

Lapurreta.

- *ainbeste lekotan eñ dxaue lapurreidxetak*
- *gaur egun lapurreidxetie normala da, leku guztidxetan ostuten dotsue*

## LAPURTI

Lapurra.

- *ori karnazerue lapurti utse da, begidxe be ostu eitxen dau*
- *lapurtidxek danak, denderuek, karnazeruek, pintoreruek...*

## LARDXAKIÑE

Asko jakina.

- *lardxakiñe zarana bakixu; da ez dxast gustaten ori*
- *ezu eingo zeuk kuzune, lardxakiñe bazara be*
- *zure lagune lardxakiñ utse da gero*
- *nik lardxakinek ezin dxotez traga*

## LARGA BERTON!

Sinesgaitza dela adierazten du.

- *larga berton, arek esan txuzenak guzurrek diez da*

## LARGURO

Neurria edo pisua ondo jota.

- *larguro bota esnie gero, karu da ta!*
- *arek Gernikeko gitaniak larguro meiduten txuz telak*
- *larguro larguro ez, baie bueno, largurotxu emoten dauie bestiek pe*

## LARRIDXE

Nazkantea. Enpagua ematekoa.

- *ze larridxe da bera mutille ba, gonbitxoka imitxen zaitxuz*
- *larridxe, benetako larridxe, Julio Iglesias, baie ze Jarridxe da ba*
- *ori bakarrik ez, geure kaleko a morroie, uliek enpiketa eruten dauena eztakixu? A bai dala larridxe*

## LARRITXU

Nazkatu.

- *egidxe da, larritxu larritxute itxitzen zaitruz beran kantakaz*
- *ara! Larritxu nau beran txiste berdiekaz, dxunadi ortik*

## LARROSUBOI / E

Sugea.

- *metro biko larrosuboie ikusi dot*
- *amen ezta metro biko larrosuboirik*
- *larrosuboiek bedar andidxe dauen lekuen oten diez*

Hitz konposatu hau, **larru** + **suge** hitzez osatzen da.

**larrusugea** → **larrusubea** → **larrosuboie**.

Hitz hau gehiago erabiltzen da auzoetan, zeren herri barruan narrasti guztiei **suboie** deitzen baitzaie.

## LASKITXU

Erdizka egin gauzak. Erdizka, ondo egin barik utzi.

- *biarrak laskitxute itxi dotez, da gero akaba biko tez*
- *au dxatekue zelan itxi zu laskitxute ba?*
- *beti itxitzen dau orrek okelie laskitxute*
- *gauien akaba kot au abrigue bidzar dxasteko, erdi laslitxute dau te*
- *biarrak eitxeko esan, da bertan itxi laskitxute, ondo ein barik*

Azkuek eta Kintanak jaso dute hitz hau, baina ez esanahia, hau ezberdina baita bietan.

## LASTATIDXE

Lasto gordetzen den lekua.

- *lastatidxen lasto tartien elegante eitxen da lo*
- *lastatidxen lo? Dauzen beste moskitxogaz, astuen boluek!*

## LAU DOBLE EINDXE

Ezertarako gogo barik.

- *bertan geratu garizen lau doble eiñdxe, dxesarritxe kantzata, biarrak akaba ta gero*
- *lau doble eiñdxe zauz, ze ein dxatzu ba?*
- *egidxe, olako golpe bat artun de edonor ongo lekide lau doble eiñdxe*

## LEBA LEBA

Geldiro, haina hasten doana, gorantz doana.

- *onek porruek leba leba datoz*
- *zelan dau ime trikidxe ba ? Badator leba leba*
- *gure neskatue eskolan leba leba due ikasten*
- *au mutille gero, arbolie lez due gora, leba leba*

Azkuek jaso du hitz hau, baina zentzua **a pulso** jartzen du. Kintanak, ostera, **ir creciendo** dela dio.

## LEBER LEBER

Energiaz, bizitasunez ibili edo egin.

- *neskatillek leber leber dabiltzuz gaur arratñ asko dakarrie baporak eta*
- *gure imiek leber leber dabiltzez eskolako biarrak eitxen*
- *ia andrak! leber leber, ariñ akabateko eskuartekue*
- *leber leber ibiltzen banai, ariñ eingo tez etzeko biarrak*

## LEGOIE

1. Gauzak ondo egiten duena. Adimen edo indar handikoa.

- *Madalenen lobie legoie da txo! Burgorarte korridxen juten da!*
- *a imie legoie da, eskolan be dana ikasten dau berez*
- *legoie lako morroie da txo, esko bategaz altza dau kotxie*

2. Mutil galanta.

- *ai! zelako mutille da ba, legoie lako mutille*
- *a bada legoie, ni nai tigrie*

Adjektiboa sortzeko eta konparazioak egiteko piztiarik indartsuenaren izena erabiltzen da.

## LEIXIBIE

Bustita. Blai eginda. Bigunduta.

- *bota dauen beste eurigaz, leixibie artunde etor gariez*
- *bestelako leixibie artunde zatozie, non ibilli zarie ba?*
- *nondik gatozen? Ez zu ikusten biarren on garana la? Zuk ezu atrapako leixibe andirik etzien onda*
- *onek arraiñek leixibetute dauz, non okin zuz ba?*

## LEJIATAKO LASTUE

Ile horia duena.

- *berak lejiatako lastuek ekar dostez arrotzak*
- *ez eidrona esan lejiatako lastue koitxadueri. Ez tala? Aren uliek lejiatan sartuneikuen antza eztako ba?*

## LEKUTEKO AMAN ETZIEN

Oso urrun.

- *lekuteko aman etzien dau bera baserridxe, da ganera oiñez dxun biar*
- *eztakot neuk amesik oiñez dxuteko lekuteko aman etzien badau baserri ori*
- *nok esan dau lekuteko aman etzien dauela bera plaidxie, urre badauen!*

## LELAU

Lehenengo.

- *dirue gure bazu emotie lelau ekau moso bat*
- *lelau dxun dan korredorie dxeusi eiñ dxe ta azkaningo allega da*
- *lelau Bilbora nue ta gero Dolostire*
- *zeuk esan bi zu lelau nok esan tsun*
- *lclautxuau etorten bazara obeto*

## LELAU PLAZAKO ELIXERA

Betetuko ez den zerbaiten promesa egiten denean erabilitako esaldia da gehienetan.

- *zeuk eingo zula ezkontzako erropie? Zeu lelau plazako elixera*
- *orrek patroiek arte bat barridzegaz iñok paiño arrain geidxau atrapako dauela? Bera lelau plazako elixera*

## LENGUNIEN

Aurreko egun baten.

- *lengunien esan dost bidzar etorko dala*
- *ikusi zaitxut lengunien, Lameratik pasaten*
- *lengunien pasa dana dxakin zu?*
- *zer pasa da lengunien ba?*
- *lengunien ezetu dotezen mutillekaz on gariez*

Hitz hau **lehengo** + **egunean** hitzen konposizioa da, **leengo egunean** → **lengogunien** → **lengunien**.

## LEPUE DXAN

Zigortu nahia adierazten du.

- *ezpazauz esan tzuten ordureko, lepue dxango tzut*
- *lepue dxango tzola esan tzo ezta? Ba, ez fidxetie dako askorik*

## LIBRE

Erditu. Umea izan.

- *antziñe andrak kofradire juten zien libreten*
- *urek bota dauz, eta arrapaladan erun dauie ospitalera libreteko*
- *emagiñek diño, egun gitxi falda datsoz libreteko, laster familid:zen beste bat gehid:xaui izengo gariez!*

## LIGORRA

Lehor. Siku. Pertsonen izaerari ere aplikatua.

- *au okelie dau ligor da eziñ dxe dxan*
- *benetako ligorra da imientzat, eztotsoie itxitzen kalera urteten be*
- *ez zaitzez ezan aiñ ligorra, ostantzien bakanik geratu bi zu*
- *ligortute dauz onek ogid:zek*

Hitz hau, **legor** hitzaren aldaera da, baina zentzuz aldatu egiten da. Azkuek ez du jaso forma hau, baina bai D.A.R.k. Honek ere ez du zentzu berbera, **seco** eta **poco fervoroso** zentzuaz baizik.

## LIXIE LEZ AZALA KENDU

Gehienetan andrazkoen artean erabilitako esaldia da. Haserretzen direnean egindako mehatxua da.

- *entzuten badot beste berba erdi bat esan zule nireit:xi, lixie lez azala kenduko tzut*
- *lixie legez azala kenduko tzola esan batzo, seguru eingo tzona*
- *lixie lez azala kentzieko asko bi de gero!*

## LIXIE LEZ IGIRI

Haserrearen ondorioz esaten den mehatxua.

- *esaten bastazu geid:xaui olakorik, lixie lez igiriko zaitxut*
- *zuk igiri lixie lez? Eztakozu kapazidaderik ori eitxeko*
- *lixie lez igiri bakarrik ez, azala be laster kenduko lekitzut*

## LO EIÑ

Egitekoa burutuko denaren zalantzak edo mesfidantza.

- *zer pentsaten zu, nik eingo tzutela biarra? Ein lo, lo ein*
- *arek esan dau gugaz etorko dala eskursiñuen? Lo eitxiedako!*
- *lo ein, lo, enai mobiko ametik eta, neure lekue da lez, enai mobiko*
- *nire begire badau esan lo eitxeko, enai dxungo ta*

## LO TA SATS

Lo sakonean egon.



- *gau guztidxen parrandan ibillitxe, gero egun guztidxen lo ta sats*
- *lo ta sats dau ondiño nire andrie, neuk in bi zan tzatez, errekaduek pe*
- *domekie etorteko poza okitxen dot lo ta sats eitxeko*

## LODITXONA

Lodikotea, baina emakumea.

- *ze lodi dau ezta? Ez pentsa, loditxonie da baie ez orrenbeste*
- *benetako loditxonie Miren da, beran dieta eta guzti*
- *aurtengo misek eztau balidxo mise ezateko, apurtxu bet lodi dau, loditxonie da*

## LOGURIEK ERRETEN

Logura handia.

- *loguriek erreten nau da oire nuen*
- *balora dakozue, onek ime ternuek loguriek erreten okitxie kalien, onetan orduetan?*

## LOIDXARTZIKO

Itsasontzietan lanean aritzean erabiltzen duten fraka.

- *loidxartzikuek itxi dotez etzien da oraiñ frakak loitxuko dotez*
- *loidxartzikoko barridzek ein bi dostazu, onek apurtute dauz te*
- *orrek loidxartzikuek ondo dauz ondiño*
- *ama! loidxartzikoko garbidzek imiñi otzaran baporera eruteko*

Hitz honen konposizioa, **loia artzekoa** da.

**loia artzeko** → **loidxe artziko** → **loidxartziko**.

Izen bihurturik agertzen da.

## LOIDXE

Etxabea. Itsasontzien tresneria guztia gordetzen den lekua.

- *loidxen sartun bide artie; aurreitxik imin bide arratoien benenue*
- *loidxeko giltze mutilleri eskatu*
- *ikus! loidxen badauz bi duzen otzarak*
- *patroiek esan dau neskatillek druteko loidxie garbitxuten*

Azkuek Mundakarako jartzen du hitz hau, baina Bermeon oso normala da hitz hori.

## LOIORRA

Arin edo berez zikintzen dena.

- *eskatza zuridxe imingo dozule? Eztakixu zuridxe loiorra dala?*
- *kolore argidzek danak tiez loiorrak*
- *neuk dakotez fraka batzuk total loiorrak dizenak, da ez tiez argidzek gero*

## LOKUKO

Lo laburra. Mandoaren loa deritzona.

- *banue oire lokuko bat eitxen*
- *ara, kantsata nau, baie lokuko bat eitxen badot barridxe lez geratuko nai*
- *igual da goidxe badator be, ni ez nue lokukue ein barik*

Azkuek jaso du hitz hau, baina zentzua **sueño ligero** da eta Bermeon denbora laburreko loari dagokio, beraz ordu laurdeneko loa gogorra izan daiteke. Erabilera zabala dauka.

## LORO / UE

Kuxkuxero. Begiluze.

- *an dau a lorue, laster dxungo da esaten non egon garizen*
- *ontzek pe bentanako lorue aur dau, eztau orrek dxakin bako gauzerik*
- *zu, lorue, zer zauz begire ba?*

## LOSA / IE

Espaloia.

- *losien eskiñie dxo ta burue igiri dau*
- *losa ganera idxen, kotziek atrapa barik*
- *losa barridzek imitzen dauz kale guztidxetan*
- *saka ein tso ta losa ganera dxeusi de, konorte barik*
- *losatik ez urten ezetarako be*

## LOSUMUSTUEN

Erdi lo.

- *losumustuen dxun nai kumunera ta ormie dxo dot*
- *goixetik dxo dost erlojuek, da kalera be losumustuen urten dot*
- *losumustuen banau be, eztot entzuten ezer*
- *plaidxen be lo eitxen dauie arek, da gero losumustuen dxuten diez uretara, ganiën dakoien enpanadie kentziko*

## LOTAN-LOTAN

Lozorroan.

- *lotan-lotan on garizen bertan estaziñuen trenak urten arte*
- *ziñera dxuen da zantarra ezan dalez, lotan-lotan bertan tentelak lez on garizen*

## LOTSA

Errespetua.

- *zelako lotsie da emoten tsuena zuei amak eta aitzek*
- *lotsa bako bat da, edukaziño bakue, eztaki non zer ein bidauen be*
- *eskolan ze lotsa emoten tsoien eztañ nik*
- *lotsa galduiko imiek, edozelan kontestaten amari!*

Azkuek ez du jaso definizio honetaz, baina bai D.A.R.k **lotsa** hitzaren VII. definizioan, Bermeori dagokiola esanez.

## LOTU

Gelditu. Geratu.

- *txoridxe arbolien errama baten lotu da*
- *ez lotu or, dxun ein bi du te*
- *badaitx, ara bazuez bertan lotuko zarana*
- *iñon lotu barik dxuen etzera*
- *kotxie ezta lotzien Bilborarte*

Azkuek jaso du hitz hau, erabilera murrizaz bada ere, baina ez du Bermeo aipatzen, bai, ostera, Mundaka eta Gernika. Bermeon, ordea, **geratu** edo **gelditu** erabiltzen badira ere, horien ordez **lotu** erabiltzea da normalena.

## LUKIDXE

Azeria.

- *Almiken Jontxun etxetik lukidxek ibiltzen diez olluek topaten*

## LUMETXA

Normalean arropetan geratzen diren ileak.

- *lumetzaz beterik dakot berau jersie, eztaitx noren onduen egon naien*
- *lumetzak kentzioko eztau ezer ba*
- *nik okiñ dxot aulako zepillo garratz bat lumetzak kentzioko balidxo zan dauena*

## LUPUE BAIÑO GAZIDXAU

Oso gazi.

- *eurek antxobak lupue baiño gazidxau on dizelez, gero urek edaten eidxo*
- *makallue be batzutan lupue lez oten da, baie dxan eitxen du*

## LURRIEN IKUSI BE EZTIZENAK EITXEN

Oso txikiak.

- *zelako piperrak dakozuz ba, lurrien ikusi be eztizenak eitxen*
- *ime txarri guztidzek, lurrien ikusi be eztizenak eitxen, aurrek dabiltzuz kotxiekaz*

## LUZE ME TA BISTOSUE

Luzea, mehea eta dirdaitsua, baina nabarmena. Edozertan erabilia, bana pertsonekin ere. Gauza edo pertsonak meheak direla, eta askotan fruitu edo onura gabekoak adierazteko erabilia.

- *kotxie luze me ta bistosue, baie korriten alijandro*
- *sagar arbolie luze meie ta bistosue, baie sagarrik ez*
- *ze argala da ori mutille. Bai, luze me ta bistosue*

## LUZIDU

Behar bezain besterako eman.

- *ainbeste diro paga ta luzidu be ez okeliek*
- *diro pillo bat pagaiko eraztunek luzidu be eztau eitxen*
- *aitxen partilliek luzidu bez, auri da pasaten dana*
- *gauze gitxi erositxe be asko luziten dau*

Gaztelerazko **lucir** aditzetik hartua da eta aditz funtzioa betetzen du, zentzua berdina ez bada ere.

**lucir** → **luzir** + **du** → **luzidu**.

## LUZIEN

Ur azpitik igerian.

- *nik, luzien Izarorarte uger*
- *txo, afronto, zuk luzien ronpiolaserarte bez*
- *konkurso bat eingu zeñek obien luzien*

## LUZIMENTO / UE

Behar bezain besterako eman. Izen funtzioan agertzen da.

- *onek diruek eztako luzimento andirik*
- *orrek zapatak luzimento andikuek tiez*
- *luzimentoko belarrikuek erosi arren, eztotez imitxen*

**lucir** → **luzir** + **-miento** (gaztelerazko atzizkia) → **luzimento** eman du.

## M

### MAHASTIDXEN KAKA ETA MAHATSIK EZ

Zerbait uste ez duzun moduan aurkitzen duzunean.

- *neberie jatekugaz gorarte itzi, eta entera orduko ime txirridxek dana jan, mahastidxen kaka eta mahatsik ez!*
- *solomuek prijidu dotez parrandatik bueltan natorrenerako ta arrebie lelau allega, eta danak jan! Mahastidxen kaka eta mahatsik ez!*

Guztia amaitu eta gero iristea.

- *Udaletxeko plenuen Guzan-ekuek mahastidxe*

### MAJAJAI

Bai zera!

- *zuk eingo dozule arenadurie? Majajai zuri*
- *dirue emongostela? Bai! Majajai! Ori eztau sinñistuten berak pe*
- *baietz ba! Majajai! Ez pentsatie dako orregaz engañoeko nauenik*

### MAJARIK

Dotore.

- *an dxun dxatzu a majarik dxantzitze Lamerara*
- *neuri be gustaten dxast majarik ibiltxie*
- *ezara dxazten majarik ela?*
- *zer ba? Beti dxantzi bi de majarik kalera urteteko ela?*
- *majarik dxantzi arren ni beti nai betikue*

Gaztelerazko **majo** = **ataviado**, **lujoso** hitzetik hartuta dagoela dirudi, zentzuari begiratuta behintzat. Gero femininora pasatu da. Kasu honetan, substantiboa, adberbio bezala erabili izan da. Femeninoan erabiltzen da beti, nahiz eta gizonezkoei ere aplikatu.

### MAJAZALE / IE

Ondo jantzita edo soineko dotoreak gustatzen zaizkien pertsonak, gizonak eta emakumeak.

- *ni enai ezan majazalie, baie noizik bein gustaten dxast ondo dxaztie*
- *neure gizona be total majazalie dozu*
- *maja zalie banai, baie erropiek takon dirugaz nok erosi?*
- *gure aitxe beti ezan da majazalie*
- *zeu be bazara zu majazabe, ezetz badiñozu zu be*

## MAJO

Ondo sarkasmoz esana, peioratibo edo protesta tonuaz askotan.

- *majo geratu da pintxe zun zatidxe*
- *eztot pentsa olan geratuko danik, baie majo geratu da*
- *or on dan saldie zer ein zu ba, bota? Majo! Oin zer dxango du ba?*
- *maaajo! Eztala etorko esan dau? Da oin zer ein bi du*

## MAKALLO SIKUE

Sikatuta. Konparazioan.

- *zemat argaldu de zure lagune, makallo sikue lez dau*
- *egidxe da, sikatute geratu da opera dauienik eta ona, makallo sikuen antza dako*

## MAKATZA

1. Gizon galanta, itxurosoa. Berriro fruta baten izena, adjektibo bat sortzeko.

- *zemat gustaten dxast berori mutille ba, makatza da ta*
- *atzoko pelikuleko mutille bai ezan dala makatza*
- *zeure nebie be eztau txarto e? A be makatza bada ta*
- *niri Paul Newman gustaten dxast, makatza lez dau ori be ta*
- *ori zarra da, baie Robert Redford bai dauela makatza lez*

2. Mozkorra.

- *atzo zelako makatza hartun zan dun txosnatan!*
- *atzoko makatzagaz gaur bero-bero nau!*
- *zelako makatzak hartunguz andramaidxetan! kankankan!*

## MAKIÑE GUZTIDXEN

Arin. Azkar.

- *entera danien, berak ikusi gure dauen pelikulie dauzela Bilbon emoten, makiñe guztidxen dxun da*
- *nora dator korridxen ba, makiñe guztidxen dator da*
- *amen guez gu makiñe guztidxen Talara, an zer dauen ikusten*

## MALBAKUE

Malezia gabekoa. Erdi tontoa.

- *malbako mutillegaz ezkondu de da oiñ beitu imiek pe zelakuek tizen*
- *malbakue da au imie, eztau ikusten iñon be txarrik*
- *malbakue dala bai pentsa, orrek katoie daki gero*

## MALDEZIÑUE

Madarikazioa.

- *ori atsue txarraue da, beti dau maldeziñuek botaten*
- *orrek bakarrik ez, beste askok dakidxie maldeziñuek botaten*
- *alabatxi, eztoz kure beragaz kontorik; maldeziñue bota dost niri arek*
- *bai, neure laguneri be maldeziñue maldeziñuen ganien bota tso*

## MALDEZIÑURTIKE

Madarikazioak botatzen.

- *zelako disgustue okiñ dxu ba, gure goiko andrigaz da berba batetik bestera ez dxasku asten maldeziñurtike*
- *lengunien be alan dxun dxatzo beran aitziri, maldeziñurtike*
- *bai maldeziñurtike ibilltzen danan famie dako*

Hitz hau oso zaharra da. Nik neure amumari entzunda daukat. Nire amamak, gaur, ehun eta hogeita hamar une baino gehiago izango zituen.

## MALKISTE

Pertsonen aurrean txarto geratu.

Gaztelerazko **malquisto** bera dugu. Baina oso erabilia denez, horregatik sartu da.

- *ara, ni enue ezer esaten, eztoz kure malkiste iñogaz da*
- *iñori mesede bat eitxitzik, norbera lotu malkisteta*
- *ez malkiste nireitrik alabatxu, ni neu konponduko naitxe*
- *malkisteteten bazara gero etzue beituten arpire be*

## MALMOSA

Pertsona oso trankila, oso ona, baina energia gabekoa.

- *zure nebie malmosa da, eztau ernegaten iru txiki be*
- *malmosa zara alabatxi, eztakixu edonok burleko tsune olan bazuez?*
- *klaro dana malmosa, oneidxe ezatie ezta ona*
- *malmosa be malmosa da gero*

## MAMA

Oso ondo, batez ere itsasoko urari.

- *aritzatxun ure mama!*



## MAMAIXELA

Albotik kendu ere egiten ez den laguntzailea. Zentzu peioratiboan beti.

- *bestelako mamaixela daruzu albuena. Bai, neure lagune da*
- *nigaz ez etorri eztoz biar mamaixelik eta*
- *an dxun dxatzu a, mamaixelagaz Lamerara. Nogaz? Beran aiztiegaz*
- *mamaixelagaz dxutekutan etzien lotuko nai*

Hitz hau, frantseseko **mademoiselle** tik sartu da.

**mademoiselle** → **mamuaselle** → **mamaselle** → **mamaixela**.

**ua** → **a** eman du. Eta arraroa bada ere **ll** sinplifikatu egin da. **s**, normala den bezala, palatalizatu egin da eta horren ondorioz, **i** bat garatu.

## MAMALA

Malezia gabeko edo gutxiko pertsona.

- *mamalie ezatearren pasaten dxatzoz orrek gauzek*
- *mamala mamala utse zara, egunen baten, baten batek, zeure lepotik eingo dau barre*
- *orañ ez ein negarrik, mamalie bazara nok bi tsu*
- *mamalanekue da, ta ze eingo tsagu ba*

## MAMAUE

Mamua.

- *ein lo laztana, ostantzien mamaue etorko da*
- *gauzez mamauek ibilltzen dizela esaten dauie*
- *mamauek dizela esan bai, baie kontrabandistek majo dabiltzez*

## MANA

Mania.

- *mana dako beragaz erropigaz, kendu be eztau eitxen soiñetik*
- *mana okiñ beragaz mutillegaz, da gero txarto urten tso*
- *bertara dxuten dakoza mana ezta? Ba ez zara dxungo*
- *manak takoz beragaz enbrigaz, ezta ba politxe be ba*

Azken boladan **manije** sartu den arren, erabilera zabala dauka oraindino.

## MANDA / IE

1. Parte. Aldea.

- *ezkerreko mandatik tator aixie*
- *aurra mandara dxuen da ikusi an badau nire lagune*

- *azpiko mandakue da kendu bi dena*
- *okerreko mandarantz eĩñ dxau, ez zauen dxun bi zan arantz da*
- *goiko mandan dau elixie*

Azkuek ez du jaso, baina D.A.R.k. Mundakako Otxularen **Bertolda** aipatzen du. Hitz honek eman dituen deribazioak dira frogatuta, Bermeon nolako erabilera zabala duen.

2. Alde batera jo edo egin. Inklinatu.

- *orrek etziek mandie artun dau, da ori peligrasue da*
- *bai, manda andidxe dako, noiz dxeusiko dau te*
- *mandie artzien badau eztaix zer pasako dan*
- *zelako manda garaue dako orrek gixonak*
- *mandara eĩñdxe dau zubidxe*

## MANDANGA

Mozkorra. Nagitasun. Lohasma.

- *okiñ dxauen mandangiegaz aurrekue be eztau ikusten ezan*
- *da bakanik on naielez, itxosopeteko mandangie atrapa dot*
- *diro barik ezta atrapatzen atrapa dozun mandangie*
- *nik iñoiz be eztot okiit mandangarik*

## MANDARA EIÑ

Joera izan.

- *ori len geutarra ezan da, baie oiñ mandara eĩñdxe dau*
- *gauzek txarto ikusten dizenien mandara eitxen da*
- *auri kuadrue be ez zu ikusten, atzo geure begire on da, da oraiñ mandara eĩñ dxau*

## MANDAZ

Inklinatuta.

- *mandaz dau ori arbolie*
- *imin zun kuadrue mandaz imin zu*
- *kuidadue okiñ mandaz dxun barik*
- *mandaz dxuten bazara errekarra dxeusiko zara*

## MANDAZ MANDAZKA

Albo-alboka joan.

- *kotxiri bolantie apurtu dxatzonien mandaz mandazka dxun da ta azkanien arbolie dxo dau*
- *zure gizona ikusi dot mandaz mandazka itxosopeteko berdelagaz*

- *enebada! Mandaz mandazka nabill, zer dakot ba?*
- *bapora mandaz mandazka ibill dxe lez, marie ein nai*

## MANDAZKADA

Balantzada.

- *baporak eñ dxauen mandazkadiégaz jente guztidxe manda batera dxun da ta idxe buelta*
- *mandazkadiégaz beragaz eskillaratatik dxekusi de*
- *zelan zauz or punte punten ba? Mandazkada bategaz andik bera zuez*
- *mandazkada bat eñ ezkeru tartera guztidxek dxeusiko diez*

Ikusten denez, funtzio ugaritan erabiltzen da hitz hau.

## MANDUEN BESTEKUE

Oso handia.

- *ormie dxota, manduen besteko turtulue eñ dxast bekokidzen*
- *ori manduen besteko orrotza eztot kure*
- *manduen besteko zapatak erosi tzo, da orain etxuz gure ibilli*
- *zer diño beronek pa, manduen besteko lapak atrapa itxuz de*

## MANDUEN LUE

Lo kuluxka. Loarina. Bermeon lokukoa ere esaten da.

- *gaupasa eñ eta gero, etzera dxun barik, Lamerako bankuen manduen lue eñdxe, sokamuturrera*
- *gure aman luek manduen luek ezaten diez*
- *manduen lue sofán eitzen da, baie obeto oien*

## MANDUEN UZKIDXE

Beti muturtuta edo ezatsegina den pertsona.

- *gixona dakozu manduen uzkidxe, ezin dxatzo ezer esan, ensegida paraten da taketien*
- *manduen uzkidxe lako dependientak tauz or dendan*
- *zu zara manduen uzkidxe, ezta ongo munduen zu baino desagradabliaurik*

## MANDXUNGIE

Antxoá harrapatzeko sistema bat. Gaur ez da erabiltzen, baina hitza hor geratu da beste egoera batzuei aplikaturik, esaterako:

Negozio zikinak, argi ez dauden ekintzak edo gona kontuetarako aplikatua.

- *iñok eztaki zelako mandxungie dabillen orrenbeste diro irebazteko*

- *an dabilizu a, mandxungen, beran gremidxoako enbrakaz*
- *mandxungetan sartun ezkeron ondo dau guztireko*
- *mandxungerik ezpadako igarri eitzen dxatzo*

Sistema horretan antxoa guztiz **masa** eginda etortzen zenez horregatik zentzu hori.

## MANEJA

Maneiatu.

- *orregaz kotxiegaz enai maneiaten ondo*
- *ezin maneja ibill dxen da azkanien bertan itxi dau lapikue*
- *erropie dxesten maneja bez, da gizonari esan tsat imitzeko*
- *au erlojue eruen, da ezpazara maneiaten atzera ekarri*

Argi dago gaztelarazko **manejar** aditzetik sartuta dagoela.

**manejar** → **maneja**.

## MANEJUE

Ganora. Trebetasuna.

- *zelako maneje dako biarren ba, eztau alakorik*
- *ba beran aiztiak eztao manejo andirik, ata kontu lo dauela*
- *maneje artun, aurrien dakozune eitxeko*
- *eskuetan badakot maneje, baie eztost urteten ondo*

## MANGA

1. Jipoitu. Jo.

- *manga dau imie da negarrez bota dau etzera*
- *barruko gizonak eñ dxau mutille manga, etsolako ein errekadue*
- *lengunien be manga manga eñ dxau*

2. Nekatu.

- *eñ dxoten beste biarregaz mangata nau*
- *eske, manga eitzen da personie orrek biarrak eitzen*
- *ganera mangata nauenien eztot eitzen lorik pe*

Nondik sartu den hitz hau ez dago argi. Baliteke, gaztelarazko **mangonada**, **golpe que se da con el brazo y manga** hitzetik deribatzea. Hau hipotesi bat, besterik ez da.

**mangonada** → **mangada** → **manga**.

## MANIE

Mugitu.

- *manie zaitzez berandu de ta*
- *baie manie be ezta eitxen gero*
- *ezpazara manieten bertan itxiko zaitzut*
- *manie ein bi nai orduak berez datoz ta*

Honaino aditzaren funtzioan erabili da. Baina izenaren funtzioaz ere erabiltzen da.

## MANIOBROSUE

Maniobra liandia duen itsasontzia da, baina gero katxeetara eta beste ibilgailu batzuetan ere pasatu da.

- *ori bapora maniobrosue da*
- *nirelagunen kotxie torpie da, ezta bape maniobrosue*
- *automotorrak maniobrosuek ezaten diez*
- *ba karruek ez tiez ezaten maniobrosuek, geidxenak beintzat*

## MANIUE

Higidura. Mugimendua.

- *maniue artun euzera dxun bi du te*
- *maniorik ezpadau eziñ dxe eiñ ezer*
- *maniue ibill dxauie ertzaiñnek drogadunek atrapatzen*

Aipatu dugun **manejo** berbera da baina zentzua aldatzean, hitza bera ere aldatu egin da, bai grafiaz, bai ahoskeran.

## MANTARRA

Balio gabeko gauza. Gutxietsia. Despektiboan sarri.

- *zer diñoie ime mantarrok, edade barik goixeko orduetan kalien oten*
- *dxun nai plazara, baie ezta on ezebe, sagar mantar batzuk eta gauzeztizen azak baiño eztot ikusi*
- *ori telie ez erosi, mantar mantarra da ta*
- *zeuzer dalakuen erosi dot erropie ta mantarrak urten dost*

## MANTEKAUE

Izozkia.

- *erdu Pereiranera mantekaue jaten*
- *uden askatan jaten duz mantekauek*
- *neureko mantekaurik gozuen limoiena da*

## MANUEN

1. Ahul dagoen edo dabilen pertsona, animalia edo gauza.

- *ori mutille geixorik tau antza, manuen dabill dxe*
- *manieko zara alabaxi manuen zabiltzez da*
- *euridxe manuen manuen botaten dau*
- *pausuek pe manuen eitxen txuz*

2. Ondo lotu gabe dagoen gauza.

- *au txikota manuen dau, ondo ezpazu amarraten laster erungo dau arbolie aixiek*

## MANUKUE

Energia gabeko pertsona edo animalia.

- *gure esnedunek astue dako manukue*
- *bera be manukue da ta*
- *gaurko gaztiek manukuek tie, ezeren pentsamento barik bixi diez*
- *manuko txorrue dau iturridxen*

## MARE

Arrantza karga ona edo txarra.

- *mare ona bakarrie, San Juanera dxungo gariez, baie txarra badan be dxun ingo gara osasuneitxik eskerrak emoten*
- *mare ona ekarritze be, eztoitxuz pagako dakozen zorrak*
- *mare txarrak sartun dauie Canariasen dauzenak*
- *kosterie eindxe dakozu mare on batzuk sartunde*

## MAREZIÑUE

Mareoa.

- *mareziñue etor dxatzo ta bienganera dxeusi de*
- *mareziñuekaz nabill da eztaitx zer dakoten*
- *ba mareziñuei kasu ein bi tsazu*
- *mareziñue mareziñuen ganien dako, ta Bilbora altza bi dauie*

**mareo** → **mare** + **zino** → **marezino** → **mareziño** → **mareziñue**.

## MARIDXE

Arrantzale bati dagokion harrapatutako arrantzaren dirua.

- *maridxe ederrak artun txuz arek baie eztau agiri*
- *batzun maridxi gaz bakarrik ezin dxe bixi*
- *baie askok maridxe bakarragaz bixi bi dau*

- *iru maridxe dakoz etzien, baie irurekaz be etso allegaten*

## MARIDXE BAKO ARRAINE

Etekin gabeko arraina. Itsasoan erabiltzen den berba da.

- *gaur maridxe bako arraiñek etor diez porture, total txikidxe ezan da antxobie*
- *awntxe be maridxe bako arraiñek dakarrie; kosterie kalai malai*
- *maridxe bako arraiñekaz partille eskasak*

## MARIDXE BAKO GAUZEK

Etekin gabeko gauza.

- *maridxe bako gauzek eitxen zauz oin be, denporie emon baiño ezu eitxen*
- *eztakot maridxe bako gauzek ein gurerik*
- *askotan maridxe bako gauzek pe eiñ ein bi diez*

## MARIDXE MADALENIE

Negar asko egin eta sarri.

- *aur dakozu ori maridxe madalenie, ezer ein barik negarrez*
- *enau ni maridxe madalenie lez, zeuk dxo nozulako nau negarrez*
- *amen dator maridxe madalenie, segurutik auntek pe negarrez etorko da*

## MARIDXERDIKO

Itsasontzi bateko mutila, txo da, lehen, gizon bati zegokion maridxearen erdia jasotzen zuelako. Gaur ere, horrela deitzen da, nahiz eta osorik jaso partila. Analogiaz. adin bateko gazte txo guztiak dira.

- *maridxerdikueri bidzar goixien zortziretan etorteko*
- *ori ezta maridxerdikuen biarra, baie ein eitxen dau*

## MARIEK ATRAPATA

Neurrikoak baino laburragoak diren frakak.

- *nora zuez mariek atrapaiko frakakaz ba?*
- *lagun guztidzek dxun diez frakak mariek atrapata*
- *niri gustaten dxastez mariek atrapaiko frakak*

## MARIKUE

Maritxu. Marikoi plantak egiten dituenak.

- *niri ez ein paristerik marikuori!*
- *marikuen plantak dakoz berak mutillek, baie ezta maritxu*

## MARISORGIÑE

Asko dakien umea gehienetan. Batzuetan nagusiei ere aplikatzen zaie.

- *zer diñozu zuk marisorgiñorrek*
- *au inde marisorgiñe da, lepek baiño geidxau daki*
- *alabatxi marisorgiñ utse zara, zemat takixu ba*
- *marisorgiñe lez ibilltxen da, dana dxakin guren*

Azkuek jaso du, baina **mariposa** adierazteko.

## MARITENTEL

Tentela, zentzu peioratiboan ia beti.

- *zelako maritentela da ba, arruen pasiñuek eitxen dotsona da*
- *maritentel eta ganorabakoa, besterik ez esatearren*

## MARITXONA

Modan dagoena baino arropa luzeagoak eramaten dituen. Modara janzten ez dena. Lehen baserritik etorritakoei esaten zitzairen.

- *ori erropie marintxona lez dako zu*
- *marintxona dozu dxasten*
- *zueneko imien erropak, geidxenak marintxonak tiez*
- *eztot kure ori erropie eruen, marintxon dakot eta*

## MARIZAR

Larregi jakitea adin determinatu baten.

- *dakon edaderako marizarra da*
- *marizartxue bada baie neuk ezto kure neure alabie olakue ezatie*
- *ezta marizarra, dana da, berbalapikue*

## MARMOKA

Medusa. Baina konparazioan, gutxi mugitzen den pertsona.

- *marmoka da ta ze eingo tsagu ba, bertan bertan bixi de*
- *zu marmoka erdu auna, ia espabilleten bazaitxut*

## MARRA-MARRA

Mur-mur.

- *auntxe be marra-marra dabill, eztaitx zeitxik baie*
- *marra-marra zauz berandu etor naielako*
- *zeitxik zauz marra-marra? ze eiñ dxatzu ba?*



## MARRADA

Agirika.

- *gauzek ondo ez eitxiarren neuk entzun dot marradie*
- *eztako zetan ein marradarik, arek eztau agindxuten da*
- *zeitrik ein bi tsasu marradie ba?*
- *marrada asko eitxen dau arek, baie ezta txarra*
- *marradak botaten abille da, gero ezpadau ezer eingo be*

## MARRAJA

Marraza. Baina kasu honetan femeninoa da. Gazteleraz **tiburona** izango litzateke. Konparazioan emakume maltzurra, gezurtitxoa, eta trikimailuak erabiltzen dituena.

- *marrajie zara gero, majo eitxen zuz zuk zeuri konbeniten dxatzuzen gauzek*
- *marrajiaue da beti dau tranpak eitzen*
- *marrajie bazara zeuretzat, ni enozu engañoeko ta*

## MARRO / UE

Mozorrotutakoa. Haratusteetan mozorrotuta dabilena.

- *marruek asko on diez gauien, baie goizalderantz iñor bez*
- *ime pillo ibill dxiez marro dxatzitze puzikekaz jentie dxoten*

## MASAGABIDXE

Borra handia.

- *masagabidxegaz emoten batxuten zulora zuez!*
- *baserridxen beti okin bide masagabiren bat badaezpada!*

## MASAMORRA

Itsasoko terminoa da. Karnata moduan itsasora botatzen den nahastea da. Konparazioan: Endredoa. Nahasmendua.

- *zelako masamorrie dabill ba, iñor be ezta libreko*
- *masamorratan ibilltxie gustaten dxasku te*
- *masamorrie gero ta lodidxau due, or sartzien bagara eztu urteten bidxar be*
- *zemat eta masamorra geidxau obeto*

Gaztelerazko **mazorra** = **mezcla de cosas dispares** hitza bera da.

## MASAMORRIE ARMA

Nahaste-borrastea sortarazi.

- *nasterue da baie! Auntzek pe masamorrie arma dau arek*
- *danak pe... , masamorrie armaten eztau abillaurik*

## MASGARRATZA

Mahats mikatza. Konparazioan pertsona zakarra. Ezatsegina.

- *onen garratza, masgarratza dala?*
- *eztako karaterrik dendan oteko, masgarratza da lez*
- *masgarratzen arpidxe imiñdxe, nora due ba?*
- *onek laranja masgarratza baiño garratzau dauz*

Hitz honen zentzua, mahats garratzak jaten direnean ipintzen den aurpegiaren keinuaz konparatzen da. Mahats garratza, oso garratza den hirusta antzeko belar mota bat da. Horregatik hartu da konparaketa egiteko.

## MASIE

Masa. Kantitatea. Asko.

- *jente masie on da erreatigie ikusten*
- *atun masie ekar dauie oiñ etor dizenak*
- *diro masie irebaziko dauie aurten*
- *aldianue etor dalakon, ostantzien sagar masie ostu kun*

## MASKARIE

Lotsagabea. Aurpegi-handi.

- *maskarie be zelakue zara ba, arpidxe be ez dxatzu domaten*
- *maskara ederra da a, iñok ezebe esan barik etor da dxaten*
- *maskarie naiela diñostazu, da zeu zer zara ba?*

Gaztelerazko **máscara** hitzetik hartu da, eta esanahia ere bertatik hartu da. Aurpegian maskara bat izan balitz bezala jokatzeari.

## MASKARIEN ARPIDXE

Lotsagabea dela adierazteko.

- *nik esan dotela zu ez zanda garbidxel Maskarien arpidxe dakozu zuk*
- *arek bakixu zer dakon, maskarien arpidxe ederra, guzurti zantarra da a*

## MASKETU

Lotsagabea.

- *ori be esan ein zu, ori masketu ezatie da*
- *ez, ori da masketu baiño andidxaue ezatie*
- *a da masketu, ta beran lagune beste masketu bet*

Hitz hau gaztelerazko **más que tú** da, hau da, **el no va más**. Ezer baino gehiago eta handiagoa.

**más que tú** → **masketu**.

## MASPASA

Agure zahar-zaharra. Baina askotan gazteagoei ere aplikatzen zaie.

- *agure maspasigaz ezkondu de*
- *maspasie da baie ondiño be majazalie da gero*
- *maspasie baiño maspasiaue da, ta ez pentsa etzien lotzien danik*

Gaztelerazko **uva pasa** literalki oinarritzat hastu eta adjektibo hori sortu da.

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k eta Ortuzarren zita bat aipatzen du Bermeoko hitza dela esanez.

## MASPASATU

Zaharkitu.

- *maspasatu de koitradue, baie ondiño ezkonduetako ilusiñue takoz*
- *geu be maspasatu eingo gariez, da urte gitxi falta dxasku*
- *alla zeu maspasatu bazara; nik ondiño gerra asko emon biar dot*
- *berak esaten dau maspasatute dauela*

## MASTAPALO

Masta-palo. Konparazioan pertsona argala eta altua.

- *mastapaluen luzerie artunde dau*
- *mastapalo utse dalez, berak imiñ dxau ikurriñe*
- *mastapalue da berau imie, eztaitx non lotuko dan*

## MASUSTE / IE

Endredoa.

- *masustie dabil baie eztotso balidaxoko*
- *masusten sartunde nau, da oraiñ eziñ dxot urten*
- *zeu be olako masustetan sartun be eitxie*
- *masustie gustaten dxatzonantzako eztako bertara dxutie baiño*

Berriro ere ikusten dugu, fruitu baten izenarekin beste bat sortzen dela.

## MATAPUTXETA

Atunak hiltzeko erabiltzen den makila.

- *ekau mataputxeta atune ondiño bizirik dau te*

## MATATXIÑIE

Sarraskia.

- *auntzek be arek Bushek matatxiñie eingo dau Irak-en*
- *Putinek be Txetxenian bardin eñ dxau, matatxiñe*
- *matatxiñie eñ dxu gero eurek petrolidxo guztidxen dxau*

## MATAZA

Endredoa.

- *arek arma dauen matazie... baie ze guztidxe da ba*
- *bai, bai, matazak armaten eztau bera baiño obiaurik*
- *nik eztot arma matazarik, zeuk esan zu lelau ori*

Hitz hau beste zentzu batez agertzen da hiztegieta; eta gaztelerazko **madeja** hitzaren zentzua aldatu egin dela esan genezake.

## MATAZATAN SARTUN

Nahasteman sartu.

- *beti zabiltzez matazatan sartunde, gusta eitxen dxatzu*
- *areri be asko gustaten dxatzo beti matazan sartunde ibilltxie*

## MATRAILLO

Mailua.

- *matrillo bategaz dxo dau buruen erdidxen*
- *matrillugaz dxo bi zu ori untzie*
- *eztot ein lorik pe, matrilluen zaratakaz*

Gaztelerazko **martillo**-tik hartu da zuzen zuzenean.

**martillo** → **matrillo**.

r/dardarkariaren metatesia izan da aldatzailea.

## MATSAK DXAN DA GERO

Guztia amaitu eta gero iristea.

- *kanpotik ekarri dauien sagarrak errepartiten on diez, baie gu matsak dxan de gero aillega gariez*
- *zelako dxaidxe on da Almiken, da gu ezer dxakin barik, ara aillega garizenien matsak dxanda on diez*

## MATXAZO

Erraldoia. Oso handia.

- *sagar matxazue artun de dxun da kalera*
- *eztai nik, baie guk ikusi dun larrosoioe matxazue esan da*
- *esan dauie mozkor matxazue atrapata dxun dizela oire*
- *aulako gixon matxazo bat ikusi du Gerniken*

Hitz honek, **-zo** atzizkia sartu ezkerre, halako handitasun bat ematen dio hitzaren zentzuari.

## MATXUE

Oso handia.

- *katarro matxue atrapa dot atzo gauien*
- *enbra matxue ein zara gero*
- *bai neu etor nai, andra matxue errekaduek eitxen*
- *eztakola dirorik? Bestelako etze matxue erosi dau*

Ez dakigu gaztelerazko **macho** hitzetik sartu den, baina ez dauka horren zentzurik.

## MAUTE-MAUTE

Asko jan eta edozer.

- *abe! Zemat loditxu zara ba. Maute-maute dxan ezkerre, aulan on biar*
- *ara dxun garizen danok etor gariez loditxute, emoten ezan doskune maute-maute dxanda*

## MAZIDXE

Zikinkeria. Basa.

**Mazi** hitza, arrantzale giroan erabiltzen da; arraina erakartzeko itsasora botatzen den karnata baita. Baina, gero zikinkeria eta beste esanahi batzuk adierazteko erabili izan da.

- *ez dxun ortik mazidxe dau asko ta*
- *mazidxe be ezta oten gitxi tabernatan, herriko dxaidxetan*
- *klaro! eradi guztidzek bienganera bota ezkerre, mazidxe forma biar*
- *ainbeste egunien garbitxu barik mazidxe be eñ*

## MAZIMAZI

Xehekatu eta nahastatuz gero gertatzen dena.

- *orrek galletak esnetan mazimazi eñdxe obeto dxango zuz*
- *etsoie erosi frabikantiek, mazimazi eñdxe ekar dauelako antxobie*

- *beste baten entzuten batsut olako barbarik azurrek pe mazimazi eiñdxe itxiko tsutez*

Hemen, aditzaren lekua hartzen du hitz honek, baina galdegaia aditza bera delarik.

## MAZITXU

Zikindu. Lohitu. Maziru.

- *ikusten zu zelan ekar zun erropie mazitrute*
- *on dan mazidxegaz zapata guztidrek pe mazitrute erun dotez*
- *mazitxu zu gisadue, eraitxen eraitxen engrudotu eiñ dxiez patatak*
- *nik eztot mazitxu eskatza, izterrak garbi dakotez da*

Eta kasu honetan, hitz honek bi funtzio betetzen ditu: Lehenengo bi esaldietan adberbio funtzioa betetzen du. Azken bi esaldietan aditzaren funtzioa.

**mazi + tu → mazitu → mazitxu.**

## MELA-MELA

1. Bustita, blai eginda.

- *mela-mela eindxe etor gariez plaidxetik euridrek atrapata*
- *ez dxuen guardasol barik mela-mela eingo zara ostantzien*
- *uliek mela-mela eiñ ezkerro, kirikilluek kendu eitxen diez*

2. Zimelduta. Txirpil.

- *piperrak mela-mela eiñdxe ezpadauz eztauz gozo*
- *kinpulie dora barik mela-mela ein bi de saltziri gustue emoteko*

Azkuek ez du jaso, baina D.A.R,k Juan San Martinen **Zirikadak** liburutik jaso du. Bermeon asko erabiltzen den hitza da.

## MEZA BIARREKUE

Senitarteko bat, nahiz eta urrunekoa izan, lagun bat edo auzoko bat hiltzen denean erabiltzen da esaldi hori. Duela urte batzuk, aipatutako baten bat hiltzen zenean, meza bat agintzen zen elizan hildakoaren oroimenez. Horregatik, meza beharrekoa hil dela esaten zen. Gaur ere erabilzen da esaldi hori, nahiz eta meza ateratzeko ohitura galduta egon.

- *gure atritxen lengusue ill dxe, da meza biarrekue dan lez, entierroa dxun biar dot*
- *geure meza biarrekue be bada, da neuk pe dxun ein biarko dot*

## MIEKIE

Atunaren belarria. Hegaluze-mendrezka.

- *miekie atunen atalik gozuen da*
- *miekie parrillen baino gauze gozuaurik eztau!*
- *atunen miekie jan dau prijite*

## MILLE PENTZAMENTU

Burmuinari buelta asko ematen dion pertsona.

- *auntxe be karburadorari emoten zabiltz, mille pentzamentu eitxen*
- *amen au, mille pentzamentu, ba ete dakixu zeuk zer egin*
- *mille pentzamentu dan lez, enai fidxeten aregaz*
- *zeu be millepentzamentu zara lez, orduan zeugaz be ezin gara fidxe*

## MISERIKORDI KO KANPAIEK DXO

Iskanbila baten botatzen den mehatxua.

- *isillik ezpazauz, gaur amen miserikordiko kanpaiek dxoko dauie*
- *ez ein kasurik, orrek beti esaten dau miserikordiko kanpaiek dxoko dauie la nonogaz asarratuten danien*

## MIXI-MIXIDXE

Monja antzeko emakumea.

- *orreri ez esan ezebe mixi-mixidxe da ta, santuek dxaten dabillena*
- *mixi-mixidxe be zelakue da ba, danagaz ikaratuten da*
- *aparentzidxe mixi mixidxena, baie gero etxos de karnabal*
- *eskillaran be iñok eztau asmaten mixi-mixidxe dalakon*

## MIÑE KANPORA ATARATA

Presaka. Mihia kanpoan dela.

- *ibill dxun abidradiegaz miñe kanpora atarata ibilli gariez*
- *etzeko biarrak pe miñe kanpora atarata eñ dxotez*

## MIÑE KANTSA

Berba asko egin.

- *zeuri gauzek espliketen miñe be kantsata dakot gero*
- *arek eztau kantsako askorik miñe*

## MISKEIDXE

Aitzakia.

- *miskeri asko dakoztazu! Jaidxuz lentejok!*
- *miskeidxe baino eztakoziue biharrik ez eitxeko!*

## MOKO TRUKEN

Ezerezaren truke saldu, eman.

- *eztotsut emongo moko truken; emon bikostazu zeuzer*
- *moko truken saldu dotez arraiñek*
- *neuk pe etzie alan saldu dot, moko truken*
- *zuk gauze guztidzek guzuz moko truken*

Hitz honen konposizioan **moko** + **truke** sartu dira.

## MOLDA BAKO TRENA

Ganora gutxikoa dela, edo horrela iruditzen dela adierazteko.

- *baie zelako molda bako trena zara ba, eztakixu ezer eitxen*
- *molda bako trena zeure ama, niri itxi bakien!*

## MOLDIE POPAN

Ganora gutxikoa.

- *zuk bakixu non dakozun moldie, popan!*
- *alan da olan dxantzitze, baie moldie, popan*

## MOROKILE

Taloea egiteko egiten den masa borobila.

- *morokilek ekau taluek eingotez eta*
- *arto-urune ta uregaz morokilek preparata dauz taluek eitxeko*

## MOSUE OKERTU

Goseak ezpainak okertu.

- *olan segiten badau, mosue be okertu eingo dxatzo gosiegaz*
- *gerra denporan mosue okertute bixi zan garizen*
- *erdu zeuzer dxaten gosiegaz mosue be okertute dakot eta*



## MOSUEN BIZARRAK

Ausardia izatea.

- *zuk eztakozu mosuen bizarrrik neuri esateko areri esan dotsazune*
- *arek eziakoie mosuen bizarrrik Izarora uger dxuteko*
- *eztakule mosuen bizarrrik ori eitxeko? lkusiko zue zelan baietz*

## MUKURRE

Pertsona dorpea.

- *horregaz garri bueltiegaz zelan ezta ezango mukurre ba?*

## MUNDEKAKO LORUE LEZ

Izorratuta.

- *laster ikusku guk geure buruek mundekako lorue lez jodite*
- *eztogu biar askorik mundekako lorue lez egoteko*
- *danok gauz diro barik eta andra barik, mundekako lorue lez jodite*

## MUNDUEK ITXIKUE

Pertsona jasanezina.

- *munduek itxikue da berori gero, da auenta ein biar*
- *munduek itxikuek tiez eurok gizonok, geuretzako itxitxen dauie biar guztidrek*
- *amen danok gara munduek itxikuek, danok gure du agindru*

## MUNDUEN BADAN BEZ

Existitzen denik ere ez.

- *beragaz asarratu naiarik eta ona, munduen badan bez*
- *aztu ein dxast, munduen badan bez*
- *ezta munduen badan be, eztot okiñ astirik orretako*

## MURMOIE

Behe-lainoa.

- *dauen murmoiegaz Sollube be ezta ikusten*
- *Mañu idxe beti dau murmoiegaz, bidiek eitzen juen eta galdu!*
- *dauen murmoiegaz ezindxe juen mendire*

## MURRU-MURRU

Murmur.

- *beti dabill murre-murre, beti asarratute, beti umore txarrien*
- *oin be murre-murre zabiltzez, zer dakozun esateko esan argi ta garbi*

## MUSKILE

Mutxikina.

- *gosien gosiegaz sagarran muskile be jan!*
- *muskile bota eidxok zatzarratara!*

## MUSTE

Miazkatu.

- *ori txakurre beti dakot muste-muste, enfadata nako*
- *dxatekue akabaten dauenien, platerak muste-muste eitzen txuz*

## N

### NAIDXE

Elurbustia.

- *Rompeolaseko naidxegaz labandu nai, berenganera jeusi ta loitsu eindxotez erropak!*

### NAGIDXEK ATARA

Normalean ohetik jeiki eta gero besoak luzatzeari esaten zaio, askotan aharrausiarekin batera egiten da.

- *nagidxek ataten nauela, lepuen krakadie! Zahartuten hasitzen nau!*

### NASKILLIE

Esaten duenarekin jendea nahasten duen pertsona.

- *orren naskillien gauzek ez siñestu*
- *ama naskillie, da bera ondiño naskilliaue*

### NASTA

Kutsatu da kasu honetan. Nahasi.

- *gripie nasta dost da oraiñ amen, iñora be urten barik*
- *dana nastaten dana, bakixu ezta?*
- *ni ez nasta zeure enpatxuetan*
- *asta ttuz dizenak eta ez dizenak*

Aditzaren funtzioaz agertzen da hitz hau.

### NASTATA

Nahastuta.

- *erridxe nastata kantaten dau orrek*
- *aurrek takozaitxuz nastata, oraiñ zeu be beran antzekue zara*
- *beran burue nastata ikusi dauenien eztau dxakiri zelan libre*

Kasu honetan moduzko adberbioasen funtzioa betetzen du.

### NASTE / IE

Nahastea. Endredoa.

- *nastiek imitxen eztau abillaurik*
- *arek eztau imirii nasterik zeuk baino*
- *ori nastie atrine on da imiñdx*

Forma hau hiztegieta baino ez da agertzen, baina esanahia pixka bat aldatuta.

## NASTERO / A / UE / IE

Nahasteetan eta endredoetan sartzen dena.

- *gixona nasterue, andrie nasterie da semie ta errena beste nastero bi*
- *nasteratxue da beran alabie be*
- *neu be nastero utse nai txe*
- *nasteruen artien nasterie nagusi*

Kasu bonetan adjektibo funtzioa betetun du.

## NEGAR BATEN

Negarretan blai.

- *non datosten negar baten txoridxe ill dxakola esaten*
- *da neu negar baten on nai, baie iñok kasurik pe ez*

## NEGAR DA BARRE TXIXE BOLUE

Era berean negar eta barre egiten denean.

- *auntzek negarrez, auntzek barreka, negar da barre txixe bolue*
- *pelikule guztidxen on gariez negarrez eta barreka. Negar da barre txixe bolue*

## NEGARLANTRUEK

Negarrak.

- *zeure negarlantruekaz kokoterarte nakozu*
- *negarlantruei itxi ta tire oire*
- *negarlantruek partikaran gordeko zuz, ni amen nauen artien*

Hitz konposatu honen bigarren osagaia **lantru**. Badirudi gaztelerazko **llanto** hitzetik datorrela, baina nola eboluzionatu du?

## NEGARZIÑUEK

Negar-zeinuka.

- *niri ez ein negarziñorik*
- *beran negarziñuekaz larritxute nako*
- *aproposko negarziñuek tizela pentsaten da*
- *eztiez aproposko negarziñuek alabatxi, benetako negarrak paiño*

Azkuek **negarziñuka** jaso du **fingiendo llanto** zentzuaz.

## NESKATILLIE

Itsasontzietan lan egiten duen emakumea.

- *neskatillek promesien dxuten diez baporak itxosora urteten dauienien*
- *patroiek esan dau neskatilei esateko biberak eitxeo*

## NEURIE BE ENAI

Erabat ahulduta.

- *gau guztidren ibil nai dxantzan, da oiñ enai neurie be*
- *gorputze dakot mangata, neurie be enai*
- *neurie be enai tre zelan ingo dotez ein biar dotezen gauzek ba?*

## NIAZKUE EIÑ DXAU

Betiko haserretu.

- *arek zer pentsaten dau, burle ingo dostela? Ba niazkue eiñ dxau*
- *niazkue ein zue, eztot gure zeuekaz geidxau tratorik*

## NOIXONOIX

Noiz edo noiz. Bazen garaia! Exklamaziozkoa izaten da askotan.

- *noixonoix etorko da ojalaterue, onek iturridzek arreglaten*
- *noixonoix konponduko diez gure kontuek...*
- *erosikot etzie noixonoix, dirue dakotenien*
- *noixonoix! Sasoie ezan da*
- *noixonoix ein zunien biarra!*
- *noixonoix! Zer pentsa zu ba, beti ongo garizela olan ela?*

## NOKIETA

Gaztelerazko **noqueado**-tik dator.

- *parrandan dxuen da gero, nokieta iñok erun biar etzera*
- *emon dostezen ostidzekaz nokieta itxi nau arek morroiek*

## NOKURE

Ugari. Kantitatea. Edonoretazat.

- *dxaidxetako programak nokure on diez*
- *ez esan nokure on dizenien niretzako ezta on da*
- *ziñeko entradak artzieko kola matxue on da ta gero barriz nokure*
- *lelangotan oten da arrapatie ze gero, egunek pasata, nokure oten diez baiñe freskuek*

**nork gura** → **nok gure** → **nokure**. Leherkari bietatik ozena erortzen da gorraren mesedetan. Dardarkaria ere jausi egiten da.

## **NONGUE DA BERA!**

Esaldi hau peioratiboan erabiltzen da.

- *baie nongue da bera gero, eztau itxritzen ezer eitxen be!*
- *nongue zara zeu ba! dozu ikusten korridxen nabiltena da eziñ dxotena ein zeuk diñozune?*
- *nongue da bera! Bestelako lotsie dako, ingiro guztidrek agiridxen okitxen*

## **NONZERBARRI**

Kuxkuxero. Begiluze. Nontzerberri.

- *dana dakitsu orrek, nonzerbarridxe lez ibilltzen dalez. . .*
- *nonzerbarridxe bada, niri eztost esango guzurrik*
- *auntxe be nonzerbarri dator, on isillik, ez esan ezebe*
- *nonzerbarri utse zara alabatxi nondik enteraten zara ba?*

Azkuek ez du jaso, ez eta D.A.R.k ere; baina P.M.k eta Kintanak **nonzerberri** jaso dute. Beraz ez bizkaierazko forma.

## **NOPAITXE**

Norbait.

- *nopaitxe etor da ta atie igiritxe itxi dau*
- *ni enai ezan, da nopaitxe ori nor ezango zan ba?*
- *etor naienien eskillarie apurtute on da, asike nopaitzek eiñ dxau*
- *nopaitxen zapatak tiez onek, aztute itxiko zan txuzen*

**norbait** → **nopait** → **nopaitxe**.

## **NOPAITXEN**

Nonbait.

- *nopaitxen itxi dot, neure boltsie ta ezin dxot topa*
- *nopaitxen dako etzie erositxe*
- *beti diñozu nopaitxen topa zule, baie eztiñozu non*

Hitzaren eboluzioa goikoaren antzekoa izan da.

**nonbaiten** → **nopaiten** → **nopaitxen**.

## **NOPERA**

Norbera.

- *askotan ez ezan arren, noperak dxakitzen dau zer eĩñ*
- *bai nopera dxekusi bi de kontuen zer eitxen dauen*
- *noperan konture eitxen dizen gauzek askotan eztaue urteten ondo*
- *noperari be miñ emoten tso isillikostuke ibilltxiek*

Hitz honen aldaketa fonetikoak ere **nopaitxe**-ren antzekoak izan dira.

## NORA EZTALA / EZTIELA

Eta gainera...

- *da kotxie nora eztala, soiñeko arropa guztidxek apurtu txuz*
- *zure lagunek nora eztiela, euren lagunen lagunek pe dxaten etor diez*
- *da neure disgustue nora eztala, beste puñeteriek betik gora ez alzatako berbak esan*

## NOREZ

Kontrara.

- *au telie norez ebaitxe dau*
- *orrek barritz norez eitxen txuz biarrak*
- *norez dxuten bazara ez zara aillegako iñoiz be*
- *enai dxungo zure etzera, norez datost eta*

## NOREZKO / UE

Kontrara edo korrontearen kontra dabilena.

- *dxun garizenien Malagara, galdu ein garizen, norezko bidie artunde*
- *norezko berbak esaten zauz aunte be*
- *ori gixona norezkue da, neguen be uger eitxen dau*
- *norezkue dana ezta ainegaten iñora be*

## NOTAKI BOTAKI!

Nork daki? Botakik.

- *nok taki ori gixona polizidxe dana? Notaki, botakik*
- *nok taki, botakik, aurrek daki ori*

## O

### OBALKIXU

Hori da onena! Zer hobeto!

- *bidzar egualdi ona ingo dauela? Obalekixu!*
- *suelduek altzako dauela entzun dot. Egidxe? Obalekixu!*
- *argaldu ein zara alabaxi! Benetan? Obalekixu!*

### OBAMENTUE

Kaka.

- *ein dxauen obramentue ikaratutekue ezanda, baltza*
- *siku nabill obramentue eitxen, laranja jak dxan bi dotez*
- *obramentue errez eitxeko kiwidrek dxan*

### ODOL BAKO

Energia gabeko pertsona. Koldarra.

- *nongo odolbakekaz nabil ba, nora zuekaz?*
- *zu, odolbako, mobidu azurrek bertan on barik enpiketa*
- *odolbake dona ori, leko baten dxesarri txe andik ezta mobiten*
- *odol bakue zaralez, ez zan etorri suelduen ganiaren protestaten*

### ODOL GOZOKUE

Gauza txar guztiak lepo gainera jaustea (figuratiboan).

- *ama, ez sartun ezetan be, ze gu odol gozokuek gariez*
- *muskitxo guztidrek pe neurene datoz, klaro, odol gozokue naielez*

### ODOLA BALIDZO

Oso garestia.

- *gaur egun eziñ dxe inora dxuen dxaten, afai batek odola balidzo dau*
- *odola balidzo dauie zapatak gero! Urrezkuek ezan balekidie bez karuau*
- *ara, gaur egunien eziñ dxe ezebe erosi, odola balidzo dau edozek*

### ODOLAK BURURE IDXEN

Zenetik irtenda.

- *emon dosten kolorigaz, odolak pe burure idxen dxastezen*
- *da ikusi bazun, odolak burure idxenda, begidrek pe urtenda, zakatza gorritxute. . .*
- *beti dau a odolak burure idxenda*



## ODOLAK ENBERENA

Disgustu handiaz odola pozoitu. Konparazioan.

- *esan dostezenakaz, odolak enberenata dxun nai etzera*
- *ez esan geidxau, odolak enberenata dakotez da*

## ODOLAK KORRIDU

Figuratiboan, iskanbilak sortu.

- *ezteidxela inñor imiñi jeni dxotan gero, ostantzien, odola korriko dau*
- *odolak korriko dauela esan dau? Badau bera burutik ondo?*
- *ba ni enai bape fidxeten; odolak korriko dauela badiño, berak dxakingo dau zer dabillen*

## ODOLBATUNE

Ubeldura. Odolbatu.

- *matrailugaz dxo dot atzamarra ta odolbatune eiñ dxot*
- *gorpuz guztidixen urten tsoz odolbatunek ta eztaki zer dan*
- *odolbatunek berez urteten badau, ori personie geixorik tau*
- *odolbatune zoldu dxatzo ta kutxillora dxun bi zan dau*

## ODOLEKUE

Senidekoa. Ahaidea.

- *ezta odolekue baie ezan balekide lez*
- *txarrenak ezaten diez odolekuek, kontra eitxeko*
- *alabie ezta odolekue baie asko gure tsoie*
- *asarratute on badiez be, odolekuek dez, da orrek tirtetu eitxen dau*

## OIDXELETAKOA

Hileetako umea, txikia.

- *oidxeletako imie zara la, olan parateko?*
- *nire gizona mimoz beteta dau, oidxeletako imie baiño txarrau*
- *ondiño oidxeletakue da ta ze eingo dau beragaz ba*
- *oidxeletakue danien kotxan erun bi de*
- *dxaboten dxun dan imie oidxeletakotxue da*

Oihal edo troxan dagoen umea izango da. Batzuetan oidxeleko erabiltzen da.

## OIDXEZ!

Harridura, galdezka edo zalantzazko oihu bat da: ohi, ote. . .

- *infernukuek tiez imiok oidxez?*
- *zeuk tiñozune ein bi de oidxez...*
- *etorko diez oidxez, bidxarko egune baiño lelau oidxez*
- *enplastue da gixon au oidxez?*

Azkuek **probablemente** zentzuaz jaso du D A R.k **por lo visto** zentzuaz eta biek jartzen dute Mundakarako.

## OILLARGITA

Oilartuta.

- *an, ollargita kokota gora altzata, nora ete due*
- *aur ollargita nora aillega dan, iñora bez*
- *bestelako ollargita due or, mundue dxan biarreko*
- *ezin dxatzo esan ezebe, zeuzer esaten batsazu laster urtengo dau oillargitak*

Gauza kuriooa gertatzen da hitz honekin, **oilar** maskulinoa izanik, gaztelerazko **gallito**-ren azken silaba biak hartuz gero, femeninoa egiteko **a** sartu zaio. Hala ere, gizezkoek eta emakumezkoek aplikatzen zaie.

## OILLARRAN BEGIDXE

Oso garbi. Oso fresko (arraina)

- *etzie imiñ dxot... , oillarran begidxe dala atara kontue*
- *nok esan dau arraiñe zarra dala, beronen begidxeri beitutie baiño eztau, oillarran begidxe lez dako ta*
- *oillarran begidxe baiño garbidxau itxi dotez karrajue ta kuartuek*

## OINGUTAN

Oraingoan.

- *oingutan irebaziko dauela esan dau*
- *len zer esan dauen eztotsat entenidu. baie oingutan bai*
- *oingutan ezpazu eitxen ez ein geidxau*
- *Euskal Herridxen dau, baie oingutan eztala etorko Bermiora esan dau*
- *oingutan ezpadot erosten eztot erosko eguno be*

Hitz hau pluraleko forman eraiki da:

**oraingoetan** → **oingoetan** → **oingutan**.

Bermeon, **orain\*** eta **oin** alternantzian erabiltzen dira, erdizka erabiltzen direla biak esan genezake, kasu honetan, laburrena aukeratu dugu.

## OJA BIKO LIBRUE

Emakumeen alua definitzeko dauden hitzetariko beste bat.

- *gure amumak oja biko librue ondo tapata okitxen dau, iñok ikusi barik*
- *geixorik zauz? Oja biko librue ondo dakozu? Bai? Ondo zauz orduen*
- *enebada! Pantalon barik dau, ikusi dotso oja biko librue!*
- *opera ein biar nauella esan dost medikuek, baie trankill oteko, oja biko libruri etsola ikutuko esan dost*

## OKASINTE

Iskanbilak sortzen dituen pertsona.

- *okasintie zara, nik eztot esan ori*
- *eztot kure tratorik okasintikaz*
- *asarratu ein nai beragaz, okasintie dalakon*
- *okasinte okasinte bat da, ezta fidxe biar beragaz*

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k Bermeokoa dela esanez eta Ortuzarren **Oroigarriak** liburuko aipamen bat azalduz.

## OKASIÑUE

Iskanbila.

- *a beti dau okasiñue armateko listo*
- *zelako okasiñue arma dauie ba, amak eta aitxek pe sartun eñ dxiez*
- *nik eztot gu zan sartun, baie azkanien okasinue libretako sartun ein bi zan nai*

Ez du zerikusirik gaztelerazko **ocasión** hitzarekin. **Okasinte** hitza hemendik sortu da.

## OKASIÑUEN MAMARRUE

Zeharo nahastero / a.

- *zelako okasiñuen mamarrue da ba, masamorra guztidxetan sartzien da*
- *eztot ikusi ori baino okasintiaurik, okasiñuen mamarrue da txo*

## OKELA TXIKITXUEK

Iskanbila gogorak.

- *gaur gure etzien okela txikitxuek ezango diez nire gixonagaz da nigaz, gau guztidxe parrandan pasa dau arek*
- *zeure lagunen etzien be ezan diez okela txikitxuek, berorreitrik gauzieitrik*
- *taberna guztidxetan ezan diez okela txikitxuek, ardauek eitxen dauena da ori*

## OKERREKO BEGIDXEGAZ BEITU

Gorrotoaz, mesprezuz edo begi txarrez begiratu.

- *eskolan be meisuek okerreko begidxegaz beitzen dost*
- *kalien guzenien ezosku kasurik eitxen, baie okerreko begidxegaz beitzen dosku*

## OKERREKO SAMATIK

Kontrako eztarritik, zulotik sartu. Figuratiboan, berbak sartu kontrako zulotik.

- *okerreko samatik dxun dxatzo okela zatidxe da idxe itxo*
- *berbak pe sarritzen dxuten dxastez niri okerreko samatik*
- *esnie edaten asi denien asi de idxetxuen okerreko samatik dxun dxatzolakon*

## OKINTSUE

Aberatsa. Diruduna.

- *aberatsa baiio okintsue obeto*
- *inok eztaki, baie ori mutille okintsue da*
- *bai, entzun dot okintsuek tizela*

## OLA

Egurra.

- *honegaz olagaz maidxe bat eingu*

## OLAKO MARKARIK

Harridurazko esaldia da.

- *olako markarik! Tabernatako atiek ordu bidxetako itxiko ei dauie; ori alkatie eztau ondo*
- *zer esan dau, ezatorrela? Olako markarik! Len eztau esan baietz ba?*
- *nik esan dot ori? Olako markarik, e!*

## OLAKUN BI

Hori bai pentsa!

- *ori puestue atrapako dauela pentsaten dauela? Olakun bi!*
- *zeuk irebaziko dostazule? Olakun bi!*

## OLAKUNBI

Bai, bai! Horretan egon!

- *zer pentsaten zu, zeure begire ongo naiela? Olakunbi!*
- *aurtengo andramaidxetan Pantoja etorko dala Bermiora? Olakunbi!*
- *dirue emoteko ? Olakunbi! Eztotsut emoten!*
- *ez esan niri olakunbi, emon ein biko dostazu te*

**olakoan bi → olakuen bi → olakunbi.**

## OLLUN POPAK

Hotzak edo ikarak eragindako oilo ipurdiak.

- *ollun popak takotez eiñdxe, otritxu ein nai*
- *otz zara la? Zer ba? Olluen popak ikusten tsutez*
- *urten uretatik, ollun popak pe eiñdxe dakozuz de*
- *eztakot nik ollun poparik, eztakot otzik eta*

Hitz honen bigarren osagaiak, **popa**-k, ipurdia esan nahi du Bermeoko hizkeran. Beraz **oiloaren ipurdiak** izango litzateke literalki.

## ONDO EIN

Gabonetan zorionak emateko modua da.

- *ondo ein! Eta urte barri on!*

## ONDO EIN BADAU ONDO TOPAKO DAU

Esaldi hau dagoen dagoenean erabiltzen da, hau da, ez du beste zentzurik.

- *nik ez dotsat desieten txarrik, baie ondo ein badau, ondo topako dau*
- *gure amak beti esaten dau: ondo ein dxauenak ondo topako dau*
- *gixon batek esan tson, maldeziñue bota tson bateri, ondo ein badau ondo topako dauela, da, maldeziñue, bota tsonari dxekusi dxatzon*

## ONDOKARRIDXE

Igerian aritzean, beste batek burua uretan barruan sartzea.

- *emon tson ondokarridxegaz idxe itxo eiñ dxe*
- *geidxau ez nuen orregaz, ondokarridxek emoten txuz de*
- *guzu ondakarritxu bet ela?*
- *ondokarridxe zeure amari emongo tsazu niri barik*

Hitz konposatua da eta **ondo** eta **harri** dira osagaiak.

## ONDUE DXOTA

1. Diru barik.

- *ondue dxota nau, eztakot zentimorik pe*

- *beti ongo gara gu ondue dxota, gasta baiño eztu eitxen da*

## 2. Animu barik.

- *ondue dxota dau, eztako ezetarako animorik, gizona ill dxatzonik eta ona*

## ONDUSTE / IE

Ondo egiten den ustean.

- *ondustien ein gauzek eta esker txarrerako*
- *ondusterako esaten dxatzu, baie zuk ezu eitxen kasurik*
- *ondustien eitxen zu lakuen erosi etzie da gero txarto urten*

**ondo ustean** → **ondustean** → **ondustien**.

## ONURE BARIK

Jatekoak zaporerik edo behar duena ez daukanean.

- *zetan ongo da gozo eztako onurerik eta, okelie biar dau orrek*
- *onure barik iñok ezatu gure, baie buzkentza botaten bazazu. . .*
- *ur asko ta onure gitxi dako orrek lapikuek*

## OPUAL

Bikaina. Oso gozoa. Ederto dagoena.

- *egualdi elegantie dau! Opual!*
- *aste santue ezateko ure dau. . . opual!*
- *ze ondo sartun dast zerbezie! Opual!*

Frantzeseko **au poil**, esamoldetik dator, Frantziara erbesteratu zirenak hartutakoa, eta bueltatzerakoan erabilia.

## ORBELA BAÑO SIKUAU

Sikua. Gogorra.

- *onek pastelak tautz orbela baiño sikuau*
- *aunek galletak pe dauz gerra denporan eiñekuen antzagaz, orbela baiño sikuau*
- *kanpuen itxitren dozuzen gauze guztidzek paraten diez orbela baiño sikuau*

## ORBELA LEZ

Sikua. Gogorra. Konparazioan erabiltzen da.

- *orbela lez dauz ikopasak, oin lau urtekuek tizela pentsaten da*
- *baitxe aunek abillanak pe, dxan be ezin dxiez eiñ*

## ORDIDXE

Mozkorra.

- *atzo parranda matxue! Zelako ordidxe hartu zan dun baie. . .*
- *Herrikoko patxaranagaz ordidxe zelakue baie!*
- *Madalenatatik bueltan beti ordidxegaz mandaz mandazka!*

## ORDIRIK

Mozkorrik.

- *atzo imie ordirik allega zan dasten etxera, ta gaur zigortute telebisiño barik*
- *gaur egungo gaztiek astebururo dauz ordirik*
- *au morroie beti dau ordirik, zerbezak zemat kure edaten dauz eta*

## ORI DONA MASKETU!

Hori da aurpegia!

- *ori dona masketu! Balora dako zu ori esaten*
- *eztostazu esango barrero ezta? Klaro esango dotsutena. Ori dona masketu!*

## ORIDXO MERKIE BAIÑO LARRIDXAUE

Oso nazkagarria.

- *niri ez presenta ori muntille, oridxo merkie baiño larridxaue da ta*
- *beran enbrien ama etor dxasku geure ondora. da oridxo merkie baiño larridxaue dalez, enfada-enfada ein gaitxuzen*
- *oridxo merkie baiño larridxaue antu duko orrek aguriek*

## ORIDXO MERKIE LAKUE

Txaplata antzekoa. Aspergarria.

- *benetan da oridxo merkie lakue, agure zantarra, enbra guztidxei gauzek esaten oten da*
- *ofiziñen be oridxo merkie lakue da, jefiei be dxaboie pasaten oten da*

## ORKO MORKO

Pertsona dorpea.

- *orko morko lako personiegaz nora dxungo nai ba?*
- *txo, orko morko, mobidu adi, gaurko da ta*
- *orko morkue da korriten be, zapatak pe orko morkue lakuek takoz*
- *orko morko utse da, kortan asikue dala pentsaten da*
- *zer zarala pentsaten zu ba, orko morko ori*

## ORMIEGAZ BAT

Mehatxua. Jipoiaren iragarkia.

- *itxen banozu berotute, ormiegaz be bat eingo zaitxut*
- *ni enai sartzien euren tartien, baie ormiegaz bat eingo dauela esan tzonien...*
- *atzamar puntie dot neiko, zu ormiegaz bat eitzeko*

## ORMIEGAZ TRINKE

Mehatxua. Jipoiaren iragarkia.

- *ormiegaz be trinke eingo dauela esan tsonien neuk pe berbie esan tsat*
- *ni eingo nozule ormiatz trinke, neure tripera ez zarana aillegaten*
- *ormiegaz trinketeko kapazidade andidxe okin bizu*

## ORMIRI BERBA

Bakarrik berbetan. Aurrean dagoenak arreta ez jartzea.

- *nori nau berbetan ba, ormiri berbetan nau antza*
- *an dau a ormiri berbetan, iñok ez dotso eitzexen nogaz dauen be ta*
- *orduek pasaten txuz ormiri berbetan*
- *abadie be elixen ormiri berbetan oten da, a komo la bara be ez dotso eitzexen iñok eta*

## ORRANTZ ORRANTZ!!!

Mesprezuzko oihua da.

- *orrantz, orrantz! Ez zaitxut gure geidxau ikusi*
- *naskile zantarra, zuk esan biar zu nireitxik ezer ela? Orrantz, orrantz!*

## ORREGAZ EZTAU MARIDXERIK

Ez dagoela irabazirik edo zereginik.

- *orregaz arraiñegaz eztau maridxerik*
- *egiñalak ein dxu be eztau maridxerik*
- *orrekaz imiekaz maridxe gitxi atarako ku*

## ORRERI BELAKABU

Pertsona batekin deseroso zaudenean, alde egiteko esaten den esamoldea.

- *an dator a, baguez hametik, orreri belakabu!*
- *ori morroie artzako basatzie baño zantarraue da, orreri belakagu*
- *ori andrie eztot aquantaten, orreri belakagu, eta baguez beste taberna batera*



## ORROTZETIK ARAKUE

Berri-berria dela adierazteko, baina edozer izan daiteke.

- *ori erropie orrotzeik arakue da*
- *zapatak be orrotzetik arakuek tiez*
- *dan dana ezan da orrotzetik arakue*

## ORTIK ORRANTZ!

Berri-berria dela adierazteko, baina edozer izan daiteke.

- *alamenien ibill dxe da azkanien ortik orrantz bota dau*
- *dxun zaitzez ortik orrantz, da ez etorri nireiñe ezetako be*

## OSALIE

Abereen jatekoa. Gaur egun ez da egingo, baina konparazioan erabiltzen da.

- *lau bañe uretan, osalien antza berak dxatekuek*
- *animalidxei osalie dzaten emotie lez, alan emon dosku bera dxateko zantarra*
- *nik eztokure au dxatekue osalie lez dau te*
- *osalie be dxan biarko zu gerrie datorrenien*

Azkuek jaso du hitz hau, baina esanahia nolabait ezberdina da.

## OSKA

Trangoa. Harria.

- *kalien dxeusi de oskie dxota*
- *ba kalien oska asko dauelakon*
- *onek ormiek takon beste oskagaz, gatxa ezango da papela imitzie*
- *marmolezko maidxe ona dakot, baie oskak takoz*
- *oskatan autse batzien da, aurreitzik liso imin bi de*

Azkuek, zentzu honetaz, Bermeoko hitza bezala jaso du.

## OSKA OSKOLA

Emakumearen alua. Oskola gaztaina edo arbolaren azala bada ere, kasu honetan hori definitzeko erabili izan da.

- *oskola ikusi barik takotzu orrek ikarie*
- *zeren ikarie dako zu ba, oskola eztotsu iñok ostuko ta*
- *oskola be zuritxute dako orañ ezkeru*

Arraroa bada ere, kasu honetan, hitza dagoen dagoenean agertzen da, ezetarik aldakuntza fonetikorik gabe.

## OSKILLE

Oso txikia. Eskasa.

- *oskillen besteko sagarrak ekar txuz*
- *orrek gixonak dxoko nauela? Orrek oskillek? Etortie dako*
- *onek platano oskillek zeuk gure zuneri emongo tsazuz*
- *oskille lako etziek ein dxauie, da berrogei milloi balidxo*
- *errozoie dako zu oskill oskillek tiez da*

Azkuek beste zentzu batez jaso du hitz hau.

## OSOSOKO SANTUE

Geldi dagoen pertsona.

- *bestelako ososoko santue zauz or, eulidxei begire*
- *an on nai ni, ososoko santue lez zeuri begire*
- *bertan dau ososoko santue lez iñora mobidu barik*

## OSPAS

Haserretzen denean berba hau esaten da.

- *txo, ospas txo, betiko ta ill arte*
- *ospas esan tso ta oin asarratute dauz*
- *niri eztost emongo ospasik nik eztot kure asarratu te*
- *ospas, ospas da ospas, iru bidar ospas, zer guzu geidxau*

Beharbada gaztelerazko **largo** adierazteko erabiltzen den **ospa** esanahia izango da oinarria, baina ez da segurua.

## OSTENTADA/ IE

Harroputza. Erakuspena ematea gustatzen zaiona.

- *ostentadie dozu, kaliek pe eztau artzien*
- *ostentada utse da, batso arek beran bururi*
- *zelako arrue da ba, eztau bera baiño ostentadiaurik*

Gazteterako **ostentar**, **hacer gala de grandezas** hartu da literalki.

## OSTI BI TXE ERDIGAZ

Oso azkar.

- *Floren erdu Sotapatroien puestora osti bi txe erdigaz!*
- *Txetxo erdu osti bi txe erdigaz, ostantzien armosotakue emongo tzut!*

## OSTIDXE ATARA

Jipoi ederra eman, baina ez bakarrik kolpeka, berbaz ere bai.

- *dxo enau ein, baie ostidxe atara dost esan dosten berbakaz*
- *zelako ostidxe atara dotso ba, bienganien tunbeta ikusi arte ezta lotu*

## OSTIDXE LAKUE

Oso ona edo oso txarra.

- *ostidxe lako eguerdidxe prepara dauie txokuen*
- *ostidxe lako arraiñek emon doskue, dxan be eziñ*
- *ostidxe lako zapatak erosi dotez, elegantiek*
- *ostidxelako partidue ikusi du Madrillen Ateletigaz*

## OSTIDXE LEZ

Oso ona. Dena ondo.

- *ostidxe lez dau au marmintxe*
- *ostidxe lez on da atzoko arraiñe be*
- *ostidxe lez imiñ dxauie Lamerie, banko barridzekaz*
- *egualdidxe dau, ostidxe lez, berorik pez da otzik pez*

## OSTIDXEK ETA BI AMABI

Ostia! Kaka zaharra!

- *txo, zuk apurtu dozu kazetako kristela, ostidxek eta bi amabi!*
- *ostidxek eta bi amabi! aztu dxotazak giltzek etzien*
- *Ateletik partidue galdu! Ostidxek eta bi amabi!*

## OTORNUE

Urteurreneko hiletak.

- *lagunek imin tsoie otornue*
- *kanpuen ill dxe, baie amen, otornue ongo da*
- *aitzen otornue daku zapatuen*
- *urteko otornora bakarrik dxungo nai*

## OTSEKO BATEN

Sarri.

- *hotseko baten esaten dost tentela naiela*
- *orrek imiek eztako lotsarik, otseko baten dau dirue eskatuten*

## OTSIEN OTSIEN

Txitean-pitean, sarri.

- *otsien-otsien apurtuten dotez basuek, basotako be eztoz eitxen*
- *otsien-otsien telefonotik deike oten da, telefonika pozarren*
- *otsien-otsien due Bilbora, pelikuleren bat ikusten*

## OTXITO

Hagin handi. Hitz hau berria da. Hagin handiak zeuzkan pertsonai bat izan zen herrian, gure Purden, alias Otxito, oso ospetsua eta herrikoia gainera, eta hau hil zenean, orain urte batzuk, hagin handiak dauzkan edozeini aplikatzen zaio.

- *otxito lako agiñek takoz, otxitotxue da*
- *au imie otxito da alabatxi, ikusi zu zelako agiñek takozen?*
- *bai, otxiton agiñek takoz, baie ezkiez feuek*

## OTXOLUE / IE

Begibakar. Begi-okker.

- *zure lagunen ama otxolie da ezta?*
- *eztakixu Errosa otxolie nor dan?*
- *otxolue lez dabill begidxe tapata*
- *emon tson zartazugaz otxolotute itxi dau*
- *otxolotute zauz aurrekue ez ikusteko la?*

Azken bi esaldi hauek adberbio funtzioa betetzen dute.

## OTZAKILLE

Beti hotz dena.

- *otzakille naielez, uden be mantak imin bi dotez oien*
- *otzakille bazara ez sartun golpien uretara*
- *enai ezan otzakille, baie orain bai*
- *orrek imiek otzakillen arpidxe dakotsu*

Konposizioan **otza** hitzak **-kill** atzizkia hartu du.

## OTZIKARA

Ezpainetako ekzema.

- *mosuek takozuz otzikaraz beteta*
- *otzikara batek urten dost mosuen*
- *bakixu otzikarak nasta eitxen dizena?*
- *uretari sartukeran otza sentidu dot eta laster urtengo dau otzikariek*

Ez da hitzaren zentzu konkretuan erabiltzen. Hala ere, badirudi gaztelerazko **frio**-tik hartu dela zentzua: **tengo un frio en los labios**.

## OTZUE

Gizon oso galanta.

- *eztau artiste guapaurik Mel Gibson baiño, otzue da*
- *beitu zelako mutill otzue, ai! Gaur gauion beragaz oire*
- *otzue bada, baie enplasto utse be bai*
- *Laiden otzue lako mutillek oten diez*

Ez dakigu zergatik egiten den konparaketa hori. Gainera, Bermeon, **otzo** gaztelerazko **oso** da. Beharbada gaztelerazko esaldia kontutan hartuta egingo zen.

## OTZO BABASTUE

Gizon lodia.

- *ezkondu danerik otzo babastuelez imindxe*
- *zu nora zuez korrikara, otzo babastuelez bazauzen! Pauso bi emon, eta guarda abajo!*

## OZALIE

Txarriaren janaria.

- *txarrizerri ozalie emon biherko datsoie zarataka dabilz eta!*

## P

### PAIDADIE

Eskertzea. Ordainketa.

- *au da paidadie emoten tsazuna?*
- *ainbeste une biarren on da gero, au de paidadie!*
- *aurregaz paidadiegaz urteten zu zuk, mille mesede eiñdxe gero*

### PAISAN / O

Lagun arteko deigarri bat.

- *zer paisan, bazuzie itxosora ela?*
- *ara paisan, zuk emoten bastazu partie ondo pagako tzut*
- *amen dator nire lagune. Txo paisano, nora zuez ba?*
- *orreri paisanueri esan laster natorrela*

Gaztelarazko **paisano** zuzen zuzenean sartu da.

### PALPAL

Abiadura txikian. Trankil. Arrantzale terminoa da, baina herrian asko erabiltzen da.

- *amen guez palpal, pries barik aurrera*
- *motorra palpalien imiñdxe trankil trankil, muxikie entzuten*
- *eztauelez priesik palpal dxungo gariez*
- *palpalien gabilizez, ara ta ona, taberna batetik bestera*

### PANTALONAK

Kuleroak.

- *pantalónak takozuz apurtute\**
- *plazan erosi dotez pantalon poli politzek*
- *pantalónatako kaka kentzien bazu obeto eingo zu*
- *txixek urten dost pantalonatara*
- *pantalónai puntillie imin bi tzatie*

Gaztelarazko **pantalón** nola sartu den esanahi horretaz ez da erraza jakitea. Hala ere analogiaz egin dela argi dago.

### PAÑUE

Toalla.

- *Aritzatzuko andrak diñoie Portugaleko pañuek dizela hobienak*
- *hondartzarako pañue garbitxuten dakot*

## PAPARDUEN ARPIDXE

Kokolo aurpegia.

- *aur dauzen enbra guztidzek takoie paparduen arpidxe*
- *deñ dxauen destrozue! Gero paparduen arpeidxegaz beitu, ia parkatuten batsoie*
- *ez beitu niri zeure paparduen arpeidxegaz, ezetuten zaitxut eta*

## PAPAU / E

Kokolo. Tonto.

- *txo, papaue, ze ein zu ba, eguerdidxe imiñi barik dxuen*
- *papaue zarala, papaue, ori eztala eitxen olan*
- *papau txarridxe, danak engañeten dauie*
- *bestela onai bertan papaue lez*

Azkuek Mundakarako jartzen du bere hiztegian.

## PAPEL BAKO MORROIE

Argia ez den gizona.

- *papel bako morroiegaz dxun notak Bilbora da bidxok galdu bertan*
- *nogaz batzien zara zeu be ba, papel bako morroiegaz*

## PAPELADIE

Komedia. Itxura ematan.

- *ikusten zuz aren negarrak? Papeladie eitxen dau*
- *papeladarik politxena bienganera dxekusi danien ein dxosku*

## PAPELAN GARBITXASUNEK

Administrazioko era guztietako paperen tramitazioa bideratzea. Batez ere, herentzia eta horrelakoei dagozkienak.

- *erentzidxe kobrateko, lelau papelan garbitxasunek ein biar diez*
- *zerbezidxotik libreteko papelan garbitxasunek ein biar diez*

## PAPO / UE

Masaila.

- *papue anditxute dako agineko miñegaz*
- *papo bidxetatik dxaten zauz*
- *nondik zatoz ba papuek pe gorritxute dakozuz de*
- *asarratu dizenien papotik sartun tsozen artazidzek*

Bermeon masaila definitzeko erabiltzen den hitz bakarra dugu.

## PAPOLODI

Masail mamitsuak daukana.

- *zu, papolodi, ia orrek papuek noix kentzien zun*
- *papoloditxue da bera, baie beran aitzie mikue lakue*

## PAPUEK BIDXORTU

Amak seme-alabei botatzen dien mehatxua.

- *alabatxi, onek diez orduek eskolara dxuteko? Papuek pe bidxortu eingo tsutez*
- *txo, ona ezpazatoz neu dxungo nai bertora, da papuek pe bidxortu eingo tsutez*

## PAPUEK DXAN

Agirika egin. Jotzeko mehatxua.

- *ezpazatoz orduen etzera, papuek be dxan eingo tsutez*
- *amak esan dau, papuek be dxan eingo tsuzela diro danak gastaten bazuz*
- *zetako dxango dostazuz papuek ba, nik eztot eñ ezer da?*

## PAPUSIA

Agirika egin. Jotzeko mehatxua.

- *ikusten zu zelako papusiatxue dakun?*
- *benetan papusia, papuek erremenanteko moduen dakoz da*

## PARA

Jarri (pertsone).

- *amen para iñok ez ikusteko lekuen*
- *para zaitxrez maidxen ia dxaten bazun*
- *aur para ezkerro obeto ikusten zaitxrut*
- *kalien eskiñien para ta, bertan on da, neu dxun artien*

Gaztelerazko **parar** = **detener** aditza hartu da zentzu honetaz erabiltzeko.

## PARAUE

Energia gabeko pertsona. Mugitzen ez dena.

- *paraue da koitxadue kiñeten kiñeten ibil bi zara*
- *ez esan ni paraue naiarik enai txe*



- *paraue zara baie txetxotru*

## PARISTE

Tontakeriak egitea. Keinu nabarmenak.

- *zemat pariste eitxen zu gauze bat esateko*
- *paristek eitxen ibilltxiarren dxeusi de iturritzik bera*
- *ez eĩn paristerik ostantzien zartazue dutzu*
- *pariste bat pe eztost ein dirue emoteko*

Hitz honen beste aldaera bat **paristadak** da, baina gutxiago erabiltzen da.

## PARISTOSO / A

Tontakeriak egiten dituenak. Keinu nabarmenak egiten dituenak.

- *zelako paristosie zara ba, orrenbeste pariste ein bi zu*
- *ezia paristosie bape, konplimento bakue da*
- *paristosie ezan balekide aixie artzien botako lekidot*
- *zer da paristosue ba, andra guztidxen aurrien igual*

## PARLAMENTA

Oso txarra.

- *egualdidxe parlamenta, euri, aixe eta truboiek maridxe*
- *parlamentien gabiltzazak, arraiñik pez, da dirorik pez*

## PARTILLE/ IE

Arrantzaleen arteko diru banaketa edo irabaziak.

- *aurten partille ederrak eingo diez, arraiñ asko ezan da ta*
- *partille bakue be ongo da*
- *partilletik erdidxe ostuten tso amari*
- *diro barik zatoz, etzera, ze partille ein zue ba?*
- *goizetik dxun da partilletzera, partillie okiñ dxau te*
- *partilletzera dxuen bai, baie partillerik ez*

## PASADAN

Pasatzean. Igarotzean.

- *pasadan ikusi dot da gero geidxau bapez*
- *aulan beütuten dotzu pasadan, imelapurte lez*

## PASADIE EMON

Bota. Kaka saltzera bota. Amaitu.

- *an emon tso pasadie, bota dau kaka saltzien*
- *zelako pasadie emon tso, mututute itxi dau*
- *etzeko biarra pasadie emon bitsat lelau*

## PASAIZO

Pasadizua. Gertatutakoa.

- *gure amak pasaizo asko kontaten dauz*
- *atriñeko pasaizuek politzek ezaten diez*
- *ba ontzeko pasaizu bat kontako tzutie atzo neuri pasaikue*
- *tristie bada pasaizue ez konta*
- *keba! barre eitxeko pasaizue da ta*

Azkuek ez du jaso eta berriz, ere, T. Etxebarriaren **Léxico de Arrate** aipatzen du D.A.R.k Bermeoko hitz bat azaltzeko. Gaztelerazko **pasaje** = **trozo de un libro** tik sartuko zen seguru aski.

## PASIDE

Paseo. Buelta.

- *paside bat emoten urten du ta bankuen dxesarri gariez*
- *asko gustaten dxast pasidetxue emotie*
- *egunien, egunien pasidie eñ ezker argaldu eitxen da*
- *pasidek eta pasidek emoten duz guk Benidorren gauzenien*

Gaztelerazko **paseo** hitza eta **-ada** atzizkia elkartu dira. **paseo** + **ada** → **paseado** → **pasiada** → **pasida** → **paside**. Esan beharra dago **pasiadie** ere esaten dela.

## PASIÑUE

Hainbeste... bait...

- *beruen pasiñuegaz buruko miñe be eñ*
- *inxarran pasiñuegaz be eziñ ezan da atie igiri*
- *kantien pasiñuegaz samak pe garramatate okiñ dxu*
- *diruen pasiñuegaz enfadata dauz biejak eitxen*

Gaztelerazko **pasión** erabili da eta hitza pertsoneri badagokie ere, euskaraz gauzei aplikatzen zaie.

## PASMA

Janariak usteldu.

- *eztoso erosi iñok arraine, pasmata ekar dau te*
- *au okelie pasma eiñ dxe da eztau dxateko moduen*
- *on dan beruegaz, antxoba guztidxe, bertan pasmata on diez*
- *neberan sartun barik arraiñe pasma eingo dxatzu*

Hiztegietan **gangrena** esanahia dauka.

## PATENTIE

Itsasontziari azpian ematen zaion pintura belarra ez egiteko, berezia uraren barrurako.

- *Bapora karruen daku, patentie emoten guez*
- *Kosterie akabata bapora pintxeteko ordue. Ekar zu patentie?*

## PEGA

Kutsatu.

- *arek eitxen dauen guztidxe pegaten dxatzu*
- *ez eiñ eztulik gripie pegako dostazu te*
- *eztule eiñ dxast pega, granuek be pega eiñ dxastez, baie suertie ez dxast pegaten ba*
- *dana pegaten dxatzu berari, nik eztaitx zer eitzen dauen*

Gaztelerauko **pegar** = **contagiar** hitzetik zuzenean hartua.

## PEKUE

Susmoa. Errezeloa.

- *okiñ dxot nik aren pekue, baie ezin esan bera danik*
- *pekue, pekue neuk be bai, baie ezin dxela ezan bera pentsa dot*
- *pekue okitxie pekatue da alabaxu, ze gero bera ezpada?*

## PELENKAK

Berna argalak.

- *pelenkak tapateko frakak dxantzi bi dotez*
- *orrek pelenkak loditxuteko asko dxan bi zu*
- *minifaldie zelan erungo zu ba, pelenkak takozuz de*
- *kuidadugaz ibilli, pelenkak apurtu barik*

Pelenkak, aspalditik, karnatarako erabiltzen diren txibia zati meheak dira. Analogiaz berna argalak deskribatzeko erabili da.

## PELLIKADA

Borroka. Elkar joka.

- *atzo gauien lamera txikidren zelako pelikadie on da ba*
- *pelikadie arma dauie enbra bateitrik*
- *edozeitrik armaten dauie pelikadak*
- *pelikada gogorra ezan bi zan dau, goixaldien on dana goiko plazan*

Gaztelerazko **pelea** hitza hartu da hitz honen oinanzat:

**pelea** + **-ada** atzizkia → **peleada**.

**ada** → **kada** → **pelekada** → **pelikada** → **pellikada**.

## PELLIKAN

Borrokan.

- *pellikan dauzela atrapa dauie ertzainek*
- *ez ein pellikan ori ezta ime onan gauzie ta*
- *niri ez dxast gustaten pellikan eitxie baie bera etor da*
- *ezpazu eitxen pellikan karamelue emongo tsut*

**Pelikada** bezala atzizki batez aldatu da, baina oraingoan moduzko adberbioa egiteko **-ka** atzizkia erabili da.

**pelea** + **ka** → **peleaka** → **pelika** → **pellika**.

Eta normala den bezala, azkenean **n** sudurkaria jarri zaio.

## PENAS

Txano. Neketsu.

- *penas nabil gauzek erixen, lagundu eistazu mesedez*
- *penas on bi dau, eztala salbako esan dauie*
- *ekarri eistazu eskillarie penas nau te*
- *penas penas eitxen dizen gauzek aprezidxo geidrau dakoie*

Gaztelerazko **a duras penas**-etik, azken hitza hartu da.

## PENAS PENASKA

Oso txarto. Neketsu.

- *penas penaska ein txuz eskillarak, eziñ idxen ibilli da*
- *penas penaska aillega nai illien akabure, diro barik...*

## PENASIDADE / IE

Estutasunak.

- *gure gurasuek penasidade asko pasa dauie gerra denporan*
- *penasidadiek aztu eirxen diez dirue dauenien*
- *baie benetako penasidadiek dirorik eztauenien etorten diez*

## PENDEJO / A

Ergela.

- *aurrek pendejiek eiñ dxozt apurtu*
- *zeu ezango zara pendejje, oraiñ artien be ezan zara ta*
- *zure nobidrxue da, pendejo utse, zetako esan bi dau nireitxik ezer?*
- *beti ezan da pendejue, andrak paiño txarraue dako miñe*

Gaztelerazko **pendejo** = **hombre pusilánime** da formaz, baina esanahia ezberdina da eta gainera, emakumezkoetan ere erabilia.

## PENTZURE

Konfiantza izan. Eusten.

- *orren pentzure on banaitxen gaur be eitxeko okiko nauen*
- *ez on nire pentzure enai etorko ta*
- *aurren ormien pentzure itxi zakue dxekusi barik*
- *ai, zure pentzure itxi imie? Ezta pentsa be!*

## PEPE EIÑ DXE

Inolako arazo barik bizi.

- *nire alabak pepe eiñ dxe bizi diez, ez gurelez*
- *gaur egunien askok eztakoie pepe eiñ dxe bizitzeko motiborik ba*

## PEPIÑO

Pailazoa. Baina zentzu peioratiboan txotxongiloa.

- *pepiñue aix ela? Bestelako tontue au or*
- *pepiñuen antzeko morroi bategaz eiu dxau pellikan*
- *zu zara pepiño, bakixu ori zer dan? Ba auri, tontue*
- *aur on dan pepiñue lako mutil batek emon dost arrikadie*
- *zirkoko pepiñuek pe eztaue orrenbeste pariste eitxen*

## PEPIÑUE / LEZ / LAKUE

Pailazoa. Peioratiboan gehienetan, argala eta itxura gabeko pertsona denean, baina nabarmen jantzitakoa ere bai.

- *pepiñue lako morroiegaz dabill, gauzeztanagaz*
- *pepiñue lez dxantzitxe ikusi dot bera mutille*

## PERKILLO / UE

Kopeta-ilea.

- *pelukeriri esan bi tzat perkillorik ez ebaitzeko imiri*
- *begidxetara dxrusten dxrustez perkilluek*
- *modan dauen gauzie da perkillue, baie ez dxrust gustaten*
- *perkilluek larreidxe ebai dozuz*

**flequillo** → **plekillo** → **prekillo** → **perkillo**.

Horren parean **ferkillo** ere erabiltzen da, baina gaur egun, gehiago entzuten da erdarazko **flekillue**.

## PEROZTUTE

Zenetik irten, umeak batez ere.

- *au imie bakixu peroztute dauena bakasiñuek asi dizenik eta ona?*
- *danak pe, onek ime txarridrok peroztute dauz*
- *ba peroztute badauz, etzien itxiko duz plaidxera barik*

## PERRETXIKU LAKUE

Oso garbia.

- *garbidxe be garbidxe da a gero, perretxiku lakue*

## PERRETXIKU LEZ

Oso garbi.

- *etzie itxi dost perretxikue lez*
- *erropak pe perretxikue lez, garbitxute ta plantxeta*

## PETXUEK

Zama, karga ekonomikoak.

- *gaurko petxuek andidzek tiez, da eztau inor arpeidxe emongo dotsonik*
- *gaztiek pe petxu andidzek takoie, milloietako etzie paga biarra*

## PIE

Neurria. Hitz hau, hitz egiterakoan, azentuan nabarmentzen da.

- *ogei pieko zimarroie atrapa ei dauie*
- *ogei pie eztaoz Santa Mariako torriek pe*
- *azpiko gonie erun dau pie bi luziau*

## PIKOTERO / A

Mihiluze.

- *dana konta tso laguneri pikoterie dalakon*
- *ez esateko esan da berak pikoteruek dana konta*
- *baie zelako pikoterie zara ba, lapiko txikidraue dakozu*
- *ez konta sekretorik, pikoterue da ta*

## PINGUE

Oso txikia. Gainera peioratiboan erabiltzen da.

- *ime pingo guztidzek, takoie kotxe despanpanantiek*
- *zati pingo guztidzek imiñ dxostez karnazeriek*
- *pinguek tiez onek porzebak, baie gustotzue ona dakoie*
- *onek sagar pinguek artun de etor zara?*
- *ganera pingo pinguek emon dotzuz*

## PINPIRIN PANPARAN

Finolatzen ibiltzea. Guk, **pinpirin** hitzari **panparan** gehitzen diogu eufoniagatik edo.

- *an dabiltzu a pinpirin-pariparan kalerik kale*
- *pinpirin-panparan dabillela esan dostie, baie zetako, badako nobidzue ta*

## PINTORERUE

Pintore.

- *pintoreruek esan dost, datorren ilerarte eziñ dxauela etorri*
- *pintoreruen kontuek idxen dost, zerora*
- *ez esan pintoreruei, neuk eingo tzut eta*

Seguru aski gaztelerazko **pinturero** hitza hartu da nahiz eta honen esanahia guztiz ezberdina izan.

## PIÑUEN AZPIKO IDIE

Pertsona hazi denean esaten zaio.

- *alabie piñuen azpiko idien bestekue eindxatzu!*

Mañuko esamoldea da, **idie** berba iratzea da (helecho).

## PIPERGAZTELAKUE

Piperbeltza.

- *ekau pipergaztelakue arrotza prijidueri botakotsat eta*
- *pipergaztelakuek emoten tso jatekueri falta datson toketzue*

Uste dugu, garai batean espezia hau gaztelatik ekartzen zutelako dela.

## PIPETOI

Pipa. Dupa.

- *antxobie txikidxe ezan dalez pipetoietan sartun dauie enpuñeta*
- *pipetoi andi bet, dxeusi dxatzo ganera, da anbulantzidxen erun dauie*
- *egun santo guztidxen on gariez pipetoiek garbiten*

Gaztelerazko **pipa** hitzari **-toi** atzizkia erantzi zaio handitasuna adierazteko.

**pipa + toi → pipatoi → pipetoi.**

## PIPIRRIÑUE

Oso txikiak.

- *arek etziek pipirriñuek tiez, lagun bi kabitekuek*
- *kanike pipirriñuegaz ibilltzen da olgetan*
- *ime pipirriñuek dxungo diez txarangatan*

## PIPITXE / IE

Kuxkuxero.

- *arek pipitziek, nonzerbarri dalez, dana dxakitzen dau*
- *badakitx nik pipitxie dana*
- *aregaz konfidxantza gitxi, pipitxie da ta*
- *arek pipitxe zantarrak, zer dabillen gauzek kontaten*

## PIRRI / DXE

Oso txikiak. Umeei bakarrik aplikatua.

- *ime pirridxekaz beteta on da*
- *ime pirri pillo bat sagarretan dxun da*
- *ime pirridxek guztidxek uretan sartunde uger eitzen be eztozkue itxi*

Ez du D.A.E.k jaso duen hitzaren zentzua, honek **puntilloso**, **cascarrabias** zentzuaz jaso baitu. Eta guk ere jaso dugu zentzu horretaz, baina beste berba bat erantzita: **kakapirridxe** hain zuzen.

## PIRRISTADA / IE

Kantitate txikia. Baina beti likidoa edo kaka arina.

- *oridxuen pirristadatru bet bota kazulera*
- *kaka pirristada bat urten dost pantalonatara*
- *olluen kakak pe pirristadaka urteten dau*



## PITXARROSA

Marrazo familiako arraina. Baina konparazioan, pertsonei aplikatzen zaie, batez ere koloreagatik, eta beti emakumezkoei.

- *bestelako pitxarrosie zauz or*
- *eguzki lar artun dot eta pitxarrosie lez nau*
- *pitxarrosie lez zauz gorritxute*

**pintarroja** → **pitxarrosa**.

## PITXIKE PITXIKE

Zatika-zatika. Apurka-apurka.

- *pitxike pitxike, ekar doskun tartie akaba ein dxu*
- *pitxike pitxike zabiltz, artuisu zati andi bet eta dxun zaitrez telebisiñue ikusten*

## PITXOI / NA / IE

Mezprezuz, burlaz edo irain txiki baten moduan erabiltzen da. Gizon edo emakumea izan daiteke.

- *bera pitxoie geure atzien ibill dxu denpora guztidxen*
- *esan orreri pitxoniri trankill oteko*
- *eurek pitxonak geu nora guzen begire on dxatzuz*
- *aurreri pitxoniri esan eitxeko*

Gaztelerazko **pichón** erabiltzen da adjektibo bat sortzeko.

## PITXUKEI / DXEK

Txikikeriak, balio gutxiko gauzak.

- *zer erosten dxun zara ba? Ezebez, pitxukei batzuk*
- *auntxe be todo a zienera dxun zara pitxukeidzek erosten*

## PIZKAZURRE

Fruta-hezurra da. Baina pertsona edo gauza oso txikiak definitzeko erabiltzen da.

- *pizkazurren besteko gixonak ein txuz aurrek biar danak*
- *arek ime pizkazurrek andidxen gauzek eitxen txuz*
- *magari pizkazurrek txiki txikidzek tiez, baie arek takoie arbolak*

Fruituen hezurra, **pizkazurra** erabili da txikitasuna adierazteko.

## PIZTOJA

Irainezko berba da.

- *ona bazatuz piztojien antzekuori, arpidxe be apurtu eingo tzut*
- *piztoja utse zaralez, ez zaitxut guse ezetako be*
- *piztojo, esan bia beste baten ia, emoten tzutenagaz...*

## PLA EITZEKO PATATIE

Pertsona oso lasaia.

- *bitu a, disgustue emontzoie baie pla eitzeko patatie dalez betulek mobidu bez*
- *bueno bakizu, pla eitzeko patatatrue da ta, askorik ez eskatu*

## PLAMIKIE

Panpina.

- *plamikie lako arpeidxe dako beronek imiek*
- *olentxerok plamike bat ekarko dotzu*
- *plamikiri begidzek atara tsoz*

Gaur egun **muñekue** / **ie** gehiago ezaten da, adinekoetan bakarrik entzuten delarik **plamika**.

## PLANDU

Lisatu. Leundu.

- *len edozelan oten zan dan lurre plandute ikusi dot*
- *aretzan on dizen mendidxek pe plandu eñ dxauie*
- *akordaten zara zelan ibilltzen ezan garizen taluek planduten?*

## PLANTA

Jarri.

- *amen planta, obeto ongo zara ta*
- *telefonuen plantateko diño zure amak*
- *da esan tsozen berbakaz jenidxotan planta da*
- *ezpada plantaten, planta bi dauen lekuen, eztako lekorik*

## PLASTANGA

Aurpegi biribila eta betea duena.

- *arpi plastangie dako baie begi politxek takoz*
- *igertagidxe lako plastangue da, lodidxe ez esan arren*

- *plastanga plastanga dau, da eztauela dxaten ezer diño*

## PLASTAZO

Aurpegiko gogorra. Zartada.

- *emon tson plastazue Mundekatik pe entzun eĩñ dxue*
- *guzu plastazo bat hartun? Ba on isillik*
- *plastazuek arpidxe be gorritxute itxi tso*
- *eztozule eingo? Ba aur dutzu plastazue*

Hitz honen konpozaketa **plast** onomatopeiazkoa eta **-zo** atzizkiak osatzen dute.

## PLATUXA

Oso zapala den arraina da gaztelerazko **platija** deritzona, baina konparazioan, edozer gauza zapal definitzeko erabilia.

- *platutxe da berau ogidxe*
- *platurie lako surre dako berak mutillek*
- *emon dostezen zapatak, zapal zapalak, platuriek ezan diez*

## PLAUST EIÑDXE

Bertan behera utzita.

- *plaut eĩndxe itxi gaitruz bertan*
- *ez itxi gauzek plaut eindxe, gero neureztat biarra da ta*
- *plaut eĩndxe itxi dau nobidxie*

## PLEGAZIÑUE

Igurtzidura. Alkoholaz gorputza igurtzi.

- *okiñ dxoten gorpuz guztiko miñe, plegaziñuek kendu dost*
- *plegaziñuek onak tiez gripe kentzioko*
- *girona, emoistazu alkolan plegaziñue*
- *guzu plegaziñotxue emon ela? Ni listo nau iguzidrek emoteko*

Ez dakigu nondik sar zitekeen hitz hau, gaztelaniatik dirudi baina ez da ziurra.

## PLEITXE

Pleita. Gaztelerazko **flete** hitzetik sartua, negozioei buruz edo hauek egiteko aukerari buruzko edozer izan daiteke.

- *eztako oraiñ artien okiñ dxauen pleitxerik*
- *bai, galdu dau okiñ dxauen pleitxe*
- *zelako pleitxe okikun ba, arek aurrera segidu bazauen*
- *erdu ametik, amen eztau pleitxerik eta*

Bermeon sarri entzun izan da gaztelerazko esaldi hau:

- *vamos niñas que aquí no hay flete.*

Palankako nesken ahoan jarrita. Seguraski hortik sartu da, nahiz eta itsasoari dagokion hitza izan.

## PLISTADA / IE

Aurpegikoa, baina ez hain gogorra.

- *emoten tzuten plistadiegaz arpidzek pe buetta eingo tzu*
- *plistadie emongo tsola esan tso baie gero ezebez*
- *plistada asko agindxu ta gero emon bez*

Hitz hau **plis**t onomatopeiazkoa eta **-ada** atzizkiak konposatzen dute. **Plastazo** hitzaren aldaera da eta erabilera berdintsua daukate. Badago azken aldaera bat, nahiko erabilia den **plistazue**. Hau ere goikoen parean jarri behar da.

## POLITXO

Polito. Baina tonua beti izaten da meziprezu, arbuiaitzeko edo gaitzezteko.

- *auri de ondo eitxie, politxo!*
- *ez zarala etorko? Politxo*
- *politxo dau gauzie! Bestelakue!*
- *zeuk neure boltzatik artun dirue ezta? Politxo e?*

## POLITXO EMOTEN TSU!

Lelo moduen erabiltzen da, eta egoera ezberdinetan. Kritika moduan.

- *plaidxera zuez ela? Politxo emoten tzu neu barik dxutie*
- *politxo emoten dotso areri, imiek bertan itxitxe ara ta ona ibilltxie*

## POLIZIKO / UE

Polizia.

Adinekoen artean bakarrik entzuten da, baina merezi du gehiago erabiltzea, gaztelerazko **policía** asko sartuta baitago.

- *alako baten, poliziko guztidrek aldabatera, dxoten asi dizen*
- *polizikuen zartadak bakitzez nik zer dizen*
- *txarto aparkata okiñ dxauelakon kotxie polizikuek multie imiñ dxost Bilbon*
- *polizikuek tiñon lekuek dxun bi zu*

## POLIZTU

Politu.

- *au imie poliztu eiñ dxe Bermiora etor danik eta ona*
- *plantie okiñ dxot sikatute, da ure bota tzatenien poliztu eiñ dxe*
- *begidxek poliztu eiñ dxatzuz*
- *poliztu bai, erre bai eiñ dxastez pintxeten pintxeten*

Hitz hau, **tu** partizipioa hartuz gero, aditz bihurtu da.

**polit** + **tu** → **politu** → **poliztu**. Kasu honetan **z** bat desarroilatu da. Eta ez ote da askoz ere politagoa azken hau?

## POLONTIEN

Ur gehiegi edukitzea jatekoak.

- *lau indxabak dauz polontien*
- *baitxe garbantzuek pe polontien dabiltzez*
- *polontien imin zuz lau okela zatidrek*
- *lapikue polont eiñdxe dau*

## POPA ARIÑE

Pertsona arina, mugikorra.

- *zelako popa ariñe da ba, ezta momentu baten be geldi oten*
- *popa ariñe dalako pasa dxatzo pasa dxatzona, diruek galdu, belaune apurtu da nobidxuek eskapa*

## POPA KAKA

Irain txiki bat.

- *nora zuez popa kaka, nobidxue topaten? Ba ez eiñ ilusiñorik*
- *zer diño berak popa kakak ba, eztako zeri, da aur due markesie baiño arruau*
- *orregaz popa kakagaz eztot gure tratorik*

## POPA / IE

Itsasontziaren popa. Analogiaz ipurdia adierazteko erabilia.

- *dxekusi ein nai da popako miñe dakot*
- *popie dako zu loitxute*
- *popan urten dost baltzune batek*
- *gose bazara neure popiri kendu zati bet*

Askotan gertatzen den bezala itsas giroko hitza erabili da, nahiz eta, kasu honetan, erdarazko hitz bat izan. Auzoetan ez da erabiltzen termino hau, baina herrian **eperdi** baino gehiago erabiltzen da.

## POPADAN / IEN

Abiadan. Itsasontzia ere horrela joaten da haize handia dagoenean, honi popa emanda.

- *muxikie akabaten dan momentuen popadan nuen etzera*
- *popadien dxun diez arek Ateleti ikusten Madrillera*
- *ziñie ikusitxe popadan etorko zara gero*
- *txikiteue eiñ dxe gero, popadan andriñe, ez asarratuteko*

## POPAGANIE

Itsasontziaren atzeko aldea.

- *Tire popaganera han trankilau zuez eta*
- *Nebera di dakuz barruen, bata korostan eta bestie popaganien*

## POPAIXE / IE

Atzetik jotzen duenean haizeak.

- *zer dabil ba, popaixie dala?*
- *bai, popaixie da, arin dabill eperdidxe*
- *au imie popaixie utse da, ezta lotzien etzien momentu baten be*
- *enebada, popaixie dala esan tzat da asarraty eiñ dxast*
- *eguno be eztauelez etzien aurreitrik esan tzat popaixie dala*

## POPAZGORA

Ipurdiz gora.

- *popazgora dxeusi nai da izterra apurtu dot*
- *ez ibili olan, popazgora dxeusiko zara ta*
- *an on dxatzuz arek, popazgora eguzkidxe artzien*
- *popazgora tunbeta on dalako erre dxatso popie*
- *popazgora on diez? Frakarroi barik?*

## POPERTZA

1. Derrigorrez.

- *popertza ein bistazu bidzarko erropie Bilbora nuen da*
- *ezta popertzakue, baie eitxen bastazu obeto*
- *popertza popertza dxun bi zan dau ziñera, imie olan ittitxe?*

**por fuerza → poperza → popertza.**

2. Gutxietsi. Mezprezatu.

- *popertzakue da bera mutille, ofizidorik pe eztako ta*
- *ori erosi zu? Popertzakue da berori dxantzi biarra*

- *Benidorrera dxun zara, baie popertzakue da bertara dxun biarra*

**por fuerza + ko → porfuerzako → poperzako → popertzako.**

Koldo Izagirrek bere **Lokuzioetan popuertzakoa** jartzen du eta lehenengoko esanahia bakarrik jasotzen du.

## POPIE BE ERRE

Gauza bat lortzeko edozer egin.

- *aren neskien atzien popie be erre eĩn dxau*
- *berak guzan dauen kotxie erosi arte popie be erre*

## POPIE ERREIDXEZ

Azkar, arin joan gauza baten atzean.

- *popie erreidxez dxun diez Bilbora, Gurejuen ikusten*
- *Gernikeko dxakizetan popie erreidxez dxun da berari gustaten dxatzon mutille ikusten*

## PORRATIBUE

Dagokion kantitatea. (dirua)

- *zuri zeure porratibue emon ezkeru, kitxu*
- *beran porratibue emon ein bi dxatso*
- *dirue irebazten zunien emongostazu neure porratibue*

Hipotesi bat erabiliz, latinezko **portio-oniz = parte, porción** edo **pro portione = proporción** hitzetik etor daiteke.

**proponione → porrationea → porratiboa → porratibue.**

Beraz, dardarkarien metatesia gertatu ondoren, leherkati hoskabea erori eta leherkari hostuna eta **a** bokalea garatu dira.

## PORTADIE / UE

Ondo portatzen dena.

- *portadie zara, aulan gustaten dxast niri, tokaten dana emotie*
- *gure Daniel total da portadue, afaitxue dxaten be erun eitxen nau*
- *total da andra portadie, atentziñue deitxutekue*

## POTESTADE / LE

Energia. Indarra.

- *ametik altzateko potestade barik nau*

- *etzera allega gariez, ezer eitzeko potestade barik*
- *potestaderik pe eztot okiñ kontestateko*
- *zuk ez takozu potestaderik ori eitzeko, ezta zure ardurie*

Gaztelerazko **potestad** = **poder** hitza hartu da, baina zentzu zabalagoan erabilia.

## POTORRUE

Uherroi (txoria). Baina konparazioan **r** ordez **g** ahoskatzen duten pertsonak definitzeko erabiltzen da. Gainera esan ere honela egiten da: **potogue**.

- *zure lagune potorrue da, bueno, potogue*
- *itxiru ba koitraduri ba, naiku desgrazi dako potorrue ezan da ta*

## POTOZORRI / OXE

Oso txikia. Dezpektiboki erabilia.

- *potozorridxen besteko mutillek ein tzu geidxau*
- *potozorridxe, baie nik paiño indzar geidxau dako*
- *allega garizenien Kasinora ime potozorri guztidzek mozkor mozkorrik on diez*
- *Potozorri, zer eingostak pa, metro erdi be eztakok eta*

Hitz honen konposizioa **potro** eta **zorri** hitzek osatzen dute.

## POTOZORRIKEIDXEK

Txikikeriak. Inuzentekeriak.

- *urten etzetik gero, beti zauz potozorrikeidxek eitzen da*
- *nireñe ez etorri potozorrikeidxekaz*
- *potozorrikeri asko dako zu, itxistazu bakien*

## POTROKILLO

**apurrek** bezala legatzaren tripoilak dira.

- *ondo gozo dxan duz potrokillo freskuek*
- *baie potrokillo konjelauek eztiez oten ondo*
- *porrokilluek edozelakuek tauz elegante*

Hitz hau **potro** eta **-killo** atzizkiaz osatzen da: **potro** + **killo** → **potrokillo**.

## POTROSO / UE

Zorte handiko pertsona.

- *arek, auntxe be markie ingo dau, potrosue da ta*



- *ene alabie, beti zauz negarrez da zeu zara potrosie*
- *ori patroie potrosue da, edonon topaten dan arraiñe*
- *beti ezan da potrosie, baie aspaldidxon eztako suertarik*

Ikuzten denez, emakumea ere izan daiteke **potrosa** nahiz eta potrorik ez eduki.

## POTRUEK

Barrabilak. Gaur egun nahiko zabal erabiltzen den berba da. Baina ez garai baten. Azkuek jaso du bere hiztegian eta Ondarrun eta Lekeition kokatzen du hitza. Baina Bermeon asko esaten den frogarik asko dago. Lhandek ere jaso du lapurtera euskalkian. Badirudi kostako herrietan erabiltzen dela.

- *potruek aldien bakoiz salta auna*
- *ezpadau arraiñik zeure potruek imin guz saltsan*
- *potruek asiko zuz, asi, auri!*

## POTXERA

Kordel fina.

- *potxeragaz amarra bi diez orrek paketiek*
- *meieidxe da potxera orretako*
- *potxer zati bet artun da imiñi kanoie amarrata*
- *potxeran obillo bat emoteko esan aitxeri, berak tako ta*

Azkuek jaso du bere hiztegian, Ondarroa, Lekeitio eta Bermeoko hitza dela esanez.

## POTXOLA / IE

Alua.

- *marie gorantz etor danien beste mandan pasa bi zan du ta potxolie be busti ein biar*
- *potxolako asgurekaz enai kapaz*
- *ur freskuegaz garbitxuiru potxolie, da ikusko zu zelan kenduko dxatzun*

## POTXOLIÑIE

Alua, baina diminutiboan.

- *ze eñ dxatzu laztana, potxoliñeko miñe dako zu?*
- *potxoliñetxue erreta dako zu te*
- *andra batzuk potxoliñie estimadu dakotzuie*
- *potxoliñie estimadu okitxekue ezta ba*

## POTXORROSKILLE

Ezgauza. Sibaritaren jatekoak.

- *dxan duzen karakolak gozau on diez, potxorroskillerik pez obiauek*
- *ama, zer dau dxateko? Zera! Potxorroskillek!*
- *ba nik potxorroskillek gu dotez dxan*

## POZARREN

Pozik. Alai.

- *pozarren etor da etzera Ateletik irebazi dauela ta*
- *ba ni enau pozarren, kristelezko dxarrie apurtu dot eta*
- *danok kauz pozarren, laster bakaziñuekaz guez da*
- *nik pozarren be ingo lekizut ori mesedie, baie eziñ dxot*

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k Añibarroren zita bat aipatuz. Bermeon ez da erabili beste hitzik hori adierazteko oraintsu arte. Gazteen artean **pozik** ere entzuten da.

## POZTIXOZKO / UE

Indargeak. Oinarri gabekoa Bizitasun gabekoa.

- *poztixozkue lez dau bertan parata*
- *zelan guzu otie ba, poztixozkue batian*
- *poztixozkuek tiez imiok ela, iñok ikutu barik dxeusteko?*
- *ene alabie, poztixozkue be aulan oten da momotute*

Kasu honetan adjektibo funtzioa dauka.

## POZTIXUEN

Ahul. Indarge.

- *andixe pasa dau te, oindiño poztixuen dau*
- *ez ikutu niri poztixuen nau te, eztakot indxarrik eta*
- *poztixuen dau baie laster imingot ondo ori kuadrue*
- *poztixuen imiñi, lekue topa arte*

Gaztelerazko **postizo** dirudi, baina formaz berdina izan arren esanahi ezberdina da.

## PRESTUE

Presio-lapikoa.

- *arin dxun bi dot etzera prestue itxi dot suten da*
- *prestue zu gitxigaz imin bi de, ostantzien esplota eitxen dau*
- *prestuen tapien astie dakot apurtute, da eztaitx nok imitxen dauen*

- *arin gure bazun eitxie, dxatekue prestuen ein bi zu*

Lapiko hauek irten zirenean, euretariko baten izena **presto** izan zen eta ordutik hona, lapiko guztiak dira **prestue**.

## PRIJIDUKIDXEK

Frijituki.

- *prijidukidxen useiñegaz larritxute nau*
- *gure ama beti dabill prijidukidzek eitxen, eguno bez ensaladarik*
- *prijidukidzek ezteiz ba gorputzerako onak*

Batzuetan gertatzen den moduan **f** → **p** egin da. Gero aldaketa fonetiken eraginez, beste itxura bat hartu du hitzak.

## PROPORTZIÑUE

Aukera. Proposamena.

- *eztau okiñ berak gu zan dauelako proportziñorik*
- *proportziñorik ezpadau bertan lotuko da*
- *proportziñue etor dxatzo, baie ezta ezan beran gustokue*
- *biar eitzeko proportziño ona badakot bertara dxungo nai*
- *proponziño txarrak okin txuzelez, Ateletin geratu da*
- *proportziño ona dauenien gauze guztidzek itxi bi diez*

Ez du zerikusirik gaztelerazko **proporción** hitzarekin.

## PULPERO

Despektiboki erabilia. Leku guztietan egon nahi duen pertsona. Mugikorra. Urduria.

- *esan dau Anderregaz dxuteko. Beragaz pulperuegaz?*
- *Dxokin da Ander bidzek datoz. Bestelako pulpero bi*
- *ongo zara geldik pulpero txarridxorri*
- *orreri pulperuri esan, ez dxuteko uretara*

## PUNTADA

Zeiharresana. Zirikada. Puntada.

- *beran aurretik pasa naienien puntadak botaten asi de*
- *puntadak botaten ibil barik esan arpire esateko dakozune*
- *bota dau arek aunte be puntadie*
- *puntadak botaten abille da*

Seguru aski **punta** = **puya** gaztelerazko hitza izango da hitz honen forma eta esanahiaren oinarria.

## PUNTXETA

Puntzeta. Konparazioan erabilia.

- *esan dostezen berbakaz sartun dost niri puntxeta betiko*
- *eske puntxeta lez esaten txuz berbak*
- *isillik ezpazauz, puntxeta lez sartungo tzut au kutxillue*
- *ikusi zu atzoko pelikulen zelan lantza tson puntxeta*

Azkuek, **punzón**, **bayoneta** eta **estoque** zentzuaz jaso du.

## PURGATOIDXOKO ARIMIE LEZ

Itxaroten.

- *bestela on nai benan zeuri begire lau orduen, purgatoidxoko arimie lez*
- *orren nobidxuek orduek emoten txuz nobidxiri begire, an oten da purgatoidxoko arimie lez*
- *ezgariez ongo purgatoidxoko arimek lez, da eĩñ alegiñe ariñ etorteko*

## PURUZ

...ren indarrez.

- *diruen puruz eiu txuz lagunek, ostantzien bape ezauen okingo*
- *beste batzuk barriz, biarran puruz eitxen dauie*
- *ein biarran puruz, errementata akaba dauie*
- *ardauen puruz bixi de a, baie lasterko da*

Gaztelerazko **de puro**... horren zentzua eta hitza ere bera hartu du. Edutezko genitiboarekin erabiltzen da.

## PUSTILLE

Burbuila. Puspulo.

- *pustillez beteta nau da eztaitx zerenak tizen*
- *eguzkidzek ataraiko pustillek tozuz orrek*
- *zapata barridxek pustillek atara dostie*
- *pustillerik ez errementa ezta ona ta*
- *uretan pustillek urteten dauienien arraiñek tauzelako da*
- *dxaboiegaz bazabiltzez pustillek urteten dauie*
- *esnieri be pustillek urteten tsoz egozten dauenien*

Hitz honen jatorria **puztu** = **inflar**, **hinchar** izango da eta **pustila** Azkuek jaso duen bezala. Honek jasotakoa bigarren definizioari dagokio.

## PUTEMIÑE

Putaren mihia. Gozoa. Engainagarria.

- *zuk pakixu zer dakozun putemiñe*
- *ez esan niri zeure kontorik, zeure putemiñ gozuegaz*
- *beran putemiñe dakotzu arek armarik onena*
- *gordeixu putemiñe beste batentzat*

## PUTETZIE

Desordenua.

- *bestelako putetzie indxe dxun da, dana bertanbera*
- *putetzie amen maidxe ganiñ dakotena, papelakaz beteta*
- *zelako putetzie arma dauie aiuntamientuen ba, iñor aklara bez*

## PUTXANTXA

Salmentarako leku txiki bat. Txiringittoa.

- *gaur egunten edonon ikusten zuz putxankak*
- *Benidorreko plaidxe baten imiñ dxau putxantxa bat*
- *putxantxatxu bat imitxeko beste diro okingo dau*

## PUTXIE LEZ

Bigun (janaria).

- *dxoskun lapikue putxie lez onda*
- *indxabak ondo eiñ dxu, putxie baiño bigunau oten dies*
- *gisadue total gozo, putxie les*
- *okelie be bai, ondo, putxie lez*

## PUXIKERO / UE

Buruhandiak. Buruhandiek puxika eramaten dutenez, **puxikero** deitzen zaie.

- *an due a puxikero dxantzitze*
- *orrek mutillek puxikeruen boza dako*
- *puxikero bateri ostu tzat puxikie beragaz enbrak dxoteko*
- *zer diño ba, beran puxikeruen boz da guzti*

## PUZKADAKA

Puzka. Haserre.

- *puzkadaka dabil ez dxatzolakon dxuen pintorerue*
- *ara allega garizenien danok on garizen puzkadaka*
- *puzkadaka dator zure ama, nondik ete dator*
- *ez esan ezebe, puzkadaka badator, berotute etorko da ta*

Kasu honetan, **puzka** hitzari gutxi iritizita, **-ada** eta **-ka** atzizkiak erantzi zaizkio.

## R

### RITA SERRAPOLLERIÑE DXUEN

Artaburuak jorratzera edo pikutara bidali.

- *ara itxistazu bakien da dxun zaitzez Rita serrapollerinë*
- *zu dxuen Rita serrapollerinë, nik ezta kot zetan dxuen da*
- *nok bota zaitxuz zu Rita serrapollerinë ba?*

Bermeon **Rita serrapollerie** esaten zioten andra bat bizi zen. Benetan zeukan Rita izena eta egiatan saltzen zituen serrapollerak -gaztelerazko **cierres**. Adinekoa zen hil zenean, laurogei bat urte bai; eta nahiko bizartsua. Gaztelerazko **vete donde Rita la pollera** esaldia Bermeotik kanpo esaten bada ere, hemengo esaldi honek hau du jatorria: Latino Amerikan **pollera** gona da, hortik **cierra pollera**. Guk hori hartu dugula? Agian.

### ROTAZIÑO BAKO GIRASOLA

Pertsona alperra.

- *hemen nau ni etzunde talapen, rotasiño bako girasolalez*
- *bitu bera, berton dau erreskadie eitzen baie bera rotasiño bako girasolalez*

### RUSIAKO TXARRIDXE

Aurpegi dorpea edo txerri antza daukana.

- *rusiako txarritxue dozu bera, baie ezta feue, agradablie da*
- *kanpoko mutil bategaz ezkondu de, aulako rusiako txarriidxe lako bategaz*
- *gernikar bategaz dabil, da bera enbrie rusiako txarri utse*
- *bakixu rusiako txarriidxe esaten tsoiena?*

## S

### SAKA

Bultza egin.

- *saka barrure orreri kajoieri*
- *arek mutillek saka dost*
- *ba saka tsuneri plastazo bat emon biar*
- *saka eiñdxe, danak sartzien diez*

Ia beti erabiltzen da partizipiorik gabe. Hala ere, noizbehinka **ten** partizipioa hartzen du.

Hitz honen esanahia honetara bakarrik mugatzen da, ez du beste zentzurik.

### SAKADIZ / EZ

Txankleta moduan erabilitako zapatak, zapatilak, eta abar.

- *zapata guztidzek dakoz deformata sakadiez ibilltxen*
- *oiñetako guztidzek erabiltzen txuz sakadiez*

### SAKAMANTAK

Soinekoak soinekoen gainean janztea. Edozer jartzea soinean.

- *sakamantaz beteta due beti, berorik pe eztau asmaten*
- *alabatxi, kantsata nau gero zeure sakamantak garbiten*

### SAKASTA

Troka. Sakana.

- *a baserridxe sakasta baten dau*
- *kotxie sakasta batera dxeusi de, da ondiño bertan dau*
- *an on gariez sakastatik eziñ urten*

### SAKIE ATARA

Sakea ateratzea pilotari badagokio ere, kasu honetan indarra edo bultzada erabiltzea suposatu beharko luke. Baina esaldien zentzuari begiratuta nolabaiteko diferentzia agertzen da. Esaterako:

- *itxosue gogor dator, sakie ataten dau atxetan*
- *baporien guzenien da itxosue badau, sakie ataten dosku*

Baina jatekoari Sakea aterako diogula esaten badugu:

- *gaur sakie atako tzat langostiri txe karramarueri*
- *ez ein kasurik iñori, sakie atara biar tsagu dxatekuri txe*

Beraz, kasu askotan gertatzen den moduan, esaldia eta esanahia ez dira etortzen bat.

## SAKUSTE

Sakosta.

- *an, bertan on da, sakuste baten botata*
- *aur dakozuz erropa danak sakusten sartunde*
- *sakuste baten makurtute on da denpora guztidæxen, euridæxe lotu arte*
- *or sakusten dakozuzen gauzek atara kanpora*

Azkuek, **sakosta** eta **zakoste** hitzak jaso ditu, baina Bermeon, hitz honen esanahia askoz ere zabalagoa da.

## SALIDE / IE

Irteera. Era guztietakoak.

- *noiz dakoie baporak salidie ba?*
- *eztaue esan ondiño noiz ezango dan salidie*
- *gure nekatuek astien salide bi baiño eztakoz, etudidæxe ein bidau te*

## SALISTRIE

Kresala.

- *ezpanak pe erreta dakotez salistriegaz*
- *gure gizonak arpeidæxe ekarten dau erreta salistriegaz*

## SALTAMATXIÑUE

Matxinsaltoa.

- *gute iMilek saltamatxiñuek ekar dostez etzera*
- *da non ekar tzuz ba saltamatxiñuek?*
- *otille baten sartunde, lau saltamatxiño*

## SAL TSA / IE

1. Saltsa. Endredoa.

- *saltsie armaten artistie da*
- *saltsatan sartzien da, ta gero eziñ dxau urten*
- *zuk zeuk arma zu saltsie, da gero zeure burue libre*
- *saltsie gure bazu, dxuen aurreko tabemara an topako zu te*

2. Katarroa edo hotzitura egoteak dakarren mukiei esaten zaie.

- *Dakoten katarruegaz surretik dakot saltsie daidæzola!*



Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k. Honek beste zentzu batez jaso du.

## SAL TSA DANATAKO PEREJILLE

Beti arazoetan egoten den pertsona.

- *ikastolako saltsa danatako perejille da Iban*
- *saltsa danatako perejille dok hori, ta oin kartzelan*
- *horrek morroiek txarto akabako dau, saltsa dabatako perejille da ta*

## SAL TSAID XO / UE

1.- Itsaskia.

- *saltsaidxotxue onda ta eziñ ezanda arterik bota*
- *saltsaidxue dauela be arraiñek atrapatzen dauie*

2.- Bronkioak kargatuta.

- *bularrien dakoten saltsaidxue eztaitx zek kenduko dauen*
- *ori saltsaidxue kentzieko esnie mielagaz artun bi zu*

## SAL TSE RO / UE / IE

Saltsa guztietan sartzen den pertsona.

- *dxun be ez eiñ orregaz, saltsero utse da*
- *zure lagune baiño saltseruaurik eztau erri guztidxen*
- *beran ama be saltserie da ta zer gu zu bera ezatie ba*

Hitz honek **-ro** gaztelerazko atzizkia hartu du.

**saltsa + ro → saltsero.**

## SAMA KAKA

Ahots erlasma duena.

- *zu samakaka, auna erdu, da obeto ein berba*
- *samakakien boza dako lez, ez dxatzo enteniten*
- *aspaldidxon dakot au samakakie, ez dxast kentzien ezegaz be*

## SAMA KO AZURRERARTE

Gogaituta. Nazkatuta.

- *arek imiek samako azurrerarte nako, eztozt dxaten ezebe*
- *azkanien samako azurrerarte akaba dot euren inuzentekeidzek entzuten*

## SAMIE URRUTU

Aldarrika sama urratu.

- *samie be urrutute dakot berari deike*
- *baie gortute zauziela? Dei txe dei nabill, samie urrututen*
- *ariñ urrututen dxatzu zuri samie*

## SAN SANIEN LO

Lasai lo.

- *san sanien on da lo eta itxi eiñ dxot bertan*
- *gure imiek beti eitxen dost lo san sanien*

## SANBLAZINTXE / IE

Ukabilkada. Kolpea. Ostia.

- *zelako, sanblazintxie emon tso ba, agiñek pe gora-goraka*
- *sanblazintxie artun de etor diez itxosotik*
- *emoten tsuten sanblazintxiegaz konta be ezu ingo*
- *sanblazintxie emon barik enai geraruko*

Nola sustraitu den hitz hau ez dago susmorik ere. Hitzaren konposizioan hiru elementu sartu dira: **San Blas** + **zinta** → **sanblazinta** → **sanblazintxe**.

## SANDXE / IE

Txanda.

- *sandxen on nai baie eztot atrapa ezer*
- *neuretzako be gorde sandxie, alan ariñau ein gu*
- *zure sandxie aillegaten danien abixe*
- *noiz da zure sandxie ba?Aurren gixonan atzetik*

Azkuek **sanja** jaso du, eta Ondarrun eta Lekeition jartzen du hitz hau, baina Bermeon ere oso erabilia da, besterik ez baita ezagutzen hori adierazteko. Lhandek frantseseko **change** bezala jaso du.

## SANTO / UEK

Liburu, pelikula edo aldizkarietako irudiak eta imajinak.

- *pelikulie ikusi du santo utsek, boza ezta entzuten zan da*
- *gure amuma an oten da libroko santuek ikusten*
- *santo barik dauzenai, agarra be ez totso eitxen*
- *tebisinuen santuek bakarrik ikusten zan diez*

Hitz hau, santuen irudiak kontuan izanik ateratakoa da, hau da, analogiaz atera den hitza.

## SANTUS

Ondo edo ez ondo dagoen galdetzeko eta ez dagoela ondo baieztatzeko.

- *santus dau berau imie gero?*
- *ez eztau santuz, ez dau ondo*
- *au kotxie eztau santus, zarata arraruek eitxen txuz de*
- *aunek sagarrak pe eztauz santus usteldute dauz te*

## SAPUEN BEGIDXEK

Konparazioan begi nabarmenak.

- *ene! Zelako sapuen begidzek takotez ba, eztot ein negarrik pe ba*
- *beran sapuen begidzekaz beituten tsu ezer ezalakuen*
- *nok esan dau begi politzek takozela, sapuen begidzek dakoz da*

## SARDA / IE

Arrain multzoa. Konparazioan Pertsona multzoa.

- *abe! Zer dator hortik kaletik ba, andra sardie!*
- *baitxe gizon sarda be, ardauzto kuadrillie*

## SAREGIÑ

Saregile.

- *saregiñek moillen dauz sariak konponduten*
- *saregiñ gaztiek abillidade andidxe dakoie, baie zarrak irebazi eitxen tsoie*

Benetan harritzekoa da, hiztegieta ez agertzea hitz hau. Eneko Barrutiak bakarrik sartu du bere **Bermeo eta Mundakako arrantzaleen Hiztegia** liburuan.

## SARNAZTO

Iraina da. Mesperezukoa. Ez da erabiltzen zentzu konkretuan.

- *txo sarnazto kopla gitxi niri e?*
- *zer diño berak sarnaztuen antzeko morroiek ba*
- *mueble sarnaztuek takoz etzien, baie bera beitu zelan duen dxantzitze*
- *zera! beran erropa sarnaztuekaz dxun bi dotela?*

Askotan bezala, hemen ere **-to** atzizkia hartu da, izen batetatik adjektibo bat ateratzeko.

**sama + to → samato.**

Baina eufoniagatik **z** tartekatu da eta **sarnazto** eman du.

## SARTENA

Pertsona fidagaitza. Hemen entzuten duena han kontatzen duena. Gehienetan emakumea izaten da.

- *enai fidaxeten orregaz sartena da ta*
- *zeu be sarten ederra zauz otekue*
- *aregaz sartenagaz dako zu konfidaxantzie, laster salduko taitruz*

Izen batekin adjektibo bat egin da.

## SARTENAZO / UE

Kolpea. Ostia. Ukabilkada.

- *emon sartenazue, bi dau te*
- *emotekutan aulako sartenazuek emon bi diez*
- *sartenazo ederra emon tso ba, aurre guztidxe zatitxu tso kotxiri txe*
- *erlojuri be, emon tson sartenazuegaz kuerdie apurtu dxatzo*

Kasu honetan **-zo** atzizkia erabili da.

**sartena + zo → sartenazo.**

## SARTUN URTEEN BAT

Bisita labur bat.

- *gure lagune dau geixorik eta sartun urteen bat eitxen dxun nai eztakot asti askorik eta*
- *laster etorko nai, baie sartun urteen bat bakarrik eingo dot*

## SASKELA

Baldresa. Zabarra.

- *saskela be ezta makala a*
- *etzien be saskel utse da baie*
- *amen dator gure saskeltxue; nondik zatoz imie ba?*
- *ango etzeko danak tiez saskelak*

Azkuek, Txomin Agirrereren zita bat aipatuz azaltzen du hitz hau. P.M.k ez du jaso eta badirudi, ez duela erabilera zabalik. Bermeon, ostera, normalki erabilizen da. Adjektiboaren funtzioa betetzen du.

## SASKELDU

Baldrestu. Zabartu.

- *ama ill dxalzonik eta ona saskeldu ein dxe*
- *saskeldu ein zara alabatri, eztakozu ilusiñorik pe*

- *enai saskeldu, baie oraiñ len baiño gitxiau inponaten dost dxaztiak*

Aditzaren funtzioa betetzen du.

## SASKELDUTE

Baldrestuta. Zabartuta.

- *saskeldute dabil aspaldidxon*
- *saskeldu saskeldute zabiltzez, eztaix zer pasaten dxatzun*
- *len saskeldute ibiltzen ezan da, baie oraiñ dxazten txuzen erropakaz, batek auentako dau beragaz*

Adberbioaren funtzioaz agertzen da.

## SASKELEIDXE

Zaborreria izango da. Baina soroko orbel siku eta abar ere bai.

- *sakeleidxek erreten on da ta ertzaiñe etor dxatzo aldarrike*
- *zer batzien da berton saskeleidxe ba, neuk pe laster emongo tzatie su, datorrela ertzaiñe ostike*

**Saskel** + **-eria** atzizkia → **sakeleria**.

Gero fonetikako aldaketak jasan ondoren: **saskeleidxe** eman du.

## SASKI BASKIDXE

Nahiko zikina. Ez dauka **saski-naski** hitzarekin zerikusirik.

- *saski baski utse da bera gixona, eztaix zer ein beragaz*
- *saski baskitxue be bazara ta, zaran moduen artu biar zara*
- *saski baskidxe lez eitxen zuz biarrak*
- *zeu ezango zara saski baskidxe, ni ez*
- *apur bet saski baskidxe bada, baie tire; borondate ona dako*

## SASTARRA

Mozkor ederra.

- *au biarra akabaten dotenien artungo doten sastarra, eztot kure pentsa*
- *sastarra dako... konta be ez eitzekue*
- *sastarragaz bienganera dxekusi, da bekokidxe dako igiritxe*
- *gaur sastarra atrapa bi du danok, neure egune da ta*

## SASTOI / DXE

Pertsona zikina.

- *eztot ezetu neure bixidzen pertsona sastoidxaurik*

- *baie, au imie sastoidxaue dot, eztaits zer ein beronegaz*
- *benetan da sastoidxe zueneko katue, edozein lekutan eitxen dau kaka*
- *geure esnedunen astue be sastoi use da, errireko dakoz trise guztidrek eta*

## SATSA

Ugari. Asko.

- *dirue satsa dakoie orrek*
- *guk parriz zorra satsa*
- *atune atrapatzen ei dauie satsa*
- *Andramaidxetan ongo da mozkorra, satsa*

Izen batetatik kantitatezko adberbio bat sortu da.

## SAÑE

Marrazoaren olioia da. Baina konparazioan erabiltzen denean, izerdia da.

- *alabaxu sañe atarako dostazu olan bazuez*
- *sañe daidxola dxun gariez San Juaneko eskillaratatik gora*
- *banuen uretara, dauen beruegaz sañek pe urten dost eta*

## SENAIDXE / IE

Senaia.

- *aulako senaidxe trikitxu bet topa dun da bertan eitzen ezan du uger*
- *nik eztot ikusi senaidxerik Benidorren*
- *zuek enpanadak zarielakon, an senaidxe asko dau alabaxi*
- *Ondartzapen antzeko senaidxek tauz andik*

Gaur egun gaztelerazko **cala** ari da sartzen. Kintanak **senadi** jaso du.

## SERBEZIDXO / UE

Soldadutza.

- *serbezidxuen dauzen mutillek Golfo Persikora dxun bi dauie koitxaduek*
- *laster inok eztau gu zango dxuen serbezidxora*
- *serbezidxue ein dxe gero ezkonduko dala esan dau*
- *serbezidxue, ein be elekide ein biar*

**servicio** → **serbezio** → **serbezidxo**; bokalen asimilazioaz.

## SERRAPOLLERA

Jantzietan lotzeko erabiltzen diren **cierre** gaztelerazkoa hartuta egin dugu hitz hau. Aurretik hasitako bide bati jarraituz, eta lokuzioetan ere azaltzen

den moduan, Latino Amerikan erabiltzen den **pollera (falda)** hitza hartu da zuzenean:

**cierra pollera** → **zerrapollera** → **serrapollera**.

- *albuena imiñi bi tsazuz serrapollerak*
- *serrapollerak erosi bi dotez erropientzako*
- *botoiek imiñi, serrapollera guztidzek kendute*

Gaur egun, gazteleraz, **automáticos** deitzen dira.

## SETENTZIDXE

Agirika gogor baten esaten da.

- *etзера ezpazatoz orduen, zeure setentzidxe da*
- *setentzidxe atako tsut ezpazara esanekue*
- *aren setentzidxe kantata dau, geu tiñogune ezpadau eitxen*

Gaztelerazko **sentencia** erabili da oraingoan:

**sentencia** → **setenzia** → **setentzia** → **setentzidxe**.

## SEÑORA ANDIDXE

Mesprezuaz erabilia. Handigurako emakumea.

- *bestelako señora andidxe zauz or; ezu gure baltz bat ekarri aixie eitxeko?*
- *beti esan dozu señora andidxe, biarrak pe iñok ein biar tsoz da*
- *bazin badot ezan señora andidxe, ba ezan eingo nai*

## SILENTZIDXUE

Isiltasuna.

- *zelako silentzidxue dau amen etzien, ezta asmaten ezebe*
- *niri asko gustaten dxast silentzidxue*

Maileguak gureganatzen oso jaioak garenez, hemen daukagu adibide berezi bat

**silencio** → **silentzio** → **silentzioa** → **silentzidxue**.

Ohikoa den bezala, **iu** bokal bitartean **j** epentetikoa sartuta **silentzidxue** eman du.

## SINGANORIA

Ganora gabekoa.

- *mutill singanoria bat ezetu ta beragaz ezkondu de*
- *benetan singanoria, berbetan be eztaki tre*
- *ez zaitrez ezan singanoria, artuixu moldie*

Argi dago erderakada bat dela, baina herri honetan asko erabiltzen dena, urte askotan gainera. **Sin ganora** honek adierazten digu, gaztelaniaz jabetu orduko, edo, behintzat, orain esaten den moduan, gazteleratik ekarritako **ure lez** jakin aurretik, halako berbak asmatzen ikasita geundela.

## SIRISIRIDXE

Larumin, edo gibelego gaixotasuna.

- *ez zu ikusten ze amarillo dauen; sirisiridxe dakolakon*
- *sirisiridxena dako, da oien dau*
- *lau illebeteko oie etso kentzien inok sirisiridxena bako*
- *entruixu, sirisiridxena dakoie sagarrak pe la?*
- *sirisiridxena? Zer ba? Amarilotute dauzelakon*

## SIRUNTXILLIE

Sugandila. Hitz, hau eta geroxeago ikusiko dugun **sorantxillie** auzoetan aurkitutako formak dira. Beste modu batzuk ere aurkitu ditut, esaterako **sumintxillie**, baina gutxiago erabiltzen direla dirudi. Herrian **\*\*sugandillie\***, **lagartue** edo **lagartijie** esaten da, auzoetan ordea **muskerra**.

- *soluen siruntxille pillo bat oten da*
- *siruntxilleri eguzkidxe gustaten dxatzoie*
- *imiek botillen barruen gordeten dawie siruntxillek*

## SOIDXIE

Itsasorako otzara.

- *soidxiek prepara itsosora guez eta!*

## SOIJE LABANA

Burusoila.

- *soije labanari eguzkidxe emoten on dxatzu a*
- *berrogei urte be eztakoz, da beitu zelako soidxe labana dakon*
- *neure lobie lez, arek pe eztakoz urte asko baie soidxe laban ederraren dxauie da*

## SOIÑIEN SOIÑEKUEKAZ

Besterik gabe. Ezer barik.

- *etzetik urten dauenien soiñien soiñekuekaz urten zauen, da bueltan aberastute etor da*
- *soiñien soiñekuekaz bota dau etzetik kanpora*



## SOLDU

Oztopatuta dagoen zerbait libratu.

- *Kiwidzek jan bidiez tripek solduteko*

## SOLUE

Baratza, ortua.

- *soluen dakotazen tomatiek mama!*
- *aurton soluen piperrak baño eztuz imingo*

## SONDAIN

Noraezean. Galduta.

- *sondan ibilli gara, galdute, bera hotela topaten*
- *etze guztidxe erreskitze dot bnie eztot topa, sondan nabill bera non topako*

## SORANTXILLIE

Sugandila.

- *askori, sorantxilliri burue kentzie gustaten dxazo*
- *sorantxilliek ariñ korriten dau*
- *sorantxilliek mesedegarri ezaten diez soluen*

## SORKI

Buruan kargak erabiltzen direnean jartzen den zapi bilbatua da. Konparazioan, ileak zorki moduan buru gainean jartzen den mototsari deituko diogu.

- *ikus! zu zelako sorkidxe dakon buruen?*
- *enebada, elixen deitxu bako pelukeriek orraztu dau antza, ori sorkidxe imitxeko...*

## SOSPAL

Zuhaitz eskola.

- *sospalak ekarri gabonatan nazimientu imitxeko*
- *nondik ekarko dotez sospalak ba, nongo arboliri kendute*

## SOSTRIE

Sareztatu dela dio hiztegiak, gaztelerazko **zurcir**. Gaur egun ez da egingo horrelakorik, baina orain urte batzuk, asko, egin beharra zegoen eta berba hau erabiltzen zen. Geroago errepasa esaten zen. Gaur ez dakit. Nik neuk eta nire ingurukoek, erabiltzen dugu.

- *kaltzetñek sostrie bidotez*
- *erropie sostrie sostrieta ekar dau Colombia-tik etor dan ime koitzadiak*

Berba hau jadanik galduta egongo da, baina berba oso polita denez sartzea erabaki dut.

## SU / E

Arrain askok ezpi edo hezur pozoitsuak edukitzen dituzte, Horiei **sua** deitzen diegu.

- *gonbizen sue sartun dxast, ta dolore bat takot*
- *eskue anditxute dako zu, da ori sue atara ein bizu*
- *niri salbaidxuen sue sartun dxasten kaderatik Laiden*
- *suentzako amoniako da onena*

Arraiek, Mundaka, Lekeitio, eta Bermeorako jartzen du.

## SUBLEBA

Haserre. Koleratsu.

- *zetako sublebaten zara ba, eztakozu errozoirik eta*
- *ori esan tsonien subleba dxatzu, da eskapa dau fuetie lez*
- *ez etorri sublebata, zeuk esan zu ori berbie ta*
- *sublebaziñue kendu be ein barik takot ondiño gero*

Gaztelarazko **sublevar** hartu da zuzen zuzenean, eta zentzua ere, figuratuan, berbera da. Ikusten denez, gaztelera bezala, aditza, adberbioa eta izenaren forman agertzen da.

## SUBOI / E

Era guztietako sugeak.

- *aulako suboi txikitxu bategaz ikaratuten nai ni*
- *gu oten garan bedartzan suboi asko oten diez*
- *ameko suboiek eztaue eitxen ezer*
- *suboi andi bet ikusi dot Aritxatxuko bidien*

## SUBREBIDXE

Jenio txarra. Arrabia.

- *zelako subrebidxegaz kontesta dost ba*
- *subrebidxe kendu be ez dxauzo eitxen areri*
- *subrebidxekaz etor dxast alabaxi lotsak emoten*

Gaztelarazko **soberbia** ederto egokitu da Bermeoko hizkeran.

**soberbia** → **sobrebia** → **subrebidxe**; **ia** → **idxe**.

Kontsonante dardarkariaren metatesia jasan ondoren, bokalen ixtea gertatu da.

## SUBRESIOSUE / IE

Koleratsua.

- *iñok eziñ dxau auenta beragaz, subrebiosue danagaz*
- *subrebiosie bazara zeuretzako gordeko zu subrebidæk*
- *bidæk tiez bata baiño bestie subresiosuaue*

Hitz honi gazteterako **so** atzizkia lotu zaio, adjektiboa sortzeko.

**soberbia** + **so** → **soberbioso** → **subrebioso**.

## SUE ATARA

Beste kasu askotan legez, **atara** hitzari beste bat gehitu zaio errieta.

- *sue atara doskue gure imiek, ziñera eztoguzelakon eruen*
- *sue, baie benetako sue ezan da nire andriek atara dostena, da zeitxik?*  
*Berandu aillega naielako afaire*

## SUERTOSUE / IE

Zorte ona. Baina kasu honetan, pertsona, animalia edo gauza bat izan daiteke zorte onekoa.

- *or bapora total da suertosue arraiñtxen*
- *bera patroie be suertosue da gero*
- *geure katue be suertosie da, ainbeste bidar dxeusi de teillatetik ta ondiño bizirik tau*
- *neure aiztie be suertosie da, kotzeko azidente bape eztau okiñ*

Gaztelerazko **suerte** hitzari **-so** atzizkia erantsi zaio **suerte** + **so** → **suertoso**.

## SUESTA

Itsasoko ur-jantzietan ezin faltatu buruko kapela.

- *suesta okiñ dxot apurtute da burue busti dxast*
- *suestagaz gixon danak tiez bardinek*
- *bapor guztidxen eziñ ezan dot topa nire suestako zintxie*

Gaztelerazko **sueste** hitza hartu da zuzenean:

**sueste** → **suesta**.

Askotan bezala, erdiko azken bokalea ireki egin da.

## SULFURE / TA

Koleratsu. Haserre bizian.

- *esan tsozen berbakaz sulfure dxatzu, ta emontso eskoikue*
- *arin sulfureten zara zu*
- *enai sulfureko ba, ein dxosten biarragaz. . .*
- *sulfureta para da beran aiztie be, da bidxen artien ill eztauenien*

Gaztelerazko **sulfurar** aditzak, zentzu figuratuan **irritar**, **encolerizar** ematen du; beraz, zentzua ere berbera da.

**sulfurar** → **sulfure**.

## SUMIÑE

Min arina, baina eten gabekoa.

- *ondino sumiñe dakot lepuen da kendu be ez dxast eitzen*
- *sumiñe dakoziue diñozu, ba obeto esango zu medikuñe dxutie*
- *dakotezen eridetako sumiñegaz enai kapaz*
- *sumiñek eztost itxi lorik eitzen*

Ez dauka, hiztegieta agertzen den bezalako esanahia.

## SURBIZKI / DXE

Zerbait aurkitzeko afan bandia izatea. Gauzak topatzen ibiltzen dena.

- *surbizki utse da zure alaba txikidxe, non zer topako dabil beti*
- *bai, geure etzera datorrenien be, surbizkidxe lez, armaidxo guztidzek erreskitxeten ibiltzen da*
- *zeuek ikasi tsazue surbizkidxe ezaten*

Azkuek. Txorierrin jaso du hitz hau, baina zentrua **goloso** da. Beraz, esanahi aldetik, nolabait ezberdina da.

Badirudi, sudur bi edo sudur bikia daukan pertsona dela.

## SURBIZKIKEIDXE

Zerbaiten bila lekuak eta gauzak miatzea.

- *ontxe be surbizkikeidxetan dabil, baie eztau topako ezer*
- *ez ibilli surbizkikeidxetan, amen eztau ezer da*
- *itxiru, surbizkikeidxetan ibilltxie gustaten dxatzo ta*

## SURRETAKO PUTZEGAZ

Haserre bizian.

- *medikuñe dxun da ta medikuek surretako putzegaz bota dau, eztauelako eiñ berak esan tsona*
- *zure aiztiak zelako surretako putzegaz kontesta dost ba*
- *danai kontestaten tsazu zuk surretako putzegaz*

## SURTXILLO / UEK

Sudurzuloak.

- *surtzilluek anditxute dxun da emon tson sartenazuegaz*
- *bestie, surtzilluetatik odoletan dxun da ba*
- *ez ibilli surtzilluetan atzamarrrik, bixidxena ekarko zu te*

Hitz konposatu honen bigarren elementua **zulo** da, Baina ikusi dugu aurrerago, hitz horren eboluzioa zein izan den:

**surzuloa** → **sunziloa** → **surtzillue**.

Azkuek Lekeitioko hitza bezala azaltzen du, baina Bermeon ez da ezagutzen besterik.

## SURTXU

Sudur handia, luzea daukana.

- *ori mutil koitxadue zelako surtxue da*
- *surtxue da, baie total majue da*
- *eztakiru a neskie, surtxu esaten tsoiena?*

Kasu honetan **-txu** atzizki txikigarria erabili da, hitz antonimo bat sortzeko.

**de nariz pequeña** izan beharko litzateke, baina ez du hori eman, aurkakoa baizik.

## SURTZILLUEK ZABALDUTE

Haserreruta.

- *enebada, aur dator nire gizona surtzilluek zabaldute. Errozoiegaz, etsazu deitzu te*
- *auntrek pe surtzilluek zabaldute dabill, nok ein dotso ba?*
- *ze ein dxatzu be, surtzilluek zabaldute etorteko?*

## SURZAPAL

Sudurmotz. Sudurzapal.

- *arpiz galanta da baie surzapala da*
- *dxeusi dan imie eztakiru noren semie dan, aulako surzapal bat bera andrie*
- *surzapal asko dauz de, ezta pa*

Azkuek ez du jaso, baina bai D.A.R.k 1897. eko Euskalzale-tik aterata.

## SUSPENTZUEN

Ustekabean.

- *egidxe esateko suspentsuen atrapa gaitxuz notizidrek*
- *trankil trankil on gariez, da alako baten suspentsuen, non datozen ertzañek eta non diñoskuen andik dxuteko*

## SUSUN KORDAN

1. Hara eta hona ibili, noraezean.

- *alabatxi, zeu topa eziñik ibilli nai denpora guztidxen, susun kordan*
- *susun kordan ibilli garizelez atsalde guztidxen, azkanien txokolatie dxaten dxun gariez*
- *kalera urteteko diñostazu? Susun kordan ibilltxeko?*

2. Oso urrun.

- *Ibil nai dendarik denda, susun kordaraino allega nai da eztot topa bizandotena*
- *Markiñe non dauen? Susun kordan!*

## SUTETIK ARA

Egin berri.

- *antxobak sutetik ara dxan biar diez*
- *txanpiñoiek gogortute dxan duz sutetik ara ezto skuelako ekarri*

## T

### TABARDILLE / IE

1. Pertsona gaiztoak. Obeditzen ez duten pertsona, animalia edo gauza.

- *tabardillie dot imiau ela? Etorko zara ona?*
- *gizon tabardilliek imin nau beran gauzek eitxen*
- *txo! Tabardillie aiz ela? Ori eitxen dok olan?*

Hitz honek gaztelerazko **tabardillo** = **fiebre que altera el sistema nervioso** esanahia dauka.

2. Gauza gogorra.

- *dxan dun okelie tabardillie ta bat*
- *onek sagarrak tabardillie baiño gogorrau dauz*
- *abardillie dala ata kontu onen erropien telie*

### TAIDXO

Adore. Indar. Energia.

- *taidxorik pe eztakot berori biarra eitxeko*
- *operaziñue eiñ dxe gero, taidxo barik geratu da*
- *kendu zaitrez ortik taidxo bakuori*
- *artuixu taidxue, taidxue artun, ganorarik pe eztakozu te*

Azkuek ez du jaso, baina D.A.R.k Bermeoko hitza bezala azaltzen du, baina esanahia **incapaz** jartzen du.

### TAKARTA BAIÑO GOGORRAU

Panekari Takarta deitzen diogu Bermeon. Arrain hau nahiko gogor egoten da, zurrun. Gogortasuna adierazteko erabiltzen dira lokuzio hau eta **takarta lez**.

- *bera gizona takarta baiño gogorrau on da, baie ez gara konturatu illdxe dauena*
- *izterrak dakotez takarta baiño gogorrau otzagaz*
- *takarta baiño gogorrau dakotez titidxek pe*

### TAKARTA LEZ

- *takarta lez gogortute dakotez atzamarrak*
- *onek erropak gaue kanpuen pasa dauielez, eiñ dxauen otzagaz takarta lez dauz*

### TAKET EIÑ

Muzin egin.

- *biarrari taket eitxen tso arek, ezta arrarue*
- *fabrikera dxuteko, baie berak taket*

## **TAKETA LEZ**

Taket edo zutoi bat bezala egon.

- *taketa lez zauz bertan parata, nori begire zauz ba?*
- *non zauz ba! Bestela nau bertan, taketa lez eskiñie berotuten*
- *neu be oten nai zeuri begire taketa lez*

## **TAKETERO / A**

Jenio txarreko pertsona. Aldarte txarrekoa.

- *nire gizona dan taketeruegaz ezin tsat esan ori*
- *zeu be taketera utse zara ta*
- *bai, da neure alabie be taketerie, da nor geidrau?*

## **TAKETIEN**

Jenio txarrean umore txarrean.

- *dxun naienen gauzek eruten, taketien dauela esan dost*
- *takeden dau, gizona edxatzolako etorri*
- *beti dauz arek taketien*

## **TALLEPE / TELLAPE**

1. Auzoa. Biak erabiltzen direnez biak sartu dirut baten.

- *geure tallepeko jaidxetan herri kirolak ongo diez*

2. Teilatupea.

- *geure tallepera bizitzen etor diez, baie ondiño ez dotez ikusi kolarran*

## **TALLEPEKUE**

Auzokoa.

- *gure tallepekuek danak tiez okasinte batzuk*
- *tallepeko gaztiena ezkonduen da*
- *nik tallepeko onak dakotez*
- *ba, gauze andidxe da tallepeko onak okitxie*

## **TALUEN ARPIDXE**

Aurpegi zabala eta biribila daukanari aplikatua.



- *beran taluen arpidzegaz, mobidu bez gero*
- *zeure taluen arpidzegaz ez beitu iñori, enfada eitxen nozu te*

## TANBOLIN PALO

Oso mehea, batez ere bernak.

- *zure lagune zelako tanbolin palue da, eztau dxaten ela?*
- *enebada! Tanbolin palotxuek takozuz izterrak*
- *ia! Dzan asko, orrek tanbolin paluek loditxuteko*

## TANBORRA DXO

Notizia bat edo sekretu bat lau haizetara zabaltzea.

- *zu, alabatzu, ariñ dxun zara tanborra dxoten. Nik ez dotsut esan iñori ez esateko?*
- *tanborra dxoten asi berton, danak enterateko. Zuk takozu arpidxe!*
- *eztauela gure iñok dxakitxie, da bera asi de tanborra dxoten*

## TANBUTXUE

Itsasontzi baten bodegarako sarrera zuloa da. Lauki zabala eta baxua da. Konparazioan pertsona lodia eta txikia. Salbuespenak ere badaude, gauzak gisa horretakoak direnean aplikatzen da.

- *tanbutxue lakue da bera mutille, enbrie baiño pie bat txikidxaue*
- *ba beran lagunen nobidxie bai dala tanbutxue*
- *zirkuen ikusi duzen enbrak eta mutillek tanbutxue tiez*

## TANGA / IE

Portzelana erregogorrezko ontzia. Antzina ez zegoen besterik eta gaur be erabiltzen diren horren antzeko ontziei, horrela deitzen zaie.

- *tanga bete ur ekarristaixu egarri nai txe*
- *tangie beteta ekarri tsut da amen itxi geruau gure bazu be*

## TANGARRO / UE

Era guztietako ontzia.

- *berau eskatza tangarrukaz beteta dau*
- *tangarro bat artun, da ure ekarri errekatik*
- *tangarro zarrak, guztidxek, botako dotez aidien*
- *an eztot ikusi nik tangarrorik*
- *esneduneri imiñi esnien tangarrue atepostan*

## TANGETERA / IE

Antzina itsasora kafesnea eramaten zen tresna da. Gaur egun, analogiaz, hauskorra ez den beste edozein ontzi.

- *an dxun da a, beran tangeterie artun de plazara, esnie erosten*
- *onek tangeteriek eztost kabiten gure doten beste kresel*
- *tangetera andidxaue ekar biar*

## TANTO KONTU BATEN

Neurtu barik. Gutxi gorabehera.

- *ez dostez pise arraiñek, tanto kontu baten emon dostez*
- *tanto kontu baten emonda, zelan dxakingu zemat metro paga biar tsagun ba?*
- *arek a berbie tanto kontu baten esan dau, meidu barik berbiek takon pisue*

## TARASKA

Emakume bat da. Bermeon plaza baten aurkitzen den odaliska. Dotore jantzita dagoen emakume baten estatua da. Antzina, estatua hori emagaldu batena dela esaten zuten. Gaur egun emakume traketsa, baldarra definitzeko erabiltzen dugu hitz hori.

- *aregaz taraskiegaz zabiltzez? Zeuk pe laster artungo zu beran antza*
- *da zelan dako ixena tabema barridrek ba? Taraska. Ene alabie, eztau besterik?*
- *nondik zatozen gu dot dxakin nik, taraskien antzagaz etorteko*
- *zeitrik takot taraskien antza ba? Aitxiko!*

Erdarazko hiztegitan herensuge izugarria dela adierazten da, eta figuratiboan daukan zentzua **mujer fea, maja y desenvuelta** da. Guk ematen diogun zentzua ez da berdina, ezta plazan dagoen irudiak ematen duena ere.

## TARDANTZA

Berandutzea. Atzerapena.

- *beragaz onai berbetan da zelako tardantzie emon dost ba*
- *esan amari itu txikidxen tardantzie emoteko*
- *gaur ezkara allegako Bilbora orduen; tardantza andidxe dau*
- *tardantziri ez beitu, ariñau korridu bi du*

Kintanak bakarrik jaso du Bermeon hain erabilia den hitz hau:

**tardanza** → **ardantza**.

## TARDANTZIE BILE / EMON

Umeak momentu baterako etxetik kanpora botatzeko aitzakia.

- *txetxo jun zaitzez tardantzie bile amumanera*
- *alabaxu tire izekonera, eta esan tardantzie emoteko*
- *onek imiek azukara lar jan dau, eta oin eztau nok aguantako dauen, amumanera botakot tardantzie bile*

## TARRAZTO

Irain baten antzera botatzen da. Zeresanik ez, peioratiboan ere erabiltzen dela.

- *tarrazto, etorko zara ona biarrien*
- *mueble tarraztuek ezan diez da bota eñ drotez*
- *eurok tarraztuen antzeko magaridrek tiez orrenbeste diro?*
- *tarraztuek? balekozuz kamara bete, tarraztuek tizela ta*

## TARTANA

Tartamutua.

- *au imie tartanie du, da ontzerarte ez gara dxeusi kontuen*
- *tartanarik ongo da zuk baiño obeto eitxen dauenik berba*
- *ni enai tartanie, baie nerbiosa paraten naienien bai*

## TARTANATU

Tartamutu bihurtu.

- *nerbioso paraten banai tartanatu eitxen nai*
- *ez tartanatuteko, kantaten ein bide berba*
- *tartanatute bertan zer esan ezien, zelako apurue pasa dot ba*

## TAUTIK / TAUKETIK

Ezer ez egin.

- *arek alperrak eztost gure tauketik ein*
- *tauketik ein barik zelan bixiko da ba?*
- *loteridrek urteten doskunien tauketik ein barik bixiko gariez*
- *egunien egunien dxungo garie plaidxera, auri, tauketik pez*
- *etor danik eta ona eztau esan tautik*
- *eztau esan, baie tautik be eztau eñ*
- *lo ta lo ein da gero tautik esan barik dxun dok*

## TEN

Tiratu.

- *neuk esaten dotsutenien ten txikotari*
- *ten auneri, da ez itxi neuk esan arte*
- *iñok esan orduko ten dotso jersetik eta apurtu ein tso*
- *berak pe erropatik ten tso ta*

Azkuek jaso du, baina ez du esanahi bera.

## TENKA

Tirutzen.

- *denpora guztidxen on gariez tenka txikotari*
- *tenka tenka ibill dxiez, da azkanien be, apurtu ein dxauie kortiñie*
- *zeitxiko zabiltzezie orreri tenka ba, eziñ itxi bakien*
- *aridxeri tenka on zara baie ez totsu urteten kanilletik*

Azkuek, **tenka** forma jaso du, Tx, Agirteren **Kresala** tik.

## TENPLANTZIE

Patxada.

- *zuk takozu tenplantzie alabatxi, lo ein berton*
- *zelako tenplantzigaz kontesta dost ba*
- *tenplantzie okin bi de, ostantzien infartue emoten dau*
- *ori dona tenplantzie, altzako zara, zauzen lekotik!*

Ez du gaztelerazko **templanza** hitzaren esanahia, nahiz eta formaz berdina izan.

**templanza** → **tenplanza** → **tenplantza**.

## TENTELA

Kokolo. Tonto. Ganoragabekoa.

- *tentela da ori enbrie, orreri nok esan tso ona etorteko*
- *tentela zaralakon pasaten dxatzuz orrek gauzek*
- *baie noiz ikasko zu eztala ein biar olan, tentelori?*
- *da neu bertan tentela lez, mobidu be ein barik*

Azkuek Mundakan eta Gernikan jaso du, baina Bermeon normalki erabiltzen da, baina Azkueren garaian erabiltzen bazen ere, galdu egingo zen, Mundakan behintzat, hor, urte askotan ez baitzen erabiltzen euskararik edo oso gutxi. Hala ere, azken aldia zabaltzen ari, eta telebistan ere entzuten da. Baina segurutik, **tenteldu** oraindino Bermeon bakarrik erabiltzen direna.

## TENTELEDU

Tentel bihurtu, aditz forman.

- *aspirina asko artzien dotenien tenteldu eitzen nai*
- *ezkondu danik eta ona tenteldu eĩn dxe*
- *iñor ez tenteldu zeure berbakaz*

Azkuek ez du jaso, baina D.A.R.k bai, **tenteldute**, adberbio forman, Ondarruko Agustin Zubikaraien zita bat aipatzen da. Bermeon, aditz funtzioa betetzen du forma honek.

## TENTELEDUTE

Tentelduta, adberbio forman.

- *ardauen ardauegaz. . . tenteldute gelditxu de bertan*
- *ez imiñi taketien e? neiku nau tenteldute gaur goixion da*
- *tenteldute nau daburduko, kafe kargau bet artun bikot espabilleteko*
- *on dan beste jentegaz, an ibil gariez tenteldute, ara ta ona*

Lehen esan bezala, adberbio funtzioa, kasu honetan betetzen du, eta ez bestean.

## TENTELKEIDXEK

Tentelkeriak. Beti pluralean.

- *arek esaten txuzen tentelkeidxekez jentie be enfadata dako*
- *tentelkeidxekez eitzen txuz, jentie berari begire plantateko*
- *ez ein tentelkeririk, nigaz zauzen artien beintzet*

## TENTELUNTZI

Tentela hitzaren sinonimo bat.

- *tenteluntzidxe da, soiñeko erropak pe etsoie kentzien ori*
- *atxiñe esan tsoie areri tenteluntzidxe dana*
- *tenteluntzidxen gauzek eitzen txuz da ganera barre eitzen dau*

## TERMIÑO / UE

Distantzia fisikoa eta denborarena.

- *termiño txikidxen taberna larreidxe dau*
- *eztost emon termiñorik biarra akabateko*
- *termiñue andidxe ezan arren eztau zetan imiñi orrenbeste arbola*
- *partido batetik besterako termiñue, laburre da, ta eztau emoten denporiek*

## TERRELA

Itsasoan gauz ibiltzen den haize freskoa. Baina konparazioan biharamona, ostea da.

- *terrela dakar da dxakiek dxantzi biko duz*

- *terraltxue on da baie ondo e!*
- *amen datost terrela, oire dxun biko nai pasa arte*
- *atzo gaueko terrela pasa barik takozu*
- *plaidxera dxun da terrela pasaten*

Gaztelerazko **viento terral** hitza erabiltzen da honetarako.

## TERRESTE

Lehorrean lan egiten duena. Ez dakit kostaldeko beste herrietan erabiltzen den hitz bau. Bermeen asko.

- *fameli guztidxe esan da terrestiena*
- *terrestiek biridxe dakoie ona, gure aldien*
- *eztau guzan alabie terrestiegaz ezkonduie*
- *partidue terrestiek eta mariñeruen artien ezango da*

Gaztelerazko **terrestre** = **referentes la tierra** izan da erabilitako hitza.

## TERRIÑE

Esne-ontzia. Bermeen edozertarako erabiltzen den ontzia.

- *auri terriñe ekarri, ure artzioko, kendu eingo dauie ta*
- *gure esnedunek etxuz garbitxuten ondo esne terriñek*
- *beran terriñe guztidzekaz planta dxatzu esnie saltzien*
- *terriñek ondo zarratu, autse sartun barik*
- *terriñ andi bategaz neiko da, egun guztireko ure artzioko*

## TERTERA

Tartera. Baina zentzu zabalagoan, hau da era guztietako kazolak, basazkoak izan ezik.

- *terterie prepara zuk, neuk eingot dxatekue ta*
- *bota terterara oridxue ta kinpulie*
- *tertera andi baten imin guz muxillek*
- *aur terterautxuen imiñi okelie*

Gaztelerazko **tartera** hitzak esanahi mugatua badu ere, Bermeoko erabileran askoz ere zabalagoa dauka.

## TERTZA

Arrantzarako apareiua. Amuak kordeletan karnatarekin homituak eta metro askotan eratuak, krielean bilbatzen da. Hitz hau lokuzioetan agertzen da, konparazioan beste zentzu bat hartuz.

- *tertzak plamie bi dizela, esan dau patroiek*
- *tertzak botaten dxun diez gaur goixion*

- *berandu ala dauie tertzak*
- *ondo plamie barik on da ori tertzie*

Azkuek Bermeokoa bezala jaso du hitz hori, baina honen aldaera bat **tretza** da hain zuzen, kostako beste herri batzuetan ere erabiltzen da.

## TERTZA FALTAUE

Zalantzazko fama edo erreputazioa txarra daukan pertsona. **Tertza** berba honen inguruan esaldi asko sortu dira. Tretza edo tertza, Bermeon esaten den bezala, arrantzarako apareiua da, eta hau krielean bilbatzen da.

- *zuk esan zun enbrie tertza faltaue da, beraneante guztidzekaz ibillikue*
- *beran aitzie be tertza faltaue ezan da, baie Bilbora dxun danien morroi bategaz ezkondu de*
- *tertza faltau guztidzek dakoie suertie txo, dxuen Canariasera da enbra aberats bategaz ezkondu*

## TERTZIE NASTA

Dena nahastu.

- *isillik on tertzie nastaten zauz de*
- *tertzie nastaten eztau obiaurik, dana nasta bidau*

## TERTZIE PLAMIE

Tertza bilbatzearen horren konparazioz, zera ematen du: Nahastu. Intrigatu. Azpijokoan aritu.

- *iñor ez enterateko terzie plamie, da berak gure dauena eiñ dxau*
- *terzie plamieten abillauek zarie andrak*
- *zeu zara terzie plamie dozune, asike oraiñ zeuk konpondu biar dozu asuntue*

## TERTZINAK

Emakumearen hilekoak. Oraingoan gaztelerazko **tercianas** antzinako berba da. Gainera peioratiboan erabiltzen da.

- *dardakadan zauz alabatxu, tertzinakaz zauz ela?*
- *ezta etorri plaidxera. Tertzinakaz ongo da!*

## TEÑAZTO

Ezkabiatsu. Gehienetan irain modura erabilia, eta askotan deigarria ere bai.

- *teinaztue zara, teñaztua, agarraten batzut ill eingo zaitxut*
- *txo teñazto! agarra auneri txikotari*
- *teñazto, ardaue edo zerbezie guzu?*

## TEÑIE

Zentzu figuratuan, ikusiezina, gorrotoa, iskanbila. . .

- *gure artien sartun zan teñie ta. . .*
- *bai, bazan teñie amen erridxen*
- *teñie ta txarrikeitxe baiño eztau gure artien*

## TIADORA

Tiradera.

- *irugarren tiadorien topako zu bi zune*
- *maidxeke tiadorien dauz kollarak*
- *tiadorak eztakozen armaidxorik eztot kure*
- *nik eztot kure tiadorik ba*

Gaztelerazko **tirador** = **asidero para cerrar y abrir** hitza, kaxa adierazteko zabaldu da.

## TIESKUE

Kioskoa.

- *tieskue banderaz beteta dau*
- *ainbeste buelta emon tsagu tieskuri arroskuen*
- *goiko plazako tieskoko bonbille guztidzek apurtu dauie*

Gaztelerazko **quiosco** edo **kiospio** hitza da horren etimologia.

## TINDI

Apur bat.

- *bota eistana tindi bet, aue gozotuteko sikan*
- *tindi tindi bategaz dako zu neiko useiñe emoteko*
- *tindike tindike zabiltzez, botairu geidrau*

## TINDITXU / E

Pixka bat. Apur bat baino gutxiago.

- *ardau tinditxu bet bota auna basora*
- *ur tinditxu bategaz imiñi tarterie suten*
- *egon tinditxu baten ensegida etorko nai tre*
- *tindi-tinditxu bet luzetu bi zu erropie*

Azkuek, Mundakan jartzen du hitz hau; Bermeon normalki erabiltzen da.



## TIPOSO / A / UE

Itxurosoa. Itxurazkoa. Pertsona, animalia edo gauza.

- *au arbolie da tiposuena*
- *bera enbrie tiposie da gero*
- *ba mutille ezta bape tiposue*
- *erlojo tiposue ekar tsu gizonak*

## TIRAÑEK

Zirikada. Zeiharresana.

- *neu pasaten naiien bakotriden, tirañek botaten asten da*
- *tirañek botaten on barik, arpire esan esateko dakozune*
- *eztau gure asarratu, baie tirañek botaten segiten badau asarratu ein biko dau*

## TIRE

Azentuaren arabera esanahi ezberdina izan lezake.

1. Aginduzko tonua dago.
  - *tire ara, da ekarri an dauen otzarie*
  - *tire ortik enbarazuen zauz de*
2. Etsipen tonua. Gaitzerdi.
  - *tire, eiñ dxot biarran erdidxe ta*
  - *tire, laster datoz gabonak eta*
3. Trankil egoteko tonua.
  - *tire, laster pagako tsu zorrak eta*
  - *tire, eingot esan zun biarra ta*
4. Arrakasta dagoela salmentan adierazteko tonua.
  - *gaur tire andidxe on da plazan*
  - *ba atzo ezta on tirerik*

Azkuek ez du jaso baina D.A.R.k azkena jaso du Lhanderen zita bat aipatuz.

## TIRIBIRE

Irauli. Anodatu.

- *ardauen botilliek tirebire eiñ dxau, ta eztau ardaurik*
- *orrek batelak laster tirebireko dau, karga lar dako ta*
- *munetik bera due tratora, tirebire eiñdxe*
- *maidxetik bera tirebireko dau, olgetan bazabiltzez*

Azkuek **vuelco de embarcación** zentzuaz jaso du, baina Bermeon, hori baino esanain zabalagoan erabiltzen da. Hala ere, galtzen ari den hitza da, hogei urtetik beherakoetan oso gutxi entzuten baita.

## TIRRIDXE

Tirria. Ezinikusia.

- *tirridxe dakostazu ezin zulakon ein neuk eitxen dotena*
- *zelako tirridxe dakotso ba, eziñ dxau ikusi be*
- *tirridxe okitxie ezta ona ba*
- *edozeineri dakotso tirridxe orrek*

Gaztelerazko **tirria** da, eta zentzua ere berbera. Azkuek hiru definizio ematen ditu hitz horrentzat eta hirugarrena da zentzu honetaz jaso duena, Goi-Nafarreraz.

## TITIRITERUEN ANTZA

Janzkera barregarria izan.

- *aratustiek diez ela? Nora zatoz titiriteruen antzagaz ba!*
- *ezkontzara tirititeruen antzagaz, ia markie!*

## TOFEZ

Aurrez aurre aurkitu.

- *beragaz tofez ein da arpire beitu be eztost ein*
- *da oiñ arte eztozu eiñ tofezik?*
- *eiñ dxau orrek tofez beñola ziñetik urten dunien*

Seguruena frantseseko *to face* hitzetatik hartuta dagoela.

## TOKAMENA

Tokatzen zaiona.

- *kobra zuie bakotzaren tokamena?*
- *nik eztot artun ondiño neure tokamena*
- *ba, sasoie dau ba tokamenak emoteko*

Hitz honetan argi ikusten da erdarazko berba bat geureganatzeko daukagun gaitasuna.

## TOLA / IE

Kanpinetan erabiltzen den edontzia.

- *tolak erosi bi dotez eskursiñorako*

- *obiauek tiez plastikozko basuek tolie baiño*
- *baie basuek apurtu eitxen diez da tolie barriz ez*

## TOLETA

Toleta. Konparazioan zakila.

- *toleta ondo dauenien gorputze be ondo oten da*
- *beran toleta aidien dakola on dxatzu txixe eitxen*
- *toleta ebaiko tso andriek, beste andra bategaz dabillela enteraten dartien*

## TOLLE

Arrain bat da, marrazo familiakoa. Konparazioan erabiltzen da energia gabeko pertsona definitzeko.

- *tolle lez dau benan mobidu be ein barik*
- *dxantzan be edxatzo gustaten, tabnera dxutie bez, eske, tolle da*
- *zelako tolle dako zu andrie ba, barrerik pe eztau eitxen*

Azkuek Bermeorako jaso du hitz hori, baina esanahia pixka bat ezberdina da, **hombre cachazudo** definitzen baitu.

## TONBOLO / UE / IE

Pertsona lodikotea.

- *tonbolue dala ta, argaldu gu dau*
- *beste neskatilxue be tonbolatxue da*
- *tonboluek eta tonbolak eztakoie munduen, bixitxeko deretxorik ela?*

## TORTOLA / IE

Alua. Beti erabiltzen da gogor hitz egiten denean, edota, haserre tonuan.

- *neuri emostazu txikidxena ezta? Tortolie dako zu zuk zarra*
- *arrañ asko ekartsue ezta? Arrañ asko? Zeure tortolie!*
- *arek tako, tortolie erreta, ibill dxen beste gixonegaz*

## TORTOLA BERINKATIE

Pertsona potolotxoa eta ona, baina emakumea.

- *zelako tortola bereinkatie daku etzien, eztau emoten gerrarik pe berak imiek*
- *beran imien ama be tortola bereinkatie da ta*
- *alabatxi, emega; aurreitrik zauz zu tortola bereinkatie lez*

## TORTOLA BERO

Gizonak asko gustatzen zaizkion emakumea.

- *tortola bero orregaz ezkonduko da? Eztaki zelako alajie daruen*
- *tortola bero zantarra ezanda be, bera ezkondu*

## TORTOLA KAKA

Norbaiti modu maitakorrean deitzeiko balio du.

- *hamen neure tortola kaka, zelan zauz ba?*
- *\*tortola kaka, jun adubidxetara haizie hartzien.*

## TORTOLIE LAKUE

Pertsona lodikotea, baina andrazkoa.

- *tortolie lakute da berorren andrie, baie beitu berori ze argala dan*
- *zelako neskatillie ein zara ba, tortolie lakotxue zara gero*
- *gero ezta eingo tortolie lakue ba, Lameran emon ezkeror orduak dzesarritxe*

## TOTAL

Oso.

- *total ondo pasa du Mañuko jaidzetan*
- *azterketie total txarto eñ dxot*
- *total politxo pintze dauie Talako ormie*

## TOTALEKUE

Totalekoa. Ezer edo inor baino gehiago.

- *okasintie totalekue da bera gizona*
- *erosi dauen kotxiek, korridre dako totalekue*
- *totaliekue zara gero, eztau zu baiño andra fiñaurik*

Azuek **totala** jaso du zerazu berdina.

## TOTO / UE

Pertsona lodikotea.

- *ezta lodi lodidxe, baie totue da*
- *ze tototxue da au imie*
- *totue baiño obeto da apurtxu bet argaltxue ezatie*

Azkuek beste zentzu batez jaso du forma hau.

## TOTOLODI

Pertsona baxua eta lodikotea.

- *orrek, totolodidxe dako ama*
- *eztakiru nor dan, aulako totolodi bet?*
- *orrek imiek totolodidxauek tiez*

Azkuek ez du jaso, D.A.R.k, ostera, bai, baina zentzua **bobalicón** jartzen du; beraz guztiz zentzu ezberdina.

## TRA(N)KERO / UE

Trasteak.

- *geure trakero guztidxeek artun, da an guzak trenera*
- *trenik bapez txo, ostabe artun trakeruek eta etzera*
- *itzi berton trakero guztidxeek, baten batek erungo txuz de*

## TRABES

Txarto.

- *gauzek ezpaduz eitxen ondo trabes ibilko gariez*
- *zelan dabiltzez zure gixona ta ba? Trabes dabiltzez, txarto*
- *trabes be, trabes dabiltzez gero*

## TRABES TRABESKA

Itsasontzia gilarekin perpendikularrean doanean esaten da. Konparazioan txarto ibiltzen den pertsona.

- *amen guez trabes trabeska korrontak tiñonien, eurekaz batera*
- *gu aixiek tiñonien guez ba, trabes trabeska, azkaningoko txikitue artzien*
- *trabes trabeska dxun da mozkorragaz, eztaitx zelan aillegako dan etzera*

## TRABESEKO PAELA

Paela, itsasontzietan arraina gordetzerakoan erabiltzen diren trabesetara jarritako oholak dira. Horrela, bada, gauzak oker egiten dituen edo noraezean ibiltzen den pertsona definitzeko erabiltzen da.

- *nok irebazi dau korkursue? Trabeseko paelak; bera bakarrik presenta da ta*
- *txo, trabeseko paela zara txo, Bilbora dxun biarrien Gerniken lotu*
- *trabeseko paela be ezta a makala, beti dabill noraezien*

## TRABESTU

Txarto hitza, baina aditz funtzioan.

- *asikeran gauzek ondo dxun diez, baie orain trabestu eĩn dxiez*
- *geuri be trabestu eĩn dxaskuz okiĩn dxuzen asmuek*

## TRABESTUTE

**Trabes** hitza adberbio funtzioan erabiltzen bada, kasu honetan ere funtzio hori beteko du.

- *denbora guztidxen ibilli gariez trabestute*
- *diro barik, osasun barik eta kriston serra barik, trabestute ibilko gariez*

## TRAGARRO / IE

Asko jaten duena. Dena beretzat nahi duena.

- *zelako tragarroie da ba, albokuenak pe dxan eingo lekitxuz*
- *ez esan tragarroie, ostantzien kolikue okingo zu*
- *tragarroiaue zara, neure pastelak pe zeuk gure zu dxan*
- *tragarroie zara alabatxi, neure erropa danak guzuz zeuretzako*
- *tragarroiek pe aulan ibilltzen diez, dana atrapa guren*
- *tragarroi utse da gero, ezta konformaten atrapatzen dauenagaz*

## TRANKA

Barrutik krisketaz atea itxi.

- *atie tranka bi de, etzetik urten orduko*
- *tranka zu ondo atie?*
- *nik ondo trankaten dotez bentanak eta balkoie be*

Gaztelerazko **atrancar** edo **tranear** aditza erabiltzen da kasu honetan, eta funtzioa ere aditzarena dauka.

## TRANKIE

Antzina ateak. zarratzen ziren palua. Analogiaz, gaur ere erabili egiten da, atea ondo zarratzeko definizioaz, barrutik krisketarekin, hain zuzen.

- *trankie botata itxi dot atepostako atie, badaezpadan be*
- *trankiaz bakarrik itxi dot atie ta preokupeta nau*
- *ori zarra kendute, tranka barridxe imingo tsagu atiri*

## TRANKO / GE

Pausu luzea, handia.

- *tranko andidzegaz ibilli ezkeru, laster allegako gariez*
- *Mundekararteko trankuek eitxen txuz*
- *bost trankotan eitxen dau Lameratik etzera*

- *tranko txikidrek eitxen bazuz, ez zara allegako eguno be*
- *San Juanek iru trankotan eññ dxau Bermiotik Gaztelugatxerako bidie*

Gaztelerazko **tranco**-tik sartu da zuzenean. Azkuek baxe-nafarreraz eta Er-ronkariko Uztarrozen jaso du zentzu honetaz.

## TRAPO OLATUE

Itsaso astinduak -baina ez itsaso handia- sortarazten dituen olatua. Edonondik joten du.

- *trapo olatue dauen artien eztoqu eingu ezebe*
- *edonondik dxoten gaitxuz olatuek, klaro, trapo olatue dauelez*
- *trapo olatue beti da molestue*

## TRASTE / IEK

Altzariak. Tretxuak. Trasteak.

- *traste barridrek erosi dotez etze barrireko*
- *da ze eingu zu traste zarrakaz ba?*
- *trastiek igaro bi duz etze zarretik barrire*
- *trastiekaz beteta dakot etzie*
- *trastien trastiegaz, aurki bet non be eztau*
- *balidxo eztauien trastiek bota eingu tez*

## TRAUSKIDXE

Pertsona dorpea, baldarra.

- *trauskidxe da dxazten, beran aitxe lez*
- *ibilkerie be trauskidxena dako ta*
- *ezta bape fiñe bera enbrie, menditxik bajaikuen antza dako*

Azkuek, bere hiztegian jaso du hitz hau, Mundakako Otxoluaren zita bat aipatuz. Definizio berbera ematen dio.

## TREBERIE EDERRA

Alua handia izatea. Konparazioan emakume bizkorra, ernea, bizia.

- *zu, alabatxu, trebera ederra dako zu zuk, zeuk gorde arraiñik onenak da niri txarrenak emon*
- *nik treberie dakotela ederra, zeitxik? Zeu baiño ariñau allega naielakon?*

## TRENAK EKARRIKUE

Kanpotik etorritako emigrantea.

- *aurrek, trenak ekarriko guztidrek sartun diez parte zarreko etzietan*

- *bai, orrek, trenak ekarrikuek, batzuk kukurruku eiñdxe dauz*
- *trenak ekarriko bategaz ezkondu de zeure lobie be, da ze, mutill ona*

## TRENTIN BAKUE

Adimen eskasekoa. Baina peioratiboan erabiltzen da asko.

- *trentin bakue dozu koitxadie, eztau okiuñ nok artun eskue be ta*
- *trentin bakotxuek diez aizte bidxek*
- *alabatxi, ganorie artun, trentin bako tentelori*

## TRENTIÑE

Adimena. Ganora.

- *trentiñie be galdute dakot alabatxi, berori gauzie pasa dxastetik eta ona*
- *ba trentiñie galtzien bazu, galdute zauz zeu be*
- *meisuek esan tso, beran imiek eztakola trentiñik eta gora goraka asi dxatzo*

Azkuek, **cachaza** zentzuaz jaso du.

## TRIBIS DA ENPARE DXAN

Asko jaten duen pertsona, Tribis eta Enpare Bermeoko auzoak dira.

- *orrek, maidxen paraten daniel, tribis da enpare txaten dau*
- *neure gixonak pe dxango lekidau, tribis da enpare*
- *tribis da enpare dxan ezkeru, on biar tripie altza eiziñik*

## TRIKIMALLUEK

Beti erabiltzen da pluralean. Maltzurkeriak. Trikimailu. Aitzakia.

- *ez etorri trikimailluekaz, ezta kot diskutiteko ganarik eta*
- *trikimailluek tabiltzez arek, zema kure*
- *trikimalluekaz datorren personie ezta fidxetekue*

## TRILLE

Urratu.

- *jersien ukunduek trilleta dakozuz*
- *trille dizen erropak dxosi bi diez*
- *ba frakak pe trille trilleta dakotez*

Hitz honen aldaera bat, Azkuek jaso du Otxandion baina Bermeon, esanahia, zabalagoa da.



## TRIMILDXU

Urratu. Apurtu. Zati-zati.

- *maidxetik bera dxesitxe trimildxu diez baso guztidzek*
- *okiñ dxauien azidentiegaz kotxie be trimildxu eiñ dxatzoie*

Trille hitzaren sinonimo bat izan daiteke, baina honek zentzu zabalagoa dauka.

## TRINKE

Estutu.

- *trinke ein bi diez txikotak solta barik*
- *ondo trinketen bazuz ez tiez apurtuko*
- *ezpastazu emoten dirue, trinke eingo zaitxut*

Gaztelerazko **trincar** aditza pixka bat aldatuz edo behintzat zentzu zabalagoan erabiltzen da. Funtzioa ere aditzarena betetzen du.

## TRINKETA

Estututa.

- *on dan beruegaz danok bertan trinketa, ezer be eziñ ikusi*
- *erropie be trinketa darue*
- *garridxe istu istu, garrikue trinketa, arnasarik artzien be eztost itxitzen*

## TRIPE USTELA

Arduragabeko pertsona. Ernegatzen ez duena.

- *tripe ustela dakozu alabatxi, imie kalenturiegaz da zeuk emega bez*
- *zelako tripe ustelak zarie gixona ta andrie, bidxok, kasurik pe ez imieri*
- *zeuk ikusi zelan dabilzuen ama antzidxerako be etsazue tripe ustelak zarie*
- *tripe ustelak dakoie, ezkondu ein biar da ondiño arriorik pe ez*

## TRIPEK DXATEN

Arrabiaz.

- *entzuten dizen gauzek entzun de, tripek dxaten paraten nai*
- *an dau a, tripek dxaten, geugaz ez datorrelako Benidorrera*

## TRIXIE LISTO

Prest egon. Adi egon. Antzinatik datorren berba da. Trixa antzina erabiltzen zen apareiu bat da, itsasontziek bela erabiltzen zutenekoa. Gaur egun ez dago horrelakorik, baina esaldia eta zentzua berdina da, nahiz eta beste egoera batzuetan erabili.

- *trixie listo e? Ikusko zu zelan dxungo garizen danok popadan, gerrie etorten badan*
- *auna beitu, ta trixie listo laster urtengo dau txoridzek eta*
- *loteridzek urten tsola? Ba, trixie listo egidxe ezango da ta*

## TROIXAK

Ile-txortak.

- *troixak ondo orraztute erun bi dotez eskolara*
- *beste egunien esan dost gure imiek, troixak ebai bi tsatezala*
- *nik elekitzat ebaiko, troixa luze-luziek okin arte*
- *bai laztana, primera komunion eitzen zunien ebaiko tsutez troixak*

Hitz hau adinekoen artean bakarrik entzuten da.

## TROKATU

Biburtu. Bihurdura.

- *kaderie trokatu dot, atxa batetik bestera saltakeran*
- *ez dxatzo trokatu, apurtu ein dxatzola esari tso medikuek*
- *trokatutie txarraue da, apurtutie baiño*
- *izter bidzek trokatu dxatzo*

Azkuek Lekeition eta Gernikan jaso du, baina Bermeon oso erabilia da.

## TRONGILLE

Pirikoma. Bulto.

- *onek kokletak trongillek takoie*
- *barizek atata dakotez trongillek izterratan*
- *au trongille kendu bitsat oneri armaidxuri*

Azkuek jaso du hitz hau, baina zentzua, mugatuagoa da.

## TRONPONADA

Asko. Masa. Tropela.

- *huri tronponadie bota dau, da urek altza diez*
- *arrañnen tronponadie on da baie ezta baja prezidxue*
- *zelako tronponadie etor da ba, kasinuek pe artun bez*

Izenaren funtzioa betetzen du.

## TRONPONADAN

Asko. Masa. Tropela, baina adberbio funtzioan.

- *hainbeste denporan ezer on bez, da oraiñ dxai guztidzek tronponadan*
- *ziñera tronponadan sartun de jentie, da idxe itxo bertan*
- *tronponadan etortie baiño, obeto da apur apurke etortie arraiñe*
- *illietan euri barik, eta oraiñ, eztanien biar, tronponadan euri guztidzek*

## **TROSKILLE**

Pertsona fina ez dena. Baldarra. Dorpea. Baserrikoa.

- *troskille da, baie ikasiko dau amen geratuten badan*
- *bera aldiano troskille dala guapue diñostazu!*
- *bada troskille, baie otsue lakue da*

Azkuek zentzua pixka bat aldatuta jaso du, eta F, Segura aipatzen du.

## **TROSKO / UE**

Zati handi-handia. Pertsona edo gauza dorpea.

- *okela troskuekaz gisadue eiñdxe dxan du gozo*
- *ogi troskuek eitxen txuz sopatan*
- *onek kokletak jamoi troskuek takoie barruen*
- *zapata troskuekaz enue ni kalera*
- *trosko troskue da korriten*

Azkuek forma honi ematen dion definizioetako bat, azken hau dugu. Bestea ez da zentzu berdinekoa, Berak F, Segura aipatzen du hitz hau jasotzerakoan.

## **TRUBEN**

Noraezean. Norabidea galduta.

- *bestela nabill truben zeu topa eziñik*
- *gau guztidten ibill garie truben zer eiñezien*
- *esan dauie bapor guztidzek dabiltzezela truben arraiñe topa eziñik*
- *truben ibilltxekutan, obeto da etzien geratzie*

## **TRUBOI / E**

Trumoi. Baina hemen konparazioan erabiliko dugu. Esaterako, pertsona bat nagitsu edo gaupasa eginda dagoenean nola dagoen definitzeko.

- *dxo dau truboiek, laster dxungo da oire*
- *kordu kalera, truboiek atrapa orduko*
- *onek beruek, truboie emoten dau*

## **TRUBOIEKDXOTA**

Gaupasa egin ondoren egoten den ajea. Nagitsu dagoenean pertsona.

- *truboiek dxota gauz danok, dutxe otz bana artu biarko dogu*
- *esnedunegaz batera etzera etorri ezkeru, truboiek dxota on biar*

## TRUBONADIE

Trumonada. Konparazioan, gaupasa egin ondoren egoten den ajea. Nagitsu dagoenean pertsona.

- *trubonadie eiñ orduko ein bi du bueltie*
- *trubonadak ezan diez partidue asi baiño lelau, baie gero ez*
- *Laiden on gariez trubonadie asi danien*
- *enuen ni iñora, trubonadie dakot eta*
- *okiñ dxun trubonadiegaz, Lamerako bankuen idxe luek artun*

## TRUXUEK

Euri-zaparrada.

- *dardakadan pasa dot gaue ezan dizen truxuekaz*
- *ezta gitxiaureko, inundaziñuek berez datoz truxuekaz*
- *ez aitzetu truxurik, ondiño aztu barik dakotez udekuek eta*

Gaztelerauko **chuzos** hitzetik sartutakoa dela dirudi.

## TUNBE

Jausi.

- *orrek imiek tunbe eingo dau*
- *botilliek pe tunbe eiñ dxau, da orain arda barik kauz*
- *orrek gobemuek laster umbeko dau*
- *tunbe geuk eingu guk, orrek gobernuek agiñe gogor dako txo!*

## TUNBETA

Etzanda.

- *plaidxen nauela tunbeta arri bet dxeusi dxast kadera ganera da zillue eiñ dxost*
- *non dau zure aiztie ba? Tunbeta dau oien, sastarra pasaten*
- *zeuzer pasaten dala ta, dxun garizenien ime bat ikusi du tunbeta konorte barik*

Adberbio funtzioa betetzen du.

## TUNBUTO / UE

Bulto handia.

- *oneri armaidxuri tunbutu batek urten tso alboko mandan*

- *buruen dakot Sollube baiño tunbuto andidraue*
- *izterrien dakozun tunbutue ez dxatzu kentzien ba*

## TUNKURRE

Bulto.

- *beitu zelako tunkurre dakoten bekokidzen*
- *zuk bat badoku nik tunkur bi dakotez*
- *eztie ezango ba, gizonak imin tsuzen tunkur bidæek*

## TUNTURRE

Bulto.

- *ia or buruen zer dakozun tuntur bet ikusten tsut eta*
- *buruen ezta kot ezer baie belaunien tuntur andi bet dakot*

## TUNTUX / E

Buia. Konparazioan andrazko baten enbarazua.

- *gure patroien andrie tuntuxegaz dau*
- *zeure aitzie be tuntux matxugaz dau*
- *ez orain tuntux barik tau, errie dau imie ta*

## TURDI(DU)TE

Harrituta.

- *ezta ba turdidutekue eñ dxauen biarra?*
- *egidæe, mundu guztidæe geratu turdidute PPra dxun dala esan dauenien*

## TURDIDU

Harritu. Lelotu.

- *entzun dotenagaz turdidu ein nai alabatxu*
- *danak turdidu diez, pentsa-pentsa barik etor da ta*

## TURRUNE

Arraina portura etortzen zenean, antzina kanpaia jotzen zen. Horri kanpaia zeritzoten. Gero **sirena** jarri zuten eta horri **turrune** deitzen zitzaion. Gaur egun ez dago ez kanpairik ez sirenarik, telefonoek egiten dutelako lan hori. Baina **turrune** esaten jarraitzen da horien antzeko zerbait entzuten denan.

- *goixien goixetik dxo dau gaur turrune*
- *entzun zu turrunik ela?*
- *turrune dxoten daueneko batera altzaten nai oitxik*

## TURTULO / UE

Tokor. Koskor. Baina, baita mozkorra ere, zentzu figuratuan.

- *emon tsun golpiegaz turtulo matxuek urten tsu*
- *beitu zelako turtulue eiñ dxosten orrek arridxegaz*
- *zapatien takoiegaz dxo dau buruen erdidxen, da turtulo mandue atara tso*
- *okiñ dxauen turtuluegaz etzie non dakon be eztau dxakiñ*
- *edan au kafetxue, turtulue kentzieko*

## TUTELIKLAS

Klase guztietakoak.

- *gure etzien zapatak tuteliklas dauz*
- *tuteliklas zeure boluek, soiñien dakozenak, ori esaik amari*

Erdaratik, frantsesetik seguru, edo batek daki nondik asmatuikoa den.

## TUTERREZ / IEN

Makina guztian. Azkar. Konparazioan.

- *an duez arek tuterrezen lekuek atrapatzen frontoie*
- *neuk pe tuterrez ein bidot etzerantz*
- *txikiteuek tiño, turrez ibilltxeko*

## TUTUEN BESTEKUE

Oso txikiak.

- *tutuen besteko imiek dxuten diez tabematara, da ori eztau ondo*
- *erosi eiñ dxuz, baie zelakuek? Tutue lako boltsak, ez ei dau andidaxaurik eta*

## TXABETADA

Burutik eginda dagoen baten ekintza.

- *zelako txabetadak okitxen txuz ba, eziñ dxakiñ zelan dauen*
- *txabetatute dauenak txabetadak ein biar*

## TXABETIE

Burutik ondo ez dabilena.

- *txabetiek eztau ekarri ezan dxatzona*
- *txabetie beti txabeta, berak gure dauena eiñ*

## TXANGA

Izorratu.

- *bueno ia ez padan txangaten egualdidxe... aritzatzure jun gudot eta!*
- *txo automotorra txanga dast, eta tallerrea saka-sakaka eruen bizan dot!*

## TXAKURRE EZAN BAZAN AINKE

Zerbait bilatzen ari garenean, eta aurrean eduki eta ikusi ez, esaldi hori erabiltzen dugu.

- *amen eztako zu pintxurie ba, txakurre ezan bazan ainke*
- *begidixen bisten okiñ da eziñ dxauela topa, txakurre ezan bazan ainke*

## TXAKURREK ELIXERAKO DAKON GANIE

Gogorik ez.

- *Bilbora dxuteko txakurrek elixerako dakon ganie dakot neuk pe*
- *bai, Mirenek pe esan dost, txakurrek elixerako dakon ganie dakola Benidorera dxuteko*

## TXANKAME

Hankak meheak dauzkan pertsona.

- *berak txankamiek deitxu tsu totolodi?*
- *zu txankamie bazara bera plastangie dala esan biar*
- *txankame utze da, baie tiposie da*

Hitz honen konposizioan **txanka** eta **me** (mehe) erabili dira.

**txanka + me → txankame.**

## TXANKAPISTOLA

Hankak oso meheak dauzkan pertsona. **Txankame** ren parekoa da, baina oraindino meheagoak dituena.

- *beran txankapistolak agiridixen dxun dxatzu a Lameratik*
- *orrek astuek txankapistolak takoz, da zelan erungo dau andrie ganien ba*
- *aren txankapistolak apurtutie ezta gatxa*

Kasu honetan, **txanka** eta **pistola** izan dira konposaketan parte hartu dutenak. Baina, **pistola** hitza ogi mota bati dagokio, hau da, oso mehe eta luzea den ogi tipo bati:

**txanka + pistola → txankapistola.**

## TXANTELA

Arrainaren faktura da. Kofradian ematen dena, gero bankuan kobratzeko. Baina orain edozein faktura izan daiteke, pintorea, dendakoa, arotzarena, eta abar.

- *txantela kobraten dxuteko esan dau patroiek*
- *kofradidxera tire, da esan txantela abalateko*
- *da pintoreruek txantela presenta dostenien idxe desmaidxe*
- *laster pasako dost neuri be txantela arotzak*

Azkuek ez du jaso Bermeon daukan zentzuaz.

Bermeoko kofradian gertatutako bitxikeria bat zera da:

- *txo, enbalaistek au txantela*

Hori entzun da askotan txantela **abalatzek** eskatzean. Eta hau ez da txiste bat.

## TXANTON / NIE

Erabat gorra.

- *txanton deitxuten tsoie gorra dalakon*
- *da Mikelari be txantonie deitxu biar tsagu gorra dalakon?*

## TXAPLIE

Arropetako ipingia. Parche.

- *zetako imitxen tsazu orrenbeste txapla frakai ba?*
- *txaplie imitxie modan dauelako*
- *bestelakue! Lelau txaplie dakoiien frakarik gure bez dxantzi, da oiñ txaplaz beteta edozer*

## TXARKERIDXEK

Umeen okerkeriak.

- *imie! Ontxe be txarkeridxek eitxen zauz!*
- *Kesusito dabill txarkeridxek eitxen*
- *bai, orrek eingo dau txarkeriren bat betikue lez*

## TXARPIE

Isuna edo horren antzekoren bat ordaintzeko datorrenean.

- *zelako txarpie dakot pagateko ba, multie edo eztakitx*
- *txarpa ederra etorko dxast neuri be kontribuziñuena*



## TXARRAPATA

Atzamarka. Aditz funtzioan.

- *pellikan asi diez da arpidxen txarrapata tzo*
- *eskuen txarrapata dost neuri be*
- *ori imie ensegida asten da edozeiñeri txarrapataten*

Ikusten denez, gehienetan partizipio barik erabiltzen den aditza da.

## TXARRAPATADA

Atzamarkada.

- *txarrapatadak takozuz, nok ein tzu ba? Sasidrek*
- *arpidxen ein tzon txarrapatadie ez dxatzo kenduko denporatan be*
- *gorputze itxi tzo txarrapatadaz beteta*

## TXARRAPATAKA

Atzamarka egiten.

- *txarrapataka asi dxast, neuk ezer ein barik*
- *plistadie emon biar, txarrapataka asten danien*
- *txarrapataka dakidxen imien ondolik asau ibilli*

Moduzko gerundio honek adberbioaren funtzioa betetzen du.

## TXARRAPATARIDXE

Elaiaren antzeko txoria, baina handiagoa. Arrano txiki baten erpak dauzka eta erasotzen dakiena.

- *txarrapataridrek edozein sasoitxen ibilltzen diez egaz*
- *askotan, elaiak tizelakuen, txarrapataridrekaz erretuten nai*
- *txarrapatarari asko ibilltzen da gure soluen*

## TXARRENARI EMONDA

Gehiegikerietan sartuta ibiltzea.

- *zuek txarrenari emonda zauzie ezta? Orduak tiez onek etzera etorteko?*
- *geure ama be txarrenari emonda dau, eztozt itxi biar bizitxen be*
- *txarrenari emon tsoiela? Gerrie bille dabiltzez orrek txarri, zantar guztidrek*

## TXARRI MARKAKUE LEZ

Erpakada, txarramiko betetik.

- *sasi tartetik dxun nai Burgora da txarri markae lez geratu nai*
- *ein tsozen txarrapatadakaz, txarri markauen antzien itxi dau*

- *bestela itxi nozu txarri markauen moduen zeure tritxemarkadakaz*

## **TXARRIASKA**

Pertsona lotsagabea.

- *txarriaskie be ezta makala a, edozer gauze esaten*
- *bakigu txarriaska utze dana, baie nok esango tzo ezer ba*
- *txarriaskakaz eztot kure tratorik*

## **TXARRO / UE**

Durdoi antzeko arraina, baina txikiagoa eta zabalagoa. Nahiko preziatua. Baina konparazioan erabiltzen da, kolore biziak dituelako soinekoei aplikaturik.

- *arraitxen dxun da, ta zortzi txarro atrapata etor da*
- *txarruek ondo gozo oten diez prijite*
- *gure imiri txarro dxantzitxe dxutie gustaten dxatzo*
- *ori erropie ez dxast gustaten txarrue da ta, kolore lar dako*

## **TXARRO DXANTZITXE**

Kolore nabarmenez jantzita.

- *ba, datorren uden danok txarro jantzitxe Lameran*
- *txarro jantzitxe etor dasku, atakontu erlie dala*

## **TXARTO IKUSI BURUE**

Egoera larrian aurkitu.

- *gerrie bator, txarto ikusiko duz geure buruek*
- *olan bazabiltzez, txarto ikusko zu zeure burue*
- *dakarrena dxun dizenien, txarto ikusi dauie euren buruek, an be gerrie dau te*

## **TXATIE LEZ**

Ederki. Primeran.

- *tximiñoiek urten dostie, txatie lez*
- *txatie lez dakotez Bilbon erosi dotezen frakak*
- *etzie lotu dxast txatie lez, papel barridæk imindæ*

## **TXATXARRA**

1. Oso eskasak.

- *txatxarran besteko sagarrak emon dostez, baie debalde*

- *onek zapatak txatxarrak diez ezkontzara eruteko*
2. Haginetako txantxarra.
- *agin guztidzek dakotez txatxarrak dxanda*

## TXATXUR

Umeei zuzentzen garenean haginak definitzeko erabilia da hitz hau.

- *ia zelan dakozen txatxurrek*
- *ikusi amari txatxurtxue*

## TXEPETXA

1. Pertsona mesfidatiei aplikatzen da konparazioan.
  - *an dabil txepetxa batelak beran pisue artungo badau aprobadi eitzen*
2. Pertsona txikia eta eskasa denean erabiltzen da gehien bat.
  - *berak txepetxan besteko morroiek grakue dala pentsaten dau*

Txepetxa Euskal Herriko txoririk txikiena dela esaten da. Ez dakit hori egia den, baina bai mesfidatiarena dela. Honek, enbor erraldoi baten gainean pausatzen denean, frogatu egin behar du bere pisua sostengatzeko gai den enborra.

## TXETXO

Deitzekoa dugu forma hau.

- *txetxo etorko zara ona*
- *ara txetxo, ezta kot zeure kontorik*
- *txetxo, itxistazu bakien*

## TXETXOTXU

Deitzeko forma, **Txetxo** bera, baina diminutibo forman.

- *txetxotxu, etor zaitzez laztana ba*
- *dxun zaitzez ortik txetxotxu, biar ein bi dot eta*
- *baie txetxotxu, non sartun zara ba*

## TXIBIDXIE BAIÑO ZURIDXAU

Kolore zuriaren konparazioak egiteko erabiltzen den hitz bat, txibia dugu.

- *eguzkidxe artzien nuen, txibidxie baiño zuridxau nau te*

## TXIBIDXIEN KOLORIE

Kolore zuria adierazteko.

- *txibidxién koloriegaz gauz, baie laster beitu ze baltz ongo garizen*

## TXIBIDXLE LEZ ZURITXUTE

Kolore zuria adierazteko.

- *aurten txibidxie lez zuritxute nau neu be*

## TXIKERDI

Antzinako neurria da. Kikara erdi izaten zen ardoaren edo beste likido baten neurria. Gaur egun, adinekoen artean entzuten da, baina gutxitasuna adierazteko.

- *txikerdi ardañ baiño eztot edan da marieta nau*
- *seguru txikerdi baiño geidxañ ezan dana*

## TXIKIKO ARPIDXE

Aurpegi oso txikia.

- *beran txikiko arpeidxen begidxek asko pintxeta, fantasmie lez on da*
- *berak imiek txikiko arpeidxe dako, arpi txiki txikitxue*
- *muñekien antza dako beran txikiko arpeidregaz*

## TXIKILLISTE / IE

Txirrindularia.

- *txikillistek ikusten dxun gariez Sollubera*
- *ez lekidrast gustako nire semie txikillistie ezatie*

## TXIKIRRIÑUE

Oso txikia.

- *txikirriñuek tiez onek gaztaiñek*
- *saldu tzuzenari esan txikirriñuek tizena*
- *alabatxi, arrotzarik txikirriñuenak emostazuz*

## TXIKIZARRA

Itxuraz txikia baina adinez zaharra.

- *hamabost urte dakozela? Ba eztau emoten, txikizarra ezango da*
- *bai txikizarra da, gorputz txikidxe dako baie urtiek ganien*

## TXIKOT FALTAUE

Burutik erdi eginda dagoena.

- *edozein egunetan dxuten da bañue artzien a txikot faltaue*
- *itxiru ba, txikot faltaue da ta*

## TXIKOTA

Soka, edozein motatakoa.

- *txikotagaz dxo dau arpidxen, baie deskiduen ezan da*
- *txikot zati bet ekau, au paketie amarrateko*
- *arek laster urtengo dau, bardin dxe txikotakaz amarraten badau be*

Gaztelerato **chicote** = **extremo de cuerda** hitza hartu eta gero, esanahia zabaldu egin da.

## TXIKOTAZO / UE

Ukabilkada. Kolpea.

- *zelako txikotazue emon tzo ba begidrek pe baltxitxu ein tzo*
- *emon txikotazo bat, merezidu dau te*
- *txikotazoka zatitxu eñ dxau, betik altzateko potestade barik itxi dau*

Hitz hau ere zuzenean hartu da gaztelerazko **chicotazo** hitzetik.

## TXIKOTETIK

Arrainak ihes egin, txikotetik eskapa. Analogiaz, ihes egiten duten gauza guztiekin erabiltzen da.

- *orrek mutillek txikotetik ein tzo orreri enbriri*
- *negozidxo on bat okiñ dxau, baie txikotetik tzo*
- *biejiek ein tzu txikotetik, ezta? ez ezan biar tentelana*

## TXILIN TXALAN

Bi pertsonak, besoak elkarri lotuta umetxoa bertan gainean kulunkatzen ibiltzea da.

- *ona bazara txilin txalanka ibilliko zara izekok eta neuk*
- *ai ze ondo! Txilin txalan, ze ondo ibilliko gara*

Badago kantu bat lelo ori erabiltzen dena:

- *txilin txalan, eskatuten bozu infernora*

## TXILIPITXO / TXILIPITXERO / UE

1. Lula. Arrain txikia, koloretsua, eta oso ona jateko.
  - *bateleruek txilipitxo asko atrapa dauie, baie karu dauz*
  - *ezta txilipitxerue baiño arraiñ gozuarik prijite*
  - *atxiñe txilipitxo ederrak kantaten dxuten ezan diez andrak txilipitxeruek saltzien*
2. Umeen zakiltxo definitzeko erabilia.
  - *txilipitxue ondo gorde gero, otzitxu barik*

## TXILIÑUE

Hemen daukagu zakila definitzeko daukagun beste berba bat. Beste aldaera bat hobeto esanda. **txitxiliñue**, ume baten zakila definitzeko erabiltzen den hitzaren laburpena da.

- *txiliñue be ez dxatzo ikusten koitxaduri*
- *zelan ikusiko dxatzo txiliñue imiri beran mamiñekaz tapata dako ta*

## TXILL

Gehienetan eguzkia dirdaitso dagoenean esaten da.

- *gaur eguzkidxe txill dauelez plaidxera dxungo garie*
- *eguzkidxe txill on da atzo, baie gaur egualdi kapaue dau*
- *begidrek pe txill txill dakoz eguzkidxe lez, ardautxu da ta*

## TXILLO / UE

Arrain txiki bat. Bisigu txikien antzekoa. Baina konparazioan ere erabiltzen da. Begiak ardoaren edo loguraren eraginaz txikituta daudenean esaten dugu.

- *ronpeolasen on diez ime pillo bat txillotan*
- *txilluiek atrapateko lekorik onena espigoien erdidxe da*
- *txillotxuek dxango zuz prijite, ezta lastana*
- *beituixu orren begi txilluek, nondik ibill dxe ba*
- *begi txillotxuek takoz, baie politxek*

## TXILLOTU

Logura, ardoa edo beste drogaren baten eraginez begiak txikituta edukitzea. Aditz forma.

- *niri loguriegaz begidrek txillotu eitxen dxastez*
- *oire tire, begidrek pe txillotu dxatzuz de*
- *auntxe be fume dauie orrek porrue, beitu ostantzien zelan txillotu dxatzoien begidrek*

Aditzaren funtzion betetzen du forma honek.

Azkuek Mundakan jaso du hitz hau, baina Bermeon zentzu zabalagoa dauka.

## TXILLOTUTE

Logura, ardoa edo beste drogaren baten eraginez begiak txikituta edukitzea. Adberbio forma.

- *batek taki zer artzien dauien onek begidrek pe txillotute dakoie ta*
- *neu pe bai, txillotute dakotez begidrek, baie dakoten loguriegaz*
- *berez ezkiez okitxen txillotute, zeuzeitrik baiño*
- *ba, orrek berez dakoz aulan, txillotute*

## TXIMISTADA

Tximistargia.

- *gaue ezan dalez tximistadie ondo ondo ikusi du*
- *zelako tximistadak on diez ba, begidrek pe itsutu*
- *lelangoko tximistadie ikusi dunien korridxen dxun gariez etzera*
- *tximistadak asko ikaratuten nauie*

**Tximista** hitzari **-ada** atzizkia erantsita egin da.

## TXIMISTADAN

Korrikan ibili, joan, etorri. Adberbio forman.

- *tximistadan dxun gariez ikusten, baie ordureko dana on da akabata*
- *dxun eingo gariez, tximistadan urteteko baiño ezpada*
- *ori esan tsatenien tximistadan urten dau*

## TXIMISTIE

Tximista. Konparazioan, azkar ibiltzea.

- *zer dabill orrek ba, tximistie da la?*
- *tximistie lez dabill ara ta ona*
- *ariñe da berori andrie, tximistie lakue*

## TXINGAUE

Kokolo. Inozo. Erdi burutik eginda.

- *ori morroie txingae da txo, eztau enteniten ezebe*
- *txingae zara txo, ara zeuri diñotsut arpire*
- *da gero, txingauen arpidxe imitxen dau*
- *orregaz koplá gitxi txingau utse da ta*
- *txingae ezan biar da personie ori biarra eitzeke*

## TXINGAUTU

Zoratu.

- *txingautu eingo nozu txo*
- *berak enbriek txingautu eĩñ dxau gixona*
- *edo neu nai tentela edo txingautu ein nai*
- *betiko gauzek entzuten txingautu eitxen zara*

## TXINGETA

Zoratuta egon.

- *ori andrie txingeta dau ezta?*
- *beran arrebiek esan dau txingeta dauela beran nebie*
- *txingeta ongo da, baie badaki zer eitzen dauen*

Hitz honen etimologia Latino Amerikan erabiltzen den gaztelerazko **chingar** = **embringarse**, **beber mucho** izango da. Baina hor infinitibo forma horretan bakarrik agertzen da, eta Bermeon infinitiboan oso gutxi erabiltzen, hau da, **txinge** oso eskasa da erabileran. Gainera zentzun ere oso ezberdina da, semantikoki paralelismo bat agertzen bada ere.

## TXINGO / UE

Cuban esaten den gaztelerazko **chingo** = **diminuto** hitza da formaz eta esanahiaz, Azkuek ere Gernikan jaso du hitz hau, baina esanahia **copo de nieve pequeño y seco** da.

Guk, konparazioan, kaka mokordo oso txikiak eta sikuak adierazteko erabiltzen da, hau da umeenak.

- *onek imiek txinguek eĩñ dxostez da supositoidxue imin biar dotsat*
- *bekerekan txinguekaz beteta on da bedartzie*
- *ai! zelako tripetako miñek takorezen; txinguek paiño eztotez eĩñ*
- *txinguek lako bonboitzuek erosi dotez*

## TXINGOLUE

Burutik erdi eginda dagoela esateko erabiltzen da. Askotan peioratiboan, eta beste askotan arrazoi barik.

- *ori mutille txingolotuten asitxe dau*
- *asitxe ez, atrin̄etik da ori txingolue*

Argentinan edo beste leku batzuetan erabiltzen den berba hau, bermeotar arrantzaleen artean erabiltzen dela esan beharra dago.



## TXINTXIÑE

Atzamar txikiaren neurrira iristen ez den antxoatxoa da. Oso preziatua, modu askotara prestatuta jaten da. Udazkenean harrapatzen da.

- *txintxiñek dxan duz da angulek pez gozuau*
- *erri barruen eztakidxe zer dan txintxiñie*
- *Bilboko lagun batzui esan tsatie txiñtxiñek dxaten etorteko*

## TXIPERRA

Mangera.

- *loidzie garbitruten on gariez txiperragaz*
- *andik pasa naiendien ure bota dost txiperragaz da mela-mela ein nau*
- *obien obien txiperragaz garbitruten diez kaliek*
- *dauen beruegaz txiperragaz bota bilikidauie ure*

## TXIPLAZUE

Aurpegikoa. Zartada.

- *ezpatazu errekadue eitxen txiplazue dutsu*
- *ama, txiplazuek emoten dabill anaidxie*
- *zeuk pe emon beste txiplazo bat*
- *eza emoten txiplazorik, andidzek zarie ta*

## TXIPLIE

1. Gogor bota euria.

- *txiplie dau euridxe botaten*
- *ez urten kalera, txiplie da ta*
- *urten dunien ezta esan euririk, baie gerotruau ekar dauen txupliegaz, etzera aillega gariez mela melata*

2. Zartada edo aurpegikoa esateko ere erabiltzen da.

- *txiplie txiplien ganiien artun txuz arek esantzarrekuek*

## TXIRI-TXIRI

Astiro.

- *biharra ondo ein bide, baie txiri-txiri, eztau prisik eta*
- *trankil ogon, ernega barik, txiri-txiri*
- *hobeto txiri-txiri juen eta gauzek ondo ein*

## TXIRIKILLAUE

Kizkur. Kiribildua.

- *ule txirikillaue dakon bategaz on nai dxantzan*
- *da nok tako txirikillaue ba?*
- *ule txirikillaue imitzeko esan tsat pelukerieri*

Hitz honi gaztelerazko **-ado** atzizkia erantsita egin dugu:

**txirikillo + ado → txirikillado → txirikillau.**

## TXIRIKILLO

Ilekizkurra.

- *ulie okiñ dxau txirikillodune, baie gero lisotu eiñ dxau*
- *tortolako bizarrak pe txirikilloz beteta dakotsu orrek*
- *txirikilluek urteteko errizadorak imiñi bi dotez*

## TXIRIMOTADAK

**Txirribotoak** hitzaren parekoa dugu, hau da, zirriborroak, baina hau berriagoa da, eta gazteagoen artean erabiltzen da.

- *txirimotadak eitxen pasa dot dibujoko ordue eskolan*
- *meisueri ez dxatzo gustaten txirimotadak eitxie*

## TXIRLETA LEZ

Arin, azkar, mugikor pozik.

- *txirleta lez dabiltzu poza sinestu eziñik*
- *alabaixi, txirleta lez zabiltzez, zer emon dotsue jaten ba?*

## TXIRLORA

Egurraren biruta. Konparazioan kizkurra den edozer.

- *txilorak batzien ibiltzen da sue eitxeko*
- *txirloratute itxi dost ulie permanentiegaz*
- *beko txirlorai useiñe bota tsazu?*

## TXIRRIBOTUEK

Zirriborroak.

- *txirribotoz beteta topa dotez koademo guztidrek*
- *dibujuek eitxeko esan da txirriborroz bete etzie*

## TXIRRIDXE

Ume txikiak.

- *ime txirriz beteta on da ziñie*
- *ime txirri guztidzek dxun dxatzuz dandarrez pallasuek ikusten*

## TXIRRIDADIE

Laprastada.

- *euridxe danien Lameran ezin dxe ibilli, txirristadie asegureta dakozu*
- *euridxe danien edonon ein leikezu txirristadie*
- *asi goitrik eta beraiño txirristadan dxun nai*

## TXIRTA LAKUE / LEZ

Alaia. Mugikorra. Ederto.

- *txirta lez ibilli gariez Bilboko kalietan, danak geure begire*
- *txirta lakue ezan ezkerona dana ondo*
- *zelan egon naien Benidorren? Ederto, txirta lez*

## TXISTADA

Arreta erakartzeko egiten dugun zarata hori: txist-txist.

- *kaletik dxun nai da txistadiek atentzinue deitxu dost, nor ete dan, da burue buelta dotenien bera ezan da*
- *ziñera bazuez ein txistada bat*
- *non entzuten doten aulako txistada andi bet*

Onomatopeiazko hitz hau, deklinatu eta adberbio forman ere erabiltzen da:

**chis + ada → txistada.**

Azkuek jaso du forma hau baina badirudi, erabileran ez dela hain arrunta esanahi honetaz, Bermeon normalki erabilizena da.

Kasu honetan izenaren funtzioa betazen du.

## TXISTADAKA

Arreta erakartzeko egiten dugun zarata hori: txist-txist. Adberbio funtzioan agertzen da.

- *txistadaka okiñ dxot Lameran on naien denpora guztidxen*
- *eztozu obeto txistadaka ibilli barik bertara dxuen da berba eiñ?*
- *Lamera erditzik pasa dxatzu beran gona laburregaz da gizon guztidzek berari txistadaka*
- *beran txistadakaz larritxute nako*

## TXISTERA BOTA

Esaldi honetan aditz iragankorrak erabiltzen dira: eduki, bota, atera, eta abar. Baina **txiste** arpoia da eta zentzua apur bat aldatu egiten da, zeren badakigu arpoiak berak harrapatzen duela arraina, eta kasu honetan **arraina** bera dator arpoira. Dena den, hor doaz esaldiak.

- *bota txistera or zapatan barruen gordeta dakozun dirue*
- *txo, esan amari botateko txistera ostu dostezen diruek*
- *alabatxi, bota txistera atritrek emon tsuzen karameluek*

## TXISTILL / E

Tanta.

- *erropie dakot ardau txistillez beteta*
- *enebada! euridxe eingo dau txistil batek dxo nau te*
- *kristelak tauz txistillekaz kakaztute*
- *pintxure txistill andi bet dxekusi dxatzu arpire*

Hitz hau P.M. k bakarrik jaso du, baina ez du jartzen non. Bermeon normalki erabiltzen da.

## TXISTUKETIE

Txistua botatzen egotea. Gehienetan haurdunaldian.

- *zelako txistuketiegaz nau ba, eztaitx enbarazada banau*
- *enebada! Txistuketie bakozu, laster imie*
- *txo, txistuek bota ta bota zabiltzez, txistuketie dakozu le?*

## TXITURRI / DXE

Garbia garbitzen dabilen pertsona.

- *auntxe be txitxirridxen gauzek eitsen zauz*
- *erdudxona kalera, txitxirridxe lez ibilli barik*
- *txitxirri utse zara baie!*
- *txitxirridxe esan balekinai eiñdxe okingo lekidotez biarrak*

## TXITXARRO / UE

Zakila deskribatzeko dagoen hitzetariko bat dugu. Beste askotan bezala, arrain baten izena hartu da hori adierazteko. Umeena zein nagusiena izan daiteke.

- *txitxarrue ondo gordeten tsu iñok ikusi barik, amazortzi urtegaz eztau eingo ori*
- *atara txitxarrue ikusteko zelan dakozun ori granue*
- *enebada! txitxarrue alperrikaldute dakozu*

## TXITXEMARKA / TXITXIMARKA

Atzamarka egin. Txatxamurka egin.

- *onek imiek txitxemarka eĩñ dzost*
- *ba zeuk pe txitxemarka*
- *txitxumarkaten batsu zeuk pe ez itzi*

Azkuek, Lekeition **txitximurka** jaso du, berori eta **txumumarka** aldaerak jaso ditu, eta Kintanak **txatxumarka**.

## TXITXEMARKADA

Atzamarka. Txatxamurka.

- *txitxemarkada masie ein tso arpidxen*
- *gorputze be txitxemarkadaz beteta dako*
- *eitxen bastazu mitxemarkada bat amari esango tsat*

Hitz honen aldaerak asko dira, baina berau ez dator hiztegieta.

## TXITXILIÑUE

Umeen zakila.

- *atara txitxiliñue txise eitzeko*
- *txitxiliñue dako zu erreta laztana*
- *txitxiliñoko miñe dakola esan dost imiek*

## TXITXIRRIDXEN BERAUNE LEZ URTU

Gauzak inor konturatu gabe desagertzen direnean.

- *ainbeste diro okiñ dxot gordeta, da txitxirridxen beraune lez urtu dxastez*
- *non dauz amen okiñ dxotezen karameluek? Txitxirridxen beraune lez urtu, ezta?*
- *txitxirridxen beraune lez urtuten diez amen gauzek*

## TXITXIÑE

Neskatotxoan alua.

- *geure imiek pe esan dost txitxiñeko miñe dakola*
- *zer dakoie imiok ba, txitxiñe erreta da eztaix zer*
- *ia, au txitxiñe zelan dauen ikusi bi de ta*

## TXITXIÑUE

Umeen zakila.

- *txitxiñue atata ibill dze goiz santo guztidzen plaidxen, da bera lotsatu bez*

## TXIXE BARRIEK

Barre algaraka. Barre asko.

- *txixe barriek eĩñ dxuz eskursiñuen, aregaz mutillegaz eztau besterik*
- *ziñera dxun garie da pelikulie zantarra ezan dalez gu txixe barrietan ibilli garie da kanpora bota gaitxuzie*

## TXIXE DA BERTON

Hau bai barregura! Harridura.

- *andrak, txixe da berton, nok ikusi da neguen uger eitzen*
- *ez urteteko kalera zeozer pasako dala ta, da iñoiz baiño jente geidxau kalien, txixe da berton!*

## TXIXE DAIDXOLA

Barre algaraka.

- *esan doskuzen txistiekaz gu txixe daidxola*
- *txixe daidxola on garizen beran gauzek entzuten*

## TXIXEN BOLUEK

Dodotiak.

- *ondiño txixen boluek dabiltzuz imiek? Kendu dxozena, sasoie da ta!*
- *txixe boluek ez balekidiez ezan, iñok auenta bez beran txixekaz*
- *geure amumari be, txixen boluek imiñi biar jatzoz*

## TXIXETARA BEGIRE

Zapatak okerretara jantzita edo begiak oker.

- *nora zuez ba, zapatak txixetara begire dxantzitxe*
- *begidreke txixetara begire dakoz mutil koitraduek*

## TXOFERRISTIE

Auto gidaria.

Galtzen ari den hitza da, adinekoetan bakarrik entzuten da.

- *eskursiñuen dxun garizenien txoferristiri esan tsagun Dolostin lotuteko*
- *bai baie, txoferristiek kasurik pez*
- *txoferrista para kotxie, txise larri da amen jentie ta!*
- *gure txoferristie total ona ezan da, geuk kure dune eĩñ dxau*

**txofer + ista → txoferrista.**

## TXOIÑUE

Txanoa.

- *buruko txoiñue eiñ dxot okiñ dxotezen lanakaz*
- *eztozu pasako otzik pe txoinuegaz*
- *neuk pe ein biar dot txoiño bat neuretzat*

**txoto** hitza eta beste hau parean erabiltzen direla esan behar da.

## TXOKOLUELAKO ZAPATAK

Zapata dorpeak.

- *ikusi zu zelako zapata txokoluek eruten dizen?*
- *binke! Modara etorri dizen zapatak txokoluelakuek tiez gero*
- *geure Ziomarak be txokoluelako zapatak erosi txuz, da lau zentimetro an-didaxaue da*

Badirudi, oraingo zapaten modan antzinako **choclo** oinetakoetan oinarritu direla. Guk beti erabili dugu berba hori, antzina baten fabrika erabiltzen ziren txokoloak kontuan izan ditugulako konparazioak egiterakoan.

## TXOMIÑANTON

Emagizon. Maritxu.

- *bera mutille txomiñanton dozu, beti dabill enbrakaz*
- *bestelako txomiñanton dau or, enbran gauzek eitzen*
- *zu zara txomiñanton, zetako ibil bi zara zu enbrakaz, mutillekaz dxun barik*

Bermeon, **txomiñ** hitza hartzen da, askotan maritxu bat definitzeko eta **anton** horrek indarra ematen diola pentsatuz hitz konposatu hori sortu da. Beraz, izen propio bi batu dira adjektibo bat egiteko.

## TXORIDXE LABA GANIEN

Erabat pozik.

- *e? Zer pasaten da ba, txoridxe dau laba ganiien da?*
- *ezer pasa biar da txoridxe laba ganiien egoteko ela? Neu egon alegre*

Konparazio hau oso egokia da, txoria labe gainean jartzen bada, saltaka-saltaka ibili beharko baita ez erretzeko.

## TXORIDXEN MOZOLUE LEZ

Denbora luzean itxaroten.

- *zortziretan etorko zarala da amarratan be etorteko, da ni bertan txoridxen mozoluelez*

- *bestela nau bertan txoridxen mozoluelez, zeu noix etorko*
- *ni ez okiñ bertan txoridxen mozoluelez gero, orduen etorko zara*

## TXORIGORRA

Zeharo gorra.

- *deike deike on nai da eztost ein kasurik txorigorrak*
- *txorigorra badan zelan ingo dost kasu ba?*

Adberbio moduan ere erabiltzen da:

- *uger ein dxotenik eta ona txorigortute nau, ure sartun dxast belarridxetan antza*
- *txorigortute ongo zara baie majo entzuten zuz diro kontuek dizenien*

## TXORROPORRO / UE

Berba asko egiten duena.

- *txorroporrue lez dau berba ta berba*
- *ori andrie baiño txorroporruaurik eztot ikusi*
- *bestelako txorroporrue zauz or, buruko miñe be eistazu te*
- *orrek gixonak tako andrie txorroporrue baiño txorroporruaue*

Azkuek, Arrasaten jaso du, baina zentzua *informalidad* da.

## TXOTOR

Begitxindorra.

- *txotorrari! amumari ikusi zazu popie ela?*
- *urten dosten txotor mandue, ata kontu pellikan eindxotela*

## TXOTXOLIÑIE

Alua defintzeko beste berba bat, baina gehienetan gaztetxoek alua defintzeko erabilia izaten da.

- *ama txotxoliñie bustitxe dakot txixegaz*
- *txixe ein ezkerro busti biar txotxoliñie*

## TXULIBRIÑ / E

Pinpirina. Harroa. Gehienetan mutila izaten da, baina noiz edo noiz neskari ere aplikatzen zaio.

- *ori mutille total da txulibriñe, pentsaten dau enbra danak taula berari begire*
- *berorren nobidxie he txulibriñ utse da ta*



- *bakixu nor dan txulibrĩe, zeure aiztien koñatie*
- *orrek danak tiez txulibrĩñ txulibrĩñek*

Gaztelerazko **chulo** / **a** hartu da oinarritzat; eta gero, **-in** atzizkia jarriz, **chulín** gertatu ondoren, hau indartzeko, **-bri-** tartizkia erantsi zaio.

## TXUNTXURRE

Hezur sakroa. Erreinezur.

- *labrastadie eiñ dxau da popako txuntxurre apurtu dau*
- *txuntxurreko miñegaz enai kapa*
- *dxeusi danien txuntxurregaz artun dau golpie*
- *arrakalatute dako txuntxurre*

## TXUNTXURRUEN

Jendea multzoan.

- *zeuzer pasaten danien txuntxurruetan oten da jentie batunde*
- *txuntxurruen dau jentie portuen, ia zer pasa dan*

## TXUPANDOZKI / DXE

Parasito. Aprobetxategi.

- *bai aregaz txupandozkidxegaz ezkonduko dala diño, beragaz enamorata dauela ta*
- *enebada! agie dxango dotso, olako txupandozkidxe badan*
- *bera mutill txupandozkidxe, beragaz enbriegaz enpiketa*

Gaztelerazko **chupar** aditza erabili da hitz hau sortzeko, **chupando** gerundioa hartu eta **-ki** atzizkia erantsi zaio:

**chupando + ki** → **txupandoki**.

Gero eufoniagatik **z** bat sartu zaio.

## TXURUPIÑEK

Iskanbilak. Pasadizuak.

- *txurupiñek pasaten dizela diñoie; laster etorko dxasku gerrie*
- *zer pasa dxaskun? Txurupiñek. Kotxie galdu, diruek ostu ta diro barik, nora dxuen ezien*
- *txurupiñek pasa dxatzoie geure aitxeri be, Dakarren. idxe ill alabatri*
- *beti pasaten dxatzue zuei txurupiñek, upiñek takozue zuek*

Hitz hau konposatua dena argi dago, baina argi ez dagoena, lehen elementua zein izan zitekeen da. Hipotesi bat bota ezkerre haxe izango litzateke:

**guzur + upiñek → guzurrupiñek.**

Disimilatzeko, bokal itxi gehiegi dagoenez, euretariko bat erori egin da, eta horren kontsonantea berarekin batera:

**zurrupiñek → txurrupiñek → txurupiñek.**

## TXUT

Esklamaziozkoa da. Beti da hotza.

- *txut! zer da otza dauena*
- *txut! ze otz dau ezta?*
- *txut! erdu ariñ hotz dau te*

## TXUTADA / IE

Efektua.

- *neuri be, entzun dotenien, txutadie eiñ dxost*
- *ein tsu txutadie ezta? Ezetz esanda be, beti eitxen dau miñ*
- *asarratute on diez, baie ez pentsa, eingo tson txutadatxue koñatie ill dxatzola esan tsoienien*

Hitz hau, **txut** eta **-ada** atzizkiaz konposatzen da.

## TXUTXUMUTXUEK

Zurumuruak.

- *Patri Lopez ministrorako? Horrek txutxumutxuek diez!*
- *txutxumutxuek bai, ein lo alhora begire! Lehendakari eta oin ministrue!*
- *haren andran aurretik pasaten naien bakotzien txutxumutxuke hasten diez.*

## U

### UBILLADA / IE

Arrainak ur-azalean ateratzen dituen ubil txikiak. Konparazioan, edozein mugimendu edo iskanbila.

- *arraiñe ubilladatan agertu de*
- *ubilladatan atrapaiko antxobie ezan da*
- *zelako ubilladie on da ba*
- *andra guztidzek tuez ubilladan*

### UDXEK

Oiak.

- *udxek takotez geixotute*
- *agine atara doten lekuen dakot udxe infestata*
- *udxek ondo okitxeko bikarbonatogaz garbitie da ona*

Azkuek eta L.M.M. k **oi** jaso dute eta badirudi kasuistika dela honen erabilera. P.M.k Laburdin jaso du **oiak** pluralean. Bermeon, beste aldaera bat ere erabiltzen da alternantzian, **oidxek**.

Sarri gertatzen den bezala **oi** → **u** egin da.

### UDXOLA / K

Uholdea.

- *gure erridzen hainbeste bidar on diez udxolak*
- *oiñ hogeï urteko udxolak Taraska be idxe tapa ein zauen*

### UFALA

Umeen hizkuntzan ureta sartu edo bainatu.

- *ia laztana erdu ufala eitzen bañerara*
- *erdu ufala eitzen uretara bero dau te*
- *\*bestela zauz berton, ufala-ufala!*

### UFO / UE

Mozkorra.

- *ufo matxuegaz. etor da biarrera*
- *zelako utfue dakot ba, ondiño kendu barik dakot*
- *eskerrak konturatuten zarana ufue dakozule*

## UGARRA / UGERRA

Zikinkeria. Lohia.

- *ugarrak dxango zaitxuz alabatxi ezpazara garbitxuten*
- *zer dakot ugarra etzien ba, ia noix kentzien doten*
- *ugarragaz itxota bixi diez or*
- *kokoteko ugerra kenduixu, ugerra kendu*

## UKUNDO / UE

Ukalondoa.

- *ukundo andiko gizonakaz dako amistadie, da bidzar edo etzi, biar badau be, an dako*
- *mutil koitxaue Persikora dxun biar dau, ukundorik eztaue okiñ dxe*
- *gaur ukundue ezakona galdute dau*
- *ara, ezu ikusten, ukundue dakotenak Bermion eitxen dauiena zerbezidxue*

## ULEPO

Ile asko daukana. Baina peioratiboan ere esaten da, baita irain txiki baten moduan ere.

- *txo, ulepo, ebaik ori ulie*
- *ulepo diñotsazu ta soidxe labana okiñ*
- *aurreitrik ba, ulepo dan ilusiñue emoteko*

## UNADA

Une.

- *unada baten pentsa dot bienganera dxeusiko naiela*
- *euririk eztauen unda baten dxungo nai ogidxe bille*
- *zelan zauz ba? Unadatxuek oten diez obeto nauenak*

## UNDIDU

Erabat bustita.

Aditz funtzioan:

- *zer dabilzu txiperragaz ba, undidu nozu te*
- *da ni bakarrik ez, auri enbrie be undidu zu*
- *atrapa doten zaparradiegaz undidu ein nai*
- *neure lagunek pe undidu undidu ein dxiez*

Adberbio funtzioan:

- *bota txuzen truxuekaz, undite ainega diez etzera*
- *undite bakarrik ez, undimiento generalak atrapa gaitxuz*

- *bakixu zer ein dxosten ela? Bañeran barruen sartun imie ta undite bota etzera*

## UR LOTUE

Energia gabeko pertsona.

- *manie, gauzek eitxeko dauz te; nongo ur lotue zara*
- *benetan da ur lotue, ernega be eztau eitxen*
- *txikitxen ur lotue ezaten ezan da, baie oiñ beitu, urten utse da*

## URBERINKATUNTZIDXE

Kokots irtena.

- *etzakixu urberinkatunuidxe nori esaten tsoien? Okotza urtena dakonari*
- *benetan da urberinkatuntzidxe, aren okotza Mundekaraiño due ta*

## URDILLENA

Urdailekoa. Analogiaz: Angustia. Beldurra.

- *aurrek gauzek entzuten dotezenien telebisiñuen, urdillena be sartun eitxen dxast*
- *urdillena kentzioko. kotoi zati andi bet koñakaz bustitxe bertan imitxie da onena*
- *urdillena sartun de nator alabatxu, zer entzuteko gauzen be eztagigu, gizonak ill ei dau andrie*

## URDIÑ / DXU

Ugerra. Ugertuta.

- *onek erropiek urdiñe dako, eztaitx non eiñ dxoten*
- *etzeko tresna guztidzek dakotez urdindxute*

## URE LEZ

Erraz jabetu gauzeekin, batez ere eskolako gaiekaz. Nork ez du esan eskolan, ikasgaietan ez daukala arazorik ura lez dakizkielako?

- *orrek leziñuek nik ure lez dakitez*
- *nire alabiek ure lez esaten txuz gauze guztidzek*
- *neure amumak pe ure lez dakidxela erderaz esaten dau*

## UREN IXO

Urari ihes egitea.

- *ori imie uren ixo da, plaidxen be uretaik asau ibiltxen da*
- *arpidxe garbiteko be kalamatrikek ezaten diez gure etzien, uren ixo da ta*

## URIKUE

Hospiziokoa.

- *ontxerarte eztau dxakin urikue danik*
- *urikue da, baie euren apilleduek emon tsoie*
- *ezango da urikue, baie igarri be ezta eitxen; bestien beste gure tsoie*
- *eurek ez zauien imerik okin da uritxik ekar zauien*

## URKARO

Garbitzeko ura gustatzen ez zaion pertsona edo animalia.

- *oneri katuri ez dxatzo gustaten garbitxutie, urkaro utse da*
- *egidxe esateko, neguen neu be urkaro nai*
- *neure gizona be urkarotxue da*

## URKETUTE

Diruaren faltaz, estu, larri, urkatuta bizi.

- *geure denpora guztidxen bizi zan gariez urketute*
- *orduen nor ezta bixi izan urketute ba*

## URRIELAKUE

Pertsona oso fina, langilea eta garbia.

- *berori andrie diruei aixie emoten, da bera gizona urrielakue*
- *berorren gizonan ama be urrielakue ezan da*

## URRIEN BITSE LAKUE

Pertsona oso fina, langilea eta garbia.

- *berori andrie diruei aixie emoten, da bera gizona urrien bitse lakue*
- *berorren gizonan ama be urrien bitse lakue ezan da*

## URRIEN BITSE LEZ

Oso garbi jarri.

- *gauzek imitxen dotez nik, urrien bitse lez, ez beste batzuk lez*
- *urrien bitse lez itxiko zuz, baie laster ikusiko zu zelan dauzen*

## URRUBURUE LEZ

Norabidea galduta. Noraezean.

- *dxai guztidxetan ibil gariez urruburue lez, barrakatatik Lamerara da Lameratik goiko plazara*
- *ez ibilli urruburuen moduen, ara ta ona; gelditxu leko baten*
- *bestela gabiltzez bertan urruburuen antzien, iñuzentien arpidxegaz*

## URRUMADIE

Burrumbada. Marruma.

- *ikaratute pasa dot gau guztidxe aixien urrumadiegaz*
- *itxosuek pe zelako urrumadie eitxen ezan dau ba*
- *aurreko arbolak pe urrumadaka asmaten ezan diez*

## URRUN DA FITX

Betiko haserretu.

- *mutillek esan dotso enbrieri eztauela gure beragaz ibilli, da urrun da fitx eintso*
- *nik zugaz eztot gure tratorik, urrun da fitx*
- *zuk niri urrun da fitx? Ez, neuk zeuri urrun da fitx*

Ingelesezko **run and feet** esalditik etor daiteke, edota agian, Iparraldeko **fite** → **fitx** bihurtu delako.

## URRUNGUEN

Duela gutxi.

- *urrunguen dxun gariez Bilbora pelikulie ikusten*
- *noix ein zu ori eridie ba? Urrunguen*
- *aspaldidxon eztot ikusi zueneko ama. Ba urrunguen on da amen*
- *urrunguen esan dost erregalue eingostela neure egunien*

## URTENA

Gazte soltea.

- *urtena dot ori imie, gauerik gauerdi dabill dxé*
- *bañ ikusten dot urteneidxe dana*
- *utena danari zazpi giltzegaz sarratu atie*
- *oraingo imiek danak tiez urtenak*

Azkuek **atrevido**, **osado** definitzen du. Gainera, Bermeon gazteak bakarrik dira **urtenak**.

## URTU

Desagertu.

- *amen okiñ dxoteam libruet urtu eiñ dxiez, ia nok artun txuzen*
- *amen etzien dana urtuten da, iriltxuek badabiltzez gero*

## USENE EMON

Zerbaiten usaina eman giroari, adibidez jai usaina.

- *asi de kalien dxai useine*
- *da ezpadau be geuk emongo tsagu udebarri useiñe*
- *garbi useiñe emon bitsagu etzieri, iñor datorrenien asma deidxen*

## USIN BAKO LORIE

Gatz gabeko pertsona.

- *arek esan dotso enbrieri, usin bako lorie dala*
- *usin bako lorie zara alabatxi, artungo dozu moldie?*
- *ni naiela usin bako lorie? Da zu zer zara? Singanoria ederra zu*

## USIÑ TXARRA

Zerbait txarra gertatuko den sumoa.

- *usin txarra artunde on diez, aurreitxik ez dauie atrapa suspentsuen*
- *usiñ txarra dau amen, zeuzer pasa biar dau*

## USO / UE

Alua.

- *usue aziko zu zuk treberie baiño andidxaue*
- *an dakozuz arek aizte bidzek usue azten*
- *zer daku dxateko ba? Zeure usue*
- *usue errefreskaten guez plaidxera*

Txoriaren izenak beste esanahi bat hartu du, Kintanak **eufemismo utilizado entre muchachos para indicar la vulva** dio. Beraz ez da zehatza, Bermeon edonork erabilizen baitu.

## USO BERO

Gizonzalea den emakumea definitzeko erabiltzen den hitzetariko beste bat.

- *ezan dan uso-berogaz, zelan arrapa dau bera mutille ba?*
- *Benidorrera dxun danien ezetu dau, da berari mutilleri ez dotso lez ardure uso-bero bat ezan badan be*



- *nire gizonagaz dabillega? Lixie lez kenduko tsat azala uso-bero txarridxor-  
reri*

## USO KOZIÑERIE

Sukaldaritzan lanetan aritzen den pertsonari esaten zaio, baina peioratiboki.

- *amen gure uso koziñerie, ia zetan imintzen dozuzen indxabak gero, beste egunekuek txarto on diez da*
- *txarto on badiez be zeuk dxan zuz, ze ni kategoriko uso koziñerie nozu*

## USO ZARRA

Malezia handia daukan emakumea.

- *zu zara uso zarra, erroparik onenak zeuk gorde da niri zantarrenak emon*
- *zuk bakixu zer dakozun, usue zarra, zuk dakixu larreidxe*
- *a da uso zarra, amari txe aitxeri majo esaten tso arek, gero berari itxitzeko erentzidxe*

## USUBILLUE

Buila. Zalaparta.

- *zeuzer pasaten da Lameran, usubillue dau te*
- *alako baten usubillue, dxun gariez zer pasaten dan da ime bat beringanien tunbeta, konorte barik*
- *dxaidxetan usubillo asko oten da, lorik pe ezin zu eñ*
- *on dan usubilluegaz, balkoiko atiek ela bentanak pe sarratute ein biar lo*

Hitz hau konposatua da eta badirudi, bigarren elementua **pilloa** dela. Hau hipotesi bat da.

**uso + pilloa → usobilloa → usubillue.**

**Usobillo** aldaera Mundakako Otxoluaren zita bat aipatuz jasotzen du eta honen esanahia antzekoa dugu.

## UTS ALA BET

Bai ala ez, igarri ala ez, aurkitu ala ez.

- *Dakarrera dxun gariez, uts ala bet, baie utse ezan da ta etzera etorri gariez*
- *arriesga ein bide, uts ala bet, topa edo ez topa, mohidu ein bizara*

## UXUXUE LEZ

Presaka ibili, arin hara eta hona. **Uxuxue** itsasoko tsoria da. Hara eta hona ibiltzen da arrain txikiak harrapatzen. Konparazioan pertsonari aplikatzen zaie.

- *uxurue lez zabiltzez alabatxu, ariñ ara da ariñ ona*
- *bestelako uxurue nau, ime txikidxe lez, noraezien*

## UZABA

Ugazaba. Nagusia.

- *gure uzaba total da ona, ezta eitzen aldarririk pe*
- *orren uzaba ezta ona ba, triperre utse da ta*
- *uzabari beran egunien gorbatie erregala tsagu*
- *erregaluek eta eitzen diez uzabai?*

## UZANDRA

Ugazabandrea. Baita ofizio bat irakasten duen maistra edo andrea ere.

- *gure uzandriek ondo irakasten dau dxosten*
- *uzandra ona dako zu zuk, ondo konsiderata zauz*
- *sarietako uzandrie nor dozue ba? Uzandra gaztie*
- *uzandra gaztie ezaten diez onenak*

Azkuek ez du jaso eta D.A.R.k **señora, ama de casa** zentzuaz jaso du.

## UZKIDXE LAKUE

Emakume lodia.

- *berak uzkidxe lakuek atrapa dosku lekue da bienganien dxesarri biar*
- *arek uzkidxe lako andriek deitxu dost niri txankame*
- *berori gizona argala da, baie andrie dako uzkidxe lakue*

## Z

### ZABURREIDXE

Badaezpadako pertsona eta gauzak.

- *zer da zaburreidxe dauena berton ba, nondik etorriakuek tiez ba*
- *zaburreidxen tartien topa dot erlojue*
- *zaburreidxe be eztau an gitxi, neu enuen bertara ezeitrik pe*

Ikusten denez, Bermeon, pertsoneri ere aplikatzen zaie, eta Azkuek jaso duen esanahia baino zabalagoa dauka.

### ZAFA

Askatu.

- *zafa amarrata dauen txikota*
- *zafa! Ez agarra aurkidxeri*
- *ekau neuri zure mandako izarien puntie ta zafa bestie*
- *au katie zafa, miñ eitxen dost eta*

Gaztelerazko **zafar** = **desatar** hitzetik zuzenean hartuta dago.

### ZAFRAN

Ugaritasunean.

- *an dabilzu a zafran, berak kure dauen beste enbragaz*
- *zafran ibil gariez sagarrak dxaten*
- *zafrie aurrek takoie, eurek kure dauen beste dirogaz*
- *zelako zafrie dakot ba, perzebak dxaten kantsa be enai ingo*

Hitza, formaz, gaztelerazko **zafra** da, baina ez esanahia. Erdaraz dituen esanahiak, bat ere ez da egokia Bermeon erabiltzen den zentzua emateko.

### ZAGAN

Atoian eraman. Konparazioan pertsonak eraman atoian.

- *zueneko baporak geure bapora ekar dau zagan aberidxegaz*
- *bide guztidxen daruzaitxut zagan*
- *zuk e nozu eruten zagan, neuk korriten dot eta*
- *zagan artunde erun dau imie*

Gaztelerazko **zaga**, **llevar detrás** hartu da, baina esanahi zabalagoa dauka.

### ZAGIE

Zaga. Kasu honetan, norbaitek **zaga** bera eramaten duenean.

- *amen nuen ni beronegaz zagiegaz*
- *bestelako zagie daruzu, botaidxona kaka saltzien!*
- *berau imie zagie da gero! Eskinereen baten itxi biku*

## ZAIDXE ATARA

Zahia atera. Gaztelerazko **caspa**. Era guztietara astindu.

- *motibo barik zelako zaidxe atara dost ba*
- *etor daniñen berari etsolakon abixe zaidxe ata tso*
- *edonori da edozeitrik ataten tso zaidxe*

## ZAKATZA

Arrainarena izan arren, konparazioan pertsonarena izango da.

- *au arraiñe zarra da; zakatza dako onek itzal*
- *onek arraiñek freskuek tiez alabatxi, ez beitu zakatzera*
- *onek bakixu zer dakon, neure zakatza lez geixue*
- *zakatza gorritxute dator asarratute*

Azkuek, Bermeoko Ortuzarren zita bat aipatuz Lekeition eta Ondarrun ere jaso du zentzu honetaz.

## ZAKATZA GORRITXUTE

Haserre bizian.

- *zakatza gorritxute etor dxast eperdikuek emoten*
- *noreiñe dator zakatza gorritxute ba, zer dala ta orrenbeste zarata?*
- *errozoiegaz nator zakatza gorritxute, ontzek entera naielakon zer zabiltzezen esaten*

## ZANAZURREK

Zaina eta hezurak.

- *neure zanazurrek ondo kantsata dauz, deskantsu apur bat barik*
- *biar asko eindxe on biar zanazurrek kantsata*
- *orren zanazurrek eztakoie deskantsuen biarrizanik beti dauz denkatsata ta*

## ZANKAPE / IE

Belaunpe edo zangope.

- *enai kapaz zankapietako miñegaz, bakixu zemat bide eiñ dxun*
- *zuk pe zankapietako miñe dako zu?*
- *zankapien urten dost tunbuta batek*
- *zankapie igiri tsoie ikusteko zer dakon belaunien*

Azkuek **zankabe** aldaera jaso du.

## ZANTARKILLO

Lizunkeriak esaten eta egiten dituenak.

- *zantarkillo utse da bera agurie*
- *ez dxuen kale illunetatik gero, zantarkillo asko dabil ortik eta*

## ZANTARRA

Lotsagabea.

- *zu zantarra, etor bia auna ia, arpidxe apurtuko tsut eta*
- *a lotsabako zantarra ezan da, nireitxik gauzek esaten on dana*
- *zeu zantarrori zeu, zeu zara, niri kondukie kendu dostazune*

Ikusten denez, gure artean beste zentzu batetan erabiltzen da hitz hau.

## ZANTARREIDXE

Jendaila. Zaborreria. Gauza zantarrak.

- *zelako zantarreidxe dau amen erridxen ba*
- *bakixue zer zarien zuek zantarreidxe, zantarrak zarie*
- *likidaziñue dauela ta dxun nai, baie zantarreidxe baiño eztau*
- *plazan erosi dot au erropie, bienganeko zantarreidxetan*
- *beti diñozu zantarreidxetan topa zu le*
- *nik eztot topaten eguno be ezer zantarreidxetan*

Arraro zamarra izan arren **-ria** eta ez **-keria** atzizkia erabiltzea, hemen, horrela gertatu da:

**zantar + ria → zantarreria.**

## ZANTARRILLO

Lizuna.

- *zantarrillo, zu beti berduleidzek esaten*
- *aren gizona zantarrillo bat da, eztau enbrarik beütuten eztauenik*

## ZANTARRUA

Lizuna.

- *neska gaztetxuen onduen dxesarritxe, txiste berdiek kontaten ibiltzen da a zantarrue*

## ZANTZUE

Irrintzia.

- *San Juanan oten diez Bermioko andrak zantzuek botaten goiko plazan*
- *trikitixie entzun hutsegaz zantzuek urteten dost!*

## ZAPASALTO BATEN

Azkar. Joan-etorri baten.

- *zapasalto baten drungo nai bisitxie eitxen*
- *etorri zapasalto baten, erreka bat dakotsut esateko ta*

## ZAPAZTO

Zapa handia duena. Konparazioan orraztu barik ibiltzen dena.

- *zu zapazto, orrek uliek orraztuten tire etzera*
- *sekule uliek orraztu be etruz eitxen zapazto arek*

## ZAPIE

Zapa. Begiak estaltzen dituen ile multzoa.

- *dakon zapiegaz aurrekue be eztau ikusten*
- *ebai xuz orrek uliek edo bota atzerantz*

## ZAPUTZ

Lepoa.

- *zelako asarrakuntzie on da ba, azkanien zaputzetik agarrata atara dau aitzek semie*
- *agarra zaputzetik triplazo bi emoteko*
- *agarraten batsut zaputzetik, zeure amak pe ez zaitruz ezetuko*

Hiztegieta beste zentzu batez agertzen da, baina Azkuek, **parte superior del tronco desde donde arrancan las ramas** jartzen du. Beraz, hori izango litzateke definizioa, baina pertsoneri aplikatuta.

## ZAPUZKADA

Bultzada.

- *nok emon dost niri zapuzkadie? Ia nor esan dan*
- *zapuzkada andi bategaz bota dau andik*
- *emoten bastazu zapuzkada geidxau, enai esango zure lagune*

**Zaputz** hitza bera dugu, egokia ez bada ere, **-kada** atzizkia erantsita.

Izenaren funtzioa betetzen du.

## ZAPUZKADAKA

Bultzadaka.

- *zapuzkadaka bota gaitxuz etzetik*
- *zapuzkadaka ibil gariez ziñien sartzieko*
- *lameran be jente asko dauenien zapuzkadaka ibil bi de dxantzan eitxeo*

Kasu honetan, **ka** moduzko adberbioa egiteko atzizkia sartu da.

## ZARKILLE

Nagusien gauzak egin edo esaten duen umea, mutila zein neska.

- *orregaz zarkilliegaz ez ibiltxeo diñotsut, lar daki orrek eta*
- *zemat taki ba, zarkilliaue da*
- *zarkillien antza etso kentzien iñok pe*
- *dana daki berak; berak zarkilliek esan tsu ori?*

Konposizioan, **-killa** atzizki txikigarria lotu zaio **zar** izenari.

## ZARRAZO / IE

Lanbro.

- *itxosuen zarrazoiegaz ezebe ezta ikusten*
- *ikusten zan dan, aulako zarrazoi andi bet datorrela*
- *onek zarrazoiek eztau itxiko ezer eitxen be*

Gaztelerazko **cerrazon** = **oscuridad grande ocasionada por nubes negras** hitza da honen oinarria, baina esanahia ez da bera.

## ZARTAZO / UE

Kolpea.

- *isillik ezpazauz zartazue daruzu*
- *emon tsozen zartazuekaz, idxe illdxe itxi dau*
- *zartazo bat emon, neure partez*
- *ill dxau zartazoka mutille*

Kasu honetan ez du **-ada** atzizkia hartu, **-zo** atzizkia baizik. Askotan gertatzen da fenomeno hau Bermeon, hau da, gaztelerazko atzizki bat hartzea.

**zart** + **zo** → **zartazo**. Hala ere, esan beharra dago, **zartada** hitza ere erabiltzen dela eta biak ia ia parekaturik daukatela erabilera.

## ZATI BITXU

Erdi bi.

- *ori etzie zati bitxute dau, len bat ezan da dana*
- *bidxotza be zati bitxute dakot, baie ez bategaz ez bestiaz enau*
- *au ogidxe zati bitxu, imiri emoteko*

## ZATIKE POTRIKE

Zati-zatika.

- *zatike potrike zabiltzez atune pixeten, botairu dana eztakozu or ezer da*
- *emoteko okiñ dxosten dirue zatike potrike emon dost*

## ZAZKELA

Pertsona zikina.

- *zazkela zer zara ba, sundie Mañutik pe asma!*
- *zazkela matxue bera, beti erropa bardiñekaz*
- *arek zazkelak atzazalak beti kakagaz beteta!*

## ZAZPI SUETAS

Beti arazoetan dagoen pertsona.

- *aregaz zazpi suetasegaz nora zuez ba, baietz folloieran baten sartun*
- *a zazpi suetasa baietz laster kartzelan sartun*
- *zazpi suetasa zer zara ba, txarto amaitzuko zu*

## ZAZPIKIDXE

Pertsona mugikorra, geldi egoten ez dena. Horren ondorioz esamesa guztien jabe egiten dena.

- *zazpiki utse da au imie, lotu be ezta eitxen*
- *ori andrie zazpikidxe da alabatzu, danagaz enteraten da*
- *zazpikidxen antzeko imie, zelako sanblazitxie erungo zu ba*

Hitz honen esanahia zabalagoa da, ez da hitz horren zentzu konkretura mugatzen. Kintanak **impaciente** definitzen du.

## ZAZPISUETE

Saltsa guztietako perrexila deituko genukeena.

- *zer da bera gixona ba, zazpisuetie be ezta makala*
- *zazpisuetatxue da berau mutille, baie tire*
- *non dau ameko etzeko zazpisuetie ba?*



Azkuek, Mundakan jasotako definizioan **gorrón** jartzen du.

## ZEMAKURE

Ugari. Nahi den guztia. Zenbat gura.

- *arrañe dau plazan zemakure*
- *zemakure pastel okiñ dxu dxatekuen*
- *artun zeuek guzuen beste, zemakure dau te*
- *atzo ta gaur zemakure euri eiñ dxau*
- *zemakure asinature aproba txuz*

Fonetikazko aldaketei ezker, honelako zenbait hitz sortzen da.

**zenbat gura** → **zemakure**.

## ZEMAT KURE

Nahi beste.

- *lebatza ekar dauie kalatik zemat kure!*
- *dirue nik? Zemat kure!*

## ZEPAITXE

Zerbait.

- *zepaitxe eiñ dxatzo ezta etorri biarrera ta*
- *asarratu eiñ dxe, bestiek zepaitxe esan tso ta*
- *zepaitxe erosi biar dauela ta, dendara dxun da*

**zerbait** → **zepaitxe**.

## ZER DAN EDO ZER EZTAN

Informazio bila.

- *dxakin dxunien zer pasaten dan, bertara dxun gariez zer dan edo zer eztan obeto dxakitzeko*
- *zer dan edo zer eztan entera arte ez gara mobiduko*

## ZER DATOR MENDI GORRITXIK BERA

Harridurazko esaldi hau, luzea izan arren normalki erabiltzen zen duela gutxi, gaur eskasagoa da erabilera.

- *zer dator mendi gorritzik bera! Noixik zu olan elegante dxantzitze?*
- *zelako kotxie erosi dauien ikusi dozu? Zer dator mendi gorribdk bera!*
- *zer dator mendi gorritzik bera? Ba loteridzek urten dostela*
- *e? Zeu zapata barridzekaz da, e? Zer dator mendi gorritzik bera*

## ZER... ETA ZER... ONDOKUEK

Ze otxokuarto!

- *zer da zer Bilbo ondokuek, zeu tire gure bazu, baie ni ez eruen*
- *ama dirue ekau. Ze diro da ze diro ondokuek, ez dotsut emoten dirorik*
- *telebisiñue gure dot ikusi nik. Ze telebisiño da telebisiño ondokuek, eztau telebisiñorik*

## ZEREIKUSIKO / UE

Ederra, handia, harrigarria den zerbait.

- *zerikusiko erlojue erregala tsuie, zeure egune ezan da la?*
- *zelako txaleta eñ dxau zure lagunek; zerikusikue alabatxi*
- *atzo emon dauen pelikulie zerikusikue ezan da*

D.A.R.k Bermeoko Ortuzarren zita bat aiparten du, beraz, Bermeon jasotakoa da hitz hau. Gaur egun, gazteen artean entzuten ez bada ere, erabilera oso zabala daukate hiru formek.

## ZERENTENIDUEK

Harremanak. Nolabaiteko erlazioa izan.

- *zerenteniduek dakoz aregaz mutillegaz ela?*
- *bai, zerentenidu andidzek takoz, eztaitx noizik baie*

## ZEREÑEKIDXEN / ON

Konturatu gabe zerbait egiten aritzea. Zerbait egitearren.

- *zereñekidxen asi ta gero dana akaba*
- *zereñekidxon zereñekidxon, dxan da dxan, da biberak akaba*
- *amen zauzen arte, zereñekidxen jersie eingo dostazu*
- *aiuntamientuen be alan oten diez, zereñekidxen biarrien*

**zereginen → zerekinean → zerenekian → zereñekidxen.**

## ZERIKUSIDXEN

1. Ikusgarria. Harrigarria.

- *eztau zerikusi andirik, dxaidzek ezan da be*
- *ba Gernikeko dxaidxetan zerikusidxe ezan da ba*
- *aren ezkontzie zerikusidxe ezan da alabatxi*

2. Ederto. Primeran.

- *zerikusidxen ein tsu erropie alatrú*
- *atzo añ dxoten tartiek zerikusidxen urten dost*

- *zerikusidzen pintxe tsu etzie pintoreruek*

## ZERKILLO

Zirrikitu.

- *zerrickuetatik datorren aixie...*
- *ondo sarratu zerkillo guztidzek zaratarik ez entzuteko*
- *zerrickuetatik eskapatzen dau berotasun danak*

## ZEROIE LEZ PUZKE

Katxalote. Konparazioan erabiltzen da.

- *zeroie lez dator puzkadaka*
- *zer zara ba, zeroie zara orrenbeste zarata eitzeko la?*
- *zeroi txikitxu baten antza dako zu*
- *zeroiek Izaron atzien lo, ta zu eurek lez, zu be lo*

## ZIDXAU / E

Ziaboga. Konparazioan, pertsona, animalia edo kotxe batek horrelako zerbait egitea.

- *zidxauek txarto urten tsoie da denpora asko galdu dauie*
- *orrek kotxiek zelako zidxaue eñ dxau ba*
- *astue be trankill trankill dxun da beran bidien, baie ikusi dauenien, berak pe zidxaue eñ dxau*
- *da arek, neu ikusi nauenien zidxaue eztau eitzen?*

## ZIDXE

Zirikatu.

- *beti zabiltzez neu zidxeten, zeitxik eitzen zu ori ba?*
- *zidxeten zidxeten ibillitxe be eztau eitzen ein bi dauena*

## ZIENTZI / DXE

Adimena.

- *zientzi bako personie da, eztako ganorarik*
- *neu bixi naien artien artun zientzidxe gero*
- *aspaldidxon zientzidxe be galdute nabill*

Gaztelerazko **ciencia** hitz farfailsua erabili da beste izen hori sortzeko.

**ciencia** → **zientzia** → **zientzidxe**.

## ZINGELEKUE

Jaka eta berokiek atzealdean izaten duten irekidura.

- *atziñe eruten zan dizen erropak datoz modan, zingelekodun dxakiek eta abriguek*
- *neuk pe badakot zingelekodun abrigo bat, atziñekue*
- *andrak! Atara zingelekodun erropa guztidzek, modara dxungo gariez da*

## ZINTXIE

Zartada Kolpea. Bronka.

- *arek atara dosten zintxie, telebisiñue dala ta eztala*
- *emoten tsuten zintxiegaz beie be dxo eingo zu*
- *neu pe zintxie atara bikot neuk kure dotena eitxeko*

Gaztelarazko **cinta** hartu eta jasan dituen fonetikazko aldaketari esker, hitz berri bat sortu da.

## ZIRIZIRIDXE

Tobogan.

- *ziriziridxetara baguez, olgetan ibilko gariez*
- *onek, frakak ekar dostez apurtute ziriziridxetan ibillitxe*
- *e zuez geidrau ziriziridxetara eztot eitxen dxaboitxeko be ta*

## ZIRIZIRIKE

Irristadan. Laprastadan.

- *zirizirike dxun da andik bera, bera kotxie*
- *miñ eiñ dxot popan, zirizirike ibill gariez da arri bet dxo dot*
- *eskillaratan pinkidxe dakoie tez, zirizirike dxun nai eskillatetik bera*
- *euridxe danien, Lameran zirizirike ibiltxeko moduen oten da*

Azkuek Mundakan jaso du, baina jokoa dela dio, beraz, zentzua ez da berdina.

## ZITXELA

Zitala.

- *kontuz horregaz morroiegaz zitxela da ta!*

## ZIRRIZARRA / IE

Katarro bat dagoenean eta bularreko estua genatzen denean sortzen den zarata.

- *zirrazarra andidxe dakot, zeuzer artun biarko dot*
- *zirrizarrie bigunduteko bedarran kataplasmie imiñi*

## ZOKILLE

Pertsona dorpea. Trauskil.

- *zelako zokille da ori mutille, nobidzerik pe eztau okingo*
- *zokille ezan da beran bixi guztidxen*
- *zokille lez dxan, zokille lez ibilli, da zokille lez ilko da*
- *aldiano zokille dozu, da berak pentsaten dau zeuzer dale*

Zokila lur-zati handi eta gogorra da. Horregaitik, askotan, **zokil** hitzari **aldeano** hitza gehitzen zaio.

## ZOLTZIÑE

Zoldu egitea. Itzemin.

- *zoltziñek urten dost surren*
- *orrek zaldarrak zoltziñera ekartie bi dau*
- *zoltziñek miñ andidxe emoten dau, baie ariñau osatuko dxatzu*

**zoltze** → **zoltzia** → **zoltzina** → **zoltziñe**.

## ZOR DA ARTURENAK

Kontuak egiten direnean erabiltzen da.

- *zor da arturenak zemat dizen ikusitxe, orduen ikusiko du ze diro geratuten dan*
- *kitxu kitxuten urten du, zorrak eta arturenak igualak ezan dizelakon*

## ZORIGOGORREKO MARTA

Hau zoritxarra! Enebada!

- *zer esan dauie, azidentie on dala? Zorigogorreko marta, neure semie ezango da*
- *zorigogorreko marta! Zer da beronegaz imiegaz ein biar dotena ba?*
- *egualdi txarra dakar da gixonak itxosuen, zorigogorreko marta, ze ikusteko gauz!*

## ZORRI ILLE BIZTUE

Aberats berriak.

- *zer diño orrek ba? Prosperata dauela? Bai ba, zorri ille biztute dakozu ori*
- *aspaldidxon on dizen irebazidzekaz, atzerantz eñ dxauie zorri ill bizin guztidzek*
- *baie esaten dauie, zorri ille biztue txarrena dala*

## ZORRIBIZTUE

Aberats berriak.

- *hori zorribiztue, atzorarte kaka jaten ibili badan zer dakar oin*
- *aberatsa ein danetik hori zorribiztue eztau aman semerik aguantako dauenik*

## ZORRIZTO

Gaur egun ez dago zorririk, edo, behintzat oso gutxi ikusten da. Baina garai bateko miseria hori kontutan izanda, gaurko **aberatsei** aplikatzen zaie, hau da, garai baten pobreak izan, eta orain ere pobreak izanda dirutsuak moduan agertzen direnei.

- *bestelako zorriztue da berori, da okiñ ez dxateko be*
- *zulako zorriztuekaz eztot kure tratorik*
- *or famelidxen danak tiez arro zorrizto batzuk*

## ZOTZ BATEITXIK

Txikikeriengatik.

- *zotz bateitxik asarratu diez, da eztau inor bakerik eingo dauenik*
- *ene alabie! Zotz bateitxik asarratutie be*
- *auntxe be zotz bateitxik zauzie alkarren ala*

## ZOZO / UE

Zakil.

- *zozue ikusi tsat areri gizonari*
- *da zer, zeuk pe zozue eztakozu ba?*
- *ondo gorde zozue, katuek dxan barik*

Berriro ere txori baten izena erabili da beste izen bat deskribatzeko.

## ZOZOLIÑUE

Umeen zakiltxoak.

- *zozoliñotxue atara txixe eitxeko*
- *ama nik eztot kure bañerara sartun zozoliñue ikusten dxast eta*
- *ba zozoliñue ez ikusteko fraka ta guzti sartun bañerara*

**Zozo** hitza diminutiboan jarrita erabilizen da.

## ZUEZGORA

Zuriz gora, Hau izango litzateke hitza. Konparazioan erabiltzen da, esaterako begiak gora begira jarri ezker, begiko zuria besterik ez da ikusten. Arrainak,

gora begira jartzen direnean tripa zuria ikusten zaie eta hau dirdaitso agertzen da.

- *begidzek zuezgora on da tunbeta beringanien, illen antzagaz*
- *urregorritzko gauzek ikusten dotezenien begidzek pe zuezgora paraten dxastez*
- *an, para da zuezgora, oraiñ ez esan iñok pe ezebe*

## ZUK TAKOZU ARUE

Zelakoa... Gaztelerazko **torta** izango litzateke.

- *nok esan dotsu zuri ni enaiela etorriko, arek? Zuk dakozu arue, zelan enai etorriko ba?*

## ZUK TAKOZU ATZA

Zelakoa... Gaztelerazko **torta** izango litzateke.

- *amar metro tela biarko dozule kortiñie eitzeko? Zuk takozu atza, baitxe hogei metro be*

## ZUK TAKOZU BREKEKE

Sinistu ere ez. Gaztelerazko **torta** izango litzateke.

- *enebada! Zuk takozu brekeke, Gabonak ganien da ondiño olentzeroko erropak eitzeko*

## ZUK TAKOZU MUNDUE

Gaztelerazko **torta** izango litzateke.

- *zuk takozu mundue! Santainfanzian bizi zara, zeure libruek eta zeure diskuetatik urten be eztozu eitzen*

## ZUMURUTUE

Pertsona serioa, barnekoia. Uzkurra.

- *gure aitxite total zumurutue ezan da, moso bat pe ez dotsu emoten ezan*
- *ori mutille zelako zurumutue da, barrerik pe eztau eitzen*

## ZURRUPURRUE

Katarroa dagoenean arnasa hartzeko eragozpena dagoenean, batez ere umeetan.

- *onek imiek zurrupurrue dako*
- *zurrupurruentzat eukalito lurrune da ona*